

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA
1990

EUSKARA, EUSKALDUNON HIZKUNTZA

Joseba Intxausti



EUSKO JAURLARITZA

LEHENDAKARITZAREN IDAZKARITZA

HIZKUNTZA POLITIKARAKO IDAZKARITZA NAGUSIA

EUSKARA, EUSKALDUNON HIZKUNTZA



VITORIA-GASTEIZ, 1990

EUSKO JAURLARITZAREN ARGITALPEN-ZERBITZU NAGUSIA
SERVICIO CENTRAL DE PUBLICACIONES DEL GOBIERNO VASCO



1987ko udan, II. Euskal Mundu Biltzarraren atarian, ekin zion **Euskal Hitz**, euskararen erakusketa ibiltariak, Euskal Herria arakatzeari. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak **Euskal Hitz** deitzen dugun hau sortzea erabaki zuenean honako hauxe nahi zuen: Euskal Herriak berezkoa duen hizkuntzak mendeetan zehar egin duen bide luze bezain malkartsuaren berri eman, eta etorkizun dena urratzeko zein bide-gurutzetan gauden gizarte zabalari adieraztea.

Euskararentzat amets dugun etorkizun oparoa lortzeko gauza askoren premia dugu. Behar-beharrezkoak ditugu egitasmo zehatzak, urrats eta neurri jakinak, nahita nahiezkoak lege eta arauak, diru eta baliabideak. Horretarako daude Erakundeak baina horretarako, jakina, ezinbestekoa da euskaldun izanez iraun nahi duen herriaren borondate sendoa. Euskaingintzak, besteak beste, ilusioa, adorea, euskararenganako atxikimendua erein behar ditu gizartean. Euskararen aurkako etsaiak gutxitu eta lagunak ugaltu egin behar ditu.

Euskara guztiona dela aldarrikatzen dugu, gizartearentzat euskara aberastasun eta ondasun dela aitortzen dugu batzuk eta besteok. Baina sarritan, zoritxarrez, jokabidea ez dugu izaten gure artean mezu eta adierazpenen ispilu.

Euskarari, zuzpertzeko, gatazka eta politizazio giroa ezarri nahi bait dizkio zenbaitek eta euskal gizarteak euskara bere-beretzat hartzea nahi badugu gatazkek eta politizazioak mesede gutxi ekarriko dio. Gizartean dauden tirabira, ondoez, istilu eta arazoak euskarari txertatzeak euskara bera baliorik gabe utz dezake eta batzuentzat maitagarri eta besteentzat gorrotagarri bihurtu. Euskarak berezko balioa behar du bizitzarako. Bere-beretzat, aberastasun eta aberasgarritzat duen gizartean, kultura, jakintza eta komunikaziorako tresna bilakatu behar du.

Hori ez dugu beti bare-bare lortuko. Kontuz jokatuta ere olatu bortitzak altxatzen dira, baina ezinbesteko gatazken bildurrez ezin dugu amore eman edozertan. Ez dezagun inork sekula ahaztu Koldo Mitxelenak esana: euskara ahulegia dela armatzat hartzeko.

Joseba Intxaustiren buru jantzi eta jardun adoretuari zor zaien **Euskara, euskaldunon hizkuntza** liburuak izena eta izana bere baitan bete-betean bildu nahi lituzke. Eusko Jaurlaritzaren Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusiak ez du etsi lan bikain hau argitara emateko baliabideak eskuratu arte. Izan ere zerbait edo norbait maite izateko ezagutu egin behar bait da. Euskara ere bai. Eskuetan duzun liburu honek hortantxe laguntzea gura nuke bene-benetan.

1990.eko otsaila

M. KARMEN GARMENDIA LASA
Hizkuntza Politikarako Idazkari Nagusia

Aurkibidea

- 9 Atarian.
- 13 HIZKUNTZARI OMEN ETA KANTA.
- 25 ATARIKO LEHEN AURKEZPENAK.
- 41 HISTORIAURRETIK ERROMAREN ERORIKOA ARTE.
- 53 EUSKARA, ERDI AROAN.
- 67 EUSKARA, ARO MODERNOAN (1545-1789).
- 105 EUSKARA, ARO GARAIKIDEAN (1789-1936).
- 147 BERROGEITAMAR URTE (1937-1987).
- 202 Azken Gogoeta.
- 205 Aurkibide orokorra.

Atarian

Liburu hau **Euskal Hitz** da: ongi etorria, irakurle bisitaria. Ezagunak gara agian dagoeneko; beharbada noizbait elkarrekin topo eginak ere bai, nork daki, **Euskal Hitz** Erakusketa horretan.

Izan ere, liburu honen funtsa hilabetetan ibiltari ibili den Erakusketa haren lehen agerralditik bait dator (1987, abuztua). **Euskararen I. Erakusketa Orokorra** bezala eskainitako hark bizitza luzea izan du geroztik; bi urte bete ditu, 40/50 erakustalditan eta 100.000tik gora bisitariarekin. Herrietako erakunde, kultur talde eta euskaltzaleek ez diote batere harrera txarrik egin. Eskerrik asko guztiei.

Bisitari eta adiskide askok eskatu digu **Euskal Hitz**-eko edukin testual eta grafikoak liburu erabilgarriren batean argitara emateko. Eske horrek eztenkatu gaitu, hortaz, argitalpen hau prestatzera, herriz herri eskaini duguna, eskolaz eskola eta etxez etxe ere joan dadin.

Hala ere, liburu honetan bildu duguna ez da, beste gabe, Erakusketan aurkezturikoa. Liburutarako moldatzean, testua egokitu egin da, eta lehengoaren haria galdu gabe, gidoia osabete egin nahi izan da; baina, hizkuntzaren hainbat alde ezberdin ukitzen bada ere, guztietan *flash* bizi eta laburrez argitzen da horietako bakoitza. Argibide orokorrenak bildu nahi izan direnez, ez zegoen gehiagotarako modurik.

Liburua, euskararekiko lehen hurbilpenerako herritarren **vademecum** erabilgarri bilakatuko balitz, edizioaz arduratu garen guztiok ongi ordainduta

geratuko ginateke. Eta, horrekin, esanda dago gure asmoa: dibulgazio-eginkizuna duen sintesi xume baten gisara ikusten dugu liburu hau.

Gogo horri jarraiki, ikuspegi guztiz ezberdinetatik begiratzen da hemen hizkuntza, eta, horregatik, alde on bat bederen aurkituko du irakurleak: hainbat jakin-eremu eta liburutan sakabanatutako xehetasun galduak batera topa ditzakeela ondoko orrialdeetan. Ikuspide orokor horren ondorioz, edozein jakitunek murriztegia ikusiko du bereari dagokiona. Baztertu ditugun hautagarriak ainitz izan dira, noski, eta aukeratu ditugunak ongi kostata aukeratu ditugu; baina lehen hastapenak emateko zabalkunde-liburu bat, ezin zitekeen horrelaxe baizik egin: asko hautatuz, eta asko baztertuz.

Testua lantzean, geure ezjakintasunaz ongi jabetzeko egokiera izan dugu. Kapituluxka bakoitzean lur ezezagun berriak begiratu behar izan ditugu, begiratu eta ikasi, ikasi eta laburbildu. Ehundaka autore eta idazle argirekin gara zorretan.

Eta, horien lagunarte onean, aitortu beharrean gaude: puntuz puntu eta atalka doanak ez du originaltasun berezirik aurkituko liburuan, ez bait da berau originaltasun horren bila idatzi. Hala ere, aurkezpenaren osoan, saiatu gara hizkuntzaren ikuskizun berri bat ematen. Marraztu den paisajea, zuhaitz-mota ezagunak aurkituko dira, betidanik ikusitako ibaiak, ohizko bide eta parajeak, auzolagun zaharrak..., baina hizkuntzaren filme honek, bere osoan, material ezagun haien muntaia berria behintzat izateko asmoa du.

Liburuaren helmugak paisajea eta filmea aipatuz azaltzean, argitalpen honen balio propio batera gatoz: Euskararen ikonografia sozio-historikoa, aski zabala, bildu dugu orrialde hauetan. Hizkuntz historiaren irudi-zehaztasun honek ezohizko indar bizigarria eman diezaiokeela, uste dugu, testu-informazioari. Liburuaren baliorik onenetakoa da irudien hau, zalantzarik gabe, hizkuntzaren alde soziala bortizkiago azpimarratua gertatzen bait da horrela.

Irudietatik testura etorritz, beharrezkoa da ohar bat egitea: Bi irakurbide parekide bildu ditugu. Bi irakurbide diot, elkarren parean doazen bi irakurkizun, alegia: Bata, testu korrituan doa zutabe testual parekidetan; bestea, irudien oin-oharretan emanda dago. Biak elkarren osagarri dira, noski, baina bakoitza bere gisara irakur ezinik ere ez dago, *euskararen berri onak* ezagutzeko.

Euskaldun arruntak —helduak, alde batetik, behar ziren albisteak ukatu zitzaizkiolako; gazteagoak, bestetik, gramatika- edo literatur informazioak baizik izan ez dituelako— ez du eskuratu ahal izan, eskierki, bere hizkuntzaren ikuspen sozial sistematikorik. Neurriren batean, hutsune hori betetzen hasteko pentsatu da eskuartean daukazu argitalpena, eta, horregatik hona dakargun *diskurtsu* historikoa batez ere soziolinguistikoa dela esango genuke. Filologiaren ekarriak ahantziezinak badira ere, ez da alor hori izan liburuan arreta bereziagoz aintzakotzat hartu nahi izan dena. Hizkuntzaren alde soziokulturalek dute orrialde hauetan lekurik zainduena.

Gaurko irakurlegoari begira, hizkuntzaren elkarrizketa soziala argitu eta laguntzeko ere idatzi dira ondoko kapituluak. Iragana errealismoz erakutsi nahi izan da; egungo egoeraz ez da baikortasun hutsalik sortu gura izan, baina ez gara itxarokizun liratekeenak alde zurretik itzaltzen ahalegindu ere.

Historiari eta orainari behatuz, baliozko bi baieztapen nagusi daude liburuan irakur litezkeenetan: Euskaldungoa, bere euskaltzaletasunean, buru-bihotzak argiagotuz eta indartuz joan dela, mendeetan zehar (behar hainbat ez izanarren), eta, Historiako arrazoi ilun eta oraindik gutxi ezagunei ezezik, borondate argitu horri ere zor zaiola gaur egun euskara bizirik izatea. Eta bigarrena: Herri eta hiztongo baten iraun-ahalmena sakonean datorren egiturazko korrante iraunkorra dela. Orain, gure belaunaldian, ikusi egin behar, beraz, gogo argitu hark eta indar sakon honek, elkartuta, geroa irabaz diezaguketen, ala ez.

Bukatzeko, eskerron-agerpena zor diedanentzako bi hitz. Asko izan zarete argibideak ematen bihotz-zabalki saiaturakoak: guztion zerrenda ezin hemen bildu. Aipatu ere egin barik geratu den bibliografia ugariaren idazleen lanik gabe, orobat, ezinezkoa izango zen lantxo hau. Idazleen ondoan, unean uneko hainbat argi-emaile ezin dut ahantzi. Idatziz edo telefonoz, xehetasun ainitz jaso ahal izan dut beroriei esker (data bat, estatistika jakingarri bat...). Inor bereziki aipatzea, denoi bidegabekeria egitea izan litekeelako, bego aitorten horretan zinezko nere eskerrona.

Euskal Hitz-en lankide eta babesle izan diren guztiak ere gogoan ditut. Dagokien tokian emanak dira izenak. Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak eskainitako laguntzarekin batera, badago horrelako Erakunde bati are gehiago eskertzen zaion zerbait: liburuaren mezuari eta beronen agermoldeei izan dien begiramendua. Eskerronez ari naizenez: Esker mila guztioi, denok banan-banan gogoan zaituztedanoi.

Horiek horrela, liburuaren autore-erantzukizunak nereak dira, ez besterenak. Hamaika aldetatik, kritikakizun izan daitekeen obra honen egilea erabat irekita geratzen da ikusle, irakurle, kritikari eta jakitunen ohar zuzengarriak eta ñabardura osagarriak jasotzeko, hain zuzen, iritsi, beroriei esker iritsi ahal izango bait da azken buruan liburu hau bere heldutasun hobera.

Joseba INTXAUSTI



Contrapas

Heufcara ialgui adicãpo

Garacico herria

Benedica dadila

Heufcarari emandio

... hornu y 2.



HIZKUNTZARI OMEN ETA KANTA

Berceac oroc iñan dira
Bere goihen gradora
Oray hura iganenda
Berçe ororen gaynera.

Heuscara.

ETXEPAREren
ASMO EUSKALTZALEAK:
Kontrapasa (1545)



Hizkuntzaren ohoretan idatzitako olerki hau (autoreak "Kontrapas" bezala izendatua) euskarazko lehenengo liburu inprimatuan agertu zen, asmo berarekin ondutako "Sautrela" poemarekin batera.

Etxeparerengan suma dezakegun hizkuntz herritarrekiko idazle-harrotasun hau Ernazimentuko beste idazle askorena ere bada, eta, alde horretatik, guztiz bere garaiko semea zen gure lehen idazle ezaguna. Hain zuzen ere, gure Etxepare bizi izan zen hamarkada haietan geratu zen sozialki erabakita, herri-hizkuntza nagusienak bederen kultur lanabes izango zirela (1520-1560). Orduan segurtatu zen, latinaren kaltetan, frantsesaren, italiararen, gaztelaniaren edo ingelesaren etorkizun sozio-kulturala. Alemanak eta beste zenbaitek, ordea, lehenagotik zetorren latinarekiko menpekotasun kultural hura gainditzeko, artean mendeak behar izan zituzten.

Etxeparek, idaztean, bere ama-hizkuntza euskararengan erakutsi nahi izan zuen beroni ukatu nahi zitzaion gaitasuna. Eta, bere lehen liburua burutzean, egindako ahaleginak merezi izan zuela uste du idazleak, olerki honek erakusten digunez.

*Heuskara,
ialgi adi kanpora.*

*Garaziko herria
benedika dadila,
heuskarari eman dio
behar duien thornuia.*

*Heuskara,
ialgi adi plazara*

*Berze jendek uste zuten
ezin skriba zaiteien;
orai dute phorogatu
enganatu zirela.*

*Heuskara,
ialgi adi mundura.*

*Lengoajetan ohi inzan
estimatze gutitan;
orai aldiz hik behar duk
ohoria orotan.*


*Heuskara,
habil mundu guzira.*

*Berzeak oro izan dira
bere goihen gradora;
orai hura iganen da
berze ororen gainera.
Heuskara.*

*Baskoak orok preziazten,
heuskara ez iakin harren;
orok ikhasiren dute
orai zer den heuskara.
Heuskara.*

*Oraidano egon bahiz
inprimatu bagerik,
hi engoitik ebiliren
mundu guzietarik.
Heuskara.*

*Ezein ere lengoajerik
ez franzasia ez berzerik
orai ezta erideiten
heuskararen parerik.
Heuskara,
ialgi adi danzara.*



ERNAZIMENTUKO IDAZLEAK

Gutxienik Dante-ren (1303) garaietatik zetorren eztabaida areagotu egin zen Ernazimentuan: Latina ala herriko hizkuntzak erabili behar ziren kultur zereginetan? Hizkuntza herritarrok kultur lanetarako lain bai ote ziren, gero? Ainitzek, artean ere, ukatu egiten zizkien haiei horretarako gaitasun-duintasunak.

Latinarekiko atxekimendua eta kultur balorazio politikoa (eta, bitxia dirudien arren, inoiz nazionala ere) Ernazimentuak zuzpertz egin zituen humanisten artean. Ez dago ondoren datorren L. Valla-ren testu hautatu hori irakurri besterik (1444).

1520-1560. urteetan, gaiztotu egin zen ernazentista latintzaleen eta herritartzaleen arteko eztabaida hura, izan ere teoria akademiko zaharren ondoan, orduantxe indartu baitzen praxi erabakiorrago bat (Erreformaren Bibli itzulpenak, edo Monarkia handien zenbait erabaki, edo intelektual ausartenen burubidea). Askorentzat garaiko latin berrituak abantaila ageriak zituen, bere baliagarritasun teknikoagatik ezezik, nazioarteko zabalkunde-tresna sozial bezala ere (Erasmok, esate baterako, berari esker Europa osoan zituen irakurleak).

Handia da, beraz, latinaren ikurra, handia zalantzarik gabe hainbat mendetatik hona atzerritarren, barbaroen, etsaien aurrean jaieraz eta erlijioski zaintzen den horren jainkozko ahalmena, eta gu erromatarrok ez gaitezen horretaz damu, munduaren aurrean poz eta loria baizik. Galdu genuen Erroma, galdu erreinua, galdu genuen dominioa, eta ez gure erruz, garaien halabeharrez baizik; hala ere, beste erreinu oraindik distiratsuago horrekin errege gara munduko hainbeste lekutan. Gurea da Italia, gure Galia, gureak dira Espainia, Alemania, Panonia, Dalmazia, Iliria eta beste nazio asko. Izan ere, hizkuntza italiarra nagusi den tokian (=latina), han dago Inperio Erromatarra.

Lorentzo VALLA
Elegantiae Linguae Latinae, 1444

Quando bien conmigo pienso, mui esclarecida reina, y pongo de-lante los ojos el antigüedad de todas las cosas que para nuestra recordación i memoria quedaron escriptas, una cosa hallo i saco por conclusión mui cierta: que siempre la lengua fue compañera del imperio, i de tal manera lo siguió que junta mente començaron, crecieron y florecieron i despues junta fue la caída de entrambos.

Antonio E. de NEBRIJA
Gramática Castellana, 1492

Grécia e Roma só por isto ainda vivem, porque quando senhoreavam o Mundo mandaram a todas as gentes a eles sujeitas aprender suas línguas e em elas escreviam muitas boas doutrinas, e não somente o que entediam escreviam nelas, mas também trasladavam para elas todo o bom que liam em outras. E desta feição nos obrigaram a que ainda agora trabalhemos em aprender e apurar o seu, esquecendo-nos do nosso. Não façamos assim, mas tornemos sobre nós agora que é tempo e somos senhores, porque melhor é que ensinemos a Guiné que sejamos ensinados de Roma, ainda que ela agora tivera toda sua valia e preço. E não desconfiemos da nossa língua porque os homens fazem a língua, e não a língua os homens. E é manifesto que as línguas grega e latina primeiro foram grosseiras e os homens as puseram na perfeição que agora têm.

Fernão de OLIVEIRA
Grammatica da Lingoagem Portuguesa, 1536

Nostre Langue n'ha point eu à sa naissance les dieux & les astres si ennemis, qu'elle ne puisse un jour parvenir au point d'excellence & de perfection, aussi bien que les autres, entendu que toutes Sciences se peuvent fidelement & copieusement traicter en icelle, comme on peut voir en si grand nombre de livres Grecz & Latins, voyre bien Italiens, Espaignolz & autres, traduictz en Francoys par maintes excellentes plumes de nostre tens.

Joachim du BELLAY
Deffense de la Langue François, 1549

La lengua que Dios y naturaleza nos ha dado no nos deve ser menos apazible ni menos estimada que la latina, griega y hebrea, a las quales creo no fuesse nuestra lengua algo inferior, si nosotros la ensalçásemos y guardássemos y puliésemos con aquella elegancia y ornamento que los griegos y los otros hacen en la suya. Harto enemigo es de sí quien estima más la lengua del otro que la suya propia.

Cristóbal de VILLALON
Gramática Castellana-ren autoreak, 1558

Unos se maravillan que un teólogo, de quien, como ellos dicen, esperaban algunos grandes tratados llenos de profundas cuestiones, haya salido a la fin con un libro en romance. Otros dicen que no eran para romance las cosas que se tratan en estos libros, porque no son capaces de ellas todos los que entienden romance. Y otros hay que no los han querido leer, porque están en su lengua; y dicen que si estuvieran en latín los leyeran. [...].

Y esto mismo, de que tratamos, no se escribiera como debía por solo escribirse en latín, si se escribiera vilmente: que las palabras no son graves por ser latinas, sino por ser dichas como a la gravedad le conviene, o sean españolas o sean francesas. Que si, porque a nuestra lengua la llamamos vulgar, se imaginan que no podemos escribir en ella sino vulgar y bajamente, es grandísimo error; que Platón escribió no vulgarmente ni cosas vulgares en su lengua vulgar. [...].

Mas a los que dicen que no leen aquestos mis libros por estar en romance, y que en latín los leyeran, se les responde que les debe poco su lengua, pues por ella aborrecen lo que si estuviera en otra tuvieran por bueno. Y no sé yo de dónde les nace el estar con ella tan mal, que ni ello lo merece, ni ellos saben tanto de la latina que no sepan más de la suya, por poco que de ellas sepan, como de hecho saben de ella poquísimo muchos.

Fr. Luis de LEON
Los nombres de Cristo, 1585

Boterea eta kultura biziena, ordea, bestelako bidetarik joan ziren. Guztiaren ondorioz, ondoko mendeetarako hobetsita geratu zen hizkuntza herritarren aldeko hautabidea.

Hiru hizkuntzari dagozkien testuak aukeratu ditugu hemen (gaztelania, portugesa eta frantsesa). Nebrija-rengandik (1492) Fray Luis-enganaino (1585) doan mendea batzuentzat ez zen aski izan herri-hizkuntzekiko hau argi uzteko, eta, euskal lehen argitalpenetik (1545) berrogei urte geroagora ere, Fray Luis gaztelaua, *Los Nombres de Cristo*-ren bigarren edizioan, bere burubide kulturala defendatu beharrean aurkitu zen, liburua gaztelaniaz idatzi zuelako.

Honela, ba, euskal Literatura ostots eta oinaztar hauen arteko umea izan zen, eta Etxepare oharturik zegoen horretaz. Garai haiek gogoratuz eta orduko zalantzak guretzat ere argigarri izan litezkeelako dakartzagu hona XV-XVI. mendeetako pentsamendu hauek, batzuek, hain zuzen, Etxepare eta Leizarragaren urte beretsuetakoak.

ARO GARAIKIDEKO ZENBAIT ADIBIDE

Aro Garaikidean ere, norberaren hizkuntzaren alde, bihotzez eta goraki idatzi izan duen olerkari ainitz ezagutu da herri eta hizkuntza ezberdinetan. Antologia oparoa egin liteke, hizkuntza zabalduenetako edo herri txikiagoetako lan literarioekin.

Esandakoaren lekuko ona poesia katalana izan liteke, adibidez: Aribau, Omar i Barrera, Apel·les Mestres, Matheu i Fornells, Arnau i Cortina, S. Espriu, Pere Quart, Foix, Andrés i Estellés eta abarrek abestu dute hizkuntza zigortua. Eta, katalanez eta beste hizkuntzatan, hitz-lauz ere ez da falta izan gai honetaz testu ederrik. Ezaguna da Joan Maragall-en "Elogi de la paraula" ura (1903), edo urtez hurbilago den Pedro Salinas-en "Aprecio y defensa del lenguaje" (1944), arrisku gorrian sarturik dagoen Puerto Rico-ko gaztelaniaren alde sos-deia zabalduz.

Irakurriko ditugun olerkien atariko bezala, hona hemen, bakoitzak bereari begira, Maragall eta Salinas-ek egindako oharpenak, berorien jatorrizko mintzairatan jasota:

Heus aquí, doncs, com al predicar nosaltres l'exaltació de las llengües populars, no altra cosa prediquem que el pur imperi del verb creador, la infinita transformació de la terra en el cel, que és el més fondo anhel del veritable progrés humà. I així, quan la nostra predicació és motejada de rebel, estèril i regressiva, nosaltres podem somriure als nostres enemics amb fermesa serena, i seguir avant predicant la llei del verb, que és la llei del món.
Perquè essent el món creat pel verb, ¿qui, sinó el verb, ha de regir-lo cap al cel? I si el verb que omple la creació es manifesta a través de la terra per la paraula de l'home, que és la suprema expressió de cada terra, ¿qui altre arreglament de les terres pot ésser desitjat, si no és aquell assenyalat per la vida espontània dels llenguatges?

(Joan MARAGALL: *Elogi de la paraula*, 1903).

Nos entendemos y sentimos en común, hoy, porque muchas generaciones de nuestros antepasados fueron entregándose una a otra ese instrumento prodigioso de vivir, en la lenta sucesión de perfecciones, de modo que el idioma ha llegado hasta nosotros más apto que nunca para expresar lo humano. ¿Tiene derecho ninguna generación a descuidar o abandonar esta santa misión transmisora de su lengua, por flojedad o por inconsciencia? [...].

Deber de todo grupo histórico, de toda generación es la transmisión enriquecida de su herencia.

Consume de lo heredado, de ello vive en gran parte, pero su deber es crear, a su vez, acrecer, enriquecer, de manera que a la hora de las cuentas finales el haber común sea más alto. Tan sólo así la humanidad se siente realizada en plena dignidad de su cometido. Este lenguaje que hablamos, nuestro es por unos años, recibido lo tenemos de los hombres de ayer, en él están, apreciables, todos los esfuerzos que ellos pusieron en mejorarlo. Pues bien, este es mi llamamiento: que cuando nosotros se lo pasemos a nuestros hijos, a las generaciones venideras, no sintamos la vergüenza de que nuestras almas entreguen a las suyas un lenguaje empobrecido, afeado o arruinado. Este es el honor lingüístico de una generación humana y a él apelo en estas mis últimas palabras.

(Pedro SALINAS: *Aprecio y defensa del lenguaje*. Río Piedras, Puerto Rico. 1944).

Bi idazle horiek aipatutako erroei lotuz, poesiak abestu du sarritan herriek duten hizkuntz atxekimendua. Hiru lekuko poetiko hautatu ditugu hemen; hirurak herri eta historia linguistiko guztiz aldenduetakoak dira: Alemanaren, portugezaren eta georgieraren aintza eta esketan kantatuak.

Lehenengoa, Klopstock, edo Fichte beste gisa batean, eta abar ahantzi gabe ere, Friedrich Schiller-i hartu diogu (1759-1805), eta hizkuntza alemana gizartean bere kultur betekizun sozial osoa irabazi berria zuen unekoa (c. 1760): nabariak dira hor handikiei hizkuntza alemanaz zuten zabarkariagatik F. Schiller-ek egiten dizkien salakizun kulturalak.

Bigarrenak, bestelako esanahi soziolinguistikoa du. Autorea, Olavo Bilac (1865-1918), puntareneko olerkari brasildarra dugu, hortaz Portugalen kolonia bateko semea, eta hona dakargun haren poema Portugalen eskola-haurrek buruz ikasi izan duten horietakoa da.

Hirugarren poesia, herri txikiago eta jaieraz agian gertuagoa izan litekeen batetik datorkigu: Soviet Batasuneko Georgiatik. Bere hizkuntzaz maiteminduta dagoen herria da Georgiakoa (beti ere, errusieraren arriskuetatik ihesi). Hautatutako olerkia XX. mendeko poeta batena da: Irakli Abaxidze-rena. Honen Rustaveli-ren Urratsetan liburutik hartu dugu, eta 1960an Palestinara egindako bidai-ondoko fruitua da. "Georgia oso-osorik hunkitu zuen olerki honek, bihotzaren sakoneneraino hunkitu ere", dio kritikari batek.

MUSA ALEMANA



Ezein antzinaro Augustiar zegoen lore,
Ezein eskuzabaltasun Medicitarrek zion
Arte alemanari egin irribarre;
Loria ez zen haren arduratu,
Ez zuen garatu bere lorea
Printzeen fabore diztiratan.

Amaren seme aleman handienaren
Tronuak, Federiko Handiaren, babes
Gabe laga zuen, ohorapen gabe;
Loriatuz, bada, esan dezake alemanak,
Gorakiago diezaioke taupada jo bihotzak:
Berak sortu zuen bere prezamena.

Horregatixe arku hainbat garaiagotan,
Horregatik uhin hainbat biribilagotan isuri doa
Bardo alemanen goikanta;
Eta bihotzaren sakon-barnetik iturrika dariola,
Arauen hertsaduraz burlatzen da.

Die deutsche Muse


*Kein Augustisch Alter blühte,
Keines Medicäers Süte.*

*Lächelte der deutschen Kunst;
Sie ward nicht gepflegt vom Ruhme,*

*Sie entsaltete die Blume.
Nicht am Strahl der Fürstengunst.*

E. Schiller

Friedrich SCHILLER (1759-1805)
(Itzulpena: J. Azurmendi)



Lazioko lore lantzaka, ederra,
bat-batera zara aintza eta hilobi:
sorterriko urre, zabor lohi artean,
meatz zakarrean, harkoskotan argi.

Hala maite zaitut, ezezagun, ilun,
hots handiko adar, lira maitagarri,
ekaitzaren dunbots, ziztu hotsa duzu
eta bihotz-aldi samurrenen xera.

Zure indar gordina dut maite eta zure
oihan eta itsaso bizien usaina!
Hizkuntza latz mina sendo maite zaitut.

Zure hotsez esan zidan amak “haurtxo”!
Erbeste beltzeko Camoens-en malko,
oi zu jeinu gaiso, oi maiteño zurbil.

OLAVO BILAC (1865-1918)
(Itzulpena: B. Gandiaga)

HIZKUNTZA PORTUGESA

KATAMON ONDOKO BOZA *
(jhma Katamontan)



■ XOTA RUSTAVELI (XIII mend.)

Tigre-laruzko Zalduna-ren idaztea. Georgierazko obra honen balio klasiko eta unibertsalak ezagunak dira. Hain zuzen, honen espainetan jarri du I. Abaxidze-k (1960) irakurriko den georgierari eskainitako himnoa. (Jerusalen-go Gurutze Santuaren Monastegian aurkitua. N. Thierry-k utzitakoa).

Oi hizkuntza neurea,
ama-hizkuntza,
Oi zu, adimen gurea,
hegaz goraino igoa.

Zu, gure arnasaren bandera handia,
zu, gure zaurientzako miritz ezta,
zu, gure harri arteko kare sendoa,
zu bakarrik zagozkit hilerri ondoan.

Mila senide,
mila adiskide,
gezurra eta egia,
etsaiak eta anaiak
utziak ditut
jada.

Dena amaitu da,
agurtuak ditut hiltzekoak oro,
bakarri zu zara hilezin,
bakarrik zu iraunkorra,
zu, ez besterik
zaitut ezin utzizko,
hilobi-atari honetan.

Jauresten nuen Eguzkia¹,
egunen gozotasunaz
erretzen ninduen sua baino
zu zara, ama-hizkuntza
are eztiagoa,
zu, ene zorion mingotsa,
ene tristura gozoa,
zu, ezer esan gabe
dena dioskuzuna.

Zu, heroien heroia,
jakintsu georgiarra,
lehenagoko oroitze, igarle gerokoa,
pintzel batzutan, zintzel bestetan,
zu, sehaskako himno eta
hilobiko negarra...

Oi Iberiako hizkuntza²,
Oi Tamar-en mintzoa,
Oi zu, adimen neurea,
hegaz goraino igoa,
ama-hizkuntza, mintzaira gurea!

Agian amilduko dira gazteluak oro,
suntsiko, segurki, zelaietan zaldunak,
oroitzapenak noizbait hautsez estali,
aurkikuntzek uste zaharrak baztertuko, agian,
ekaitzak ernamuinak birrin ditzake,
eta eskuek oroikarriak ere lurrera,
bakarrik zu zara iraunkor,
irudi bezalakoa.

Zein denborak ezerez zaitzake
zu, gorputz hilezinezkoa?

Oi hizkuntza neurea,
ama-hizkuntza,
Oi-zu, adimen neurea,
hegaz goraino igoa.

Zu, gure arnasaren bandera handia,
zu, gure zaurientzako miritz eztia,
zu, gure harri arteko kare sendoa,
zu, ez besterik
zaitut ezin utzizko,
hilobiaren aurrean.

Irakli ABAXIDZE (1960)
(Itzulpena: X. Kintana)

ქათამი
სურათი
ქუჩის
ფაოსანი

(*) *Katamon*: Jerusalemeko toki baten izena. Bertan eliza bat dago eta Rustaveli hantxe lurperatu omen zuten. Poema, hortaz, georgiar poeta horren azken bakarriketa bailitzen biribildua da, hil aurretik.

(1) *Eguzkia*: Tamar erreginaren sinboloa, Rustavelik bere poeman maiz aipatua.

(2) *Iberia*: Greziako aintzinako geografoek Georgiari emandako izena, gaur kultismotzat literaturan —poesian bereziki— erabilia.



II



ATARIKO
LEHEN AURKEZPENAK



LELOren KANTA

Erromatarren garaiko gertakariak abestu nahi dituen kanta honek, ikastunen artean eztabaida beroak piztu zituen, W. Humboldt-ek Markinan aurkitu zuenetik (1817). Kanta-gaiaren sasoin berekoa ote zen, gero, kanta bera ere? Gaur eguneko hipotesirik serioenak dioenez, 1529aren inguruan ondua izan liteke, eta ez, inondik ere, K.a. I. mendean egina. Alferrikako eztabaida ozpinduen adibide bat da hau. Beste hainbat herritan gertatutakoan antzera, gurean ere aurreritzi eta legendek sasirik franko sortu dute euskal ikerkizunen bidean, gure herriari eta beronen ondasun preziatuenei antzinatasun eta nobleziarik gorapagarrienak asmatuz inoiz.



EUSKALARIEN NAZIOARTEKO JARDUNALDIAK (Leioa, 1980)

Euskarari buruzko ikerlanen balio zientifikoa, hein handi batean, alzeritrik hurbildu izan zaizkigun jakitunei zor diegu eta batez ere XIX-XX. mendeetakoei (W. Humboldt, L. L. Bonaparte, H. Schuchardt, etab.). Gure jakitunek ere, kanpora ireki ahala, beren lana hobetu egin dute eta euskalaritzan lan maisuak burutu, gainera, behin baino gehiagotan.

EUSKARA

Hizkuntza, alde edo ikuspegi ezberdinetatik begira nahiz deskriba daiteke:

- Kanpotik begiraturaz, edo haren historia soziala aurkeztuz, nahiz duen barruti geografikoa desbrikaturaz, edota hiztunen kopurua eta gizartekera emanez, etab., batetik.

- Era berean, nahiago bada, beraren baitandik, barnetik alegia, barnealdeak erakutsiz: Hizkuntzaren egitura fonologiko edo morfosintaktikoak, hiztegia, etab.

Euskal Hitz Erakusketatik hasita landu dugun testu honetan, euskararen historia eta bizitza soziala ezagutu ahal izango ditugu berezikiago. Kanpoko aldeak begiratuko dizkiogu, batipat: Iraganaldietako bizitza historikoa, eta oraingo alde soziolinguistikoak.

Beste ezertara pasatu aurretik, ordea, egoki izango da, oro har, auzkezpen labor bat egitea, hizkuntza bati buruz egin litezkeen galdera arruntenen batzuk gure gogoe-tara ekarriz. Etxean, lagunartean, edo kanpotarrekin topo egitean, sarritan egiten zaizkigu gure hizkuntza *zaharrarekiko* galdera

batzuk: Noiztandikoa da euskara, non dago gaur egun bizirik, nolakoa dela esango genuke, non du bere hiztungoa, asko al dira euskaraz mintzatzen direnak, bizitza modernorako balio al du hizkuntza horrek?

Galdera horiei erantzuten hasteko sarri-erara-ohar batzuk eskaintzen ditugu atal honetako orrialdeetan:

- Geografiaz esango dugu zerbait: Ingu- rumendu linguistiko europarra, euskaldun- goaren eskualdekatzea...

- Historiaz jasoko ditugu albiste labor batzuk: Euskararen jatorria, geografia historikoa...

- Hizkuntzaren izaeraz azalduko dugu lehen berri laburren bat: Hizkuntzaren egi- turak, tipologia, hizkuntzen arteko sailka- penaa...

Lehen aurkezpenaren ondoren hasiko gara euskararen mendez mendeko bidaldia ikusten, gure egunetararte iritsiz, eta, gutzia burutzean, etorkizunean garrantzizko arazo izan litezkeenak ere zerbait arakaturaz.

Euskara, Europako hizkuntzen artean


Hizkuntzen Europako mapa ez da beti honelakoa izan, eta euskarak orain 3.000ren bat urte hizkuntza ez-indoeuroparrak zituen batipat bere inguruetan.

K.a. III. milakadan, etxetartu-berria zuten zaldiaz eta asmatu-berria zen gurpilaz baliatuz, estepa eurasiarretako biztanle ibiltariak Mendebalderantz hasi zirenetik hona, Europako hizkuntz espazioak bestelako aurpegi bat hartu du, K.a. I. milakadan bereziki: lehengoak alboratu edo itoz, hizkuntza indoeuroparrak nagusitu dira ia Europa osoaz.

Jakitunek egin ohi dituzten hizkuntz sailkapenetan, herri etorri-berri haien hizkuntzetatik kanpo geratu ohi da euskara. Horregatik, Europako hizkuntzen artean leku berezia aitortu ohi diote hizkuntzalariak euskarari: inguruan, behintzat, ez zaio ezagutzen jatorrizko ahaidekorik, eta alde horretatik lagunarte arrotzean aurkitzen da.

Bi familiatako hizkuntzek betetzen dute Europa: familia indoeuroparrak eta uralikoak. Euskara bietatik aparte dago.

1. Hemen ondoan ematen dugun ma-



pan, garairen bateko lehen indoeopera amankomunaren ondoko famili adarrak (germaniera, latina, eslaviera, etab.) kolorez banatuta, eta ondoko adaska bakoitza (alemana, ingelesa, etab.) muga-marraz berezita azaltzen dira. Horrela, Kontinenteko hizkuntza indoeuroparren ahaidetasunak argiago ikus daitezke.

2. Horiez gain, gogoan har dezagun, badi dugula bestelako hizkuntza ez-indoeuropar gutxi batzuk ere: Hungariera, estoniera, suomiera, laponiera... Hauek, familia uralikoaren barnean adar fino-ugrikoan sartu behar dira.

3. Europako hizkuntza indoeuropar eta fino-ugrikoen artean, familiarterik gabe geratzen da, hortaz, euskara: jatorri-ahaidetasunik gabe. Dena den, ikusiko dugunez, horrek ez du esan nahi ingurukoekin harreman soziolinguistikorik gabe bizi izan denik.

EUROPAKO HIZKUNTZAK

Historiatik dakigunaren arabera, gaur eguneko Europako hizkuntzak, ia beti, aurreko mintzaira amankomun baten ondoko dialektokoak dira, azken buruan hizkuntza bezala ere ezagutuak izan direnak. Berorien sailkapena honela egin daiteke:

I. Hizkuntza indoeuroparrak

- 1) Hizkuntza germaniarrak: Alemana, Ingelesa, Daniera, Suediera...
- 2) Grekoa eta hizkuntza erromanikoak (latinetikoak): Portugesa, Galegoa, Gaztelania, Okzitaniera, Katalana...
- 3) Hizkuntza eslaviarrak: Errusiera, Poloniera...
- 4) Hizkuntza baltikoak: Letoniera, Lituania.
- 5) Hizkuntza zeltak: Bretoiera, Irlandera, Eskoziera, Galesera...

II. Hizkuntza ez-indoeuroparrak

Hizkuntza fino-ugrikoak: Hungariera, Estoniera, Suomiera, Laponiera...

III. Bestelakoak

| BIZILAGUNAK ETA EUSKALDUNAK | | | |
|-----------------------------|------------------|-----------------|--------------|
| Eskualdeak | Bizilagunak | Euskaldun osoak | Portzentaia |
| Iparraldea | 233.000 | 70.000 | 30,10 |
| Hiru Probintziak | 2.136.000 | 528.000 | 24,70 |
| Nafarroa | 515.900 | 52.000 | 10,15 |
| GUZTIRA | 2.884.900 | 650.000 | 22,53 |

Datak: EKA (1988), Nafarroa (1988) eta Iparraldea (Barnealdea 1982; Kostaldea 1987). Kopuruak borolbidu egin dira, eta portzentaia jatorrizko balioan utzi. Iparraldeko datuek lduite segurtasun eskasena. Besteak, 1986ko Erroldatik datoz. "Ia-euskaldunak" ez ditugu gogoan hartu

■ EUSKALDUNGOAREN ESTADISTIKAK

Datu estatistiko hauen arabera, bere hitzun-kopuruaren aldetik, urrun dago euskara munduan nagusitu diren hizkuntza handienetatik; baina, mintzatzailez, estoniera, nahuatl, irlandera edo bretoieraren tartean jarri behar da. Gora doan islanderak, aitzitik, 200.000ren bat hitzun izango lituzke bakarrik (1975).

■ Euskal hiztungoa

Euskal Herriaren parte bateko (Euskadiko Komunitate Autonomoko) hiritar guztiei, banan banan, lehenengo aldiz 1981-1986etako Erroldetan galdetu zaie, bakoitzaren hizkuntz egoerari buruz. Gisa berean, 1986ko Nafarrokoan ere egin zen galdera hori. Informazio-iturri horien aldetik, inoiz baino begira-puntu hobean daude estatistikariak, Araba, Bizkaia, Gipuzkoa eta Nafarroako euskaldungoaz albiste zehatz eta xehatuak eman ahal izateko. Oraingoz, Iparraldeaz jakin dezakeguna, bestelako informazio-iturri orokorragotan finkatuta dago.

1986ko Erroldaren arabera, Komunitate Autonomoan 2.136.000 lagun bizi dira: hauetako %28,8 etorkinak dira (616.298 biztanle, EKA eta Nafarroatik kanpo jaiotakoak) eta %71,2 bertakotarrak (1.519.502 lagun). *Gizarte honetako bi hiztungo nagusiak honela bana daitezke: %57,8 erdaldun hutsak dira, eta, gehienak elebidunak izanik, euskaldun osoak direnak %24,7tara iristen dira. EKAko euskaldun osoen portzentaia honi "ia-euskaldunen" taldea gehitzen bazaio (%17,5), euskaldun osoek eta nolabaiteko beste euskaldun guztiek orotara %41,82ko portzentaia egiten dute.*

Lurraldeaz, adinez edo ama-hizkuntzaz

oso ezberdinki banatzen dira bi hiztungo hauek EKArean barnean. Bizilagunen ama-hizkuntzei gagozkiela, %20,4ek dauka euskara bere ama-hizkuntzat, eta %4ek euskara eta gaztelania, biak, aitortu ditu horrelakotzak, beste %73,9 batek ama-hizkuntza bezala gaztelania duen bitartean. EKA edo Nafarroan jaiotzen diren erdaldun direnak %46,8ra iristen dira Hiru Probintzietan.

Nafarroako euskaldungoaren estatistika larrienak beste hauek lirateke, 1986ko Erroldak erakusten duenez. Nafarroak 515.900 bizilagun zituen urte horretan, eta berauetatik 424.558 erdaldun hutsak ziren (%84,58 alegia), euskaldun osoak %10,15 ziren, hau da, 50.953 biztanle, eta hauei ia-euskaldun direnak gehitzen badizkiegu (26.478: %5,28), Nafarroako euskaldun/ia-euskaldunek, biztanleriaren %15,43a egiten dute.

Iparraldeaz dakiguna, esan dugun bezala, iturri eskasagoetatik jaso dezake interesatuak, eta Kostalde-Barnealdeekikoak ezberdinki ezagutzen digutu. Barnealdekoa Siadeco-ren lan batek eman du (1987-1988): 77.594 bizilagunetatik euskaldunak 44.849 dira, hau da: %40,1 oso ongi hitz egiten duena da, %16,7 nahikoa ongi mintzatzen dena eta beste %16,4 bat zerbait edo hitz



batzuk dakizkiena. Barnealdean, biztanleriaren % 25,8 (hots: 20.019) izango litzateke erdaldun hutsa.

Kostaldez dakiguna, beste iturri batetik dator: "Radio France/Pays Basque" k bildu du zenbait berri (1987), baina Kostaldea eta Lapurdi osoa (kostalde eta barne, nahasian) hartuz. Eskualde honetan % 20,8 batek daki euskaraz ongi hitz egiten, edo zerbait. Laburtuz, beraz: Iparralde osoan 70.000ren bat euskaldun dagoela pentsa liteke, eta biztanleriaren % 30,1 dela hori.

Hemen esandakoak ez du ukitzen hizkuntzaren bizitzan garrantzirik handiena duen hainbat alde jakingarri: euskararen erabilpena, funtzio sozialak, hiztunen gaitasun linguistikoak, euskaldunen nahiz erdaldunen hizkuntz jarrerak, etab. Gainera, ez diogu deus, emandako zifra horiek argiagotzeko beharko liritekeen xehetasunei buruz. Bego horrelaxe, oraingoz.

Euskararen lurraldea

Mendeak zehar, euskararen edo, hobeiki, euskaldungoaren lurraldeak aldatuz joan dira, eta gaur eguneko Euskal Herria ezezik, beste lurralde askoz zabalago bat be-

sarkatzen zuten Antzinateko eta Erdi Aroko gizarte euskaldunek. Lurralde haietan oraindik ere bizirik dagoen toponimia euskalduna da historia haren lekukorik egia-tiena. Euskalduntasun haren oroimen historikoa ezabatu den herrietan, lekuizen horiek izan dira, han eta hemen, iraganaldi euskaldun hura egun-argitara ekarri dutenak. Horrelaxe gertatu da, Araba edo Nafarroako hegoaldeetan noski, baina baita Akitanian, Pirinioetan, Errioxan eta Burgos-en ere.

Aldakuntza hauek ez dira, ordea, beti lurra galduz jazo, eta inoiz, euskaldungoarekin batera, euskara zabaldu ere egin da: Erdi Aroko Akitanian edo Pirinioetan gertatutakoaz argitasun gehiegirik ez dugun arren, segurutzat eman behar da euskarak Aro hartan hegoalderantz izandako hedapena. Berhala ikusiko da hori.

Hizkuntzen mapa historikoetan ikus daitekeenez, hizkuntzen lurraldeek aurpegi-modu ezberdinak izan ohi dituzte: lurralde jarraitu eta trinkoak, batzutan; eskualde nabar eta etenak, inoiz; Estaturen baten osoa, eta ez besterik hartuz, halakotan; Estatu-barneak zatikatu edo mugak gaudituz, bestelakotan... Gizarteen patu sozio-kultural eta politikoeak eta Historiaren aldarteek ma-

EUSKARAREN HIZKUNTZ AREA

Modu soil honetan marraztu izan da euskararen barruti geografikoa. Hasteko, soziolinguistek hiru esparru bereizi izan dituzte, hizkuntzaren lurraldea deskribatzean: 1) Euskara erabat galdu duena edo zuena, 2) Ukipen-are, eta 3) Eskualde euskaldunak. Lehen hurbilpenerako mapa honen ondoko kartografia demolinguintikoak xehetasun gehiago eman ohi ditu.



■ NAFARROAKO HIZKUNTZ EREMUAK (1986)

Nafarroako Parlamentuak onartutako Legearen arabera (1986-XII-2), Gobernuaren hizkuntz politika aurrera eramateko, hiru eremutan bereizi da lurraldea. Hizkuntz eskualdekatze hauek, onarpen-uneke egoera soziolinguistikotik, indar politikoan korrelaziotik, historian euskarak izan dituen lurralde-galeretatik nahiz etorkizuneko plangintzetatik begira litezke, gutxienik.



rraztu dute gaur egun atlas historiko batean begira dezakegun munduko hizkuntzen mapa.

Izan diren herri-migrazio handiek, alde batetik (indoeuroparrak edo barbaroak, adibidez Europan; lurralde gutxi-populatuaren kolonizatzaileak, Siberia, Ipar Amerika nahiz Australian...), edo sortutako Inperioek, bestetik (Erroma, Espainia nahiz Britainia Haundiak...), gizadiaren espazio linguistikoak etengabe itxuraldatu dituzte. Gisa beretsuan, zernahi moldetako botere politikok edo eragin kulturalak ere hizkuntzei lurraldeak lapurtu edo zabaldu dizkie, edota hiztungoen ohitura linguistikoak pixkanaka-pixkanaka aldarazi ditu, benetan gizarte hitzun-berrituak moldatuz, eta, ondorioz, hizkuntzarteko lurralde-erlazioak osorik

bestelakotuz. Horrela jaino dira “anglofonia” edo “frankofonia” bezalako kontzeptu demolinguistikoak.

Euskararen kasuan ere, berorren lurraldeak historikoki ulertu behar dira, eta aldakuntza haien mamia gizarte hitzunaren barnean begiratu. Politikan estatuarteko mugak aldakorrek izan diren bezala, eta Estatuan botere-partiketa modu ezberdinetan egiten den antzera, hizkuntzen mugak eta betekizun sozialak ez dira beti eta edonon era berdinetan definitzen.

HIZKUNTZ GAITASUNA ESKUALDEKA : EUSKALDUNAK

1 AIARALDEA: % 5-24 euskaldun

Amurrio Aiera Okondo (% < 5)
Artzniega (% < 5) Laudio

2 AÑANALDEA: % < 5 euskaldun

Azamiñon Lantarón Añana-Gesaltza
Beranturi Erribera Goitia Gaubea
Koartango (% 5-24) Erribera Beitia Zanbrans

3 ARABAKO ERRIROXA: % < 5 euskaldun

Baños Eltziego Moreta
Basitza (% 5-24) Kripan Nabaridas
Blasteri La Puebla de Labarka (% 5-24) Oion
Bilar Lantziego Samaniego
Ekora Leza Uriona

4 ARABAKO LAUTADA: % 5-24 euskaldun

Agurain Burgelu (% < 5) Iruaritz-Gauna (% < 5)
Arratz-Uberrundia Donemilaga Oka-Iruña (% < 5)
Asparren Dulantzi Zaldondo (% < 5)
Barrundia Gasteiz

5 ARABAKO MENDIALDEA: % < 5 euskaldun

Bernedo Kanpezu Maeztu
Haran Lagran Urizaharra

6 ARRATIA-NERBIOI: % 50-75 euskaldun

Arakaldo (% 25-49) Dima (% > 75) Ubide
Arantzazu (% > 75) Igorre Urduña (% < 5)
Arreatza (% > 75) Miraballes (% 25-49) Zeanuri (% > 75)
Arankudiaga Orozko Zeberio (% > 75)
Arteaqa (% > 75) Otxandio (% > 75)

7 BIDASOA BEHEREA: % 25-49 euskaldun

Hondarribia (% 50-75) Iruñ (% 5-24)

8 BILBO HANDIA: % 5-24 euskaldun

Abanto-Zierbena (% < 5) Erandio Ortuella (% < 5)
Arrigorriaga Galdakao (% 25-49) Portuetele
Barakaldo (% < 5) Getxo Santurtzi (% < 5)
Basauri Larrabetzu (% > 75) Sestao (% < 5)
Berango (% 25-49) Leioa Sondika (% 25-49)
Bilbo Lezama (% 50-75) Trapaga (% < 5)
Derio Lolu (% 50-75) Zamudio (% 25-49)
Etxebarri Muskiz Zaratamo (% 25-49)

9 BUSTURIALDEA: % 50-75 euskaldun

Bermeo Errigoliti (% > 75) Morga (% > 75)
Busturia Gautegiz-Artega (% > 75) Muxika (% > 75)
Ea (% > 75) Gernika-Lumo Mundaka
Elantxobe (% > 75) Ibarangelu (% > 75) Sukarrieta (% > 75)
Ereño (% > 75) Mendata (% > 75)

10 DEBA BEHEREA: % 50-75 euskaldun

Deba (% > 75) Elgoibar Mutriku (% > 75)
Elbar (% 25-49) Mendaro Soralue

11 DEBA GARAIA: % 50-75 euskaldun

Antzuola Bergara Leintz-Gatzaga (% > 75)
Aretxabaleta Elgeta (% > 75) Oñati (% > 75)
Arrasate (% 25-49) Eskoriatza

12 DONOSTIALDEA: % 25-49 euskaldun

Andoain Lasarte Urnieta
Donostia Lezo Usurbil (% 50-75)
Errenteria (% 5-24) Oiartzun (% > 75)
Hernani Pasaia (% 5-24)

13 DURANGALDEA: % 25-49 euskaldun

Abadino Durango Lemoa (% 50-75)
Amorebieta-Etxano Elorrio Mallabia (% > 75)
Atxondo (% 50-75) Ermua (% 5-24) Mañaria (% > 75)
Bedia (% 50-75) Garai (% > 75) Zaldibar
Berriz (% 50-75) Izurta (% > 75)

14 ENKARTAZIOAK: % < 5 euskaldun

Arzentales Guenes Turtzioz-Urimazal
Balmaseda Karrantza Zalla
Galdames Lanestosa
Gordexola Sopuerta

15 GOIERRI: % 50-75 euskaldun

Arama (% > 75) Itasondo (% > 75) Segura (% > 75)
Ataun (% > 75) Lazkao Urretxu (% 25-49)
Beasain (% 25-49) Legazpi (% 25-49) Zaldibia (% > 75)
Ezki-Itaso (% > 75) Mutilloa (% > 75) Zegama (% > 75)
Gabiria (% > 75) Olaberria (% 25-49) Zerain (% > 75)
Galdakao (% > 75) Ordizia (% 25-49) Zumaraga (% 25-49)
Idiazabal (% > 75) Ormaiztegui (% > 75)

16 GORBEIALDEA: % 25-49 euskaldun

Aramio (% > 75) Urkabustiz (% 5-24) Zulia (% 5-24)
Legutio Zigoitia (% 5-24)

17 LEA-ARTIBAI: % < 75 euskaldun

Amoroto Ipazter Mendexa
Aulesti Lekelito Muntibar
Berriatua Markina-Etxebarri Ondarroa
Gizaburuaga Markina-Xemeln

18 TOLOSALDEA: % 50-75 euskaldun

Abaltzisketa (% > 75) Belauntza (% > 75) Larrau (% > 75)
Aduna (% > 75) Berastegi (% > 75) Leaburu-Gatzelu (% > 75)
Albiztur (% > 75) Berrobi (% > 75) Legorreta
Alegia (% > 75) Bidegoian (% > 75) Lizartza (% > 75)
Aikiza (% > 75) Eiduain (% > 75) Oresa (% > 75)
Aitzo (% > 75) Hernialde (% > 75) Tolosa
Amezketza (% > 75) Ibarra Billabona
Anoeta Iruerrieta (% > 75) Zizurkil
Asteasu (% > 75) Irura (% > 75)

19 URIBE-BUTROE: % 50-75 euskaldun

Arrieta (% > 75) Gatika (% > 75) Meñaka (% > 75)
Bakio Gorliz (% 25-49) Mungia
Barrika (% 25-49) Jatabe (% > 75) Pientzia (% 5-24)
Fruiz (% > 75) Laukiz Sopela (% 25-49)
Gamiz-Fika (% > 75) Lemoliz Urduliz (% 25-49)

20 UROLA-KOSTALDEA: % > 75 euskaldun

Aia Belzama Zarautz (% 50-75)
Aizarnazabal Errezil Zeatoa
Azkoitia Getaria Zumaiia (% 50-75)
Azpeitia Orrio

OHARRA: Izendegia Euskaltzaindiarenetik hartu dugu; honetan ageri ez direnak izen ofizialak dira. Udalerrietan eman diren portzentalek, beroriei dagokien eskualdekoiki dagoen udal-desbiderazioa adierazten dute. Datuok 1986ko Erroldaren gain landuak dira. Geroztiko udal-banaketak ez dira ageri (Gernika, Iruerrieta).


Euskararen mapa berriak

Hizkuntzen eskualdekatze dialektalak edo soziolinguistikoa begi-bistan jartzeko, eta Erakunde publikoetatik hizkuntz politika ordenatu bat gidatu ahal izateko, batez ere egoera demolinguitikoak aski konplexuak direnean, mapen bidez eskaini ohi da egoera haien deskribapen laburtua. Mapa hauek, sarritan, funtsezko lanabesak gertatzen dira, eta beren isilean, argibide tekniko soilak ezezik, eritzi eta erizpide sozio-politikoak ere izan ohi dituzte, batzutan. Hortik, berauen munta eta joanetorria.

EKAKO HIZKUNTZ ESKUALDEAK

1986ko Erroldaren hizkuntz datuak aztertuz ondoren, Hizkuntz Politikarako Zuzendaritza Nagusiak behin-behineko eskualde-mapa hau prestatu du (1989), Legebiltzarraren mandatu eta eske bati erantzunez eta Euskararen Aholku-Batzordearen laguntzarekin. Berau izango da, hortaz, euskararen normalizazio-plangintzarako eztabaida parlamentariaren oinarriko dokumentua.

Dena den, edozein erataria ere, hizkuntzen *lurraldetasuna* zer-nolakotzea garrantzizkoa izan ohi da, eta euskarari ere hila-bizizkoa gerta lekioko hori, bere etorkizuna segurtatzeko, besterik ezean hizkuntzaren gestio politikoa espazialki definituta eraman ahal izateko.



■ EUSKARA, HISTORIAN ZEHAR

Hizkuntza baten hiztunak ez du beti lurralde bera hartzen: Hizkuntzen historian ez dago erabateko lurralde-finkotasun betikorrik. Euskarak ere gorabehera eta atzera-aurrera nabariak izan ditu. Oro har, atzera egin izan du gehiago, aurrera baino. Mapa hau, behar den zuhurtziaz begiratu gero, sintesi historiko argigarria da. (Añamendi Argitaletxearen EGIPVIik jasoa; B. Estornés Lasa).

Euskal Herrian ere, euskararen eta gaztelaniaren arteko gatazkari irtenbide berri bat bilatzeko onartzen ari diren Lege eta ondokoetan, mapagintzari leku eman zaio. Euskararen Legeak (1986) hiru eskualdetan banatu du Nafarroa, hirurotako bakoitzari, hizkuntz politikarako, nortasun legal berezia emanez. Berehalako urteetan bederen, mapa horixe izango de euskararekiko politika ofizialaren esparru-definizioa.

Euskadiko Komunitate Autonomoan, EUSTATEk egin zuen (1983), 1981eko Erroldaren arabera marraztutako mapa berria, eta orain Eusko Jaurlaritzak aurkeztu dio Legebiltzarrari (1989), 1986ko Erroldaren araberrako mapa zehatzagoa. Horretarako Euskararen Aholku-Batzordeak prestatu-riko lanaren emaitza da ondoko mapa hau, eta Legeak egiteko eta Administrazioaren hizkuntz politikarako balioa du.


Horiek horrela, oraingo mapa hauek ez dira izango —Bonaparte eta besteren zenbaitzu bezala— jakite hutsari begira landuak, jakin eta ekiteko baizik. Beste hitzez esanda: honelako kartografia berriak hizkuntzaren normalizazio-plangintzarako baliagarri izan behar du. Eta horregatixe du aparteko esanahi historikoa.

■ Euskararen lurralde historikoak

Penintsulara inguratutako hizkuntza indoeuroparrak euskararekin topo egin zutenetik lehenengo (K.a. I. milakadan); erromatarren latina eta beronen kumeak, hizkuntza erromanikoak, euskararen mugakide gertatu zirenetik gero (K.o. I. milakadan); eta, auzokide berriok gizartean, erakundeetan eta kulturaren nagusituz joan direnean azkenik (azken milakadan), lurraldegalera handiak izan ditu euskarak. Baina, ikusi ahal izango dugunez, Erdi Aroan zabaldu ere egin zen Errioxa-Burgos aldera, ipar mendialdeetako euskaldunak lur irabazi-berrietara joatean. Hiztunak indartsua denean, hizkuntza ere indarberri litekeela erakutsi zuten euskaldun haiek.

Ondoko mapa bakar honetan bildu nahi izan ditugu euskararen geografiaz ezagutzen ditugun itxurazko daturik jakingarrienak, gizaldiz gizaldi eta, ahal zenetan edo besterik ezean, urtez urte (B. Estornés Lasa-ri zor diegu sintesi hau).

Bere lerro handi-mandietan emandako hizkuntz mapa hauek oso nolabait ispilatu ohi dituzte hizkuntzen jarraiko egoerak eta okerrago oraindik aldakuntz prozesuetako erritmo ezberdin eta aldartetsuak. Hala ere, epe luzeko gertakarien isuri historiko han-



diak ulertzeko mugari argigarriak erakusten dizkigute. Mapa honetan bizitza luzeko hizkuntza baten, euskararen, datu geografiko nagusi eta larrienak ematen dira, xehe-tasunetan sobera galdu gabe.

Lehenik gogoan hartu behar da, gutxienez bi mila urtetako historia geografikoa ispilatu nahi dutela mapa honetako marrek. Agirietatik ezagutzen ditugun datuek, ez dute pisu eta balio bera marra horietako bakoitza zehaztasun berarekin marrazteko: urte jakin bat daramatenak dokumentu jakin baten fruituak dira; besteak, berriz, mendez eta aroz mugatuak, datuek eta hipotesiek lagunduta finkatuak dira. Edozein kasutan ere, euskararen muga horiek hobe da marra-inguruko eskualde-zirrinda bat bezala ulertzea, marra soilari begira baino, gizarte mugikorraren ezpainetan bizi baita hizkuntza, lurlean hesiz lotuta baino areago. Beti ere, mugakide diren hiztunen ahotan erabilera-modu eta usuarioek maila eta balio ezberdinak izan ohi dituzte.

Bestalde, ez da ahanzi behar, mapak ez dituela eman nahi aldibereko gertakari bezala hor elkarren ondoan ageri zaizkigun fenomeno denak. Adibidez, Pirinioetako edo Akitaniako atzera-galera batzuk jada gertatuak ziren, Birkonkistaren ondorioz euskara

Ebro ibaitik hegoalderantz zabaltzen hasi baino lehenago. Ez dira, beraz, garai bereko gertakariak.


Ohar orokor hauek gogoan direla irakur daiteke hobeki, mapan, gure hizkuntz iraupenaren historia harrigarria. Lehiakidez inguratuta bizi izan da beti euskara: haietatik, inguruko denak hil ziren lehenengo; berriak jaio ziren, gero. Baina, gaurdaino, beti egon da hemen bereari eutsi izan dion euskal gizarterik. Iraupen hauxe da jakitunek miretsi digutena, eta gaur egun ere eskatzen digutena.

Atlas linguistikoak eta hizkuntzen geografia

Hizkuntzalariek atlas linguistikoak egin dituzte, hizkuntza baten barne-gertakarien barruti geografikoak deskribatzeko: *isoglosa* deituriko marra batek mugatzen du halakoetan hizkuntz fenomeno hautatuaren esparru geografikoa. Adibidez, hitz baten hedadura: non esaten da *deus* eta non *ezer*, non *esan* eta non *erran*, non *bost* eta non *bortz*, non *dogu* eta non *degu* edo *dugu*... Milaka honelako gertakariaren isoglosak elkarren gain pilatzen direnean, hau da, muga-lerroa lo-

■ BASCONCILLOS DE MUÑO (Burgos)

Burgos hiriburutik, hegoaldera, 18 km-tara dagoen herriska despobulatua (orain 30en bat urte hustu zen). *Báscones*, *Vizcaíno* eta antzeko izenak dituzten Burgos eta Palencia-ko herriak Erdi Aroko euskaldunek egindako birpopulamenduen testiguak dira. Bizilagun berrien jatorria azaltzeko gaztelaniazko tokizen hauekin batera, euskara ere lekutu zen eskualde haietan, euskarazko lekuizenek garbiki erakusten dutenez.



■ EUSKARAREN HIZKUNTZ AHAIDETASUNAK

Euskara, hizkuntza irla bat dela esan ohi dute hizkuntzalariek, hau da, frogatutako ahaidetasun linguistikorik gabea. Horrek ez ditu, ordea, ukatzen mendeak zehar etengabe inguruko beste hizkuntzekin izan dituen harremanak. Bilatu nahi izan zaizkion ustezko ahaidetasun eta antzik aipatuenak gogoratzen ditu grafikoak.

ditzen denean, muga-marra nabarmenenek hizkuntza baten barneko dialektoak definitzen dituzte. Izan ere, hizkuntza guztiek izan ohi dituzte lekuz leku aldatuz doazen aldakinak, eta, hizkuntzatasuna eta funtsezko hizkuntz batasuna ukatu gabe ere, hizkelgiak marrazten dituztenak. Honela, hizkuntzen barruko fenomenoak deskribatzen laguntzen dio kartografiak *Geografia linguistikoari* edo *Geografia dialektologikoari*. Betekizun horixe dute Atlas Linguistikoek.

Besterik da, ordea, *Hizkuntzen Geografian* edo *Geolinguistikan*: Linguistaren sintesia ahortzi gabe, geografoak hizkuntzaren kanpo-gertakariak hartzen ditu, beti ere gizarte-alorreko fenomeno bezala begiratuz. Horrela, hizkuntza bere osoan hartu eta berorren alde sozio-espazialak arakutzen ditu Hizkuntzen Geografiak.


Izan ere, hizkuntzen bizitza, korronte etnokulturalen bihotzetan gertatzen da, eta gizabanako eta taldeen legamia da bera. Horregatik, Hizkuntzen Geografia honek, azterkizuntzat hautatutako gizartean hizkuntzak edo hizkuntzek ditu(zt)en hedapena eta denbora-dinamika deskriba ditzake. Nola-bait ere, hizkuntzen ekologia bat marrazten du.

Hiztungeoen eta espazioaren arteko harremanen ikerkuntza geografikoak, Giza Geografiak gainerako fenomeno sozialei aplikatzen dizkien ikuspuntu eta metodo berak zertzen dizkie. Etniak eta kulturak go-goan hartzen ditu, Soziolinguistikaren iker-parametroak ere bai, orobat hizkuntzen ukipen-esparruak, era berean gizarte-funtzioen banakera soziala, etab. Mapak, diagramak (histogramak, etnogramak), sareak, arbolak, anamorfosi geografikoak, grafiko triangeluarrik, etab. dira Hizkuntzen Geografiak edo Geolinguistikak darabiltzan deskribapen-tresnak.

Geografian ohizkoak diren hainbat lanabes erabiliz azter eta erakuts daitezke hiztungeo baten gorabeherak eta bizitza.

■ Jatorria eta ahaidekoak

Hizkuntzak nonbaitetik datoz, eta beren aurreko beste *hizkuntza arbasoren* batengan izan dezakete beren jatorria: Ameriketako ingelesa edo gaztelania hara Europatik joanak dira; ingelesa germanieratik jaioa da, suediera edo daniera bezala, eta gaztelania



MUNDUKO HIZKUNTZA HANDIENEN HIZTUNAK

| | |
|------------------------|-------------|
| Sino-mandarinera | 500.000.000 |
| Hindiera | 350.000.000 |
| Ingelesa | 320.000.000 |
| Espainiera | 210.000.000 |

1975eko datuak. Iturria: BRETON, R. (1979): *Géographie des langues*. Paris.

latinetik, frantsesa edo errumanieraren antzera. Eta euskara?

Euskararen jatorriaren arazoak mota askotako galderak sortu ditu: Zein izan ote da beraren hizkuntza gurasoa? Zein ahaidetasun ote du gaurko edo historiako beste hizkuntza ezagunekin? Etorri, nondik eratorria ote da?

Idazkun zaharrei esker eta ikerlan konparatiboek langunduta, hizkuntzalariek lortu dute, zenbait kasutan, orain 6.000ren bat urte dialekto-hizkuntza berritan banatutako hizkuntzen jatorrizko ahaidetasuna frogatzea: K.a II. milakadan desagertutako hititen hizkuntza hura, esate baterako, indoeuroparra zela jakin ahal izan da (1917); baina, gertuago egon arren, euskararen jatorria ezagutzeko ez da erraztasun bera izan.

Hizkuntzalaritza zientzia bezala jaiotzen aurretik, XVI-XVII. mendeetan euskaraz arduratu ziren jakitun eta idazleek, Babel-eko dorrea zela-eta Biblian hizkuntzei buruz esandakoak euskarari egotzi zizkieten, baina ez gaitu horrek gehiegi harritu behar, zeren erbestean esandakoen antzekoak errepikatzen bait zebiltzan haiek gehienetan (Poza, Etxabe...). Beste batzuk, XVIII-XIX.etan, funts zientifiko gehiagorekin jardun arren, ideia tradizionalai lotuegiak ari ziren, eta halabarrez, Hizkuntzalaritza

modernoaren ataureraino bakarrik iritsi ziren, metodologi berrikuntzaren bat edo beste gorabehera: euskararen teoria babeldarrak zutik zeuden artean, besterik ezean hipotesi gisa (Hervás-en lanetan, adibidez).

Hizkuntzak zientifikoki konparatuz, berorien sailkapena egin eta, hainbat kasutan, ahaidetasunak argiro erakutsi direnetik (hizkuntza indoeuroparretan ikusi zen familiar-tekotasun hori lehenik, Bopp-en ikerlanen ondoren, 1833-1852), Aro Garaikidean ezagutu izan da euskararen hizkuntz irlatasuna, oraindik ere nabarmenago. Aski da hau jakiteko, Entziklopedia modernoetan ikus daitezkeen hizkuntz sailkapenen laukiak begiratzea: Euskara bakarrik, aparte, uzten dute; jatorrizko ahaidetasun frogaturik gabe, alegia.



Dozenaka hizkuntzarekin alderatu izan da euskara, jatorri genetikoa bilatuz (japoniera, hungariera, suomiera, etab.); baina, itxaropen hobez, bi aldetara begiratu izan da, nagusiki: 1) Konkista erromatarrarekin desagertu zen iberiera galdurantz, lehendabizi. Eusko-iberismoa ibili zen bide hauetatik, baina kritika gogorak jaso ditu azken hamarkadetan (Bähr, Caro Baroja, Mitxelena, Tovar). Korrante honekin lotuta, edo hurbil, euskara hizkuntza ipar afrikarrekin

MUNDUKO BIZTANLERIA, HIZKUNTZ FAMILIEN ETA HIZKUNTZEN ARABERA (1975)

Munduko biztanleria, 3.000ren bat talde etnolinguistikotan banatzen da gaur egun (1975); baina hiztun-kopuru oso ezberdinetan banatuta daude taldeok: hizkuntza aintzek, hiztun gutxi ditu (dozena batzuk, zenbait mila...); aitzitik, badaude ehundaka milioi hiztun dituzten kontatu batzuk ere. Hiztun hauen ama-hizkuntza bakarrik aintzakotzak hartuz (hau da, bigarren hizkuntza ikasia gogoan hartu gabe), hurbilpen estatistiko batek zera emango liguke:

1. *Lau hizkuntza nagusiak.* Txinerak 800 milioi ditu (500 milioi, mandarinerara mugatuz); hindierak, 350; ingelesak, 320; eta espainierak, 210. Orotara, munduko biztanleriaren % 43.
2. *Zazpi hizkuntza handiak.* Errusierak 150 milioi ditu (ukraniera eta bielorrusiera aparte); arabierak eta bengalierak, 130 milioina; portugesak, 120; japonierak, 110; alemanak, 105 (yiddish-a barne nahi balitz); frantsesak, 80. Orotara, biztanleriaren % 20 pasatxo.
3. *Hamabi hizkuntza erdimailakoak.* 70-35 milioina dituzte, eta berauetakoak dira: javaera, italiara, teluguera, korearra, maratera, tamulera, vietnamera, turkiera, ukraniera, poloniera, guraterara eta taiera. Orotara, biztanleriaren % 14.
4. *Beste 2.900 etnohizkuntzak.* 30-20 milioitan dabilta Indiako zenbait hizkuntza, errumaniera, neerlandera, birmaniera eta beste; 15-6 batetan, iraniera, serbokroaziera, ethiopiera, hungariera, txekera, suediera, katalana, edo ketxuera; 5-3 milioitara jaisten dira daniera, suomiera, albaniera, georgiera, galegoa edo guarania; 2 milioiren azpitik geratzen dira estoniera, esloveniera, euskara edo azteken nahuatlera. Multzo honetakoek eta oraindik gutxiago dituztenek, biztaliaren % 23 eskas bat egingo lukete orotara.

| FAMILIAK | ADARRAK | HIZKUNTZAK |
|----------------------------|-------------|--|
| Zenbait | 2 | |
| Dravidiarra | 4 | tamulera 1 teluguera 1'5 |
| Afroasiarra | 4'5 | arabiera 3'5 |
| Nigerokordofaniarra | 4'5 | |
| Austronesiarra | 5 | javaera 1'5 |
| Uraloaltaiarra | 6'5 | turkiera 1 korearra 1'25 japoniera 3 |
| Sinotibetarra | 24 | kam-tai 1'25 tibeto-birmaniarra 1'25 |
| | | min 1 xiang 1 yue 1 wu 2 |
| | txinarra 20 | mandarinera 14 |
| Indoeuroparra | 49'5 | iraniarra 1'5 |
| | | eslaviarra 7'5 |
| | | germaniarra 12'5 |
| | | erromanikoa 12'5 |
| | | indoariarra 15 |
| | | ukraniera 1 poloniera 1 errusiera 4 alemana 2'5 ingeleza 8 italiera 1'5 frantsesa 2 portugesa 3 espainiera 5'5 gujeratera 1 maratera 1'25 bengalera 3 hindustanera 9 |



BEREZITASUN FONOLGIKOAK

Hizkuntza bakoitzak ditu berezitasunak bere fonologian. Euskarak, adibidez, bere "z": irudiak adierazten duen moduan ahoskatzen da "z" hori (honelako mingainurrekoalbeolarerik ez du gaztelaniak; frantsesaren "s" a, berriz, honen antzekoa da).

erlazionatu nahi duen teoria dago (berberera, ekialdeko kamita, Nubiako hizkuntzak, eta abarrekin). Izen handiak izan ditu eritzi honek (Gabelentz, Schuchardt, eta berrikitan H. Mukarovski), baina aurkako argirik ez zaio falta izan (E. Zayhlarz). 2) Jakitunentzat bigarren abiapuntu itxaropentsua, hizkuntza kaukasiarren hipotesia izan da. Ahaidetasuna frogatu ez bada ere, antza era askotan bilatu dute hizkuntzalariek. Izen sonatuak daude hemen lan egin dutenen artean: Hervás, Fita, Uhlenbeck, Schuchardt, Trombetti, Bouda, Lafon; baina hauen lan-metodologiak eta emaitzen balioa zalantzan ere jarri dira (H. Vogt, K. Mitxelena).

Oro har, euskararen jatorri genetikoa frogatzeko dago oraindik. Dagoeneko daudden bilabide hipotetikoek eta frogatutako antz-puntuak lagundu beharko dute proto-euskara zaharretik hasita hizkuntz arbola genetikoan gora egiten.

Ahaidetasun-zuhaitz genetikoaren arazoa gorabehera, hizkuntzari bilatu nahi izan zaizkion antz eta kidetasunak ere gogoan hartu behar dira, gainera: Euskarak duen halako edo bestelako egitura edo gaitasun beste hizkuntzaren bateko edo batzuetako egitura-gaitasunekin alderatu ohi da honelakoetan.

Hizkuntz tipologiak erabili eta definitu izan dira hizkuntzak —geografikoki urrunenak izan arren— alderatu eta sailkatzeko. Greenberg-en tipologiak erabiliz (hitzen ordena arautua aztertuz), Tovar-ek, adibidez, III. eredu-sailean jartzen zuen euskara, georgiera, latina, turkiera eta dravidierarekin batera, hizkuntza indoeuropar gehienak II. ereduan geratzen ziren bitartean.

Guzti horiek horrela direla, azken buruan, euskararen isolamendu genetikoak interesik handiena du hizkuntzalarik konparatibistentzat, zeren, adibidez, lengoaiaren oinarriko unibertsalen azterketarako lehiatila bereizi bat gerta bait daiteke bera.


Sistema fonologikoa*

Zerba it adierazteko erabiltzen dugun tresna da hizkuntza, eta, alderantziz, adierazten zaiguna ulertzeko darabilgun tresna. Modu askotara hartu eta definitu ohi dugun tresna hori, hizkuntzaren barne-ikuspegitik, zeinu-sistema bat da, hondarraren hondarean.

Hizkuntzazko zeinuok analizatu, berriz, maila desberdinetan analiza ditzakegu: eskakune edo berbaldi bat, kasurako, hainbat perpausez osatua egon daiteke; perpaus bat, hainbat hitzez (eta morfemaz) osatua; hitz bat, hainbat silabaz; silaba bat, hainbat soinu-

| | Ezpainbikariak | | Ezpain- -horzkariak | | Horzkariak | | Bizkar- -albeolareak | | Apiko- -albeolareak | | Sabaiaurrekoak | | Sabaikariak | | Belareak | | Ubulareak | | Glotalak | |
|--------------------------|----------------|---|------------------------|---|------------|---|-------------------------|---|------------------------|---|----------------|---|-------------|---|----------|---|-----------|---|----------|---|
| Leherkariak | p | b | | | t | d | | | | | | | c | ʝ | k | g | | | | |
| Leherkari sudurkariak | m | | | | | | | | n | | | | ɲ | | | | | | | |
| Frikariak | | | f | v | θ | | s | z | ʃ | ʒ | | | | | x | | | | | h |
| Afrikatuak | | | | | | | ts | | ʦ | | ʎ | | | | | | | | | |
| Albokoak | | | | | | | l | | | | | | ʎ | | | | | | | |
| Dardarkari bakunak | | | | | | | r | | | | | | | | | | | R | | |
| Dardarkari anizkoitza | | | | | | | r | | | | | | | | | | | | | |
| [± ozena] | - | + | - | + | - | + | - | + | - | + | - | + | - | + | - | + | - | + | - | + |

- EUSKARA
- GAZTELANIA
- FRANTSESA




Euskararen maila honetako berezitasun bat nabarmentzeko, txistukarietan (gorretan) gertatzen dena aipa daiteke: gaztelaniak frikari bakarra /s/ eta frantsesak bi /s/, /ʃ/ bereizten dituzten bitartean, euskarak hiru bereizten bait ditu: /s/, /s̺/, /ʃ/ (“z”, “s”, “x” idazten ditugunak, alegia). Era berean nabarmen daiteke frantsesaren desberdintasuna, eman dezagun, bokalei dagokienean: euskarak eta gaztelaniak bosna fonema bokalezko dituzten bezala, frantsesak dozenatik gora bereizten ditu, ahokari (/i/, /e/, /ɛ/, /α/, /a/, /o/, /u/, /y/, /œ/) eta sudurkarietan (/ã/, /õ/, /ẽ/, /œ/).

* J.A. Aduriz-en testua.

Gizakiok modu askotako soinuak sor ditzakegu; hizkuntz adierazpenetan, ordea, posible horietako gutxi batzuk aski ditugu adierazi beharrekoak adierazteko, hots, bereizi behar ditugun mezuak bereizteko: hogeitamar inguru soinu desberdin edo fone-maz baliatzen gara hizkuntzarik gehienetako hiztunok. Elementu urri horiek konbinatzea aski dugu mezu eta adierazpen desberdinak sortu nahiz ulertzeko, eta baita hizkuntza desberdinak eratzeko ere.

Balio bereizgarria duten soinuok —fone-mak— aski antzekoak dira hizkuntza batetik bestera, hain urriak direlakoxe. Eta horregatik dira hizkuntza bakoitzaren apartekoak: gutxi izanik, maiztasun handiz ager bait daitezke, eta berezitasun-marka suerta. Ondoko laukiari begiratze soilaz sumatuko ditugu euskararen, gaztelaniaren eta frantse-saren sistema fonologikoen arteko antzak eta diferentziak; soinurik gehienak berdinak eta antzekoak dira hiru hizkuntzetan; ba-dira, ordea, aldeak ere.




AMINVS
DANIOHOXSIS
CALVA CASSIL
MORANDER
FILL EX TEST




IN RHODI...
SVN HARIN...
ANN... T... PS...

III

HISTORIAURRETIK
ERROMAREN ERORIKOA ARTE





EUSKARA, NOIZTANDIK?

Lluís Pericot historiarari ezagunak zera idatzi zuen: "Nork daki zer den euskara? Gaurko herri europarretan, XX. mendeko bizilagunok ezin gaitzake ezerk orain 5.000 edo 10.000 urteko denbora haietara eraman. (...). Horretarako aski dugu guk euskal nekazari batzuei bertsoak kantatzen entzun eta begiak istea. Neolitikoko artzainei entzuten ari gara, edo Altamira pintatu zutenei". Argazkietan: Ekaingo haizuloa (Gipuzkoa): ± 20.000/12.000 urteko pinturak. Aizkomendiko trikuharria (Egiraz, Araba): ± K.a. 3.000 urte.



LEHENENGO MILA ETA BOSTEHUN URTEAK

Historiaurretik gaurdaino Mendebal Pirinioetako bi aldeetan bizi izan d(ir)en herri(ar)en hizkuntza izan da euskara. Ditu-gun datuekin, hori da eritzirik onartuena: itxura guztiz, ez da kanpotik etorritako hizkuntza.

Horregatik, euskal herrialdeetara hurbildu, hemendik pasa, nahiz bertan geratu izan diren herriak euskal hiztunekin suertatu ziren: "Nolako zen ezagutzen ez badugu ere, orain hiru mila urte, izan, bazen euskararik, indoeuroparren etorrera baino lehen" (A. Tovar).

K.a. 1000tik Erromatarren Inperioaren erorikoa arte (K.o. 476) harreman ugariak izan zituzten euskaldunek inguratu zitzaizkien herriekin: aspaldidaniko Penintsulako iberiarrekin, lehenik; behin eta berriz, olaturan, heldutako indoeuropar eta zeltekin, gero (hegoaldeko zeltiberiarrekin, Garona-aldean galiarrekin).

Baina, guztion artean, hizkuntzarentzat arriskugarrienak erromatarrek gertatu ziren. Izan ere, lehenengo indoeuroparren ondoren, 800en bat urte geroago, erromatarrek iritsi ziren Euskal Herrira; hegoaldeetik Ebron gora, lehenengo (K.a. 196); iparral-

detik, ondoren (K.a. 56), euskaldunekin, euskal mintzatzaileekin, egin zuten topo haiek ere. Euskararen lurraldeak gaurkoak baino askoz zabalagoak ziren orduan. Idazle klasikoek tributan banatutako gizarte euskaldun bat deskribatu ziguten. Erromatar eta euskaldunak elkarren arerio eta aliatu izan ziren, komenentzien arabera.



Inperioa erortzean, erromatarrek latin ahuldu bat, baina gerora oso emankorra izango zena, utzi zuten hemen. Ez bisigotuen hizkuntzak, ez arabierak ito zuten erabat Erromak ereindako hazi hura.

Erromatarren konkista hartatik beste milaren bat urte geroago, hizkuntza erromanikoak jaio ziren, latina ikasi zuten inguruko herrien ezpainetan (eta inoiz baita euskaldunenetan ere), baina oro har euskaldunek beren betidaniko mintzairari eutsi zioten.


Herri bakoitzak zituen bere kultura eta hizkuntza: iberiera, zeltera, latina... Epigrafian eta euskararen bertan geratu zaizkigu hizkuntza haien aztarnak, batzuetan gaurko Euskal Herrian bertan, eta bestetan, orain hemendik urrun dauden orduko euskal lurraldeetan (Akitanian, Pirinioetan...).

EUSKALDUNAK NOIZTANDIK?

Bosch Gimpera-k idatzi zuen bezala, "euska- gizakiak bere nortasuna definituta zuen Neo-eneolitoan, hau da K.a. III. milakadan, eta badirudi bere erroak Paleolitoan zituzten bertakotarren tokiko eboluzioa dela". Argazkian: Urtiagako buruhezurra (Gipuzkoa), Cromagnondar gizakitik euskal gizakirako katebegia: K.a. 9.000 urte. Itxura guztiz, betidanik edo, hizkuntza eta bertakotarren historia elkarrekin ibili dira.



ANTZINAKO HISPANIAKO JATORRIZKO HIZKUNTZAK



ITURRIA: TOVAR, A. (1968): Lo que sabemos de la fecha de lenguas en la Península Ibérica. Madrid.

EUSKARA, ORAIN 2.500 URTE

Garai hartako Penintsula Iberiarrak, eta Pirinioen bestaldeak ere, gaurko egoera geolinguistikotik oso bestelakoa zuten. Eta euskarak lurralde guztiz zabalak, gainera. Erromatarrak hemen agertu aurreko mapa da hau: K.a. I. milakadan indoeuroparrak sartuz doaz Penintsulara, eta batez ere zeltera ekarri zuten, lehendik hemen zegoen iberieraren lehiakide zela. Euskararen mapako lurralde hori segurutzat eman behar da, baina, Asturietarakoa zalantzakoa da, jakitunen artean eritziak banatuta bait daude. Batez ere epigrafiak eta toponimiak lagundu dute muga hauek zertzen.



■ BOTORRITAKO BRÖNTZEA (K.a. I. mend.)

Zaragozatik hogei kilometrora, Botorrita-n, aurkitu zen brontze hau: alfabeto iberiarrez eta hizkuntza zeltiberiarrez dago idatzita. Honen antzeko idazkun iberiarrak argitzeko, askotan jo izan dute hizkuntzalariak euskarara, baina ez arazo larririk gabe, eta gehienetan nahi litzatekeen baino emaitza eskasagoarekin, gainera.



■ Euskal Herri inguruko hizkuntzak

Aurreko bi milakadatan indoeuropartuz joan zen Europa, eta K.a. azkenekoan areagotu baizik ez zen egin prozesu hori. Orain 2.500 urteko unea abiapuntutzat hartuta, Euskal Herriko eta inguruetako hizkuntza geografía honelatsu deskriba genezake gaur dakizkigunetatik.

Penintsula Iberiarra eta Pirinioetatik iparralderanzko lurraldeak ez zeuden artean osorik indoeuropartuta. Aitzitik, jatorri ezberdinetako hizkuntzek betetzen zuten mapa:

1) Iberiera, Galietako Herault ibaitik Mediterraneoara segiz Andaluziaraino zegoen hedatuta (Ebro-aldean zeltiberierak ezartzen zion zintzur estua gainditu ondoren, Guadalquivir garaia ere besarkatuz). Hortaz, iberierarekin Pirinioetako ekialdean izan zezakeen euskarak ukipen-area bat.

2) Zeltaurreko indoeuopera ere bizirik zegoen, lusitaniera dei genezakeena, Penintsulako mendebaldean lekutua. Beharbada, Kantabriakoa ere indoeuopera bat zen.

3) Baina euskal hiztunetatik hurbilena zeltiberiera zegoen Soria eta Burgos-ko lurretan Ebro-arroan gora indarrean zetorrena.

4) Iparraldean, Akitaniako Garona mugatzat hartzen bada, beste zeltera batekin —oraingoan galierarekin— mugakide gertatzen zen gure hizkuntza.

Euskara bera zen, noski, beste laugarren bizilaguna; baina ez hemen bertan ere, etxean, beste hizkuntzarik gabe: Erriberan zegoen zeltiberiera.

Euskarak, ba, inguru eleaniztuna zuen garai haietan. Indoeuroparrak, inguruetara ezezik, gaurko euskal herrietara iritsi zirenetik (begira, mapan ikus daitezkeen berorien aztarnategi zeltak), hizkuntz harremanik ez zen falta izan. Hala ere, ezer gutxi dakigu, hizkuntza indoeuoparren eta euskararen arteko harremanei buruz. Contrebiako brontzeak (K.a. 87. Zaragoza) ere erakusten digu zerbait hizkuntz auzoarte honetaz.

Harreman haietatik mailegu zeltiko ziu- rrik apenas geratu zaigun euskarari: *zil(h)ar*, *(h)artz*, *(h)ogei*, *tegi*, *maite*, *gori*, *erbi*, *mendi*, *orein*, *ork(h)atz*... Baina gehienetan ere zalantza handiko etimologiek. Oro har, esan beharra dago latinaurreko herentzia indoeuoparretik ondare eskasa gorde duela euskarak, seguraski geroko arrazoi politiko-kulturalengatik.


■ LERGAko IDAZKUNA

Nafarroako Lergan aurkitutako (1960) hilarri honek argi hobek eman ditu euskal penintsulaldearen eta Akitaniaren arteko batasun proto-euskalduna ezagutzeko.

| IBERIERAZ | EUSKARAZ |
|-------------------------|------------|
| Ilberis | Hiri berri |
| Nescato | Neskato |
| Saltu | Zaldu |
| Salir (<i>moneta</i>) | Zilar |
| Gison | Gizon |
| Arse(etar) | Bilbo(tar) |

IBERIA ETA EUSKARA

Iberieraren eta euskararen ahaidetasunean sinesten zenean, honelako hiztegi-kidetasunek sortu zuten euskararen bidez iberiera ulertzeko itxaropenik; baina, azken buruan, iberierazko alfabeto deszifratuak (1922) ezin izan dira euskararekin ere konprenitu. Horrela, itxaro zitekeen hizkuntz ahaidetasunaren ustea ilunduz joan da.



EUSKAL HERRIKO ETNIAK ETA HIZKUNTZAK

K.a. I. milakadan, herri indoeuroparrak eta, hauen artean, zeltak etorri ziren Euskal Herri inguruetara. Herri berriok, han edo hemen, Euskal Herriko hegoaldeko lautada irekietan ere lekutu ziren. Jatorriz erromarreko bezala ematen diren idazkunak dira euskararen lehenengo aztarna idatziak.

Pirinioak, mendeak zehar orain gutxi arte, ez bait dira muga linguistikoa izan aldeantiz baizik (esate baterako, berorien bi aldeetan egon dira euskalki berak, eta katalana ere, eta ezagunak dira kaskoinaren eta aragonesaren arteko antz nabariak).

Pirinioaren bi aldeetako zibilizazio-batasuna ongi ezaguna da iragan mendeetan, eta mendebaldetik ekialdera mendikatearen bizkar goazela, toponimiak erakusten du garai bateko euskaltasuna. Zoritxarrez, zailagoa gertatzen da nahitaez aldakorra zen euskaltasun horren kronologia eta segidatasun geografikoa epez epe finkatzea, izan ere ezagutzen ditugun aztarna ugariak datatzea ez bait da sarritan samurra. Dena den, Cormines-ek jaso ahal izan dituen lekuizenek ondoko mapan ikus daitezkeen Pirinio euskaldunak marraztu dituzte, Antzinatetik Erdi Arorainoko historia iraun bat bilduz.

Akitaniaren Antzinateaz datu askoz seguruagoak dauzkagu, lekuizenetan eta ondoko hizkuntza erromanikoen jaso dituzten sustratukinetan nahi bada, baina batez ere Aro Kristauaren hasiera-mendeetatik datozkigun idazle klasikoengandik eta bertan aurkitu izan den epigrafia aberatsetik. Estrabon-ek garbiki bereizten zituen akitaniarrak iparraldeko galiarretatik, hain zuzen hizkuntzak ere beraien bereizgarritzat aipatuz.



"ANDERE"


Orain bi mila urteko latinezko estela honetan euskarazko **andere** ikus dezakegu. Akitaniako epigrafian emakume eta jainkosei ematen zitzairen izendapen-modua zen. (Okzitaniako Tolosako Museoa dago).

Aurreko bostehun edo seiehun urtetako harreman eusko-indoeuroparren ondoren, urruneko beste hizkuntza indoeuropar bat etorri zen erasoka: erromatarren latina (K.a. 196). Berau gertatuko zen, ondoko mendeetan, Mendebaldea bortitzenik indoeuropartuko (=latinduko) zuen hizkuntza: iberiera, galiera, zeltiberiera eta lusitaniera desagertu egin ziren, lehentxeago Italian beste zenbait hizkuntzarekin gertatu zen bezala.

Erabateko indoeuropartze honegatik, euskara, galdutako Historiaurre linguistikoko haren lekuko bakarra bilakatu da, haien hondamendiari gaina hartuz eta latinaren garaipenari aurre eginez. Baina, artean, euskararen gaurko esparruetara bildu gabe, noski.

Pirinioetan eta Akitanian

Orain 2.200en bat urte, hau da, Erromatarrek Euskal Herri inguruetara iritsi baino lehentxeago, euskaldunek lurralde zabalak betetzen zituzten gaurko Euskal Herriaren ipar-ekialdeetan, hots, Akitania eta Pirinioetan. Akitaniarrak orduko euskaraz edo ahaideko hizkuntza batez mintzatzen ziren. Pirinioetan, berriz, lekuizen ugari aurkitu izan da euskal jatorria duena, izan ere



PIRINIOETAKO EUSKARA, ANTZINATEAN

Joan Coromines-en ikerlanetatik dakigunez, Pirinioen ertaldean euskal lekuizenak ugari izan ziren. Aragoa eta Kataluniaraino iristen da euskal toponimia duten eta izan duten herrien lerrokada.

Aragoa ibaiaren arroan 48 herritan bildu dira jatorrizko euskal lekuizenak; Aragoa Garaian, 150 herritan; Ribagorça Garaian, 30etan; Pallars-en 90 herritan. Puntuz seinatu ditugu herri horiek, eta gutxi batzuen izenak jaso ditugu, geografia lekutu eta hizkuntzaren segidatasuna adierazteko.

Beste iturrietatik ere ezaguna denaren arabera, Berant Erdi Aroraino bizirik egon zen lurralde horretan euskara.

(Iturria: AGIRREAZKUENAGA, J., etab. (1980): *Historia de Euskal Herria*. Donostia: Ed. Vascas. I, 62-63).

Akitanieraren argibiderik emankorrenak idazkun epigrafikoetatik iritsi zaizkigunak izan dira. Jakitunek, gogoz, behin eta berriz ikertu dituzte akitanieraren lekuko hauek: latina eta akitaniera nahasian ageri diren idazkuntan latina ez dena ulertzeko, bi mila urte geroagoko euskaldunen euskara izan da lagungaririk onena. Luchaire, Scaze, Gorrotxategi eta beste hainbaten lanetan bil litezke hitz edo izen argi batzuek: *Gison* (> Gizon), *Nescato*, *Iluni* (> Ilun), *Anderex* (> Andere), *Bihoxus* (> Bihotz), *Sembeto* (> Seme), *Baigorrixo* (> Ibai + gorri), etab.

Epigrafia akitaniar honek ispiatzen duen egoera hura eta geroztik galdutako hizkuntza gogoratu, honela mintzatu zen R. Lafon Bordaleko Unibertsitatean (1947): "Gure arbaso akitaniarrek beren hizkuntza galtzen utzi zuten, hizkuntzalari eta etnografoen doluarekin, noski. Gure omena eta eskerrona zor dizkiogu, apalki eta izengabeki, [Euskal Herrian] arbasoen hizkuntza gorde izan duen hiztongo handigaitzari". Irakasle berak, euskara-akitania-kaukasierak elkarrekin osatuko luketen eusko-kaukasiera baten jatorrizko hizkuntz familiartea frogatzeko oinarrietako bat akitaniera hartan ikusten du. (Autore honen arabera, hizkuntz familia hipotetiko haren barne-batasuna gehienez K.a. III. milakada artekoa izan zen).

Eusko-akitania horren esanahi etnolinguistikoa, Lergako (Nafarroa) hilarriak azpimarratu du berriz ere, eta eusko-akitaniaren funtsezko hizkuntz batasunaren tesia segurtatu egin da azken urteetan. Edo, nahiago bada, beste ikuspuntu batetik begiraturaz, Akitaniaren nortasun linguistikoa hura are sendoagoa ageri zaigu ikerlan berrietan, inguruko mundu indoeuoparretik berezita eta euskararekin senitartean dela.

Idazle klasikoak: Herriak eta hizkuntza(k)

Antzinateko kolonizatzaile eta konkistariak Euskal Herrira hurbildu eta hemengo albisteak zabaldu ahala, euskaldunen lehen aipuak agertu ziren idazle klasikoan lan etnografiko eta geografikoetan. Horietxek dira, hain zuzen, gure arbasoei buruzko lehenengo berri idatziak.

Aipa ditzagun hemen, artean, geroko beren adierarekin, Frantzia edo Espainiarik ez zen garai haietan, Penintsula Iberiarraz edo Akitaniaz jardun zuten autore klasikoan batzuren izenak: Estrabon eta Zesar mintzatu ziren lehenik (K.a. I. mend.), Plinio Zaharra eta Mela datoz gero (K.o. I. mend.).

Διὰ τούτων δὲ τῶν ὄρων ἡ ἐκ Ταρράκανος ἐπὶ
 τοὺς ἐσχάτους ἐπὶ τῶ ἄκωνά **Οὐάσ-**
κωνας τοὺς κατὰ **Πομπέλων**
 καὶ τὴν ἐπ' αὐτῶ τῶ ἄκωνά **Οἰασούν**
 ἀπόλιν ὁδός ἐστι σταδίων διαχίλιον τετρα-
 κοσίαν, πρὸς αὐτὰ τὰ τῆς **Ἀκουίτα-**
 νίας ὄρια καὶ τῆς Ἰβηρίας.
 Ἰακκητανοὶ δ' εἰσὶν ἐν οἷς τότε μὲν Σεργάριος
 ἐπολέμει πρὸς Πομπήιον, ὕστερον δὲ ὁ τοῦ
 Πομπηίου υἱὸς Σέξτος πρὸς τοὺς Καίσαρος στρα-
 τεγούς. Ὑπέρκειται δὲ τῆς Ἰακκητανίας πρὸς ἄρκτον
 τὸ τῶν **Οὐασκῶνων** ἔθνος, ἐν ᾧ πόλις
Πομπέλων, ὡς ἂν **Πομπειό-**
κόλις.

Οἰκοῦσι δ' ἐκ μὲν τῶν πρὸς ἄρκτον μερῶν τοῖς
 Κελτίβηροι Βήρωνες, Καντάβροις ὄμοροι τοῖς
 Κονίσκοις, καὶ αὐτοὶ τοῦ Κελτικοῦ στόλου
 γεγονότες, ὧν ἐστὶ πόλις Οὐαρία κατὰ τὴν τοῦ
 Ἰβηρος διάβασιν κειμένη· συνεχεῖς δ' εἰσὶ καὶ
Βαρδυήταις, οὗς οἱ νῦν **Βαρ-**
δύλλους καλοῦσιν· ἐκ δὲ τοῦ ἐσπερίου
 τῶν τε Ἀσιτύρων τινὲς καὶ τῶν Καλλαϊκῶν καὶ
 Οὐακκαίων, ἔτι δὲ Οὐδettῶνων καὶ Καρητηανῶν· ἐκ
 δὲ τῶν νοτίων Ἰρητανοὶ τε καὶ ὅσοι ἄλλοι τὴν
 Ὀροσπέδαν οἰκοῦσι Βασητηανῶν τε καὶ Ἐδητανῶν·
 πρὸς ἑὼ δὲ [ἡ] Ἴδουβέδα.

Οἱ μὲν δὴ τριχῆ διηροῦν, **Ἀκουίτα-**
νοὺς καὶ Βέλγας καλοῦντες καὶ Κέλτας· τοὺς
 μὲν Ἀκουίτανους τελέως ἐξελλαγ-
 μένους οὐ τῆ γλώττῃ μόνον, ἀλλὰ καὶ τοῖς σώ-
 μασι, ἐμφερεῖς Ἰβηροὶ μᾶλλον ἢ Γαλάταις· τοὺς
 δὲ λοιποὺς Γαλατικοὺς μὲν τὴν ὄψιν, ὁμο-
γλώττου δ' οὐ πάντας, ἀλλ' ἐνίοις μικρὸν
 παραλλάττοντας ταῖς γλώτταις· καὶ [αἱ] πολι-
 τεῖαι δὲ καὶ οἱ βίοι μικρὸν ἐξηλλαγμένοι εἰσὶν.
Ἀκουίτανους μὲν οὖν καὶ Κέλτας ἔ-
 λεγον τοὺς πρὸς τῆ Πυρήνη, διαρισμένους τῷ Κεμ-
 μένω ὄρει.

Zesar-ek, Galietako bere gudalanak kontatzean gogoratzen ditu akitaniarrak: berauek ziren Galietako hiru eskualdeetako baten nagusiak, beste bienak belgiarrak eta zelta-galiarrak ziren bitartean. “Hiru herriok elkarren ezberdinak ziren hizkuntza, ohituraz eta legez”, dio Zesar-ek.

Estrabon-ek zertzelada berriak ematen dizkie argibide horiei: “Hizkuntzaren aldeetik ezeezik, beren itxura fisikoagatik ere akitaniarrena herri guztiz bereizia da, eta galia-rrerekin baino iberiarrekin [hitza, bere adiera geografikoz hartuz ari da, noski] dute antzik”. Eta berehala akitaniar hauen bar-rruti geografikoa ere mugatzen du: *Akitania* “izen hori Mendi Piriniotik eta mendi Zemenetik Ozeanoraino bizi den herri bati ematen zaio, Garona ibaitik honantz”. Hortaz, Galietako zeltek hizkuntza bat baino gehiago zituzten bezala, akitaniarren hizkuntzari hegoaldean ikusten zizkien kidetasunak Estrabonek.

Penintsulako euskaldunei buruz, berriz, beti eskasak izanda ere, albiste ugariagoak ikus ditzakegu autore klasiko hauengan. Mela-k, bere kontakizunean, Galizia eta Asturietatik datorrela, kostaldea deskribatzean, kantabriarren ondoren barduliar-rrak (gipuzkoar-arabarrak, alegia) aipatu zi-

tuen, haien eta hauen arteko beste euskal tribu posiblerik (autrigoinak, karistiarrak) eman gabe. Estrabonek eta Pliniok osatu zituzten berri hauek, gaurko Euskal Herriko orduko tribuak eta inguruetako agian euskaldunak ere aurkeztuz: baskoinak, noski, barduliar-rrak, karistiarrak eta autrigoinak. Biziak eta interesgarriak gertatzen dira Estrabon-ek, Penintsula-ipparraldeko herri hauetaz mintzatzean, haien bizi-moduez ematen dizkigun albisteak.

Hegoaldeko tribu hauen hizkuntz euskaltasunaz edo, klasikoek ez digute deus esaten, eta epigrafia nahiz toponimiatik dakizkigunez baliatuz eta ondoko mendeetako egoera ezagunagoetatik ondoriorik logikoenak ateraiatz esan liteke zerbait: akitaniarrak (Akitania), baskoinak (Aragoa-Errioxa-Nafarroa-Bidasoaldea), barduliar-rrak (Gipuzkoa: Pasaia-Deba; Araba), karistiarrak (Gipuzkoa-Bizkaia: Deba-Nerbioi; Araba) eta autrigoinak (Bizkaia: Enkarterriak; Errioxa) euskalduntzat aipatu izan dira, autore klasikoengandik dakigunagatik baino gehiago geroagoko egoera linguisti-koak iradokitzen duenagatik.

Ἀκουίτανους μὲν τοίνυν ἔλεγον
 τοὺς τὰ βόρεια τῆς Πυρήνης μέρη κατέχοντας καὶ
 τῆς Κεμμένης μέχρι πρὸς τὸν ἄκωνῶν τὰ ἐντὸς
 Γαρούνα ποταμοῦ, Κέλτας δὲ τοὺς ἐπὶ θάτερα μέρη
 καθήκοντας καὶ τὴν κατὰ Μασσαλίαν καὶ
 Νάρβωνα θάλατταν, ἀπτομένους δὲ καὶ τῶν
 ἄλλων ὄρων ἐνίων, Βέλγας δ' ἔλεγον τοὺς λοιποὺς
 τε τῶν παρωκεανιῶν μέχρι τῶν ἐκβολῶν τοῦ
 Ῥήνου καὶ τινὰς τῶν παροικούντων τὸν Ῥήνον καὶ
 τὰς Ἄλπεις. Οὕτω δὲ καὶ ὁ θεὸς Καίσαρ ἐν τοῖς
 Ὑπομνήμασιν εἶρεκεν.

■ Οὐάσκωνες, Βαρδύλλοι, Ἀκουϊτάνοι.

Estrabon idazle grekoak (K.a. c.65 - K.o. c. 20) Iberiaz eta Galia zeltikoaz liburu bana utzi zituen idatzita: Bere *Geographiká* obra handiaren III. eta IV. liburuak. Estrabon ez zen egon Penintsulan, baina hemen egondako albistari onen langaiez baliatu zen bere obra burutzeko (Posidonio-renaz batipat). Euskal Herriko tribuei buruz ere baditu albisteak. Oso laburrak dira, baina beren antzinatasunagatik benetan preziatuak. Hemen azpimarratzekoa da batipat akitaniarren hizkuntz berezitasunaz dioena. Testu grekoan, bereziki nabarmendu ditugu hemengo herrien izenak, eta hizkuntzarena.



AMA XANTALEN (Irun)

Euskal Herriko mendialdea nahikoa urrun geratzen zen, oro har, erromatarren interes ekonomikoetatik. Hala ere, han-hemenka bazeuden puntu erakargarriagoak ere: itsas untziteriarentzako gaualdietan babesleku ziren badiak (Txingudi, Mundaka-Gernika, Nerbioi...) edo meatz-lekuak. Holakoetan, inoiz, joan-etorri handiagorik sor zitekeen. Hemen ematen duguna da adibide bat: Irungo hilerri hau erromatarrek Gipuzkoan utzitako aztarna gutxietako bat da, Oiartzun-Hondarribia puntugune interesgarrian.

Armadak bi harreman-molde zekartzan: kanpotik zetozkigun arma-gizonena eta hemen bertotik, armadara sartuta, soldadu erromatar bilakatzen ziren euskaldunena. Hauetakoak ezagunak ditugu: lehenengo erromatarren arteko gerra zibiletan Penintsulan parte hartu zutenak eta, gero, armadarekin Inperioan zehar ibilirikoak (Anglian, Germanian, Italian, Afrikan eta abarretan ibili ziren barduliar eta baskoinen kohorteak). Horietakoren bat edo beste hiritar erromatar bezala azaltzen da agerietan.

Galtzada-bideetako joan-etorriak aipatu behar dira Euskal Herrian ere: *Burdigala*-tik (Bordale) *Asturica*-ra (Astorga) eta *Tarracotik* *Oiarso*-ra (Oiartzun-Hondarribia) zihozenak ziren nagusienak. Betika edo Mediterraneo-kostaldekoak bezain ibiliak ez izan arren, bazuten beren bizitza ekonomikoa. Bide-sare honen korapilo-une bezala, hiriak zeuden: hauek jendea bildu ezezik, Erromak eskaintzen zituen bizi-erosotasunekin batera eskubide politikoak eskaini diezazkieten bertakotarrei, eta harremanetarako hizkuntza jantzia: Latina.

Euskal Herriak, Hispania-Galiatako lurralderik aberatsenetakoa ez izan arren, bazituen erromatarrentzat bere ondasun bila-

garriak: hegoaldeko lautadetan Mediterraneo neko trilogia ezaguna, garia/ardoa/olioa, eta Mendialdean burdin meatzak (Oiartzungo Arditurri eta Somorrostro gogoratu ohi dira adibide ezagunenak bezala).

Konkista-ondoko kolonizazioan harreman etnokulturala susta zezaketen faktore guztion artean asimilazio-tresnarik eraginkorrenak, eta ondoriorik luzeenekoak hiritar-zuzenbidea eta hizkuntza izan zitezkeen, Erromatar Inperioaren historiak erakutsi digunez. Lehenengoa hemen ere aplikatu zen, hiriak sortuz eta hiritarrei molde bateko nahiz besteko eskubideak aitortuz.

Hizkuntzarekikoetan, orduantxe suertatu zitzaion euskarari, Historian desagertzeko izan duen arriskurik handiena, hain zuzen erromatartzeak zekarren latinizazioaren indarrez. Jakitun denak bat datoz honetan. Izan ere, zinezko erromatartze oso baten, elebitasuna sortzen zuen lehenengo, baina hizkuntz trukaketa ondoren. Baina, hemen, ohizko gertabide hori ez zen osorik bete, Erromaren Inperioa goitzo ahuldu eta erori zelako, noski, eta hemen erromatartzeak izan zuen indar eskasagoagatik ere bai.



TESEO ETA MINOTAURO (Iruñea)

Mendialdetik behera, *ager vasconum* deituan, nekazal ekonomia emankorra ezezik, hiri-bizitza aberatsa ezagutu zen, eta, mosaiko honek erakusten duenez, erromatar eta erromatartuen artelan eta ideiak hamaika modutan agertzen zaizkigu eskualde honetan.



■ LAPURDUM (Baiona)

Hasieran arrantzale-herriska bat zen *Lapurdum*, baina IV. mendearen azkenetan *Novempopulania* eskualdearen indargaztelu erromatar bezala ageri da dokumentuetan. 1.125 metrotako perimetroa zuten hiriko murruek, eta 35/40 m altuerako 25 dorre; azalera 10 hektareatakoa zen. Hiri erromatarrek ohi zutenaren arabera, bi kale ardatz zituen: *cardo* deitua (orain Espainiako karrika) ipar-hegoetara zihoana, eta *decumanus* eki-mendebalekora luzatzen zena. *Lapurdum*, beranduko hiri bat da, erromatarrek beren azken erresistentzi mendean eraikia.

(Marrazkia: LAUBURU: *Histoire et Civilisation Basques*. Dossier, I, 54).

■ Euskara eta latina elkarren auzoko

Euskararen eta latinaren, edo hobeki esateko, euskal hiztunen eta latin-hiztunen arteko harremanetan bi alde ezberdin bereiziz has gaitzke: alde batetik, bi komunitate linguistiko horien arteko abenikoa edo gatazka soziolinguistikoa aipatu behar da, eta bestetik, harreman horien ondorioz, bi hizkuntzek beren baitan trukean jasan zuten aldakuntza (maileguak eman nahiz hartuz, batez ere).

Latinaren eta euskararen lehen ukipen-prozesu sozialaz deus gutxi dakigu, egoera aldakor haren historia belaunez belaun egin ahal izateko. Izan ere ez da ahanzi behar, K.a. II-K.o. X. mendeetan ez dagoela euskararen jarraibide idatzi segiturik.

Mila eta berrehunen bat urtetako epe hori bi parte berdintsutan bana daiteke: guri orain dagokiguna lehenengoa da, hau da, Erromaren erorikoa artekoa (V. menderainokoa). Garai honetako harreman soziolinguistikoak, aipatu berriak ditugun Inperioko baldintza sozio-kulturalen barnean begiratu behar dira.

Erromak ez zuen ezarri latina, lege edo dekretu bidez, baina ezarritako egitura politiko eta sozio-kulturalek horretaraxe ere zuzenduta zeuden: antolamendu sozio-politiko berrian latina zen hizkuntza bakarra. Nonnahitik zetozen kolonizatzaileek latina zuten mintzaira amankomun bakarra, nahiz eta, beren sorleku ezberdinengatik, ez denek latin-modu berbera izan.

Inperioko herrien latintzeak mendebaldean Historiako bigarren indoeuropartze handia ezarri zuen, aurreko beste hizkuntza indoeuroparrak, Rhin-etik mendebalerantz bederen, itoz edo oso alboetara baztertuz (galiera eta zeltiberiera ito egin ziren, bretoiara bezalakoren bat edo beste Inperioren ertzetan salbatu zen).


Gaurko Euskal Herriaren, edo hobeto, *saltus*-aren, txikitasuna, ahulezia, pobretasuna, batasuna eta erresistentzia armaturik eza izango lirateke, euskaldunon aldetik, hizkuntza gordetzen lagundu ziguten faktore nagusiak. Erromatarren aldetik, ostera, laster (III. mendeaz gozotik jada?) Inpe-

LATINETIK, ZER HAR?

Euskararen eta latinaren arteko topaketa bi gizarte-molderen topaketa da batipat: Alde batean, hasieran, konkistari eta kolonizatzaile arrotzak zeuden bakarrik, atzerritarak; laster, ordea, euskal klase jasoenetako zenbait eta erromatarren hirietara inguraturiko merkatal klaseak. Guzti hauentzat, etorri-berriekin harremanetan probetxu hoberik ateratzeko, erabat premiazkoa gertatzen ari zen latina, eta, hortaz, elebidundu egin ziren. Beste aldean, gorabehera hauetatik urrun, edo urrunago bederen, nekazari eta artzain-jende euskalduna zegoen, mendialdeetakoa noski, eta baita lautada zabaletakoa ere. Hizkuntzarteko harremanetan, euskaldunek batez ere hitzak hartu zituzten latinetik, baina euskararen egitura gramatikalak askoz gutxiago ukitu zituen trukaketa honek. Hartutako lexiko berriaren aukera egitean, marrazkian ikus daitekeen gisako zalantzarik ere egon zen.

rioaren kontrol-aparatua ahulduz joan zen hemen, bi mende geroago erabat lur jo zuen arte. Latinaren tresneria kolonizatzaileak ez zuen aski indar izan. Faktore hauen osagarrri, gogora liteke, gainera, euskararen beraren *bestelakotasuna*, hots, bere barruko hizkuntz egituretan latinarenetatik duen berezko aldea: Euskarak, berez, gehiago urruntzen zuen euskalduna latinaren gizarretetik, kantabriarra bere indoeuropeerak baino, gogoratu da inoiz aipatu hipotesia argitu nahiz.

Baina Euskal Herriak ere ezagutu zuen partez, latintze-aldakuntza bat. Nola, ordea? Lehenik, eskualde irekienetan berehalako latintze goiztar bat gertatu zen (Ebro-aldean, Akitanian, Pirinio urrenanean, eskualde zeltizatuetan); hirietan, hauek eraiki zirenetik, bizitza elebidun bat egin zen, gerora beti ere latin-elebakartzera lerratu zena. Dena den, kolonizatzaileekin mantendu ziren bakezko harremanei esker erromatarrek lortu zuten euskal klase sozial garaienek kultur proposamen berrien abantailak ulertzea. Eta horrek latinari laguntzen zion.



Ez da aisa jakiten zer dugun, eta zer ez, orduan latinetik euskarara zuzenean etorri zitzaiguna. Jakitunen arteko eritziak maiz arunt kontrajarriak agertzen zaizkigu, latinetik maileguen kronologia finkatu ahal izateko oztopo larriak aurkitzen bait dituzte. Latin herritarretik hizkuntza erromanikoe-tara doan segidatasunean mailegu zaharren eta beranduagokoen geruzak epekatzea nekeza gertatzen da, hizkeren etenik gabeko jarraitasun horregatik.


Nolanahi ere, *bago* edo *gaztaina*, esate baterako, latinetik zuzenean, tarteko erromaniakorik gabe, heldu ziren euskarara, eta mailegu zahartzat eman behar dira. Eta herrenkan datoz honelako ziur batzuk: *bake*, *bike*, *biku*, *ingude*, *iztupa*, *goru*, *buztarina*, *lupu*, *angelu*, *okela*, etab. Bestalde, latinaren eragina lexikoan ezezik erator-atzizkietan azpimarratu izan da. Guzti hau, edozein gisatan ere, kristautze-unearen atarian geratzen da, hain zuzen latinaren mailegu-olatu berria eka-rriko zuen kulturazio-une baten ataurrian.

BAINA EUSKARAK IRAUN EGIN ZUEN

Hitz berri ugari hartu arren, euskaldunak euskaraz hitz egiten jarraitu ziren, askok ez bait zuen latinik ikasi, eta gehienek zekiten euskara.

(Marrazkiak: LAUBURU: *Histoire et Civilisation Basques*, Dossier, I, 58).

...ag.
...afal una ley...
...no pierregas, er aque...
...fiziendo el seymoz...
...le no aya clamoz...
...es la fecha q es llamada aca
...Si una fecha que guerrico...
...es llamada en bascués
...aca guerrico er aque...
...ne ser que ante un...
...eda leuar en el...
...100...



te Laghu

EUSKARA, ERDI AROAN

Dugu Nibia
fha dau elia.
apsyn pulan dia,
ura Nibia.

U... g... e... g... g... e...
... a... e... e... e...
... a... g... a... e...
... e... e... e... e...
... e... e... e... e...
... e... e... e... e...
... e... e... e... e...
... e... e... e... e...





■ EUSKAL HERRIA, BEREĠAINA

581ean, kronikariak idatzi zuenez, Leobigildo errege bisigotuak, Euskal Herriari eraso eta beronen parte bat hartu ondoren, *Victoriacum* (= Gasteiz bisigotu bat) eraiki zuen. Urte berean, iparraldetik Txilperiko errege frankoak Bladastes jenerala bidali zuen euskaldunen kontra, eta hemen galdu zuen nonbait, armadaren parte on bat. Horrelako asko izan zen VI-VII. mendeetan. Baskoinak, menperaezinak gertatzen ziren inguruko erreinu germaniar berrientzat. Tours-eko Gregoriok, urte haletantxe (587) idatzi zituen goiko hitzak: *Baskoinek, ordea, mendietatik lautadara etorri, mahasti eta soroak hondatu zituzten, etxeak erre, eta bizilagun asko beren aziendekin preso eraman. Eta Austrobaldo jeneralak, sarri eraso bazien ere, ez zuen ondorio on handirik lortu. Barbero eta Vigil-ek idatzitakoa jarraikiz, ez dago zalantzarik: VI. mendearen bigarren erdialdian kantabriarrak eta baskoinak herri independenteak ziren; ez frankoek, ez bisigotuek edo sueboek berengana zituzten.*

(Maparen iturria: The Times Atlas of World History 99.or.)

■ EUSKARA, ERDI AROAN ZEHAR

Aurreko orrialdeetan ikusi dugu: Euskal Historiaurrearen azken milakadan, K.a. 1.000tik edo hasita, herri etorkin indoeuroparrekiko harremanak bizi izan zituen Euskal Herriak, eta ondoren, erromatarrekin, Inperio-Estatu batek erabil zezakeen hizkuntz indarra ezagutu zuten euskaldunek. Azken historialdi hau K.o. IV-V. mendeetan burutu zen, Erromaren Inperioa goitik behera etorri zenean. Ondoko milakadan, XV. menderaino, berebiziko hizkuntz aukera historiko berriak egokitu zitzaizkion euskaldungoari.


Goiz-Erdi Aroan (V-XI. mendeetan), Euskal Herria bere baitan mamituz joan zen: birpopulaketen eta armen bidez lurak irabaziz, lanez eta asmoz lurraldea eratuz, eta erakundeekin aginte politikoari antolamendu berriak emanez (Baskoniako Dukerria Akitanian, Iruñeko Erreinua Nafarroan). Botere politikoa hemen bertoko indar sozialen gain eraiki ahal izan zenez gero, oro har herri-hizkuntzek erakundeetan leku ofiziala aurkitu ahal izan zuten. Izan ere, erbesteko antolamendu politikoez eraso arren (gotuek, frankoek), goraka zetorren euskal demografiak lehen mendeetan biziki lagundu zien euskal gidarien asmo politikoei.

WASCONES UERO D MONTIBUS
PRORRUMPENTES IN PLANAS
DESCENDERUNT. UINEAS AGRO-
SQUE DEPOPULANTES, DOMOS
TRANDENTES INCENDIO, NON-
NULLOS ABDUCENTES, CAPTIU-
OS CUM PECORIBUS, CONTRA
QUOS SOEPIUS AUSTRUALDUS-
PROCESSIT, SED PARUAMULTIO-
NEM EXERCUIT AB EIS

Lehenago erromatarrekin izandako bakebidezko politika aldatu egin zuten baskoinek V-VII. mendeetan: Harez gero ez zen onartzen kanpoko monarkia arrotzen agintea, eta superpopulazioak zekartzan gosteek eztenkatuta inguruetako herriei eraso ere egiten zieten haiek, Akitanian bezala hegoaldean ere.

Pareko zerbait gertatu zen, euskarari euskaldungo ugariago hark eman zion aurrera-bultzadarekin, latinaren aitzinean galdutako lurak berreskuratzeko eta berriak ere irabazteko ahalmena izan bait zuen. Esan beharrik ez dago: Horretarako, Inperioaren erorikoak bideak samurtu egin zituzten hizkuntzari, eta, bestalde, hiri erromatar latinduek ahuldu egin bait ziren, jendea bizitzera landaldetara pasatzean. Horrela, hizkuntza ezartzeko tresna sozialik indartsuena galdu zuen latinak, hiria. Euskal mintzatzaileen kopuruak eta nagusitasun sozialak gora jotzean, hiztun hauen hizkuntza ere indarberritu egin zen gizartean. Horrela, ba, latinarekin hasitako euskal herritarren elebiduntzea moztuta geratu zen.


Euskal Herriaren kristautzea geldiro eta pixkaka egin zen. Lehenik, lautadetakoa apezpiku-hirietatik (Iparraldean, Erriberan,



■ EUSKALDUNAK, BIRPOPULATZAILE

Zalduendo edo Urkiza bezalako izenek, edo erdal izeneko herrietan oraindik ere aurkitzen dugun euskal toponimiak (Burgos hiriburutik 14 kilometrotara dagoen Ibeas de Juarros-en, adibidez),

IX-XIII. mendeetan Errioxara eta Gaztelara euskaldunek eramandako eta bertan mintzatutako hizkuntzaren berri ematen digute. Argazkietan: Euskal toponimia duten Burgosko zenbait herri eta Urkizako urtegia (izen bereko herria urpean geratu da).



■ EUSKAL HERRIKO SANTIAGO-BIDEAK

Mapa honetan ikus daitekeenez, Santiago-Bideek Euskal Herriko mendialde eta lautadak zeharkatzen zituzten. XI. mendetik aurrera


bide hauetatik hainbat hizkuntza ezberdinetako jendeak heldu zitzaizkigun. Geroz eta zabalagoak izan ziren Europarekiko harremanak.

Araban); geroago, monastegietatik eta Santiago-Bidearen galtzada edo bidezidorretatik. Aldakuntza honek hizkuntzari bere ekarria egin zion, euskaraz latinetik hiztegi berria txertatuz.

Berant Erdi Aroan (XII-XV. mendeetan), euskal lurralde historikoak eratzten dira, beren Foru eta Erakunde Publikoekin. Hiribilduak ere orduan jaio ziren (1100etik aurrera, ugariago), batzuetan kanpoko jendeak ere bilduz, eta gehienetan bertako jendeekin. Hizkuntz topaketa berriak ezagutu zituen euskarak, garaiko Euskal Herri zabalago hartan.

Baina jendez eta esparruz handitu bazen ere, gizarte euskaldunak ez zuen lortu, Erakunde eta bizitza ofizialean latinari lekua kendu ahala, euskarari ematea: bizitza ofizial idatzia, oro har, hizkuntza erromanikoetara pasa zen, "lingua vasconum" zaharra eguneroko bizitza arruntera, gehienez ere mundu ofizial mintzatura, biltzen zen bitartean.

Geroztik, Erdi Aroan hartutako bideari jarraituko zitzaion euskal gizartea hizkuntz burubide honetan.



Kristautzea eta euskara

Euskal Herriaren kristautze-historiak eztabaida gordinak sortu izan ditu gure artean, batez ere prozesu hori datatzerakoan: Noiz gertatu ote zen eztabaidatzean, II-XI. mendeak arteko epe luzean barreiatzen dira eritzi kontrajarriak. Batzuek oso goiz hasi eta bukatuta ikusten dute aldakuntza erlijioso-kultural hori; beste batzuek nahiago dute dena atzerapen handiago batez datatu.

Laburbilduz, S. Mariner-ek esana gogora dezakegu: VIII. menderarte edo, "Euskal Herrian ez zegoela kristaurik pentsatzea gauza bat da, eta oso bestelako zerbait ez-kristaurik ere bazegoela uste izatea". Euskal Herriaren Kristautzea epe luzeko gertabide geldia izan zen, dirudienez, eta ez bapateko gertakaria.

Kristautasuna, lehenik eta errotuenik, Inperio Erromatarrean zabaldu zen, eta Inperio honen bi eskualde handietan —Men-

debaldean eta Ekialdean— nagusitu ziren bi joera linguistiko kontrajarriek koloreztatu zuten Eliza kristauen zabalkunde-lana ere. Inperioaren Ekialdean betidanik izan zuen indar handia grekoak, eta latinaren ofizialtasunarekin batera grekoaren betekizun kulturala, eta herritarra ere, nabaria izan zen han. Bitasun horrekin batera, Ekialdeko Eliza kristauak hizkuntz irekitasun nabariago bat izan zuten kristautu behar zituzten herriekin: Herrian herriko hizkuntzez baliatu ziren predikuetan, Biblia zabaltzean eta Liturgian (kopteraz, syrieraz, armenieraz, georgieraz, gotikoaz, edo paleoeslavieraz itzulpenak prestatuz, alegia).

Eliza erromatarrak, ordea, III-IV. mendeetatik aurrera bestelako hizkuntz politika bat egin zuen Mendebaldean, Elizaren hizkuntz batasuna eliz batasunaren beraren euskarriztat hartuz. Horrela, lehendik Mendebalde honetan Inperio erromatarrak izandako jokabideak indarrean iraungo zuen

EUSKAL HERRIAREN MUGAK

IV. mendean Inperio Erromatarrak bere muga-hesiak jarri behar izan zizkion baskoinen eraso-beharrari: "limes" gisako bat eratu zen mugetan, gotorleku eta goardizioak jarritz.

Bisigotu eta frankoek ere gogor ekin behar izan zuten ondoko mendeetan baskoinen aurka, aldian aldiko joanetorri armatuak antolatuz ezezik, ahal zutenetan, baita beren hesi-sistema iraunkorra eraikiz ere.

Hurrengo arabiarrek ere halatsu jokatu zuten, nahiz eta euskal lurretan eta euskaldunon artean inoiz aliatu ere aurkitu (Erriberako Banu Oasi-tarrak, adibidez).

Horiek horrela, Euskal Herriak, Birkonkistarekin, hegoalderantz zabaltzeko aukera izan zuen, bere hizkuntza eta guzti.

Eliza erromatarraren bidez. Bigarren latinezazioaren ordua zen hura: "Penintsulako lehen hizkuntzek jasandako azken kolpe erabakiorra, guztiak behinbetirako garbitu zituen, Kristautasunaren zabalkundea izan zen, erromatarren armek, letrek, merkatalgoak edo administrazioak iristea eta sartzea lortu ez zuten zokoetaraino heldu bait ziren apostolu kristau saiatu haiek, beti era jendea irabazi nahiak eztenkatuta" (García Bellido).

Euskal Herrian ere Kristautzeak latinez betekizun sozio-kulturala areagotu egin zezakeen, eta, bide batez, erromanikoaren hizkuntza menperatzailerik ezaren abagunean, "hutsarte soziolinguistiko" hartan, euskal hizkuntzak ez zuen aurkitu eliz Erakunde boteretsuaren babes ofizialik, osorik bederen. Horrek ez du esan nahi, ordea, misio-hizkuntzen arazoak eliztarren bat edo beste arduratu ez zuenik.

V. mende-hasierako Eutropio batek, predikariek katekesian herritarren hizkuntzan hitz egitea txalagarria ikusten zuen. Berak idatziaren argitan, baskoinen Kristautze-ahaleginei buruz ari zen Eutropio, hain zuzen. Badirudi, beraz, Eliza erromatarraren erizpide orokorrak gorabehera, baskoinen kasuan harreman pastoralek ere bortxatzen zutela euskararen onetan zeto-


rren jokabide mugatu baina txalagarri hau (zenbateraino, noiztandik eta noiz arte indarrean egon zen ez dakiguna).

Baina, ofizialtasun hobea behar zenean (Biblian, edo Liturgian, esate baterako: Meza eta Sakramentuetan) edo kultur egin-kizun jasoagoetarako, latina zen berriz ere nagusi. Eliza erromatar latintzaleari jarraiki, euskal izkribakera baten faltak ere eragotzi omen zion euskarari erabilpen zabalagoa.

Oro har, aurkako gertatzen zen praxi haren sareetan hartua egon arren, euskarak gaina hartu zion, ebanjelizazioak, garai haietan eta hemen, hizkuntzarentzat berekin zekarren desagerpen-arriskuari, askoren ustez, hain zuzen Kristautzea berandukoa izan zelako eta, gehitu daitekeenez, baita mehatxuak euskaldungoaren orduko jatorrizko gizartea nahikoa sendoa aurkitu zuelako ere.

Bigarren ukipen-aldi honetan, pentsa daitekeenez, euskarak hainbat eta hainbat hitz mailegatu zuen. Latinezko eliz hizkeratik datozkigun hitzik zaharrenak III-V. mendeetakoak direla uste da: *abendu, aingeru, al-dare, denbora, domeka, fede, gurutze, gura, meza, zeru, etab*. Orduko garaiei zegokien modernizazio-modu bat zen hau dena, noski.

Defensores supradictarum
et ipse comes uel successor
inter omni clero et deo
quod omni clero et deo
manu et deo
Similiter facient succ
mendabit omni clero
dagnum quod facier
facient successores



1. Beranduko erromatartze baten mugak (VI-VII. mend.)
2. Euskara nagusi zen barrutia (IX-X. mend.)
3. Euskararen 1863ko mugak
4. Euskal lekuzizeneren mugak
5. Ojacastroko Harana: euskaraz egiten zen XIII. mendearen lehen erdian

- Bizilagun gaskoinak zituzten herriak
- Bizilagun frankoak zituzten herriak

Euskara eta hizkuntza erromanikoak

Erdi Aroan, latinetik jaiotako hizkuntza berriek inguratuta aurkitu zen euskara, eta inguratuta ezezik horietako hiztun arrotz asko barruan zituela.

Gotuerak (V-VII. mend.) ez zuen ez politikoki, ezta sozio-kulturalki ere aski indar izan euskara arriskutan jartzeko; arabierak (VIII-XI. mend.), ostera, Erriberan politikoki ongi finkatuak eta kulturalki arriskutsuagoak, Iruñeko erreinuan izan zuen bere hesia. Herriok hemen bertan Estatu eratu iraunkorrik utzi ez zigutenez, ez zuten ondoko mendeetarako hizkuntza lehiakiderik ere hemengo inguruetan finkatu.

Hurrengo mendeetan (X-XV. mend.), lagun edo arerio, euskarak bere ondoan izan zituen hizkuntzak erromanikoak suertatu ziren; eta berauek izan ziren, bizilagun bezala, garrantzirik handiena izan zutenak: iparraldean, okzitanieraren *kaskoia*; ipar-ekialdetik *aragoera* eta *nafar-erromanikoa*; hegomendebaldeetan, *gaztelania*.

Santiago-Bideak gidatuta eta agintarien politikak erakarrira, hiztun arrotzik ez zen falta izan barnean ere: merkatalgoa eta hiri-bizitza indartzeko frankoak etorri ziren (*okzitanieraren* dialekto ezberdinekin); dozenaka judu-auzo ere bazen, hebraieraz ari zena, eta Birkonkista zabaldu ahala, beti geratzen ziren Nafarroa handiagotuan *arabie-*

INGURU ERROMANIKOA

"Euskara, orain 2.500 urte" dioen maparekin oraingo beste hau erkatzen badugu (XI-XIII. mendeetako), aldeak agerian daude: a) Akitania galdu da, baina b) Pirinioetako parte on bat euskalduna da, eta c) Hegoalderantz zabaldu da aurreko mendeetan euskara: Errioxa. d) Inguruetatik hizkuntza guztiak berriak dira: Aurreko mapa hartatik ez da bat ere geratu, euskara ezik. (Legendak argitzen ditu mapako zenbakiak).

radun batzuk. Gaztelania, birpopulatuzaileekin, hegoaldera zabaldu zen bereziki, artean euskararen barrutia bere hartan utziz. Eta, gogora dezagun, *frantsesaren* lurraldea urrun zegoen, ehundaka kilometrotara.

Erromanikoetako batzuk euskaldunen ezpainetan zebilen latinetik jaiotako dira, beren fonologiek erakutsita daukatenez (gaztelaniaren fonologian ispilatzen da hau, batez ere).

Euskarak eta erromanikoek, elkarren ondoan zeudenez, ukipen-esparruetan, elebitasun-modu ezberdinak bizi izan zituzten. Zoritxarrez, deus gutxi jakin dezakegu elebitasun-egoera haietaz; baina, nolana ere, euskara ez zen gertatzen "gorenoko" hizkuntza, zeren eskolatuek latina bait zuten eginkizun jasoetarako eta, berau uzten zutenean, beste edozeini heltzen zioten, euskarari ezik. Sozialki azpiko hizkuntza zen hau, biztanleetako gehiengoarena zen eskualdeetan ere.

Erdi Aroko hizkuntzen geografia hartan bi gertakari handi azpimarratu behar dira: 1) Akitanian eta Pirinioetan, Erdi Aroan zehar, atzera egin zuen euskarak, baina 2) Hegoaldean hedapen nabaria ere izan zuen, berehala ikusiko dugun bezala.

GLOSA DONEMILIAGARRAK

Prediku-liburu batean, ertzetan idatzitako esaldiak dira glosa hauek (c. 950). Jakitun denak ados daude, euskarazkoak direla esatean; baina, ondoko latinezko testuaren itzulpen bezala edo egon arren, eritzi ezberdin asko dago berorien egiazko esanahia emateko: *jzioqui dugu* 'piztu dugu', edo 'halakotzat eduki dugu'; *guc ajutuezdugu* 'ez dugu aski', esate baterako.

Errioxako Euskal Herria


Errioxa Garaia euskalduna izan dela ez du inork zalantzan jartzen; baina noiztandik izan ote den eztabaidatua da. Errioxaren euskaltasuna gehien ikertu duen Merino Urrutiaren ustez, Errioxako autrigoinak eta beroinak Antzinateetik ziren euskaldunak. Gainerako jakitun gehienek ez dute beste hainbeste pentsatzen, eta, berandu samar jarrri nahi bada, X. mendean gero iparraldetik heldu ziren arabarren eta mendebaldeko euskaldunen emaitza bezala ikusten dute Erdi Aroko euskalduntzea: Errioxa, hortaz, orduan euskaldundu edo, nahiago bada, euskaldunagotu zen.

Erdi Aroko Errioxa politikoki XI-XII. mendeetan eratu zen; baina lehenagotik, VIII.ean bertan, hasita zegoen Birkonkista (Cenicero, 735), eta garaiko monastegietako monjeek euskal izenak zituzten (San Miguel de Pedroso, 759). Errioxa antolatu-berriak bi gauza eskaini ziezazkiekeen iparraldetik zetozkeenei: segurtasun armatua eta *presura* deitu ohi zen sistemaz ematen zitzairen lur-jabegoa. Bakezkoa izan zen, beraz, birpopulaketa hau, seguraski erromanikoz mintzatzen zen biztanleria bakan baten tartean eгина.

Oja, Tirón, Oca eta Arlanzón ibaien arroetan eta Obarenes eskualdean lekutu ziren euskal etorkin hauek. Ebro-bestealdean

euskal toponimia mendebalderago hedatzen da, Ebroren honanzkoan baino. Burgos-aldera gehiago zabaldu zen migrazio hau, Ert-Errioxa eta Errioxa Beherera baino. X. mendeko lekuizenek diotenez, Oja/Najerilla-Cárdenas ibaien arteko isur-lerroak izango lirateke ekialdeko mugak, nahiz eta Ebroz beherago ere gaur egun euskal toponimia bakanago bat topatu ahal izan. Mendebalderantz, berriz, lekuizendegi trinkoagoa aurkitzen da Oja eta Tirón-en lurraldeetan, Oca eta Arlanzón-enetan baino.

Errioxa Garaiko euskalgungo haren hizkuntzari buruz badakigu zerbait, eta dakigun horri esker ezagutu izan da iritsi zirenen jatorria ere. Toponimian eta pertsona-izenetan utzi zuten hizkera mendebaldeko euskalkietakoa da, Aro Modernoan Bizkaian eta Araban ezagutu ditugun dialektoetakoa. Antzinateko tribuekikoa gogoratu nahi bada, autrigoin, karistiar eta, agian, barduliarrek hitz egiten zuten euskara, alegia: *huri* eta *baltz* agertzen zaizkigu, *hiri* eta *beltz*-en orde. Baskoinak, hortaz, ez zuten ekarri nabaririk izan hemen orain aipatzen den Errioxa Garaiko honetan (X. mend.). Ondoko bi mendeetan, beharbada, monarkia nafarraren ekialderako politikak, biztanle-tan ere, ekarri berriak egin zituen. Horrek



EUSKARAREN ALDEKO EPAIA (c. 1239)

Auzi batean emandako epaia zen *fazanya*, Erdi Aroko gaztelaniaz. Merinu Nagusia, lurralde bateko erret epaile nagusia zen; gaztelania zaharrean *recudir*-ek 'erantzun' esan nahi zuen. Ojacastrako alkateak, beraz, herritarren hizkuntz eskubide berezic (= *fuero*) defendatu zuen, Merinu Nagusiak lehendik zetorren euskaldunen eskubidea ezagutu zuen arte. Garaiko Erregeak, Gaztelako Fernando III.ak, hortaz, auzitegietan euskara erabiltzeko eskubidea ontzat ematen zuen Errioxako euskaldunentzat.




■ OJA-TIRON IBAIEN ARROAK

Demanda mendizerraren altzotik Ebro-raino zabaltzen dira bi ibai hauen arroak. Agiri historikoetatik ezagutzen ditugun euskal lekuizenen ondoan, ehundaka eta ehundaka dira gaur egun ere bizirik dauden izenak bi ibar hauetan. Hemen irudi eta izen gutxi batzuk hautatu ditugu. Azpimarratzekoak dira *-uri* atzikiarekin ageri diren hiri-erakuntzak.

| UDALA | KOPURUA |
|------------------|------------|
| Ojastro | 238 |
| Ezcaray | 508 |
| Zorraquin | 63 |
| Valgañon | 54 |
| Santurde | 34 |
| Santurdejo | 60 |
| Guztira | 957 |

■ LEKUIZEN EUSKALDUNAK (Oja ibaiaren arroa)

Merino-Urrutiaren lanetan bildu ahal izan ditugun estatistika hauek dakartzagu hona. Oja-ren arroa da orain arte Errioxan euskal lekuizenetan uztarik oparoena eman duena. Bertako udalerrri batzuetako izen horien estatistikak hauek dira.



EUSKAL TOPONIMIA ERRIOXAN ETA BURGOSen

Orain arteko azalpenetan Errioxa Garaia, hau da, Oja eta Tirón ibaien arroak ikusi ditugu; baina hortik beherago ere, Ert-Errioxa eta Errioxa Beherean ez da falta euskal toponimiarik. Aurreko kapituluaren Pirinioetakoa erakusten genuen (Coromines-en albistekin), hemen Errioxa osoan euskal lekuizenak dituzten herriak adierazten dira, batzuei beren izenak ere emanez. (Gogoan izan herri-izen erdalduna dutenatan ere euskal lekuizenak egon litezkel.)

Mapak erakusten digunez, Burgos hiriburuaraino hurbiltzen dira euskal izendegia duten herriak: Rubena, Espinosa, Ibeas de Juarros.

esplikatuko luke, adibidez, Aimerich Picaud erromesak, nafar-muga Oca mendietan jartzea (XII. mend.).

Eta gatozen Errioxako Euskal Herri hartako bizitzia kulturalera. Donemiliagako Monastegia eta Berceo herria aipatu dugun Oja-Najerilla-ren tarte-muga horrentantxe zeuden. Hain zuzen, Monastegiak esanahi historiko-sinboliko ezaguna izan du gero, bertan idatzi bait ziren sermoitegietako *Glosa Donemiliagarrak*, hau da, latinez zeuden predikuak ulertu ahal izateko albotan euskaraz edo gaztelaniaz izkribatutako esaldi argigarriak. Orrialde horietan bildu dira euskaraz nahiz gaztelaniaz (ala nafar-erromanikoz) emandako lehenengo esaldi idatziak (X. mendekoak).

Berceo herriak, Berceo olerkari gaztelaua gogoratzen digu (c. 1180/90-1265). Gaztelaniaz idaztean zerabiltzan *Don Bildur* bezalakoek beste hizkuntza ez-erromaniko baten oihartzuna dakarkigute euskaldunoi. X. mendean Glosek erakutsi zuten eskualdearen euskaltasuna; hiru mende geroago ere indarrean zegoen han Berceo-renak adierazten duenez. Baina, hori baieztatzeko, badago froga hoberik ere.

Donemiliagan bizi zen poeta, eta haren bizilekutik hurbil, urte beretsuetako (1234-1239) eta mendiz bestaldeko Ojastroko euskarari buruz agiri interesgarri bat eza gutzen dugu orain. Gaztelako Merinu Nagusia zen Don Morial-ek gorabeheraren bat izan zuen Ojastroko Alkatearekin, bertako auzolagunei auzietan euskaraz entzu-

nak izateko eskubidea ezagutu ez zuelako. Horretarako eskubidea (*fuero*) aitortzean bakarrik utzi zuten libre Merinua. Hortaz, Gaztelako Fernando III.a Santuaren erreinaldian, Errioxa Garaian ofizialtasun bat aitortzen zitzaion euskarari. Euskararen historian ezagutzen dugun albiste soziolinguistikoko dokumentalik bitxienetakoa da Merino Urrutia-k gizarte euskaldun hartaz zabaldu-tako hau.

Gerotxoago, euskara Ebro-aldeko beterrian ito ondoren ere, gaztelaniak inguratuta bizi arren, bere hartan mantendu zen bizirik euskal mintzaira, Oja ibaiaren goiherrietan, euskararen Ebroz honanzko euskal lurraldetik isolatuta. Pirinioetan Erdi Aroko beste esparru batzuetan gertatu zenaren antzera agian.



■ "LINGUA NAVARRORUM" (1167)


Aralar-ko San Migel Monastegiari zuzendutako agiri batean Antso VI.a Jakitunak honela izendatu zuen euskara. Erreinu handiki eta jakitunek beren zeregin berezi idatzietan beste hizkuntzez baliatu arren, Erregeek bazuten euskararen nafartasunaren kontzientzia.

■ Erdi aroko "hizkuntza Nafarra"

1. Nafarroako Antso Jakitunak "lingua navarrorum" deitu zuen euskara (1167), berau nafar herri gehienaren mintzairatzat aitortuz. Betidaniko "basconea lingua" deitua zen. Aurreko orrialdeetan han-hemenka esandakoak Nafarroara bilduz eta datu berriak ere gehituz, ikus dezagun euskara nafarrari buruz zerbait.

2. Lekuz leku toponimian, eta izenez izen agirietan, euskal leku- eta pertsona-izenak milaka dira Erdi Aroko Nafarroan, herri, monastegi eta landetan. Hain zuzen, datu horietatik ezagutu ahal izan da garaiko euskara, nafarren jatorrizko hizkuntza. Dakigunez, une batean Kodes-Lerin-Arga-Tafalla-Kaparroso-Zangoan zehar doan marratik iparralderantz zen euskara nagusi.

Burgu eta monastegietan bestelakoa zen egoera. Hauetan euskarari okzitania edo erromaniko nafarra inguratzen zitzaizkion, edo latina. Garbi esanda: Ekonomia hiritarraren bizitzan edo kultur eginkizunetan beroriek euskarari aurrea hartzeko arriskua zegoen. Eta horixe gertatu zen agiri idatzi gutxi-asko ofizialetan: Nafarroako Artxiboi Nagusiko 80.000 bat agiri erromaniko nafarrez daude idatzita; 3.000 bat, oster, okzita-



nieraz; euskaraz, ia deus ez. Euskara, administrazio-zereginetatik kanpo geratu zen, bere etorkizun hobeago baten kaltetan. Euskara ez zen iritsi hizkuntza idatzia izatera, horretan aspaldidanik latina aurretik zihoi-lako, eta laster, gizarteko indar nagusiek hizkuntza erromanikoak horretarako nahiago izan zituztelako.

Hori gertatu zen Erakunde berrien arauak idaztean ere; baina hiztunen bizitza sozialak ere agintzen zuen, eta Nafarroako Foruan maiz agertzen zaizkigu gizarteko errealitate arruntan euskarazko izenak, hau da, herritarrek euskaraz erabiltzen zuten eguneroko hiztegia. Izan ere, lege haiek gobernatu behar zuten herria euskalduna zen gehienbat, Nafarroan; hala ere, klase sozial jasoak nafarren jatorrizko hizkuntzatik urrunduz zihozten.

3. Eskastasun sozio-kultural horiek gorabehera, lurraldez eta herriz zabaldu ere egin zen Erdi Aroan Nafarroako euskara: Birkonkistak Nafarroan Hegoalderantz egin ahala, birpopulatazileek beren hizkuntza ere eraman zuten. Estatistikek diotenez, Olitera joan zirenetako % 42,3 euskaldun hutsak edo elebidunak ziren (1244-1264).



■ NAFARROAKO MONASTEGIAK: LEIRE

Nafarroako Monastegietan Erdi Aroko euskararen oihartzunak berehala ageri dira, paperetan. Haietako agiritegiak ditugu, adibidez, garaiko euskaldunen izenak ezagutzeko biderik preziatuenetakoa. Irantz edo Leireko agiritegietan, nafar Foruan bezalatsu, euskal izenak esku beteketa bildu dira. Monastegiaren lur-sailen eta zerbitzarien izenak izan ohi dira nabarrienak: *Eneco Arçaia* (Ororbia), *Miguel Arguina* (Artaxona, 1173), etab. Baina, euskararen oihartzun sozial guzti hauekin ere, Monastegietako agirien hizkuntza "ofiziala" ez zen euskara izan, latina baizik.


NAFARROAKO FORUA (XIII. mend.)

Foruaren hizkuntza, nafar-erromanikoa da. Gizarteko talde jasoek (Gorteak, Elizak...), latina uztean, zeregin berrietarako erromanikoa hobetsi zuten Nafarroan; baina, arauak gizarte euskaldun bati eman behar zizkionenez, euskal hitzak behin eta berriz azaltzen dira Nafarroako Foruan: *ay una pecha que es clamada en bascuenz açaguerrico* (III. Lib., VII. Tit., II. Kap.).

Bizkai eta Arabatik Errioxa eta Burgos aldera izandako emigrazio euskaldunaren parekoa da beste Nafarroako hau ere.

4. Iparralderago bezalatsu, nafar hegoaldeko euskaldungoak ere, bere ondoan eta hurbil, erdaraz ari ziren erdaldunak ere izan zituen: Hebraiera, herri-hirietako juduen auzoetan (80ren bat Erreinuari) eta berauen kultur lanetan entzuten zen; mozarabea eta arabiera lurralde musulmanetan, eta okzitaniarra Santiago-Bidean sortutako burguetako etorkinen artean, kultur lanetako betiko latina ahantzi gabe. Gogora dezagun, gainera, latinetik zetorren erromaniko nafarra, IX-X. mendeetan jaioa. Azkenik, beronek irabaziko zituen Gortean ofizialtasunaren abantailak, Naxeran bezala Iruñean, herri apala euskaraz mintzatzen zen bitartean.

“Herri xumeak, nekazariak, edo, Leireko testuek dioten bezala, nafarrek, erreinuaren eta bere jaunen sostengu ekonomikoa ziren haiek, euskaraz mintzatzen segi zuten, lurraldanduz, artaldeak zainduduz, eta agian almadietan Tortosako untzitegiatar eramango zen zura prestatuz”. (R. Ciervide).



NAFARROA ETNOLINGUISTIKOA

Berant Erdi Aroari dagokion mapa honetan datu ezberdinak biltzen ditugu: 1) Nafarroako biztanleriarenak (1366, 1350): Herri eta herriskak. 2) Mairu eta juduen bizilekuak (arabiera, hebraiera). 3. Burgu hautatu gutxi batzuk (okzitaniarra). 4) Zenbait monastegi (latina). 5) Hizkuntzen eskualdeak (euskara, nafar-erromanikoa, arabiera). 6) Euskararen eta hegoalde erromantzatuaren ukipen-areak.

Egilea: J. Intxausti. Iturriak: Atlas de Navarra. CAN, 1977. 46, 51-52. or. Bibliografia: Irigarai, Ciervide, Mitxelena, etab.


Lurraldetan baino betekizun sozial modernotan ahuldu zen euskara Erdi Aroko Nafarroan, etorkizun soziolinguistikoa hobe izan zezaketen alor sozial berriak ez irabaztean. Hala ere, herri gehienak betidaniko bere hizkuntz leialtasunari eutsi zion, horrela Euskal Herriaren Hegoaldeko hizkuntz muga zainduduz.

NAFARROAKO BIZILAGUNAK (1366)

Herrigune ugariena Erriberatik iparralderantz zegoen; herrigune handien gehienak, berri, hegoalderantz. *Sutegiz* herrigunerik handienak hauek ziren: Iruñea (967), Tuterako (961), Lizarra (829), Biasterri (637), Herriberri-Olite (1350ean: 485), Zangoza (443), etab. Merinaldeetako sutegiak honela banatzen ziren:

| MERINALDEAK (1366) | HERRIGUNEAK | SUTEGIAK |
|-----------------------------------|-------------|----------|
| Lizarrako Merinaldea | 192 | 5.377 |
| Zangozako Merinaldea | 343 | 3.727 |
| Iruñe-Mendietako Merinaldea | 325 | 3.708 |
| Tuterako Merinaldea | 28 | 2.400 |
| Nafarroa Beherea (1353) | 92 | 1.379 |

Biztanleria barreiatuena eta herrigune ugarien eta txikienak lurralde euskaldunak zituen, eta hegoalde erdaldunduak herrigune handiago eta gutxiagotan biltzen zuen populazioa: Tuteraren kasua ikusi besterik ez dago, eta Lizarrarekin alderatu.



GORTEKO GUTUNA (1415)

Erret Gortean bazuen euskarak lekurik, eta bertako ofizialak euskaldunak ziren sarritan. Orain urte batzuk aurkitu zen, adibidez, hemen ageri den funtzionarioen arteko gutun hau: *Et jaunaticula abarion ez naiz bildur ezten alla*, etab. Martin San Martin-ekok Matxin Zalba-kori idatzia zen.

ARABIERATIKO EUSKAL HITZAK

Euskarak, ondoan izan dituen beste hizkuntzetatik bezala, arabieratik ere jaso du zenbait hitz, batzuetan hartatik zuzenean, eta, bestetan, tarteko hizkuntzaren baten bidez:

| ARABIERAZ | EUSKARAZ |
|---------------------|-----------|
| almirez | almaiz |
| azafrán | azafrai |
| zanahoria | azanario |
| fanega | anega |
| arroba | arroa |
| (alcandor, cast.a.) | alkandora |
| (adorra, cast.a.) | atorra |
| (alcalde) | alkate |

LATINETIKO HIZTEGI KRISTAUA

Erromak Mendebaldean jarraitu zuen jokabide linguistikoaren ondorioz, euskaldunen kristautzeak mailegu-zerrenda aberatsa txertatu zuen euskarari. Hona horietatik batzuk:

| LATINEZ | EUSKARAZ |
|-----------|----------|
| ecclesia | el(e)iza |
| adventum | abendu |
| angelum | aingeru |
| fidem | fedea |
| crucem | gurutze |
| gulam | gura |
| episcopum | apezpiku |
| missam | meza |
| tempora | denbora |

Literaturaurreko azken pausoak

Erdi Aroa amaitzeaz zegoen. Esan den bezala, "Erdi Aroaren Udazkena" zen. Inprimategia orduan asmatu zuen Gutenberg-ek (c. 1440). Harez gero, edozein idazlan milaka aletan zabal zitekeen gizartean. Aukera berri horren aurrean suertatu ziren lehenengo latina eta gero hizkuntza herritarrak. Euskarak mende oso bat itxaron zuen ezagutzen dugun lehen liburua argitaratu eman arte (1545).

XV. mendean bortitzak izan ziren euskal gizarteko gatazkak. Borroka eta gerra haietan kantatu ziren euskal literatura herritarrean, gerora, inprimatuta, agertuko ziren amodio eta gorrotozko lehenengo kantak eta eresiak. Hauen artean emakumezkoenak dira batzuk, eta ez da falta banderizo odolberoren batenik.

Bizkaiko Foru Zaharrak (1452) gogor eraso zien hilondoetako emakume erostari eta kanta-ohiturei, zeren, nonbait, ahozko literatura herritar hauetan ez bait zen kritika sozialik falta. Susma daitekeenez, ohitura preliterario hauek oso zabalduak egon be-

har zuten legeek ere horietaz halako arreta jartzeko.

Hizkuntzaren agerpen sozial honetan zera azpimarratu behar da: Euskara, une hartan, behin eta berriz garaiko handikien espainetan entzuten dugu, klase sozial jasoen, oihu politiko bezala edo norberaren nahigabearren agerpe gisa. Hortik hizkuntzari literatura idatzia sortzera, ez du ematen tarte handia egon behar zuenik.

Bizkai-Gipuzkoetako familia "onetan", ez zen gaizki ikusten euskararen erabilpen jantziago eta idatzia. Hona dakartzagun kanta hauen sorlekuetatik gertu jaiotako batena dugu, hain zuzen, euskarazko lehenengo liburuaren aurreko prosa-zatirik luzeena: Joan Zumarragako durangarrarena (1476-1548). Mexikoko lehen Artzapezpiku famatu honek euskaraz ere idatzi zion familiari: Nork jakin, lehertzeaz zegoen Literaturaren egunabarra zen, beharbada.

Erdi Aro osoak ukatutako aukera sozio-kultural berri bat emango ote zion euskarari Pizkundeko euskal gizarteak?

Et Cae et da andra erdia en gauria,
Sagar errea, eta arda gorria
Alabaya, kontrario da Milia
Azzian lur oça, gañean arria.

Et lastur era bear dogu Milia
Ayta Jaunac ezteho dau etia.
Ama arda ac apayngulan etia,
Aca bear dogu andra Milia.

Et lausi da era etia arria,
Auzvitu dau lastur en topobacaria
Exqui dio almenari erdia
Lastur era bear dogu Milia.

Et leun era ondrapitia lastur co
Dera Cera ac yun dexu labato
Equin dau Andra, Munna, Barcapita co
Eyon baguro bere ideo dauco.


■ MILIA LASTURKOren ERESIA (c. 1450)

Ez dakigu eresiaren data xuxenik, baina XV. mendeko emakume bertso-kantarien adibide ona da hau: *Cer ete da andra erdiaen zauria / Sagar errea, eta ardao gorria. / Alabaya, kontrario da Milia / Azpian lur oça, gañean arria.* J. K. Gerrak aztertu zituen, XIV-XV. mendeetatik zetozen XVI.ean idatzitako kanta hauek.

■ JOAN ZUMARRAGAKO (1537)

Mexiko-tik Durangora idatzitako eskutitz honetan Zumarraga-k Tabirako Muntzaraz dorrea gogoratzen du (*Obatuco ta ondraduco dogu munçarasco eseon*).

Bateko dogu elean gnu caca abactuio ta...
mpe gualbo esoy eta...
tada gnu to...
a...
etic...
ceteron...
D...
S...
Sulla...
clap...
cula...
back...
sur...
sen...
guy...



GVERO
I PARTETAN

partitua eta berecia,

LEHENBICICAN


EMAITENDA, A

at calte egite

ditan ibilteac


roco urzteac.





EUSKARA, ARO MODERNOAN
(1545-1789)

*Getxoko Arribera
Dira froa d'ate. Calera*



la de oy ha quinientos años halla-
remos tanta ventaja y diferencia
cuanta puede ser entre dos lenguas
diferentes. Y así agora yo como
siempre procure engrandecer lasco
fas de mi nación: porque en ningún
tiempo esta nuestra lengua se pudief-
se perder de la memoria de los hom-
bres, ni ayn faltar de su perfeccion,
pero que ala continua fuesse colocá-
dose y adelantandose a todas las
otras y tambien porque la pudief-
sen todas las naciones aprender:
pues el bien es mayor quanto mas
es comunicado: por estas razones
intente subjetar la a arte con reglas
y leyes. Tambien me movio a este
trabajo ver que estamos en edad
que es neçesario: pues vemos que
se precia en todas las naciones muy
fa-

fabios varones eicreui
gus vulgares: y así lo vían varo-
nes Castellanos muy eminentes
que pudiesen en elegate estilo La-
tino ecreuir: forçome por el con-
siguiente a esta empresa ver el co-
mun de todas las gentes inclina-
das a esta dichosa lengua: y que les
aplaze mucho y se precian de ha-
blar en ella. El Flamenco, el Italia-
no, Ingles, Françes. Y ayn en Ale-
mania se huelgan de la hablar: avn-
que se presume que sea alguna par-
te de causa ver que el nuestro Em-
perador Carlos se precia de Espa-
ñol natural. Que así vimos, que
al tiempo que su magestad vençio
la batalla a Langraue y al Duque
de Saxonia junto al rio. Albis, vi-
nieron todas las Señorias y prin-
cipa-
A 4

çipados de Alemania a fele subjetar
y obedecer: y a demádar le perdó.
Y todos le hablan en español: avn
que parece que era algo por le com-
plazer. Tambié vemos q la lengua
lo mereçe en si, por su elegaçia, elo-
quencia y copiosidad: que çierto es
muy acomodada a buen dezir. Yo
ruego a todos açillos en cuyas ma-
nos viniere este nuestro trabajo re-
cogã su ingenio y lo veã biẽ: y cõ ef-
feculaçio se pogan a confiderar esta
nuestra intinçio trabajãdo todos a
corregir y açertar açillo en q yo fal-
te: por q en fin hagamos cõ todos jũ-
posibilidad del estudio de todos jũ-
tos vna cosa cõ que enoblezcamos
nuestra lengua y naçio. Que de mi
protesto y les çertifico y aseguro
que reçibire gran graçia y plazer.
Arte

■ **ESPAINIERAREN DEFENDATZAILEAK**


Hamaseigarren mendean Europan zehar ugariak izan ziren herri-hizkuntzen aldeko gramatika eta apologiak, izan ere mende huraxe izan bait zen, hego-mendebaldean batipat, hizkuntza hauek kultur betekizun garrantzizkoagoak beren bizkar hartu zituzten gizaldia. Erdi Arotik zetozen eztabaidak praxi bihurtu ziren orduan (1520-1560), latinaren kaltetan noski. Hori gertatzen ari zen bitartean, arrazoi teorikoak berriz ere argitzen, eta indarberritzen, saiatu ziren Monarkia ernazentista handien ideologoak. Villalón-en obra hau da, horietako kasu bat: *Gramática Castellana* (1558).

■ **BI MENDE T'ERDI MODERNO (1545-1789)**

Aro Modernoko Europan, beste alda-kuntza askoren artean, hizkuntzaren bizitza osoa alda zezaketen gertakari edo gertabide esanahitsuak suertatu ziren: Politikan, Absolutismo deitura zuzenean zihoa-zen Ernazimentuko Estatu modernoenen antolamendua garatu zen (Frantzia eta Espainian batipat); kulturean, natur zientzia positiboek eta europar Filosofia modernoak bide berriak urratu zituzten, Eskolastika gero eta gehiago baztertuz; ekonomian, kolonialismo europar modernoak beste kontinenteetan aberaspide ezezagunak topatu zituen, eta euskaldunok ere saiatu ginen haie-tatik probetxurik ateratzen; eta, Aroaren az-ken mendean, Ingalaterrak Iraultza Indus-triala hasi zuen; erlijio-aldakuntzek astin-dualdi on bat eman zieten europarren pentsamolde tradizionaleri; eta, hizkuntzen bizitzan, herri-mintzarentzat botere-babe-sak ekar zitzakeen hautabide berriak za-baltzen hasi ziren, lehenik kulturaren zere-gin libreagoetan, eta, gero, betekizun insti-tuzionaletan.

Lehenengo euskarazko liburua argitara zenetik (1545) Iraultza Frantsesera bitartean (1789), euskarak une garrantzitsuak bizi izan zituen. Gogora ditzagun, puntuz puntu, ai-pagarrienak edo:

- Euskarazko Literaturaren jaiotza: XVI-XVII. mendeetan, Iparraldean; XVIII. ean, Hegoaldean.
- Pizkundean eta Erreforma-Kontra-reformetan, herri-hizkuntzen eta, beraz, teorian euskararen egokiera historikoa.
- Euskaltzale-talde eragileen agerpe-na: Leizarragaren ingurukoa, Donibane-Sarakoa, Larramendi-rena.
- Zenbait buruzagi sozialen euskal gi-darritza: Joana Albreteko Erregina, Etxauz Apezpikua, Oihenart bera. Eta beste ba-tzuen utzikeria.
- Eliz Erakundearen euskararekiko le-henengo zenbait onarpen programatu: Ka-lagurriko Sinodalak, Ordena Erlijiosoen hizkuntz hautapenak.



● Euskararen defentsarako apologiak: Garibai (1571), Poza (1587), Etxabe (1607), etab.

Hala ere, ongi aztertu gabeko arrazoi askorengatik, hori dena ez da aski izango —inguruetako erabaki linguistikoei aurre eginez— hizkuntzari *status* sozial erabakior bat emateko. Bestalde, euskal lurraldeari begira bizi zen, bai, euskara euskaldungoaren ezpainetan; baina, Aro Modernoan, bildu ere asko bildu zen urruneko bere lurretatik gaurko Euskal Herriaren mugetara.

■ XVI. mendeko aukera berriak

Etxepare-k euskarazko lehenengo liburua idazteari ekin zionean, Europako Estatu eta herrietan, hizkuntzen etorkizuna larriki edo erabakiarki ukituko zuten gertakariak ari ziren jazotzen. Erdi Aroan beren bide garailea hartua zuten, noski, Monarkia ernazentista handien hizkuntzek. Fernando III.ak (1217-1252) gaztelaniari ofizialtasun administratiboa ematean, edo Ingalaterrako bihurtune linguistiko-administratiboak XI-V.aren bigarren partean frantsesa baztertzean, hasi zen, esate baterako, Erreinu horietako hizkuntz prozesu hori. Hala ere, Pizkundeak ur biziagoak ekarri zituen errota berera, egokiera politiko eta kultural berrien nazatik.

Aurreko belaunaldietako eztabaidak ez ziren atertu, noski, areagotu baizik; baina 1520-1560. urteetan batez ere herri-hizkuntzen aldeko praxi indartuago batek jokabide linguistiko-kultural garrantzizkoak ekarri zituen, intelektual edo politiko banako aintzen erabakiz eta erakunde sozio-politikoe-

■ HIZKUNTZEN LEHEN GRAMATIKAK

XVI. mendean, hizkuntza herritarrek, kultur egitekoetan latinari bere ohizko lekua kenduz, eginkizun berriak hartzean, idazketarako arauak eman beharra sentitu zen: horrela jaio ziren herriko hizkuntzen lehenengo Gramatikak. Euskarari buruzko lehena Larramendirena dela esan ohi da; baina lehenagotik ere, Oihenart-en (1638) eta Etxeberri Sarakoaren (1712-1716) lanak gogoratu beharko lirateke, gutxienez, eta ezingo da ahantzi Leizarragak ere hizkuntzarekiko ardura hau erakutsi zuela bere garaian (1571). Hizkuntza erromanikoetatik gaztelaniak izan zuen lehenengoz bere Gramatika (1492), eta haietatik aparte ia mende bat geroago ingelesak berea (1586).



■ NAFARROA BEHEREAN GARAZI

Garaziko eskualde eder honetan ondu zuen Etxeparek euskarazko lehenengo liburua: *Garaziko herria, / Benedika dadila. / Heuskarari eman dio behar duien thornuia*. Argazkian, Oskitx-eko lepotik Nafarroa eta Zuberoaren arteko eskualdea.



tan hartutako deliberamendu zenbaiten ondorioz. Ernazimentuko abagune historikoan garaien ekarpenetako bat bezala ulertu behar dira hizkuntzekiko praxi sozial berriok: Humanistak latintzale izan ziren, baina herri-hizkuntzek ere haietxen artean aurkitu zituzten beren aldeko indar politiko-kulturalik baliotsuenak.

Ohartuta edo gabe, garaiko seme moderno bezala ageri zaigu Etxepare, bere lana aurrera ateratzean: garaiko giroan bizi zen. Eta erakusten digun hizkuntz harrotasuna, liburu-guraso batena ezezik, humanista herriazale eta aurrerakoiarena ere bada.

Gisa beretsuan, Leizarragak *Testamentu Berria* argitaratzean (1571), berak eta bere laguntzaile eta babesleek, Europako Erreforma-mugimendu zabalaren haize modernoek jota bete zuten egitekoa, eta, kasu honetan, taldean bete ere.

Aberatsa da, noski, Erreformaurreko Biblia-itzulpen katolikoaren historia (Alemanian, 1466-1520. urteetan, Bibliaren 22 itzulpen argitara eman ziren; itzulpen frantses osoa 1487koa da); baina Erreformaren eskuetan bihurtu zen lan hau funtsezko

lehen lanabes pastoral. Trento-tik aurrera (1563) Eliza Katolikoak errezeloz beteta jokatatu zuen arlo honetan.

Leizarragatarrek, egiten zutenaren arrazoi eta zio teorikoak ongi ezagutzen zituzten, Luter eta Kalbin-ek erabaki eta hasitako lanbidea bait zen itzulpenaren hura. Ur haiek gurera iritsi baino hogeigehogei hamar urte lehenago, Erreformaren barruan, modu teologiko-programatikoz esanda zeuden lan horren arrazoiak. Leizarraga, dakigunez, esplikabide haietaz ongi jabetuta zegoen. Baina Leizarragarena, ia osorik, euskal Iparraldeko historia da, eta han ere herriarretatik aski urruna, eta Hegoaldetik are urrunagoa.

Leizarragak berea atera zuen urte berean argitara eman zuen Garibai arrasatearrek bere obra handia ere: 1571n. Flandesetik zetorren eguzkia, Espainiako lehen historia dokumentatua eskainiz, eta erdaraz. Ez zen falta euskarari buruzko atalbururen bat edo beste. Horrela hasten zen Hegoaldeko erdal euskaltzaleen tradizio berria. Hizkuntzaren ohorea zaintzeko erdarazko apologiak idazteari ekin zitzaion. Baliozko lanik egin bazen ere (Poza, 1587), hizkuntzaren beraren garapen soziolinguistikoaren alde tik nahikoa antzua izan zen mendetako eztabaida hura.

■ ETXEPAREren "SAUTRELA" (1545)

Euskarazko lehenengo liburua B. Etxepare-k eman zuen argitara, Andre Mariaren jaierazko olerkiekin eta amodiozko poemekin osatua. Baina, lehen euskal idazlea zela jakinki, bere poeta-lanerako aukeratu zuen hizkuntzaren ohore eta laudoriotan bi olerki eman zituen *Linguae Vasconum Primitiae* (= Baskoinen hizkuntzaren hasikinak) liburuan. Lehen obra haren lehenengo ediziotik ale bakar bat gorde izan da gure egunetarate, eta Parisen dago bera. Orrialde originalaren faksimila ematen dugu hemen.

Hizkuntzen alde, Erregeak

Hamaseigarren mendean Europako Monarkia handietan idazle humanista asko dira Koroaren eta Erret Gorteko hizkuntzen aldeko poemak, gramatikak eta laudoriozko obrak idazten dituztenak.

Ernazimentuko hizkuntz ideologia kolonialistaren sinbolo bilakatu da, historilarien artean, Nebrija-k Erregina Katolikoari egindako gramatikako hitzaurrea: Amerika aurkitu zen urte berean, Inperioan gaztelania ezarri beharra aldarrikatzen bait zuen. Egia esan behar bada, Amerikako Aurkikunde-egunabarra berehala izango zenik jakin gabe jo zuen kukurruku; baina, zalantzarik gabe, uneko eta ondoko hamarkadetako politika-molde nagusienaren paradigma gertatu zen Nebrija-ren asmo aitortua.

Gure Literaturaren jaiotorduetatik hurbilago, politikaren eta hizkuntzen arteko zeri-kusi historiko hau garaiko hainbat adibide-tan ikus liteke. Gehiegi barreiatu gabe, gogora ditzagun euskal lehen liburuaren aurreko azken hamarkadan jazoriko gertakizun batzuk.

Karlos V.ak Monarkia hispaniarraren lehentasun linguistikoak beretu egin zituen.

Orrialde hauetan bertan Villalón-i Enperadorearen inguruko hizkuntz giroaz irakur diezaiokegunaz gain (1558), sarritan gogoratu ohi da Karlos V.ak Erroman, Aita Santuaren aurrean, protokolo-arauak nola hautsi zituen gaztelania erabiltzearen (1536), gorabehera diplomatiko koskor bat sortuz. Kristandade eta Inperio erdiarotarren defendatzaile eta jaiotzez eta lehen hizkuntzaz flandarra zen Enperadorearengan nekez espero zitekeen halako kontzientzia gaztelanizalerik. Baina halaxe izan zen: Enperadoreak hizkuntz nazionalismo gaztelau bat erakutsi zuen. Hala ere, esan beharra dago, Austriarrek (XVI-XVII. mend.) ez zuten hizkuntz trukaketarik ezarri Aragoako Koroaren Herri Katalanetan, Monarkiaren eleaniztasuna errespetatuz. Honetan Frantzia izan zen politika-modu hertsiaготan aurrea hartu zuena.

Frantzisko I.ak, "Tatxarik gabeko Zaldu" hark (1515-1547), zeregin administratiboen gardentasunari begira, premiazkoa ikusi zuen bere menpekoen eta Administrazioaren arteko harremanetan, latina utzita, herritarren hizkuntza ezaguna erabiltzea: Villers-Cotterêt-eko Ordenantzek arautu



FRANTZISKO I.a: ORDENANTZAK (1539)
Ernazimentuan Europako Monarkia handiek (Gaztelak, Frantziak eta Ingalaterrak bereziki) modernotasun helduago bat lortu zuten: lurraldeak bildu ezezik, Estatuaren tresneria hobetu zen, Erakunde Publikoak hobeki eratu, erret Hazienda berrantolatuz eta Koroaren funtzionarioak ugalduz. Boterea Erregeren ingurura biltzeko ahalegin handiak egin ziren. Koroapean bizi ziren herriek, ordea, bakoitzak bere hizkuntza zuen, eta latina herri-hizkuntzaz trukatzeko hasi zen hartan, Erregeek batez ere Gorteko hizkuntza hautatu zuten: Frantzian, oñ hizkuntza ("frantsesa" bilakatuko zena), eta Penintsulan Toledokoak, gaztelania. Frantzisko I.ak eman zuen Administrazioan latina utzi eta herri-hizkuntza erabiltzeko mandatuak; baina, praktikan, latinaren ordez herri-hizkuntza bat bakarra aukeratu zen Frantziako Erreinuean: frantsesa, eta ez besterik.

Ordenantzak
M. p. t.
Mandatuak litzela latinean ulertzena leu-
tatuak sortu ohi direnez, hemendik aurrera hau
da nahi duguna: mandatu, errege-
kontratu, komisio, hilburuko da beste edozein publiz-
ekinza ama-hizkuntza frantses, eta ea besterik
eman, errege-
da esin dakizkizala alderdiei.



■ JOANA ALBRETEKOA (1555-1572)

1560az gero Nafarroako Erregina garbiki agertu zen, jendaurrene ere, Protestantismoaren alde. Elizgizonen, magistrarien eta nobleziaren artean topatu zituen Erreginak lehen protestanteak (Ezponda, Gramont, Beltzuntze, Larrea, Leizarraga bera eta abarren artean). 1564ean erlijio-askatasuna aldarrikatu zuen Erreinuan, baina bera, aldiberean, mugimendu protestantearen sustatzaile suhar zela, noski. Elizkizun katolikoak debekatzeko piztu zen katolikoan altxamendua eta Erreinu gerra zibila (1566-1571). Gorabehera eta triskantza latzeko urteak haietxek! Testuinguru honetan kokatzen da Leizarragaren *Testamentu Berria*-ren itzulpen-lana, Joana Albretekoaren aginduz egina eta beroni eskainia.




zuten erret borondate hori (1539). Erreinu edozein hizkuntzarentzat onuragarri izan zitekeen Ordenantza hau, erret hizkuntzaren onetan eta gainerakoen kaltetan erabili zen, gero eta areago. Berehala ikusiko dugunez, aldakuntza elebakartzaile hau ez zen bapatean burutu —ezta gutxiagorik ere—, baina erret Administrazioak ematen zituen aurrera-pauso guztiak helmuga berera zihoazen beti. Eta Administrazio hau are eta boteretsuagoa zen denborarekin: XVI.ean, 5.000 funtzionarietatik 50.000taraino pasa zen Erreinu.

Enrike VIII.aren Ingalaterran bestelakorik espero zitekeen agian: han, Frantzia ez bezala, Erreforma erlijiosoa egiten ari ziren, eta Koroa bera zen aldakuntzaren gidaria. Erreforma hark behar zituen itzulpenak egin zituzten, ingelesera ezezik galeserara ere bai. Adibidez, Testamentu Berria eta El-

kar-Otoitz-Liburua 1567an irakur zitezkeen galeseraz, eta Biblia osoa 1588an. Garrantziko pauso kulturala izan zen, noski; agian, normalizazio-bidetik sartzeko. Zoritxarrez, ajea lehenagotik zetorren: Enrike VIII.ak, 1536-1542etan, Gales-i Batasun-Agiriaren politika ezarri zion, eta berorren barruan hizkuntzen lekua mugatuta geratu zen. Harez gero, Administrazioaren hizkuntza ofiziala ingelesa bakarrik izango zen Gales-en ere. Agiri horren ondorio soziolinguistiko eta sozialak benetan kaltegarriak izan ziren galeserarentzat: emigrazioa eta klase gidarien desgalestea ekarri zituen.

Historian gora zetozen Monarkien erabaki politiko-linguistiko hauek mendetarako norabidatu zituzten egunoroko praxi ofiziala ezezik jendeen pentsamoldeak ere, Frantzia, Espainia nahiz Ingalaterran.



Hizkuntzaren aukera galdu bat

Gure hizkuntzan ezagutzen ditugun bi lehenengo liburuen argitalpen-urteen artean (1545-1571), euskarak egokiera sozial ona izan zuen, agian, kultur hizkuntza indartsu bihurtzeko.

Nafarroako Gortean, erabiltzen zen euskara jai handietan (Enrike III.a jaio-berriari olerkia, 1556), eta Erreginak berak babestu zituen kalbindarren Bibliaren itzulpen-asmoa eta lana.

Bestalde, talde-lan honen zabalkunde sozialerako *ABC edo Christinoen instructionea* deitu liburuska idatzi zuen Leizarragak, irakurlegaiak alfabetatzearen.

Zoritxarrez, Koroaren babesa, idazle-taldea eta Erreformaren alfabetatze-asmoak ez ziren aski izan lanari segida iraunkor eta zabala emateko.

*Zeren baskoak baitira
abil, animos eta jentil
eta hetan izan baita, eta baita,
zientzia guzietan letratu
handirik*

*miraz nago, iauna,
nola batere ezten asaiatu
bere lengoaje propioaren
faboretan*

*heuskaraz zerbait obra egitera
eta skributan imeitera,
zeren ladin publiku mundu
guzietara*

*berze lengoajiak bezala
hain skribatzeko on dela.
Eta kausa honegatik gelditzen
da abataturik,*

*ezein reputazione bage,
etu berze nazione orok uste dute
ezein deus ere skriba daiteiela
lengoaje hartan,
nola berze orok baitute
skribatzen berian.*

B. ETXEPARE, 1545
(B. Lehe-te-ri, hitzaurrean)

HITZAURRE MILITANTEA

Etxeparek, euskarazko lehen liburuan harrigarriro eta biziki argi azaldu zuen bere hizkuntz kontzientzia (1545). Gai honi, aipatutako bi poemez gainera, hitzaurreko pasarte hau eskaini zion.

BIBLIAREN ITZULPENEA

Lauki honetan adierazten dugun itzulpen-lanen historia, XVI. mendeko mugimendu kulturalen arteko eginkizunetan esanahirik handienetakoa da. Luter-ek —Erreforma Protestantearen lehen-gurasoak— oso garaiz ulertu zuen itzulpen haiek izan zitzaizketen balioa eta eragina, eta gogoz eta ongi egin zuen bere lana (1522-1534). Jokabide horri jarraiki, Europan zehar itzulpen-programa osoa bete zen, Erreforma sartu nahi zen herrietako hizkuntzetan. Dakigunez, Euskal Herria ez zen korrante horretatik erabat aparte geratu.





"KONTRAPASA"

Kontrapasa, formaz kontradantza-irudi bat omen da (Lafon). Poema honetan, garaztarren hizkuntz harrotasuna sustatu nahi zuen olerkariak. Atzerritar sasiletratuak ere gogoan ditu: Jakin bezate haiek, jada goren mailara igoa dela euskara ere. Hizkuntza idatzi inprimatuven itzala irabazi du, eta mundu zabalera irteteko lain bada, beraz.



TESTAMENTU BERRIA (1571)

Euskarazko bigarren liburu inprimatua, Bibliako Testamentu Berriaren itzulpen kalbinista bat da, Koroak eskatu eta lagunduta egina. Joanes Leizarragarena bezala aipatu ohi den lan hura taldean egina izan zen. Euskal prosaren hasiera hura ederra gertatu zitzaigun; baina argitara-ondoko hamarkadetako erlijio-gerran haize nahasiek ez zuten utzi egindakoari segidarik eta hedapen sozialik ematen, Erregina babeslearen semea bera (Nafarroako Enrike III.a) katoliko egin bait zen, Frantziako Errege bilakatu ahal izateko (1593). Eta gero, Kontrarreforma katolikoak, bestelako bide literarioak hartu zituen (Donibane-Sarako Eskola).



AITA MARIANA (1536-1624)

Juan de Mariana josulagunak Espainiako Historia literario bat argitara eman zuen (latinez, 1592; gaztelaniaz, 1621): zabaikunde handia izan zuen obra honek, eta berehala obra klasikoak bihurtu zen Espainiako historiografian. Mariana-k murriztu egiten zuen Antzinatean euskarak omen zuen lurralde-barrutia, baina, hori gorabehera, batez ere "lenguaje bárbaro y grosero" zela esatean, mindu zituen euskal jakitunak.

benez-ere gaizki mingatzeaz berce officio eguiten ezuten batzuetaric, ia erran ian denac-ere defenda ahal nequeela. Eoc ahal date-quea ene cõditionezco bachotafunio ezpa hucnelaco berce gaucaric batro, ni hain obra faindu lalten, bere zelo eta affectione fainduagatic mнду gucietan hãbat laudorio emaiten çayon Reguina bati dedicatzetic gubeleratzeco nuenic? Eta baldin edoceinec replicatu nahi balu eta erran, ecen eguin iça dena, nic baino hobequi berce batec eguin vkan luqueela: hunetã applica ahal deçaquet neure defenfionetan Padaretus deitzen cen Sparta hirico batec egun batez erran vkan çuena: çacuffanean eoc hirico hirur-ehũ magistratetic bat içatera, etzela hura elegitu içan biltzarretic alegueraquic bere etcheratizuli içan cen, cioela, ecen ateguin handia luelaceren hirur-ehun guicon hura baino preffuacorec hirian eriden içan ciraden. Segur nic-ererran ahal deçaquet ecen milla eriden içan baltirade-ere, ni arindu nedoquetenic pena hunetarie (cen içan baita nehere lehen viciic estimahal liguacuen baino handiago) nic vkan nuqueela hãbat ateguin nola vkan baitut atfecabeaceren niçaz bereeric hatfe baten eguitera auanceten içan ezten. Huneçaz testimoniage ekar ahal dieçaquele principalqui cargu hunc hartzeracitatu vkan nautence. Eta dena den beçala erran degadancat, Çure verthue handiac, Audrea, eta principalqui nic orain aipattu ditudanaç, bayeta orluan çure Loctenent general-

Apologistak: Garibai eta Mariana

Bi historilari handi dakartzagu hona, euskararen inguruko eztabaida larri eta bizi bat gogoratzeko: Esteban Garibai (1533-1599) eta Aita Juan Mariana (1536-1623). Garibai arrasatearrak, bere *Compendio Historial* argitara zuenean (1571), Penintsulako jatorrizko lehenengo hizkuntzatat jo zuen euskara, garaiko usterik zabalduena onartuz. Marianak, ordea, zalantzan jarri zuen eritzi hori, bide batez hizkuntza eta hiztunak irainduz:

Solos los vizcaínos (= euskaldunak) conservan hasta hoy su lenguaje grosero y bárbaro, y que no recibe elegancia [1601].

Belaunaldi luzetarako eztabaidagaiak izango ziren horiek apologisten artean; hemen berton ikur daitezke, adibidez, Poza (1587) urduñarraren edo Etxabe (1607) Mexiko-ko zumaiarraren pasarte batzuk, beti ere euskara defendatuz.

ITZULPENAREN TESTUINGURUA

Testamentu Berriaren lehenengo euskal itzulpenak (Leizarraga: Rochela, 1571) berarizko testuinguru soziala izan zuen. Autoreak Erreginari egin zion eskaintza ez da, inondik ere, protokolo hutsa: beste iturri historikoetatik dakigunaren arabera, Erregina izan zen, zinez, lan haren eragile arduratuena. Baina gogo eta asmo beretsuak zituzten Erreginaren inguruko aiton- seme batzuek ere: hor aipatzen ditu Leizarragak. Baina, babesleak babesle, lana itzultzaileena izan zen, eta lehenik Leizarragarena: egitekoaren "pena", idazten du berak, izan baita nehorik lehenbizitik estima ahal lizakeen baino handiagoa. Ezerezetik idaz-maila hartaraino igotzea ez zitzaion, inola ere, samurra gertatu.



E. de GARIBAI: Compendio Historial (1571)

Euskal literatura jaiotzen ari zen urte beretan, euskaldun batek, Garibai arrasatearrak, Historia orokor famatu hau idatzi zuen. Antwerpen-en eman zen argitara, eta, Marianaren aurretik, itzal handikoa gertatu zen berau Espainian. Euskararen jatorriaz eta gure hizkuntzak Penintsulako iragan etnolinguistikoan izan omen zuen lekuaz honela ematen ditu autoreak bere eritziak.

A. POZA LIZENTZIATUA (1587)

Euskararen defentsan argitara emandako lehen obra handia Poza Lizentziatuarena izan zen, XVI. mendean. Bilbo-n kaleratu zen, gainera, Mares inprimatzaile sonatuen moldiztegin. Liburu honetan argibide ugari eta baliozkoak jaso zituen jatorriz urduñarra zen honek, ohizko ideia zaharkitu asko ere bildu arren. Euskarari buruz ezetik, erbesteko hainbat hizkuntzaren albesteak bilatzen ere saiatu zen. Berrikitan, mendeurrena ospatzean (1587-1987), Euskaltzaindik erutatuko ospakizunetan, Coseriu hizkuntzalari ezagunak azpimarratu du garaiko testuinguru hartan Pozak izan zuen balioa.



■ BALTASAR ETXABE (1607)

Pintore eta idazle zumaiar honek, euskararen defentsan *Discursos de la Antigüedad de la Lengva Cántabra* eman zuen argitara, Mexiko-n. Kristautasun zaharraren eta odol-garbitasunaren kezak zeramatzen liburuak. Itxuraz, batez ere Euskal Herriatik erbestera aldentu behar zuten joankinen harrotasun soziala laguntzen zen hizkuntzaren argudioarekin. Testuinguru historiko hartan euskarak sostengu on bat eman ziezaiokeen euskaldunen noblezia orokorraren tesiari, eta betekizun hori ere bete zuten hizkuntzaren apologiek.

■ Klaberaren bertsoak

“Heuskaldunak mundu orotan preziatu ziraden, bana haien lengoajiaz berze oro burlatzen...”:

Etxepare-ren bertso hauen oihartzuna dirudite Klaberaren besteok (1636). Hizkuntzaren ohoretan, baina probetxu eta logika herren batekin euskaldunek erdaraz egindako apologiak salatzen zituen.

■ KLABERIA (1636)

Olerki hau Etxeberri Ziburukoaren *Elizara erabiltzeko liburua*-n agertu zen (1636). Kritika sozio-kulturala da hori, eta, Donibane-Sarako Eskolako buruzagi zenaren obran emanda, zinez esanahiak gertatzen zaigu. Eskola hartakoen liburu, hitzaurre eta idazlanetatik, dakigunaren arabera, jite berri bateko mugimendu kultural baten pentsamoldea ispatilzen duela esan dezakegu. Ordurarteko Euskal Herriko idazleen erdal arrakasta eta fama ez ziren aski —hala ikusten zuten Iparraldeko hauek— euskarari bide zabal salbagarri bat urratzeko. Eta olerkariak izen eta guzti dakartzatza bere kritikan “al-ferrikako” lan haien autoreak.

HAKC BERAC HAI
berariberce laudorioz co
replac.

BVurlatcen naiz Garibai
Bai ha aber Etxabez,
Cenac mintzatu baitire
Erdaraz Escaldunez.

Ecen cirenaz gueroftic,
Escaldunac hec biac,
Escaraz behar cituzten
Eguin bere historiatic.

Escaraz eguin ditutçu
Etcheberri ceure obrac,
Ohoratu nahiz ceure
Ahalaz herritarrac.

Cer errefau eder baita
Hitzcuntça arrotzetan,
Hura aditcera ematen
Daroeçu beretan.

Esquer bada eta aith
Duçula berecía
Ceren ohoratu duçun
Herritaren mihia.

I. ETC

*Burlatzen naiz Garibaiez,
Bai halaber Etxabez,
Zenac mintzatu baitire
Erdaraz Eskaldunez.*

*Ezen zirenaz geroztik,
Eskaldunac hek biac,
Eskaraz behar zituzten
Egin bere historiatic.*

*Eskaraz egin dituzu,
Etxeberri, zeure obrac,
Ohoratu nahiz zeure
Ahalaz herritarrac.*

*Zer errefau eder baita
Hizkuntza arrotzetan,
Hura aditcera ematen
Daroeçu beretan.*

*Esquer bada eta aithor
Duzula berecía
Zeren ohoratu duzun
Herritarren mihia.*

XVII.a, mende emankorra

Aurreko mendearen ondoan, honek bizpahiru alde berri ditu: XVI.ean Pizkundeak eta Erreformak lagundu zuten Literaturaren jaiotza; XVII.ean, oster, Kontrarreforma Katolikoaren olatuak bultzatuta ezagutu zuten Literatura berak bere bigarren loraldia.

Badirudi, euskararen defentsan erdaraz egindako apologiak beren itzala galtzen ari zirela zenbait euskal idazleren artean. Baina, mendealdi hau burutzean ere, artean (1712) premiazkoa ikusten zuen Etxeberri Sarakoak hizkuntzaren aldeko arrazoiak berriz ere argitara ematea.

Hizkuntzaren kontzientzia euskaldunak pauso luzeak eman zituen mende honetan, zenbait pentsalarirengan. Hala ere, ez dago gure euskal Erakunde publikoez beste hainbeste esaterik, beharrezko nabardura batzuk gabe bederen. Euskarak mendetan

jasandako baztertean, unerik gogorrenetako mende honetan bizi izan zuen haien aldetik. Bizkaiko Batzarreetatik euskaldun elebakarrak behin eta berriz irten erazi egin zituzten (1613-1632). Alderantziz, Nafarroa Beherean edo Elizaren legeetan gogo irekia goa ageri da.

Mende honetako hizkuntz gertakari kultural emankorrena, Donibane-Sarako idazle-taldearena izan zen, eta, elizgizonak ezezik, herritar paisanoak ere euskaraz idazten hastea.

Herraldeka, euskal Literaturak, bigarren aldiz ere bere lan-mintegia Iparraldean zuen; hurrengo menderate itxaron behar izan zen, Hegoaldeak erreleboa har zezan. Euskal hitzungoaren lurraldeek, ez dirudi mende honetan galera handirik izan zutenik, beharbada Arabako Errioxan ezik.

TABLEAU DE L'INCONSTANCE ET INSTABILITE' DE TOVTES CHOSES.

Où il est monstré, qu'en Dieu seul gist la vraye Constance,
à laquelle l'homme sage doit viser.

Reueu, corrigé, & augmenté avec un Liure nouveau de l'Inconstance de toutes les Nations principales de l'Europe. Quelle nation est la plus inconstante. Et la comparaison entre elles.

Traité singulier & notable, utile à tous Rois, Princes & Estats, pour cognoistre tant la valeur & les perfections, que les défauts des peuples; & principalement de leurs suiez.

Par PIERRE DE LANCRE, CONSEILLER DU ROY
au Parlement de Bordeaux.

EGO DEVS, ET NON MVTOR. Malach. 3.
SECONDE EDITION.

Coll. Paris. Sec. 1314




A PARIS,
Chez la veufue ABEL L'ANGELIER, au premier pillier
de la grand' salle du Palais.

M. DC. X.
Avec Privilège du Roy.

ARRANTZALE EUSKALDUNAK

1610eko liburu honetan jakin dezakeguz, Donibane-Lohizuneko arrantzaleek, sorterrian euskaraz egin ezezik, hizkuntza erbestera eraman ere egin zuten. Pierre de Lancre sorgin-epaile sonatu honek (euskal jatorrikoa bera ere: Pierre Aroztegi), herri eta nazioen berri ematean, Ternua eta Kanadako lurretako bertakotarrek frantsesekin lehenagoko harremanetan ikasitako euskaraz hitz egiten zutela azaltzen du. De Lancre-k ekonomikoki indartsu ezagututako gizarte hartan garatu zen euskal Literatura, hondoko hamarkadetan. (Liburu honen lehen edizioa 1607koa da; argazkian bigarrenaren azala ematen dugu, 1610ekoa).



ITURRIA: BÉLANGER, R. (1971): *Les Basques dans l'estuaire du Saint-Laurent*. Montréal. BARDKHAM, S.: "First Will and Testament on the Labrador Coast". *Geographical Magazine*, London.

TERNUA

Euskal Herriko itsasgizonek, aurreko mendeetako eskarmentua beren sorbaldetan zutela (XIII.aren bukaeratik aurrera bereziki), laster zeharkatu zituzten itsasarunzko ur handiak XVI. mendean. Haiekin joan zen euskara, eta hainbat tokitan utzi zituzten gureganaino iritsi diren euskal lekuizenak. Hemen, Ternuakoak (Terranova-koak, alegia) gogoratzen ditugu.

Euskara, Ternuan eta Kanadan

Ipar Atlantikoan balearen arrantzan sona handia izan zuten XVI-XVII. mendeetan euskaldunek. Euskal literaturan ere izan zuten horrek oihartzunik: Etxeberri Ziburukoak (1627), bere *Manual Debotioenezkoa*-n balenarrantzaleentzako otoitzak jasotzen ditu, adibidez. Arrantzale hauek Ternua (Terranova), Kanada eta Islandiaraino iritsi izan ziren, euskararen aztarnak hango gizarte eta lurretan utziz. Arkeologia, toponimia eta euskaldun haien lantegien aztarnak dira historia horren lekuko.

Iturri ezberdinetatik dakigunez, euskaldunen eta Ternuako indiarren arteko hizkuntza euskal *pidgin*-en bat izan zen.

Kanadako *Répertoire toponymique du Québec*-en ikus daitekeenez (Québec, 1978), gaur egun ere leku-izen ofizialeetan ondoko hauek aurki litezke: *Anse au Basque*, *Cap du Basque*, *Collines du Basque*, etab. Baina, bestalde, euskaldunen lanak ezezik, euskarak berak ere utzi du jatorriz euskalduna den izendegia: *Portuchoa*, *Placentia Bay*, etab.

Erbesteko oihartzunok gorabehera, Euskal Herri barruko erabaki linguistikoak lehengoan zeuden, sobera aldatu gabe nonbait.

RÉPERTOIRE TOPONYMIQUE DU QUÉBEC

1978

Commission de toponymie
Conseil exécutif
Québec, 1978

Éditeur officiel
Québec

| Basque | Russell | du | Merr | | |
|------------------------|----------|--------------------------|----------|-------------|------------|
| Basquet, Russseau | Russell | Bouventure | Merr | 48 05 56 48 | 22 51 50 W |
| Basquetouchin, Lac | Lac | Vie Placentin, Lac | | 48 55 75 36 | 51 11 W |
| Basquetouchin, Rivière | Rivière | Vie Argens, Rivière d' | | 48 58 75 30 | 51 11 W |
| Basquet, De | De | Terranova-Nouveau-Québec | | 59 59 70 05 | 24 N 16 E |
| Basquet, Rivière | Rivière | Vie Alexandre, Rivière | | 47 11 74 18 | 21 02 W |
| Baslet, Lac | Lac | Vie Basquet, Lac | | 47 34 58 30 | 21 N 10 E |
| Basquet, Anse aux | Anse | Vie Basquet, Anse aux | | 48 15 59 25 | 22 02 W |
| Basquet, Cap du | Cap | Sagueny | Sagueny | 48 00 59 48 | 22 02 W |
| Basquet, Collines du | Collines | Cap-Québec | | 48 03 59 50 | 22 04 E |
| Basquet, De | De | Vie Basquet, De aux | Fletcher | 48 09 59 15 | 22 02 W |
| Basquet, Lac | Lac | Chardon | Chardon | 48 37 71 41 | 22 03 W |
| Basquet, Lac du | Lac | Sagueny | Sagueny | 48 01 59 50 | 22 02 W |
| Basquet, Pointe | Pointe | Vie Basquet, Pointe aux | | 48 09 59 14 | 22 02 E |
| Basquet, Rade du | Rade | Sagueny | Sagueny | 48 02 59 45 | 22 02 W |
| Basquet, Récif | Récif | Vie Basquet, Récif aux | | 48 09 59 18 | 22 02 W |
| Basquet, Récif du | Récif | Sagueny | Leslie | 50 11 56 22 | 22 40 W |

| NOM | ENTITÉ | DIVISION DE RECENSEMENT | CANTON | POSITION | CARTE |
|----------------------|-----------|--------------------------------|------------|-------------|-----------|
| Basquet, Russseau | Russell | Bouventure | Fletcher | 48 05 56 48 | 21 02 E |
| Basquet, Russseau du | Russell | Cap-Québec | Fletcher | 48 04 59 00 | 22 04 E |
| Basquet, Trou du | Chaudière | Rivière-au-Loup | | 48 08 59 16 | 22 02 W |
| Basquet, Anse aux | Anse | Chaudière | Dumas | 48 12 59 54 | 22 02 W |
| Basquet, Anse aux | Anse | Sagueny | Escouffeux | 48 15 59 25 | 22 02 W |
| Basquet, Anse aux | Anse | Vie Petit-Palais, Baie du | | 48 22 54 25 | 22 02 E |
| Basquet, Anse aux | Anse | Cap-Québec | | 48 22 54 36 | 22 02 E |
| Basquet, Havre aux | Havre | Vie Havre aux Basquet, Baie du | | 47 11 51 57 | 11 N 50 W |
| Basquet, De aux | De | Rivière-au-Loup | | 48 09 59 15 | 22 02 W |
| Basquet, Pointe aux | Pointe | Sagueny | Leslie | 50 11 56 22 | 22 40 W |
| Basquet, Pointe aux | Pointe | Rivière-au-Loup | | 48 09 59 14 | 22 02 W |
| Basquet, Récif aux | Récif | Huntington | Dumas | 48 04 74 30 | 21 02 W |
| Bas, Lac | Lac | Gatineau | Hébert | 48 58 75 32 | 51 10 W |

QUÉBECEN EUSKALDUNEKIKO TOPONIMIA

Kanadako izendegi ofizial honetan (1978) ez da Ternuan bezalako euskal izenik aurkitzen; baina, bai, Gaztelako zenbait herriren izenetan bezalatsu, euskaldunen presentzia salatzen duen izen frantsesik. Mendeak igarota gero, horrela ere gordetzen da lurralde haietan inoiz egindako lanen oroimena.

NAFARROA BEHEREKO FORUAK (1611)

Nafarroa Behereko Foruen idatzaldi honetan, tokian tokiko hizkuntza aintzakotzat hartu nahi izan zen. Foru hauek kaskoinez idatzita zeuden; baina, Erreinuko hizkuntz ezberdintasunak goaon hartzean, herritarren hizkuntzari errespetagarritasun bat aitortzen zitzaion, eta euskarari ere bai, beraz, zeharbiz.

Erakundeetako hizkuntza

Erakundeetako hizkuntzaren erabilera bi motatakoak bereiz litezke: mintzatua eta idatzia; eta, batean nahiz bestean, legezko onarpena ere baduena edo usuario hutsezkoa.

XVII. mendean denetakoak topatzen ditugu: Elizak legezko onarpena eman zien erabilera mintzatu eta idatzi batzuei, baina erdarak eta latina baztertu gabe (Kalagurriko Sinodalak).

Herriko Erakunde Publikoetan denetik dago: Batzarretarako gaztelaniaren eskakizuna, batzar-lagun batzuk bileratatik botatzeraino (Gernika, 1624), edota Batzarrean gaztelania zerabiltelako, herritarren protesta (1631). Nafarroa Beherean, agiri publikoetan kaskoina darabilte (1611ko Foruak); baina, Foru horrek zioenez, herritarren hizkuntza ere aintzakotzat hartu behar zuten Erakundeek beren ihardueran.

Hala ere, Batzarreek behin baino gehiagotan laguntza ukatu egin zieten euskarazko argitaragaii (Gipuzkoan, eta Nafarroa Beherean 1675). Euskal Erakundeek ez zuten, oro har, Euskal Herriaren hizkuntza beren ardurapean hartu, beste tokitan Koroak berearekin egin zuenaren antzera.

Zorionez, bazegoen hizkuntz kontzientzia argiagorik izan zuenik.



126

Handwritten list of names and titles in Basque, including 'Prila antez gles...' and 'Prila antez gles...'.

Fragment of a handwritten document with Basque text, including 'Prila antez gles...' and 'Prila antez gles...'.

1613-XII-10

Fragment of a handwritten document with Basque text, including 'Prila antez gles...' and 'Prila antez gles...'.

1625-V-20

Fragment of a handwritten document with Basque text, including 'Prila antez gles...' and 'Prila antez gles...'.

1625-IX-16



Fragment of a handwritten document with Basque text, including 'Prila antez gles...' and 'Prila antez gles...'.

1625-IX-16

BIZKAIKO BATZARREAK (1613-1633)
 Euskal Erakunde Publikoetan, herririk
 hurbilenetan batipat, euskararen erabilpen mintzatua
 arrunta izan da betidanik, hizkuntza sozialki bizirik
 zegoen eskualdeetan behintzat; baina goragoko
 Erakundeetan, edo kanpotar erdaldunek ere egon
 behar zutenetan, zailagoa zen hori. Mendeak zehar
 politika ezberdinak eta kontrajarriak ezagutu ditu
 honetan Euskal Herriak. Euskaldun hutsekiko
 diskriminazioa, une batzuetan areagotu egin zen.
 Hauxe da hona dakargun Bizkaiko Batzarreetako
 kasua (1613-1633): Zenbait herritako ordezkar
 euskaldun hutsak Batzar-lekutik irten eraziz zigortu
 zituzten urte haietan.

Junta general de los arbol de guerra de 20 de Mayo de 1679 114
Sobre el arbol de guerra de 20 de Mayo de 1679 de las juntas
generales de este Reyno y muy lealtoso de los de cuya oratoria
se sigue en favor de sus señores de este Reyno de mill y seis y setenta
y cinco años habiendo se juntado en Junta general en Oviedo de la qual
se hizo el mandamiento condecorado en 28 de Mayo de 1679

... a las dhas. republicas en la forma que abajo se ve
Por la Puebla de murcia de murcia de murcia
Por la ane y glesia de pedre nales san Juan de murcia
Por la ane y glesia de arge de buburia Juan periz de buburia
Por la ane y glesia de murmeta Juan de celaya
Por la ane y glesia de founa hernando de founa
Por la ane y glesia de luno don garcian de meteta
Por la ane y glesia de mudeca pedro de viburno que goza concurrencia
El qual es de dudosa de decretos de estension y mandamiento
en el concilio que se dio en baron en que mandaba que no se
busara sumero a la dha. Junta ninguno que no se pudiese
de Cuba y ablar Romana no saber el dho. pedro de viburno de
dho. mandado que por su incapacidad fue repuesto al concilio
biste en la dha. dia y pagase quatro ducados de penales por
al dho. decreto que se hizo a ocho dias de este dia de mill
y seis y setenta y cinco años en que estamos Por lo qual no se admiti
do en la dha. Junta



■ ELIZ SINODALAK (1621, 1700)

Aro Modernoan Kalagurriko eta Iruñeko Elizbarrutiek hartzen zuten Hegoaldean, ia osorik. Kristau herriarrak, gehienak, euskaraz mintzatzen zirenez, Trento-ondoko (1545-1563) berrikuntza pastorallean premiazkoa ikusi zen kristau-herriarentzat katekesi-langaiak argitara ematea. Kalagurriko Sinodalek (oinarizko arauak ziren berauek Diozesian) nahikoa xeheki arautu zuten eliz pastoralaren hizkuntz arazoa. Euskal erakundeen artean, euskararen aldeko neurririk onargarrienetakoa gertatu zen hau, nahiz eta, oro har, Ekialdeko beste Eliza Kristauen edo Erreforma Protestantearen politika erabakiorrerraino ez iritsi.

Que los Prelados hagan imprimir cada año Doctrinas Christianas, en lenguaje acomodado à las Provincias.

CONSTITVCIÓN X.

Y Porque es conveniente, que cada Provincia tenga la Doctrina Christiana impresa en lengua paterna; y porque ay en la tierra Vazcongada deste nuestro Obispado diferencia en el Vazquence del Señorío de Vizcaya, Provincia de Guipuzcoa, y Alaba: Efatuimos, y ordenamos, que los señores Obispos, nuestros sucesores, hagan imprimir cada año car-

Dase forma de como se han de hazer los Cathecismos de Doctrina Christiana en Vazquence, para que pueda aprovechar en las Provincias Vazcongadas.

CONSTITVCIÓN XI.

Es nuestro animo, que la Constitucion antecedente se observe como fana, y saludable, en quanto ser pueda. Mas ayviendo mirado con atencion todas las cosas que pueden ayudar

Que en la tierra Vazcongada los Sermones sean en Vazquence.

CONSTITVCIÓN XII.

Porque fomos informados, que en la tierra Vazcongada, y especial en los lugares, que la mayor parte de ellos habla Vazquence, los Predicadores por autoridad predicán en Romance, y no en Vazquence; de lo qual se figue grande daño; y que la gente que viene de las calerías à oirlos, como no saben Romance, se falen ayunos del Sermon. Por tanto, Sanctissimo Synodo Aprobante: Ordenamos, y mandamos, que en los tales lugares los Sermones se hagan en Vazquence; y los Curas

128

Libro I. titulo I.

casí todos entienden Romance: porque guardada esta forma, todos se aprovechan de la Doctrina; y siendo el Sermon en Romance, necesariamente quedan sin entenderlo aquellos pocos, à muchos que lo saben. Y siendo el Predicador, segun San Pablo, deudor à todos, debe predicar de modo que à todos aproveche; y por esta razon en todo el Vazquence los Predicadores naturales de la tierra, deben ser antepuestos à los que no lo son.

■ DOTRINAK eta PREDIKUIA

Trentoko Kontzilioaren ondoko Erreforma Katolikoak herri-hizkuntzen eliz erabilpena katekisi lanetarako bederen onartu zuen. Erabaki horri esker, XVII-XVIII. mendeetan Kristau-lkasbideen argitalpen asko egin zen, eta, hizkuntza idatziaren garapenerako garrantzikoagoa izan zena, eliz predikariaren lanak prosa ontzeko aukera onak gertatu ziren. Axular, adibidez, tradizio horretan lekutu behar da. Liturgiari eta Bibliari latinez jarraitu zuten, ordea, eta, hutsune hori nolabait berdintzeko, oitizetarako elizliburuak eta Historia Sainduak idatzi ziren.

Arrasate 1579

Handwritten manuscript in Basque, likely a historical document or petition, with dense cursive script and some red ink highlights.

ORDENA ERLIJIOSOK

Diozesiek bezalatsu Ordena Erlijosok ere (Frantziskotar, Josulagun edo Karmeldarek, adibidez), prediku-lanetan leku nagusia izan zuten (XVI-XVIII. mend.). Eta, lanak berak eskatuta, hizkuntz hautapenak egin behar izaten zituzten. Batez ere Eskeko Ordenek (beren ekonomia herrietako aldarte-sozialei lotuagoa bait zuten honelakoek), Udalerriekin hitzarmenak eginez, edo Eliz Zaingoak eskatuta, erabaki zuten predikuak noiz eta nola (gaztelaniaz ala euskaraz) egin. Argazkietan: Arrasateko San Frantzisko eraikitzean emandako hilburuko agirian (1579), komentuan nagusi euskaldunak jartzeko eskatzen zuten Araoz-ek.—Zarauzko Misiolari-Etxean ere fraidegai euskaldunak hobestea eskatu zen, pastoral-lanei hobeki erantzun nahiz (1747-X-30).

2.º Por cuanto está determinado que el Seminario de Zarauz se compusiese de religiosos con igualdad de las 4 Naciones, según la ley municipal, determinaron que se suplique a nuestro Rmo. P. C.º Gral. para que dicha ley se derogue y se explique la cláusula, en cuanto fuere posible, dejando libertad al seminario para que puedan recibir a cualquiera que tuviese las calidades, sin atención a naciones y número, con preferencia de las Vascongadas en caso de superabundancia o falta de pretendientes; concediéndole así mismo facultad para admitir confesores vascongados, que coadyuven a los PP. en el confesonario y otros ejercicios.

«Item digo que es mi voluntad y deseo que el Rector Guardián de dicho Colegio sea en todo tiempo Religioso que sepa hablar y predicar en nuestra lengua Bascongada, porque su doctrina pueda hacer mucho fruto en la villa y su comarca en servicio de Dios y beneficio de los fieles cristianos, naturales de ella: Pido y suplico a los muy Reverendos Religiosos Padres Definidores y Capítulos Provinciales de ella, e inter capítulos, que provean siempre de Rectores Guardianes de este Colegio a Sacerdotes Religiosos de esta nuestra antiquísima lengua Bascongada, la primera de España, pues de las cinco naciones que en Europa la hablan caen cuatro en su provincia de Cantabria que son la Guipuzcoana, Vizcaína, Alavesa y Navarra en España, y la quinta de Bascos de Francia, conjunta a España en los vertientes de los montes Pirineos de la parte de Francia, y si no lo pudiesen hacer cómodamente, no les obligo a ello, pero tórnoles a suplicar lo mesmo, dexando por mi equidad en sus manos lo que yo tengo en las mías.—Juan de Araoz.»



■ DONIBANE-LOHIZUNE

XVIII. mendeko marrazki honek, aurreko mendea gogoratzeko balio digu, XVII.a alegia. Arrantzale-portu hau ez zen, artean, bereziki antzinakoa: Donibane 1450aren inguruan bihurtu bait zen arrantzale-portu, agi denez. Eta geroago lortu zuen oraindik bere herri-jauntasun osoa (1570-1632etan bertako baroniaren jabetasuna herritarrek erostean). XVII. mendea da Donibane-Lohizuneren mende handia: balearen eta bakailoaren arrantzua, kortsari-gerra... Ondasun handiak bildu ziren herriko familietan. Aturri ibaiaren bokalea hondarrez itsutzean, Donibanek bereganatu zituen, aldi batez bederen, Baionako portuaren egiteko batzuk. Goraldi honekin bat dator herrian (edo ondoko Ziburun) komentu-etxe berriak irekitzea eta elizgizon jantziagoak bertan zaindu edo bertara erakartzea. Testuinguru sozial horrek sustatu zuen Literaturaren birjaiotza. Marrazkia: Ozanne, 1776.

■ Donibane-Sara eta Iparraldea

XVII. mendean Iparraldeak bere irabazpideak ugaritu egin zituen: 30.000ren bat lagun omen zituen gizarteko 5./6.000 lagun joaten ziren nonbait Ternua-ra (De Lancre, 1610).

Bizimodu ekonomiko aberatsago honi esker, zenbait euskaldun eskolatuk euskarazko idazlanari heldu zion: Hortik jaio zen, Etxepare eta Leizarragarenak ez bezala, segida ere izango zuten euskal Literatura.


Donibane-Lohizunen eta Saran (Lapurdin) apaiz-multzo bat biltzen zen, elkarrekin: batak besteari lanak erakutsiz, elkarren argitalpenetan eskuhartuz, elkarri lagundu eta elkar eztenkatuz. Etxeberri Ziburukoa zuten, dirudienez, bururik jantziarena, eta Pedro Axular, etorririk onenekoa. Euskaltzale-lagunarte bat ezezik, lan-eskola bat osatu zuten guztien artean. Apaiz-fraideak ziren denak.

Talde-lagun haiek elkarrekin ageri zaizkigu behin eta berriz: mende honetako lehenengo autoreak, Materre-k (1617), Saran ikasi zuten euskara, Axularren ondoan, beraz; Haranburu (1635), beharbada Materre-

ren etxe berean bizi izan zen, Ziburun; Harizmendi, Sarako bikario laguna izan zen; Argaignarats, ostera, Ziburukoa. Etxeberri Ziburukoaren bi liburutako aztertzailea izan zen Axular (1627, 1636); Argaignarats-ek Etxeberri-ri (1631) eta Harizmendik Haranbururi (1635), batak besteari liburu-sarrerakoak idatzi zizkioten. Denak elkarren inguruan dabilta, zinez, batak bestea sustatuz eta denen artean lan eginez.

Baina, giro hark zuzpertzuta, herritar laiko batzuk ere laster agertu ziren, euskara eliz arazoetatik kultur gai zabalagoetara eramateko. Bi izen aipatuko ditugu bereziki: A. Oihenart eta Etxeberri Sarakoa. Hark Historiatik eta honek bere bizitzako ibilbidetik, Euskal Herria bere batasunean begiratu zuten.


Azalpen literario hauen ondoan, Euskal Herriko Erakundeetan euskarak zuen, edo ez zuen, presentzia aipatu-berria biziki lotsagarria gertatzen da. Areago oraindik, hizkuntzaren erabilera publikoaren arazoa espreski eta ohartuta erabili zela gogoratzen badugu.



■ ETXEBERRI DOKTOREA


Etxeberri Ziburukoaren irudirik ezean, ekar dezagun hona idazle honen lehen obraren azala: *Manual Debozionezkoa*, Bordale, 1627. Joanes Etxeberri hau Doktoorea zen, eta itzal handiko burua Donibane-Ziburu-Sarako apaizartean. Liburu honek Axular-en zentsore-baimena izan zuen, eta inguruko euskaltzale lagun bertsuak ere bai, sarrera gisa.

Argazkian: Lehenengo aldiz argitaratu ematen den lehen edizioaren azala.



LAGUN-BAIMENAK ELKARRI?

XVII. mendearen lehen erdialdiko argitalpenetan, autoreen eta zentsoreen lagunarteko hurbiltasuna agerian dago, liburuetako aitzin-solas, baimen, eskaintza eta laudoriozko sarrera eta bertsoetan. Etxeberrri Ziburukoaren bi obratan bederen, bietan, zentsore berak ageri dira: Axular eta Gilentena. Axular-ek, gainera, zeregin hau lehenagotik ere bete zuen, Materre-ren liburu batean (1616). Gilentenak, bestalde, zentsore izandako liburu berean, hurrengo orrialdean, autoreari adiskide-bertsoak eskaintzeko erreparorik ez zuen izan. Lagunarte mina zen Donibane-Sarakoa.




"EGUN BATEZ, KONPAINIA ON BATEAN..."

Etxeberrri Ziburukoak eta Axular-ek jaun berari eskaini zizkioten beren liburuak (1636 eta 1643): Bertrand Etxaus-i. Babes ona zuten, nonbait, Tours-eko Artzapezpikuarengan euskal idazleok. Axular-ek zuzendu zion "Gomendiozko karta" eskerronez beteta dago, eta ez da, noski, zurikeriaz egina: *Neure lagun maitea, ioan zatzaizkit lurretik, baiña ez gogotik, eta ez bihotzetik*. XVII.aren lehen mende-erdi hartako euskal lanak (aurrekoan Leizarragarenak bezala) babestaileak izan zituen; lagunarte guzti honen balioaz ohartuta zegoen Axular, "Irakurtzaileari" horretan, berriz ere aditzera ematen zuenetz.





PEDRO AGERRE: "AXULAR" (1556-1644)

Idazle handiari eta beronen ohoretan gure gaurko gizartean sortu ditugun izen bereko ikastola, liburudenda eta mutikoei, guztei, Urdazubiko baserri honetatik datorkie "Axular" izena, izan ere idazle haren sortizena Pedro Agerre bait zen. Esan ohi den bezala, "urak nora, gizonak hara" egin zuen urdazubiarrak, eta Nafarroa Garaitik Lapurdira pasa zen bere apaiz-lanetara. Argazkian, Urdazubiko Axular baserri zaharberriua, idazlearen sortetxea.




GERO (1643)

Hau da Axular-en liburu bakar maisuaren azala. Obra hau, bere euskara ederragatik, askorentzat izan da benetako euskal eskola. Mendeak zehar sei edizio izan ditu, RIEV aldizkarian zatika emandakoa kontatu gabe: 1643, 1864, 1954, 1964, 1976 (2. edizioaren urterik ez dakigu). 1988an egin du Euskaltzaindiak edizio faksimil bat. Obra honi itzulpenak eta euskalki-moldaketak ere egin zaizkio: Afibarrok jarri zuen bizkaieraz (c. 1820) eta Ateagak zati batzuk gipuzkeraz (c. 1909). Gerraondoko lehen edizioa (1954) M. Lekuonari zor zaio, eta beste bi argitalpenak, berriz, Aita L. Villasanteri (Salamanca, 1964; Arantzazu, 1976). Azken hauek gaztelaniazko itzulpena ere badute. Gero da Donibane-Sarako taldean bultzatu eta burutu zen obra literariorik handiena.






GERO: ETXKO LIBURUA

Gero-ren lehen ediziotik sei-zazpi ale bakarrik ezagutzen dira munduan. Hauetako bat Donostiako Urkixo Mintegian dago (Gipuzkoako Diputazioaren Liburutegian). Lehenengo eta ondoko edizioetako aleak, elizgizonen eskuetara ezetik, Euskal Herriko herritarren etxeetara ere iristen ziren: hemen ikusten dugun hau, Marianna Galharraga Azkaineko etxeakoaren batena izan zen.



HIZKUNTZAREN BATASUN-ARAZOAK

Axular-ek, liburuia idaztean, bere hezur-mamitan jasan zuen euskara idatzirako izan dugun hizkuntz batasunik eza: *Batek erraiten du behatzea, eta bertzeak so egitea...* Batak ichilik, bertzeak igilik... Hizkuntza jasoagorik lortzeko kultur historiaren eta ohituren premia ere gogorutzen zituen Axular-ek: *Baldin egin baliz euskaraz hanbat liburu, nola egin baita latinez, frenzeses, edo bertze erdaraz eta hitzkuntzaz, hek bezain aberats eta konplitu izanzen euskara ere.* Eta horretaz euskal gizartea salatzen zuen autoreak: *eta baldin hala ezpada, euskaldunek berek dute falta eta ez euskarak.*



EUSKARA IDATZIAREN PREMIAK

Euskara mintzatua mundu idatzira pasatzean, hizkuntzak ohitura berriak eskatzen zituela ohartu ziren idazleak; hizkuntza izkribatuak eta irakurriak berarizko legeak dituztela, alegia. Aipatu dugun bezala, Leizarraga-k bere ABCa ("katona" esanenezake) atera zuen idatziaren oztipoak gainditzeko. Testamentu Berriaren itzulpenaren ondoan horrelakorik argitaratzea ez-ohizkoa da, noski; baina, jokabide horretan, ez zen izan hura gure idazleetan horrelakorik egin zuen bakarra. Betolatza arabarrak Bilbon argitara emandako Dotrinan (1596), silabategi bat atera zuen (ongi bitxia, eta alde honetatik aski esanahitsua). Hizkuntza didaktika baten behararen kontzientzia Mikoleta bilbotarrarengan ere aurkitzen dugu: euskal gramatikaren hastapenak ematen zituen autoreak (1653koa, baina lehenengoz Barcelonan 1880ean argitaratua). Urte beretsuetan Pouvreau ere bazebilen hiztegi bat prestatzen: euskaldunberri-nahiaren lanak, noski. Gaur egun ere argitara gabe dago hau. Argazkietan: Betolatzaren silabategia, Mikoletaren lana eta Pouvreau-ren hiztegi eskuizkribatua.

Alderantziz, euskal idazleak ere arduratu dira erdarez ere. Alde batetik, nabaria da euskal literaturan, erdaretatik egindako itzulpenek izan duten lekua; baina, horren ondoan, erdarak irakasteko euskaraz idatzitako lanen batzuk ere baditugu: *Tresora hirur lenguietakoa* (Baiona, 1642), eta Etxeberri Sarakoaren *Eskuarazko hatsapenak latin ikasteko* [1712]. Hizkuntzarteko harremanak euskaldunei errazteko pentsatutako lanak dira, noski.

Gai-hari honi jarraiki, kanpotik etorritako arrotz euskaldunduek gure Literaturari eman dioten ekarria ere azpimarratu nahi dugu hemen. Atzerriko korrante kulturalak ezezik (Erreforma Protestantea gogora liteke horien adibidetzat), euskarazko idazlariari ekin zioten bi euskaldunberri ezagun dauzkagu XVII. mendean: Materre eta Pouvreau.

Aita *Esteban Materre* kanpotik etorria zen, Ziburu-ra seguraski (1611?). Laster ikasi zuen euskara, Saran, Axular-en ondoan, eta argitalpenak kaleratzen Sara-Donibaneko idazle-multzoa baino hamar urte lehenago hasi zen, guztiei aurrea hartuz: *Dotrina Kristiana* (1617). Lotsati edo

agertzen zaigu hitzaurrean Materre, jatorriz euskalduna izan gabe euskaraz idazteari ekin ziolako. Aztertzaile bezala, Axularrek oneritziroko liburu honek, katekesi-beteki-zunetik kanpo bazuen beste helburu kulturalik: Euskaldunek euskaraz ere irakurtzen eta idazten ikastea. Euskaldunberri aitzindari hau ohoratzen duen asmoa da hauxe.

Sylvain Pouvreau ere erbestetik etorri zen. Hona etorri aurretik, ordea, Saint-Cyran-en morroi eta zerbitzari honek, euskara ikasteko giro ona aurkitu zuen Abade jansenista euskaldun haren etxean; Euskal Herrira etortzean lauzpabost urtetan (1639-1644) osatu zuen prestakuntza. Ikasketa haienildoari gora jarraiki, idazteari heldu zion Pouvreau-k, eta bi motatako lanak burutu zituen: batetik, itzulpen handiak, eta bestetik, hizkuntzari buruzkoak (Gramatika, Hiztegia). Lehenengo haiek, autorea hil aurretik eman ziren argitara (1656-1665); baina bigarrenak, parte argitara izan badira ere (1881-1892), artxiboetan daude oraindik, Hiztegia bereziki. Pouvreau-k, erbestera itzuli zenetik aitzina ere leialtasun saiaturia gorde zion hemen ikasitako hizkuntzari, bere euskal argitalpenak zainduz eta noizbehinka hona bere ikustaldiak eginez.

J. Etxeberri Sarakoa: Hizkuntz kontzientzia

XVI-XVIII. mendeetako euskal prositarik interesgarrienetakoa da Joanes Etxeberri hau; Oihenart hil zen urte berean, Saran jaio zelako “Sarakoa” bezala izendatu ohi da, horrela “Ziburukoa”rengandik bereiziz.

Bere hitz-lauzko lan zabalean, hizkuntzarekiko gogoeta euskaraz idatzita utzi zigan autore honek. Bi mota ezberdinetako arretaz begiratu zuen hizkuntza Etxeberri medikuak: alde batetik, laudoriozko defentsa suharra eginez, eta bestetik, euskara gramatika-lanetara eramanez. Bigarren honetan, Pizkundetik herri-hizkuntzetan ageri zaigun ohitura ezagun bati jarraikiz, latina ikasteko euskal gramatika idatzi zuen, mintzaira kultur eginkizun berri horretan trebatuz.

Etxeberri Sarakoarengan, batez ere euskarari buruz dituen kontzientzia eta teoriak dira jakingarriak guretzat. Bere aurrekoengandik asko hartu zuen, noski, baina berak euskaraz ematen du, halaxe deritzanean, aurrekoenak kritikatu, zuzendu eta bere gisara hobetuz. Bestalde, autoreak idazkera duin, jaso eta bizia du, bere argibideak eman eta eztabaidakizunak jostean.


Hain zuzen, garaiko eztabaidetan oso minbera ziren gaiak ukitzen ditu, ondoko titulu-buruek erakusten dutenez: “Eskuaren ethorkia”, “Ea badentz eskuara”, “Zer denez eskuara”, “Izenaren definizioa”, “Es-

kualdunaren eta Eskual Herriaren izenak bertze hizkuntzetan ere misterioitsuak”, etab.

Euskararen dohainak ematean, puntuz puntu honela dihardu: *Eskuara zaharra da, Eskuara zuhurra da* (eta, bide batez, zuhurtzia horren frogak), *Eskuara garbia da, Eskuarak ez du ganbiadurarik hartu, Eskuara noblea da, Eskuara bertze hizkuntzetarik ethorkirik gabekoa da, Eskuara guztietan bat da*. Baina, ustekizun horietara mugatu gabe, etorkizunari ere begiratuz idatzi zuen Etxeberri.

Hizkuntzaren gramatikatasunaz arduratuta zegoen, euskararen batasunik ezaz, edota eredu literario jator baten premia ere bai: horregatik, euskal gramatikaren molde bereziak gogoratzen ditu, gisa ezberdinetako euskalkiak, eta, hala ere, euskarak bere funtsean duen batasuna, eta Axular luzaz laudorioztatuz erakusten du non legokeen euskal idazleen maisurik jatorrena. Era berean, hizkuntzaren erro herritarrak ez ditu albora uzten, eta Sarako hizkera proposatzen du herritar oinarri hoberentzat.

Euskal Herriko gazteria eskolatuago bategan zuen bere itzaropena: Horien lanetatik espero zuen euskara jasoago bat, zeren —hala zioen— “Eskualdun eskuaren arbuizatzaileak, berak dira arbuigarriak”.



LATINA IKASTEKO HATSAPENAK (1712)

Joanes Etxeberri Sarakoaren lanekin hizkuntzak urrats berriak eman zituen kultur munduan: Ondoko idazlan honetan euskara tresna pedagogiko bezala hartu zuen Latin-gramatikako Eskoletan euskaraz lan egin zedin. Esan behar da, hala ere, autoreak saiates dela, latinarekiko ezetik, euskararekiko berriak ere eurrez ematen. Beste hizkuntzetan ere, nahikoa maiz, bazegoen latin-gramatika ikasteko herri-hizkuntzaz egindako metodorik.

izan, eskuizkribu galdu batean geratu bait ziren ia bi mende luze (1712-1905). Hala ere, euskal intelektual askok, argitara eman aurretik ere (1907), izan zuen Sarakoaren lanen eta ideien berririk. Beraz, eragin sozial zabalik izan ez bazuen ere, pentsa liteke eskuizkribu honetako ideiek izan zutela zenbait kezkatutegian oihartzunik. Dena den, Etxeberriren hizkuntz jarrera, aitzindaria izan zen euskaltzaletasunaren kondairan.

kiago, josulagunen artean sumatzen da hizkuntzazko arreta biziagoa. "Argien" jarraitzaileak (*ilustratuak*) ez ziren altuera berera iritsi.

Nabariki, hizkuntzaren defentsa teoriakoa politikara hurbiltzen ari zen (Larramendi), baina hurrengo mendean lortuko zen argitasunik gabe, nahiz eta hizkuntzari, bere bizitza kultuan, orduan ere eragozpenik ez falta (Kardaberaz edo Mogel-en kasuak adibide ezagunak dira).

Oro har, euskal hitzungearen lurraldeak lehengoan dirau Hegoaldean; baina mende honetakoak dira Arabako eskualde-galera larri batzuk. Dena den, euskarari eusten zaion lurraldean eskierki euskaldunak elebakarrak izan ohi ziren, artean.

Hegoaldeko literaturaren jaiotza

Iparraldeko lastargi literarioa Hegoaldeak hartu zuen mende honetan, eta batez ere gidari handi baten inguruan gertatu zen hori.


Jadanik gertu suma zitezkeen erakunde-krisiaren atarian eta hizkuntzaren kontrako eraso arrotzen aurrean, Larramendik argi, grina eta segurtasun intelektual berriak eskaini zizkion euskaldungoari, hizkuntzaren

alde. Haren itzalpean heldu zioten larramenditarrek euskal lanari.

Hizkuntza arautu egin zen gizaldi honetan: Gramatika (1729) eta Hiztegia (1745). Eta, horrekin batera, euskarazko idazlanari zentzu ideologiko eta herritar ohartu bat aurkitu zitzaion. Aurreko mendeetako hizkuntz defendatzaileen ustekizun zaharkituak baztertu ez baziren ere, jite berriko pentsamendu eta praxi linguistikoak mamitu ziren euskaltzale protagonista haien artean: Kardaberaz, Mendiburu, Barrutia, Ubillos, Munibe...


Zoritxarrez, Ebro aldean, mendetan eutsitako muga geografikoa atzeraka hasi zen, Arabako auzo eta herrietan bereziki eta geroago Nafarroan. Bestalde, hizkuntzaren kultur bizitzan ez zen falta izan eragozpen ofizial gaiztorik. Eta josulagunak iraitziak izatean (1767), momentuz euskal Literaturari katea eten zitzaion, Leizarraga segida handirik gabe geratu zen hartako antzeko arriskuekin.

Horiek horrela, eskasia guztiekin ere, euskara idatziaren aroa irekita utzi zuen XVIII. mendeak, hartatik aitzina urrats berriak ematen jarraitzeko.



■ AITA MANUEL LARRAMENDI

Larramendi andoaindar eta josulagunaren nortasuna (1690-1766) hitz gutxitan laburtu behar bagenu, honelako zerbait esan genezake: Euskal Herriaren maitalea zen, euskaltzale nekaezina, polemista abila, politikari zolia, buru aparta, eragile argia, langile arduratua, etorkizunaren asmatzaile eta egilea... Euskal kulturari inork gutxi utzi du hark adinako arrastorik, eta, gaur egun ere, isilduta ezkutan geratu ziren haren eskuizkribuek zer pentsaturik franko ematen digute, hain berandu bada ere, kalera argitaratuta iritean.



■ **EL IMPOSIBLE VENCIDO (1729)**
DICCIONARIO TRILINGÜE (1745)

Liburuetan, hizkuntza landua eta, jendaurrean, euskara duin bat nahi zituen Larramendi-k. Hasieratik bertatik ikusi zuen argi: premiazkoa zen, hiztungoaren ezpainetan zebilen euskararen arauak ezagutzera, eta ikasteko edo erabiltzeko gisan biltzea. Eztabaidaren grinak bultzatu zuen, noski, Larramendi euskararen *araugarritasuna* kanpokoentzat honela frogatzera; baina,aldi berean, baita hizkuntzari euskal gizartean proiektu kultural egoki bat eratu-premiak ere. Lanerako tresnak ziren liburu hauek. Hizkuntz normalizazioetan egiteko giltzarri bat izan ohi da Gramatika eta Hiztegiaren moldakuntza.

■ **Aita Manuel Larramendi (1690-1766)**

Andoain-en (Gipuzkoa) jaio zen Manuel Garagorri Larramendi, eta 1707an sartu zen Jesusen Lagundian, Loiolan. Salamanca-ko Unibertsitatean irakasle izan zen, eta han zegoela eman zituen argitara euskararen aldeko bere lehenengo bi obrak. Erregina alargunaren aitor-entzulea izan zen, baina laster erretiratu zen Loiolara (1733), eta han bizi heriotza arte. Euskara eta Euskal Herria izan ziren haren bihotzeko izarrak.

Larramendiren argitalpenetan, badago berehala harritzen gaituen zerbait: haren lanak oso data ezberdinetan kaleratu izan dira. Batzuek gure egunetararte egon dira artxiboetan gordeta, ikertzaile saiaturen baten argitan jarri dituen arte.

Larramendi, eztabaidara oso emana zen, baina ez kasketaldi bero batez, garaiko benetako arazo larriei erantzunez eta, behin baino gehiagotan, aurrea hartuz baizik. Bere garaiaz ezezik, etorkizunaz oharren ernea erakutsi zuen josulagun andoioandar honek.

Bere bizkar esandakoez aparte, hipotesi gisa pertsonaia asmatuen ahotan eskaini ohi zituen iradokizun politiko ausartak benetan irakurtzekoak gertatzen zaizkigu gaur egun ere.

Euskararen alde egin eta idatzi zituenak molde eta balio ezberdinetakoak dira; baina, batzuk zein bestek, haren belaunaldia-erentzat eta gero etorri zirenerentzat zinez eragileak suertatu izan dira.

Hizkuntzaren defentsan, ideia eta uste zaharkitu ainitz erabili zuen, erasoan zetozen arrotz askoren euskarari buruzko ezjakinez irri eginez ere bai, itxura guztiz. Baina Larramendiren obra handiak bi ekarri aberats izan ditu: bata, euskarari bere duintasun arautua egokitzean, eta hizkuntzaren aldeko lanetara hainbat jenderen borondateak erakartzean, bestea. Euskararen historian beste inork ez bezala txertatu ziren bere belaunaldikoei Aita Manuelek hizkuntzaren harrotasun eta estimu soziala.



■ EUSKARA, GIZARTE-OSPAKIZUNETAN

Gizarteko ospakuntzetan kantuak eta antzertiak izan dute leku onik; baina horietan ere ez da beti hizkuntz hautapena zuzenbide osoz egin izan. Hona dakartzagun bi lekuko hauek erakusten digutenez, Hegoaldeko XVIII.ean jendaurreko hizkuntz erabilpenak errespetagarriagoak bilakatu ziren. Argazkietan: *Gabon-kantak* (Bilbo, 1755) eta *Barrutiaren* (1682-1759) *Gabonetako Ikuskizuna*. Beste herrietan egiten zirenen antzeko ohitura izan arren, ezin uka aukera sozial hauek idazleentzako ezten bat zirela eta euskara eskolatuago baten azalpena, gizartean.

■ Larramendiren obra batzuk

(1728)

De la Antigüedad y Universalidad del Bascuenze. Salamanca.

(1729)

El Imposible Vencido. Arte de la Lengua Bascongada. Salamanca.

(1736)

Discurso histórico sobre la antigua famosa Cantabria. Madrid.

(1882)

Corografía o descripción general de la Provincia de Guipúzcoa. Barcelona.

(1973)

Autobiografía. San Sebastián.

(1983)

Sobre los Fueros de Guipúzcoa. San Sebastián.


■ Hizkuntzari, zor zaion literatura

Hizkuntza mintzatu guztiak ez dira, gaur eguneko denak ere, hizkuntza idatziak. Eta inoiz idatzi izan diren horiek ere ez dira iritsi horretara egokiera kultural eta sozio-politiko berdinetan. Hizkuntza, batez ere, hiztunen ezpainetan bizi ohi da, eta gero, mila modutako azalpen sozialak izaten ditu, norberaren bizitzan nahiz herritarren arteko harreman idatzi publikoagoetan.

Kultura eskolatuaren mundura igarotzean, hizkuntzek beren garapen-bide artistikoa "letra ederretan" izan ohi dute, hau da, Literaturan. Baina hizkuntza baten garapen literarioa ez da, sarrienik, bapatean lortzen: pixkaka onduz joan ohi da idazkera, eta genero literario guztiak ez dira pare-parean garatzen.

Euskara idatziaren jaiotza XVI.ean jarri ohi da, eta, ikusi dugun bezala, euskarazko lehenengo liburuan (1545) arrunt agerian dago pauso kultural horren garrantziaz Etxepareren oharrena. Lehenengo idazlan





ELIZGIZONAK EUSKALGINTZAN

Larramendiren eraginez eta berak iradokitako asmoak betetzen, laurogei urtetan (1760-1840), ordurarte Hegoaldean ezagutu ez zen idazle-saldoa jarri zen lanean. Josulagunak izan ziren lehenengoak (Kardaberaz, Mendiburu), eta frantziskotarrak (Ubillos, Añibarro, P. Astarloa, Zabala...), karmeldarrak (Prai Bartolome) eta apaiz diozesitarrak (Mogel, Agirre, Gerriko, Lizarraga) iritsi ziren berehala. Kardaberaz-ek eman zion mugimenduari bere jite teoriko erlijiosoena, eta aipatutako ia guztiek neurri handiko idazketa-lana burutu zuten, testu-masa mardula, alegia. Argazkian: Kardaberaz-en euskal Erretorika, Mendibururen monumentua (Oiarzun) eta Nafarroako Elkano herria (J. Lizarraga-ren jaioterria).



Kardaberaz eta euskara

hau, gainera, obra literarioa da guztiz, oso rik letra ederren alorrean sailkatu behar dena. Hurrengo mendeetan balio literarioen presentziak gorabehera handiak izan zituen euskarazko argitalpenetan, idazleak zerabilen gaiaren, nahiz bazuen edo ez zuen eder-senaren arabera.

Larramenditarren artean behin eta berriaz aipatzen da euskara idatzi baten beharra. Ez da ahantzi behar, bestalde, Larramendi eta Kardaberaz bizi ziren etxeko medikua Etxeberri Sarakoa zela eta bailara berean izan zutela, geroxeago, beren egoitza euskal antzertia bultzatu zuten Azkoitiko "Zalduntxoek". Kardaberaz-en erretorikala mugarri bat izan zen, baina erabakiorragoa gerta zitekeen, noski, josulagun-taldeak 1767ko eten gaiztoa izan ez balu.

Apurka-apurka, ete belaunaldi askoren buruan ari da mamitzen —oraindik ere— Euskal Literatura, hizkuntzari, horrela, gorabide ederragoa urratuz.

Larramendirengandik oso bestelakoa izan zen josulagun hernaniar honen nortasuna, euskaraz eman zuten obra zabalagatik eta, polemista bero haren ondoan, garai-koek Kardaberaz, batipat predikari santutzat zeukatelako. Hala ere, euskararekiko jorkabide kulturean eritziak emateko beldurrik ez zuen, eta, Larramendiren maisutasuna aitortu arren, euskaraz gutxi idatzi izana salatu zion inoiz hari.

Euskaraz obra-saila idatzi zuen Aita Agustín Kardaberaz-ek (1703-1773), eta bat bereziki hizkuntzaren aldekoa: *Euskeraren berri onak* (Iruñea, 1761). Autoreak elizgizonen artean zuen itzalagatik —eta hauei gizartean zitzaien begiramenduagatik—, liburu txiki honek bere tamainari ondotox hartu dio gaina, agertu zenetik hona.

Kardaberaz-ek, pentsamendu teologikotik eta pastoral-praxi eliztarretik heldu zion euskararen defentsari, horrela bere lan eta teoria euskaltzaleak elkartz. Handik ho-

ti. hic. 11
li, aide-
tin ama-
lean, edo
, proba-

Griego,
lira: eta
itz, boz,
adituzte,
tenduen
do lena-
cio aut-
ola nai,
ic beitea
igundu-
aurrel-
izion ja-
tori ona
tinetan
inez ef-
ndo ef-
rtceco,
a on al-
retori-
zizone
Espintu
San-

Santuren arguiaz guidatuac, beren ceruco
Libruac Lenguage bietan eicribituzten:
ala Ignacioc, Policarpoc, Justinoc, Cle-
mentec, Tertuliano, Origenes, Cipriano,
Lañancioc, ta beste Eicritore tantuac. Elei-
zaco lau Dotore Griego, Atanasio, Basi-
lio, Gregorio Nacienceno, ta Crisostomoc,
nola lau Latino, Ambrosio, Geronimo,
Agutino, ta Gregono andiac, ta oien on-
dorengo guciac. Au dudariç gabe dicha
andia da.

Izcunde estimatu oieç biac ere beren ore-
fiac, edo tachac baciuzten len; baña gue-
ro, ascojaquiñen artean oidana, egunoro,
ta obeto poliquitu, ta apañduaz biac joan-
dira. Orañ dactucina da, Jaquinñen, ta
Jaquinñalen Izquera, edo Lengoaçac La-
tiña, ta Griegoa dirala: ta Latinaren estima-
cioa are andiago da, ceren Eleizaren Izque-
ra fanta dan, eta gure Fedeco Libru sagradu
guciac Latineç daucaitegun.

Gure Eufquerac bazter oietan orrelaco
Guizateme andien patu onic izan ezta. Baña
Latin, ta Griegoac ascojaquiñen dicha, ta
gloria ori izan badute: bere modura mara-
villa chiquiaco ezta, baicic miragarriçco
prodigio andiago, nola Eufquera toll toll,
bacaric, edo nic eztaquit nola, bicinic am-
bel-

10
beste foculetan egondan, ta dagoen añ berez,
ta beregan, añ argui ta garbi, bere erio ta are-
nio guciac damu gorni gaitoan badere. Ale-
re, alco eguequi, Eufquera galduda. Baña ori-
ezca Eufcaraten, ezpada Eufcaldinen defon-
ra: bada oieç poliquitu, apañdu, ta edertu
beartean, loñane gabe berac beren naguita-
ñuez itintu, larrutu, ta defeguin izandute.
Baña, gure Pobtecho on ascoren animac
salvateco, Eufcarac burua jatorcea, Jain-
coac naidu: gure Baserrietan gende preñuac
dirauren artean, Eufcarac iraungodu. Eñan
oidana: oieci lepoa ebaqui, edo bicia quen-
du gabe, Eufcarac ecin utzi, edo quendudi-
teque. Jaungoicoaren vorondare jaquinñi-
da, areñ Fede, ta Legueco Myñterio eicuta-
tu, ta Dotrina salvateco beardana, Sacer-
dote Jaunen Ministerio sagraduetan, Euf-
queraz baicic emen eguin, ta eñan bear ez-
dala. Ta lengo airzaquianic orañ edolatic ez-
dute alcoc: bada AITA MANUEL LAR-
RAMENDIC, neque gogor, ta estudio,
eñan albaño andiagarequin, ecin izango,
ta ecin eguingozana, bere Artean eguitic,
eciñac eta nequeac lazqui garaituzten, ta
ori, ta bere Iztegui, edo Diccionarioç, Mai-
ñuac bezala emandizquiga.

II. 4.

■ HIZKUNTZ IDEOLOGIA ERLIJIOSOA

Gizarteko lege ezagun bati jarraiki, Hegoaldeko Literaturaren lehen orduko protagonista eliztarrek beren pentsamolde propioa erabili zuten euskalgintzaren oinarri teorikoak lantzean. Fededun eliztarrek zirenez gero, Teologiatik edo pentsakera teologiko batetik begiratu zuten beren euskal lana. Honela formulatutako pentsamenduak era beretsuan balio zuen norberarentzako eta kultur berrikuntza hark behar zitzakeen babes instituzionalak irabazteko. Bide batez, hizkuntzaren barne-balioak eta hobe-bideak erakusten saiatu zen Kardaberaz. Ideia hauek gure egunak arteko bizitza izan dute.



nako bi mendeetan, oraintsu arte, arrazoi-
keta teologiko-linguistiko hura izan da eliz-
tarren euskaltzaletasunari bere funts teoriko
onartuena eman diona.

Kardaberaz erbestean hil zen, Italian,
Bologna ondoko herritxo batean. Haren ha-
malau obratatik bost autorearen heriotz-
doan inprimatu ziren. Arandak debekatu
zion San Inazioren bizitza (1766), 1901ean
baizik ez zen argitara eman.

■ KULTURGUNEAK

XVIII. mendeak bi gertakari parekide eta
aberasgarri ekarri zituzten euskal mundura:
Hegoaldeko elizgizon batzuek euskaltzaletu egin
ziren, eta herritar "paisano" zenbait ere euskal letra
ederrak lantzen hasi zen (Munibe, Barutia...). Hemen
biltzen ditugun hiru argazki horietan eliztarren eta
Azkoitiko Zalduntxoen euskal kultur lanak gogoratu
nahi ditugu: Loiola, Zarauzko Frantziskotarren
Liburutegia eta Bergarako Mintegia. Loiola izan zen
euskaltzaletasunaren arragoa eta talai begiralea
(Larramendi, Kardaberaz, eta Azkoitia gertu), eta,
josulagunak iraitzi zituztenetik, erreleboa hartzean,
Zarauzko Misiolari-Etxea (1746) garrantzizkoa gertatu
zen (Añibarro, P. Astarloa, Zabala, Uriarte...).
Komentu frantziskotar honetako Liburutegian gorde
ziren, gainera, Etxeberri Sarakoaren eskuizkribu
galduek (1905eraino) eta Mogel-en *Peru Abarka*.
Kulturune hauek gabe ulertezina da Hegoaldeko
literatur loraldia.



Am Mal-
bero fe-
bre ma-
obra on
ere, Sa-
tan obra
en obra
e unac
e. Argu-
itzi bea-
niquitan
guztita-
co lotu
a. Bellea
ildan gal-
lari enri-
za atara,
»: Ta on
z lau egu-
i, edo jar-
o pifa ba-
do aiaz
regun, ta
zrago.
ira andat
infuqerari,
oran-

17
orandaño baño mefe de gneigo eguñ. Gen-
deen artean beste Lenguajerik Eufquera ba-
ño dicha gabeagoric era icufi, ta gure ja-
torrizco, edo jaiotzaco Izquera ezbaliz bu-
zala, ta Eufcaraz itzeguica, peccaric auri-
diena baliz bezala, gura arteic quendit, ta
hurpean ondatu madute, ta Eufcoltan forti-
ja, edo fufalesquin, azote ta califuaquin
eragotzindute. Ce eragueria iftagoric an
baño? Eufcalain pefhuac, ez artea orrela-
co ofenfaric zuen leneigo, ta ben beand-
zura Eufquerari eguñ. Zuen pufico non-
da Eufcalenitan nola gatzac onic izaneoda?
Arabian nembillen baten, angu adifqui-
de, ta Erregueren Guardiataco Capitan ba-
hente batec ben efancidan: Aita, nola Euf-
calenitan, unoen aciera ona, ta beandit
Dotinaric izangoen, baldin Eufquera on-
dateco alegun guciac eguñen badira, ta
gure amulicho, edo aurri bildur, ta zo-
tequin, Eufqueraz itzeguica eragotzen
bazate? Oiec berac guero edo Eleiragizon,
edo Ehojanac izan beardute. Eta Carafco,
edo Orac diruean, nola ongi premia dan
bezala, beren Eche, edo Ergoitenen (E-
ri eliquin onela Arabian dercendiere) Do-
trina eracti, ta confeftacodute? Nola be-
ren famulteracauri emunac, ta beste bea-
B dican

18
diraz gauzac ondo aditu, ta zuzenduco di-
dute? Iculen deguoa, da: gatzac Lain
gramatica icallen dorenean, naitz Gatzel-
niaz, naitz Francelez, naitz Eufqueraz itz-
eguita dute, ta on eragotzen ezdute. Gra-
maticaco Maitu famata ere Eufcaraz eracu-
izanen: ta Frances Eufcalduñai Gra-
maticaco Erreglac Eufcaraz adiaci, ta Era-
culen diezate. Ala ez Eicolan, ta ez Gra-
matican Eufcara beñere utzi beaz era,
Soldadu Juan onec arazo andia ceucan.
Aldezequin dufparatoc bidegabecan da,
Eufquera ezteca debecatu, ta madaricena
halego bezala califatu, ta eragotze. Eleo-
lan beren eracti ondu onean, ta Eadaraz
jardundezatela, baña guero libre, naitz Euf-
queraz, naitz Gatzelaniaz: orrequin bica-
ta eguingodira. Bellea Gatzelata gatzac
badijaz: an burla, ta lotu atdico coliban
hadere, Eadaraz icallen dute: ta nola Euf-
queta quendu cieten, ta jiducen ezduten,
beren Em, edo Echeozta banticoan, alde
gucicera harregariac odira: ta eguaz elan
oia: Gatzelaniaz ez icali, ta Eufquera bai
aztu. Guero emen lotu andiaz dancunac:
ez itzeguico, ta ez elec adizeco. Eada-
zaco, ta Eufcarazco nafalla moldetia, era
naitz gatzelata cazunoda. Bode-

19
Bedeica nie daquidan Maiftra efmagari
errefpeto andico bar, bere gracia onarequin,
ta caliteu gabe unce inocente, fci urtecoñ
ere, Eufqueraz, Eadaraz, ta Latinez bea-
din, chit trebetatzen andiaz, ta ederqui lo-
ftiaric gabe iracuten ezacften dieci. Oila
on bera Maitu guciac eguñen balite: mu-
nil muti, lom motel guchigo Eritan
izango, litzaque. Baña ufeguiten, oici fo-
fegoz, ta gracia onean, nola ondo iracu-
F, edo elan beanduten, adiaci beandite, eta
ez bildur, ta icaragin. Oitu beandira, ez
emengo Izqueran bicaric, espada edocia
Dialelotan, eta Francia, edo Nafirozaco,
edo Bizcainco Libretan ondo, ta trebe irac-
cuzte. Ouearaco diran Erreglac ondo gog-
dercen badira edocin Eufqueri elitec be-
raa, fufave, ta gorroa erregoda: era dea-
dar, itzi, ta golpe gabe, espada onez egun
guchian ondo etandit, ederqui ta naitz beza-
la iracutiragure chintac eta andiac eguñ-
go diru. Au gatzac cietra da.

IV. 6.
ONDO ESCRITICO ERREGIAC.
Ondo iracuteco, lengo ondo eferibi-
tu bearda ta nola ondo eferibitaco,
atco laguntzen duenala gatzacu eferibitaco,
B: ondo

EUSKAL ESKOLAREN ALDE (1761)

Kardaberaz-ek argiro salatu zituen Euskal Herriko Eskolan ezarritako hizkuntz burubideak. Euskararen debekua eta zigorra, adibidez: *Jendeen artean beste lenguajerik euskara baino ditxa gabeagorik ez da ikusi*, idatzi zuen hernaniarrak. Maisu-eredu berri baten bila egindako kritikak dira hitzok eta, batez ere, Eskola-eredua aldatu-beharra defendatuz egindako salakuntza. XVI-XVII. mendeetan ikusi dugun euskararen irakaskuntz premia hemen (XVIII.eko Hegoaldean) areagotu egiten da, argiagotu. Eta ondoko mendeetako eskakizun bezala esanda geratu zen. Argazkietan Kardaberaz-en *Euskararen berri onak* obratik jasotako orrialdeak.

Euskara, eskolara

Euskaldunak eskolatu beharra gure lehenengo idazleen kezka ere izan zen: Esan dugu Leizarraga nola arduratu zen bere obran euskaldunen alfabetatzeaz (*ABC edo Christinoen Instructionea*, 1571), eta, bide beretik, ez da harrizkeoa, Kardaberaz-ek ere —fededunei bere kristau-mezua, idatzita, beren eskuetan jarri nahi izan zienean— eskolak euskarari ematen zion tratu txarra gogoratu baldin bazuen.

Haurren aurkako hizkuntz burubide hartaz benetan mindutako idazle baten hitzak dira Kardaberaz-en hauek:

“Jendeen artean beste lenguajerik euskara baino ditxa gabeagorik ez da ikusi, eta gure jatorrizko, edo jaiotzako hizkera ez balitz bezala, eta euskaraz hitz egitea, bekaturik haundiena balitz bezala, gizartetik kendu, eta Eskoletan sortija, edo seinalearekin, azote eta kastiguarekin eragotzi nahi dute. Zer erakeria itsuagorik hau baino”.


Kardaberaz-ek, Arabako kapitain adis-kide baten galdera egiten zuen, honela bere ideia propioak azpimarratuz:

“Nola euskal herrietan, umeen haziera ona, eta behar den dotrinarik izango da, baldin euskara hondatzeko ahalegin guztiak egiten badira, eta gure mutiltxo edo haurrei beldur eta azotearekin euskaraz hitz egitea eragotzen bazaie?”.

Josulagun hernaniarrak bere garaiko “maisu famatu bat” abonatzan zuen (seguraski Etxeberri Sarakoa), honen eskola-jokabidea oso bestelakoa zelako, hain zuzen:

“Latin gauzak ere euskaraz erakusten zituena [zen]. Eta frantsez euskaldunei gramatikako erreglak euskaraz adierazi eta erakusten dizkiete. Hala, ez Eskolan, eta ez gramatikaren euskara behin ere utzi behar ez da”.

Idea-molde hauek irekiko diote, gerora, euskal eskolari bidea.



Peñaflorida eta "Zalduntxoak"

Europako Ilustrazioan edo "Argien Mendean", Azkoitiko Zalduntxoek nortasun nabaria izan zuten, eta askorentzat erdugarri gertatu ere bai. Haien kezken barnean egon zen euskararena ere, eta Muni-berak (Peñafloridako konteak) antzerki elebidun bat idatzi zuen: *El Borracho Burlado*. Bestalde, "Euskal Herriaren Adiskideak" deitu ziren haiek Aizpitarteri Hiztegi bat moldatzeko mandatua eman zioten.

Modernotasunaren premia berriak

Axular bere garaian (1643) mintzatu zen, lehenago Etxepare bezala, hainbat gaitan ez erabilia izateak euskarari zekarkion atzeramenduz:

"Baldin egin balitz euskaraz hainbat liburua, nola egin baita latinez, frantsesez edo bertze erdaraz eta hinkuntzaz, haiek bezain aberats eta konplitu izanen zen euskara ere".



Erabiliak ekarri ohi duen egunekotasuna amesten zuten lehen idazle haiek.

XVIII.ean, Larramendiren Hiztegiak (1745) euskarak hitzetan zuen atzerapena ere gainditu nahi izan zuen, neurriren batean bederen. Horregatik, Kardaberaz-ek, euskara gutxien zutenen aurka, kultur hiztegi hobere baterako Larramendik egin-dako hitz-ekarpena azpimarratu zuen. Kezka hau nabariago agertuko da ondorengo Mogel-engan.

Peru Abarka obragatik gogoratu ohi da J. A. Mogel. Hizkuntz arazoetan, euskararen jatorrasuna eta beronen gaitasunak zituen kezkarik bizienak. Herriaren ezpainetatik bertatik jaso nahi zuen jatorrasun hura; Euskal Herriko handikien utzikeria, eta eskolatan pizten zen auto-gorroto linguistikoa salatu zituen. Terminologia teknikoago baten premia ez zuen Mogel-ek ahantzi bere hizkuntz gogoetan.

ZIENTZIA POSITIBOAK. ZALDUNTZOEN EUSKAL LANAK

XVIII. mendean modernotasuna ez zetorren Teologia edo Zuzenbidetik, zientzia tekniko berrietatik baizik. Euskal Herriko Adiskideek (ofizialki 1764-1765. urteetatik aurrera) hartu zuten eskuetan bandera hori; baina erdaraz gehienbat. Hala ere, beren asmoetan eta praxian euskarak ere izan zuten tokiren bat. "Erdaraz mintzatu zen liburu horretan Villarreal de Berriz [1736] eta erdaraz mintzatuko dira Azkoitiko Zalduntxoak, Bascongada eta Bergarako Real Seminario zeritzana (Erret Mintegia, garbizaleagoentzat). Ez, egia esan, ez ziren beti eta erabat erdaraz mintzatzen. Euskaraz ere mintzatzen ziren, ongi zegokien orduan. Euskaraz jakin, berriz, ongi baino hobeki zekiten, Azkoitia edo Bergara aldekoak bai. Izen ona du jauntxo buruzagiak euskal literaturan eta ez, nik uste, merezi duen adinakoa" (K. Mitxelena). Argazkian: Villarreal de Berriz-en liburua, erdaraz (1736), Xabier Munibe Peñafloridako Kontearen euskal antzerki-opera (1764) eta Aizpitarteren hiztegia (1774) argitaratzeko Adiskideek hartutako erabakiaren Akta.





JAKITUNEN HIZKUNTZA


XVII.lean Iparraldean bezala (Etxeberri Ziburukoa, Axular), XVIII.eko Hegoaldeko literatur luraldian ikastun unibertsitarietara ere parte hartu zuten euskal lanetan. Horietako bat izan zen Juan A. Ubillos amasarra (1707-1789). Alcalá-ko Unibertsitatean egin zituen ikasketak, eta Filosofia eta Teologia irakatsi zituen gero hemen (Tolosa, Arantzazu). Hiru tomu ederreko Filosofi ikasliburu bat argitaratu zuen (Donostia, 1755 eta 1758; Gasteiz, 1762). Hirugarren hau Munibe-ri eskaini zion, gainera. Josulagunak erbesteratzean, haien hutsunea betetzen saiatu zirenetakoa da, hortaz, Ubillos: *Kristau dotrin berri-ekarlea* (Tolosa, 1785).

“Se acusa comúnmente a nuestro idioma de que no tiene voces científicas; que por esta causa es pobre, al menos en esta parte [...]. Si el bascongado, como el latino y otros, quieren aplicar a su lengua las voces griegas, será tan fecundo en hablar como los demás”, idatzi zuen 1802an. Ikusten denez, baliotzko lanak hasi orduko, euskal idazle zaharrek ere gaurko mundu modernoaren aurrean ditugun antzeko ezin eta eragozpenei gaina hartu beharra sentitu zuten.

TERMINOLOGIAREN PREMIA SENTITUA

Kardaberaz-ek eta J. A. Mogel-ek betekizun kultural berrietarako hizkuntzaren *corpus*-a, berorren baitango baliabideak esan nahi da, egokitu beharra sentitu zuten. Kardaberaz bere *Euskeraren berri onak* hartan (1761) mintzatu zen horretaz, eta J. A. Mogel-ek, berriz, *Peru Abarka*-ren erdarazko sarrera luzean azaldu zuen bere eritzi ireki eta, garaietarako, ausarta (1802). Haiengandik guganaino luzatu diren bi ikuspuntu kontrajarri ageri dira pasarte hauetan: Geure harobitrik sortzearena (arkea, “eclipse”), eta nazioarteko terminologia greko-latinoa mailegatzearena (Logika, Fisika, etab.).





Politikaren hizkuntz eragozpenak

Luis XIV.enak Frantzia (1661-1715) frantsesa ezartzeko jarraitutako jokabide politikoaren ondoren, Borbondarren dinastiak politika linguistiko berri bati ekin zion Penintsulan ere. Hizkuntzen aldetik ere, Monarkiari egoera eraberdinduagoa eman nahi zitzaion.

Mendearen lehen partean politika-modu berri hori Aragoako Koroaren lurralde katalanetan ezarri zen (1716), helburua lortzeko lege zorrotzak eta administrazio-erabaki zorrotzagoak erabiliz: katalanari orduan kendu zioten bere bizitza ofiziala.

Mendearen bigarren erdialdian, 1760-1780. urteetan, gobernari "argiztatuak" politika zapaltzaile hura Penintsulako beste lurraldeetara, eta Ameriketara ere, zabaltzen saiatu ziren. Orduan eman ziren Ameriketako hizkuntzen aurka sekula baino erret ordena petralagoak.


Testuinguru honetan ulertu behar dira euskarazko idazlanek kalera ateratzeko topatzen zituzten oztupo ofizialak. Euskal Literaturako kasurik sonatuena hona dakargun Aranda Ministrariaren Zedula hau izan da (1766): Aita Kardaberaz-i San Inazioaren Bizitzaren argitalpena debekatu zion Ministrariak. Agiri honetan irakur dezakegunez, debeku politiko orokor bat ezarri nahi zitzairen gaztelaniaz ez zeuden idazlanei. Ministrariaren hitzekin esateko:

"A esto se agrega el reparo político de no convenir hacer impresiones en otra lengua que la Castellana inteligible en toda la Nación, y así por regla general se denegarán por ese Consejo [las licencias], sin especial noticia mía, archivándose la obra original de la vida de San Ignacio en bascuence".

Debeku-jokabide hau bera aurki dezakegu hurrengo hamarkadetan ere: bereziak izan behar dute legezko baimenek, edo bestela debekua da lege. J. I. Gerriko-ren (1740-1824) obrak ere ikusi zituen bereak eta bost.

ISILPEKO ETA AGERIKO ZAPALKUNTZAK

Gerrate luze baten ondoren, Borbondarrak Penintsulako Erreinuz jabetu zirenean (1714), beste hizkuntz politika bat hasi zuen dinastia sartu-berriak. Politika hori Administrazioak isilpean, atzeko atetik sartuta, ezarri zuen batzuetan (providencias... *disimuladas para que se consiga el efecto sin que se note el cuydado*, Puigcerdá-ko korrejidoreari eman zitzaion isilpeko mandatu batek dioenez, 1717-II-20), eta egun-argitan jokatuz bestetan. XVIII. mendean, hizkuntza katalaneko herrietan oso gaiztotu zen hizkuntz politika hau, xehetasunetaraino iritsiz, gainera (merkatari eta dendarien liburuetaraino, esate baterako). Dena den, Monarkia osorako erizpideak aplikatzen ziren han, beti ere gaztelaniaren probetxutuan. Euskara ere gogoan hartu zuen politika horrek.



EUSKARA ARABAN
(BERE ATZERAPENA XIII. MENDETIK
1950. URTERARTE)
(ODON APRAIZek egina.
Gasteiz, 1953)

EUSKARA, ARABAN

Erdi Aroan Araba ia osorik lurralde euskaldunetz inguratuta zegoen, mapan ikus daitekeenez; izan ere Ebro ibaiaren hegoalderantz Errioxa Garaia euskalduna bait zen, ezagutzen ditugun datuen arabera.

Beraz, Ebrotik iparralderanzko Arabako lurralde-galerak Aro Modernoan gertatu dira gehienbat. Hauek, bi marra eta unetan ematen dira aditzera mapan: XVI. mendeari dagokion mugaren azpitik jada lurralde erdaldundu nahikoa zabala agertu zen, Eborainoko tartea hartuz. Hizkuntzen arteko muga izan zitekeen ibai hori ez zen aski hesi izan bere hartan irauteko.

XVII-XVIII. mendeetakoaz deus gutxi dakigu, baina 1787ko agiri batek poliki deskribatzen digu euskalduna zen lurralde arabarra: artean Gasteiz, hegoaldeetik ere, herri euskaldunetz inguratuta zegoen. Dena den, Arabako euskararen atzerakadarik larriena, badirudi XVIII.ekoa dela. Handik hona gertatu dena, marraz marra mugatuta dago mapan (1850, 1950).

Azken mende t'erdian euskaldungo arabarraren atzera-abiada handia izan da, eskolaren, administrazioaren eta soldadutzaren eraginez; hala ere, azken hamarkadetan Arabako gizartean euskarak aterpe demografiko eta instituzional hobeak izan dituzte, sozialki indaberritu ere egin da. Espero daitekeena da, egoera berritu hori etorkizunean Euskal Herriko mapa demo-linguistikoa ispliatuko dela.

ematen da orain argitara urte bakar batean (1987).

2. Garrantzizkoa da euskal argitalpen-tan jatorriz euskarazkoak eta itzulpen-lanak bereiztea, horrelaxe, ia erdibana, banatzen bait da urte haietako (1545-1789) argitalpen-multzo osoa: jatorrizkoak 101, eta itzulpenak 93.

3. Gogoan hartu behar da Aro Modernoko 194 liburuak 588 edizio izan zituztela: gaurko ikuspuntutik harritzekoa bada ere, garaiko baliabide teknikoari eta eske sozial eratuari erantzuten zien berredizioen politika hark (Eliz liburuak: dotrinak, *Kristoren antz-bidea*, etab.).

EUSKAL LIBURUEN EDIZIOAK (1545-1789)

| EUSKALKIA | EDIZIOAK | LIBURUAK | ORIGINALAK |
|------------------|------------|------------|------------|
| Bizkaieraz | 76 | 26 | 14 |
| Nafar-gipuzkeraz | 195 | 76 | 47 |
| Nafar-lapurteraz | 259 | 78 | 34 |
| Zuberoeraz | 58 | 14 | 6 |
| GUZTIRA | 588 | 194 | 101 |

ITURRIA: TORREALDAY, J.M. (1976): *Euskal Idazleak, gaur*. Donostia: Jakin. 178

I-XV. MENDEAK


Hizkuntzaren Literatura idatzirik gabeko aroa. Hizkuntzaren jaiotza, dataezina. Euskalki hipotetikoak: akitaniera, ertekialdekoa, mendebaldekoa. Erromatarren aurreko hizkuntzekin harremanetan, orobat latin, gotiko, arabiera eta erromanikoekin. Euskara erakunde publikoetatik kanpo.

XVI. MENDEA

Egungo euskalki-banaketa geografikoaren antzekoa. Errioxako eta "hegoaldetar" euskalkia (arabarra) desagertu egiten dira.

XVI-XVII. MENDEAK

Euskal Literaturaren jaiotza (1545). Euskalki bakoitzeko batasun literarioa. Sara-Donibaneko Eskolaren ekarria. Iparraldean zubereraren garapen mugatuagoa.




EUSKARA MINTZATUAREN, IDATZIAREN ETA HIZKUNTZ BATASUNAREN ARAZOAK.

XVIII-XIX. MENDEAK

Idetako euskalkien garapen
oa: Gipuzkera eta
era literarioak. XIX. mendeko
olitiko kultural eta literarioa.
ntzaren kontzientzia
al berria.

XX. MENDEA

Euskalkien gaitetiko hizkuntza idatzi
literarioaren premia ohartua.
Literatur genero berrien saioak
eta arrakasta.
Euskara literario baturako proposamen
akademikoak.



Grafiko honetan euskararen zenbait funtsezko gertakari sozio-historiko biltzen da, mendeen katean emanez. Hizkuntza, gizartean mintzatuz bizi den harreman-kodea dela gogoratzen da, lehenik. Kode hori euskalkitan banatuta ezagutu izan dugu historian: Antzinako euskara hura, askoren ustez, bi euskalki-mulzo kontrajarritan banatuta zegoen. Erabilpen mintzatu hura zen hizkuntzaren errealitate sozial bakarra, eta ondoko beste hizkuntzek beren oihitura kultural eta ofizial idatziak garatzen zituzten

bitartean (latinak, arabierak, erromantzeek), euskarak ez zuen ezagutu antzeko garapenik. XVI-XVII. mendeetan sortu zen Euskal Literatura, Iparraldean, testu-masa aberatseko lanak eskainiz (Leizarraga, Axular), eta XVIII.lean Hegoaldean ere, Larramendi-ren inguruan. Horrela jaio ziren euskalki literarioak. Batasunaren lehen pauso sozialak izan ziren haiek, euskalki mintzatu sakabanatuagoetatik euskara estandar bakarrera iristeko. Hizkuntza mintzatu, egunoroko bizitza pribatuan edo

publikoan arruntki entzuten zen, oro har, nahiz eta ofizialtasun osorik ez izan eta administrazio-mundu idatzitik eskierki aparte geratu. Aldi berean, XVI.etik aurrera —erdarek zekarten hondamendiarekin eta idazleen erabilera jasoagoen testuinguruan— hizkuntzaren kontzientziak asmo berriak bultzatu ditu, batez ere XIX-XX. mendeetan: euskara estandarren arautzea, hizkuntz erakundeak, eskola, kazetaritza, etab.

„Euskara.“

Organ für die Interessen der Baskischen Gesellsch.

Karl Hannemann,
in Berlin.

Berlin, den 1. October 1866.

FRANCESA

ERADORIAREN DECLAMACIONIA

NAPOLEON.



Euzkara arbela
Gurtio maithia.
Euzkara euzkara
Arbela



VI

EUSKARA, ARO GARAIKIDEAN
(1789-1936)





■ GERRAKO IRAKURLEAK

Azken Karlistadako irakurleak dira. Honela ikusi zituen Madrilera "La Ilustración Española y Americana" aldizkariak (1874eko Azaroa). XIX. mendetik aurrera herri xehea ere, eskolaren bidez, analfabetismoa gaindituz joan zen, eta hizkuntza idatzia hobeki balioztatuz.

■ EUSKARA, ARO GARAIKIDEAN

Euskal hiztunen inguru sozialak aldakuntza handiak izan ditu Aro Garaikidean: aldakuntza ekonomiko, demografiko, politiko, kultural eta linguistikoak, denak elkarrekin.

Zurrumbilo horretan, ondorioz, hizkuntzarekiko baldintza sozialak ere gero eta bizkorrago aldatu dira: Hiruzpalau gerra, iraultza industrial, migrazioak, gizartearen hiritartzea, eskolagintza, soldadutza, gizarte-komunikabide berriak, erakunde politikoaren iraultza... Dena nahasian eta batera.

Euskararen geografiari eta euskaldungoari berari baldintza soziolinguistiko guztiz berriak ezarri zaizkie azken bi mende hauetan. Egoera larri honek astinduta, euskal gizarteak ekinkizun ezberdin eta saiatu askorekin aurpegi eman nahi izan dio hizkuntzaren hondamendi nabariari: hainbat eraso eta desegokitasun linguistiko salatuz, batzutan; euskararekiko kontzientzia indartu eta argituz, lan-modu eta erakunde arduratuak sortuz, herrian eta kultura eskolatuan ekin-tzak zuzpertuz, bestetan.


*Donostia, Katalanoen Ligitzaren aurretik
baino, famili Ligitzaren erabilteko baino
zerbait gehiago eskatzen da.
Gobernua, Estatuak administrazio
ezalpen gogortasun ofizialaren izenean
enaren diegailo eskatzen da, eta
hori jada auzo oro delikatua planteatzen
da.*

*Donostia, 1916
Gobernuko Idazkaria.*

■ ROMANONESen ZALANTZAK

Monarkiaren Gobernuetan Lehen Ministrari izandako Romanones-ek ez zuen garbi ikusten, nonbait, hizkuntza politikan Gobernu Espainiarraren

betekizuna. Hala ere, euskara gertutik entzun ahal izan zuen hemengo udaldietan (Donostia, Oiartzun). Espainiako politikari gehienek pentsamoldea ez zegoen artean (1916) politika berritarako.



Azkenik, Aro Garaikidean baliabide politiko egokien falta izan du Euskal Herriak, hizkuntzaren egitasmo orokor eta oso bat asmatu eta egikaritzeko, horretarako borondatea izan duenetan ere. Hala ere, euskal gizarteak, bere borondate-azalpenetan, gero eta areago estimatu izan du euskara, eta batzuetan norberaren diruz ere ordaindu izan ditu euskararen bizitza soziala indarberritzeko ahaleginak.

XIX. mendetik gure egunak arte, euskaltzaletasuna hainbat lagun eta talderentzat lanerako eta ahaleginerako modu saiatu bat izan da. Eta, horri esker, aurrerakintza estimagarriak burutu dira. Aurreko mendeetatik zetorren lanak, eta azkeneko bi hauetan geldiro eta pixkaka argituz joan den euskaltzaletasunak, funtsezko giltzarriak eskaintzen ditu dagoeneko hizkuntzaren plangintza gidatu bat gizarteari proposatu ahal izateko:

- hizkuntzaren kontzientzia eta eskakizun biziak,

- euskararen “corpus” geroz eta modernoagoa,
- hizkuntz erakunde sozial eta politikoak,
- erabilera literario eta sozial berriak..

Azken mende t'erdian bereziki, Euskal Herrian ahalegin handi eta ederrak egin dira hizkuntzaren alde, baina ez dira aski indartsu izan egokiera historiko berrietan atzerakada geldierazteko. Kanpotiko erasoengatik izan da, noski, horrela; baina baita euskaldun zahar askoren utzikeriagatik ere.

Aro Garaikidearen atarian, artean Euskal Herriko lurralde euskaldunak ez ziren elebidunak, oso neurri txiki batean baizik: gaur egun Euskal Herri osoa elebidunduta dago.

Euskaldunon, Euskal Herriko erdalduen eta lagundu edo behaztopatu nahi eta ahal duten guztien eskuetan dago euskaldunok, euskara utzita, erdaldun huts ez bihurtzea.

■ ARGIAren IRAKURLEAK

Gure baserrietako familiak ziren orduan (1920-1930), eta, batez ere neguko afalondoetan —irradi eta telebistarik gabe—, izaten zen euskal aldizkariak irakurtzeko aukerarik. Hirietan baino herri txikietan zuten irakurlegoa argitalpenok.



■ **BIZKAIKO DIPUTAZIO BERRIA (1897)**
 Euskal Erakunde Foralak lehenengo eta karlistaden ondoren ezarritako Erakunde berriek (Diputazioek bereziki) inoiz edo bestetan begiratu zioten euskararen marginazio- eta galera-egoerari. Gizarteko indar kultural eta politikoei akulatuta —neurri mugatua izanik ere—, hartu ziren euskarari laguntzeko garrantziko erabaki batzuk.

■ Krisi modernoan olatualdian

Aro Garaikidea aldakuntza bizkortuen aroa izan da. Eta aldakuntza lasterragotu hauek gatazka bortitzak ekarri zituzten. Izan ere, ezin dugu ahantzi, esate baterako, Aro Garaikidean gertatu direla munduko Iraultza politiko nagusiak (Frantzia, Errusia, Txina).

Frantzia eta Espainia ere aldakuntza uholde horretan bizi izan dira. Frantzia lehenengo, bere gertakari iraultzaile odoltsuekin, Napoleon-en armadarekin eta liberalismo burgesaren proiektu politikoekin. Espainia zerbait geroago, XIX.eko gerra eta altxamendu militarrekin noski, baita aldakuntza sozio-ekonomiko sakonagoekin ere: desamortizazioa, trenbidea, Iraultza Industrialia.

Euskal Herria testuinguru orokorrako horretan bizi izan zen, gertakari eta abagune historikoak bere modura eramanez. Frantziako Iraultza iritsi zitzaigun (Konbentzioaren Gerra, 1793), Napoleon-en armada hemen gaindi ibili zen. Karlistadek hiru gerraldi ekarri zizkiguten. Erbesteratu politiko eta sozialik ez zitzaigun falta izan. Iparragirre horietako bat. Frantziaren eta Espainiaren gerrak ere egin behar izan genituen: Nork ez du gogoratzen “Solferinoko itsua”? (Elizanburu, 1864).

Itasgora itsasbehera, Euskal Herriak sekula bizi izan duen aldarte historiko kritikoena jasan zuen XIX. mendean, eta hizkuntzaren bizitza sozialak ere pairatu zuen garai zailago haien karga, hasteko, hizkuntzen gobernamenturako Estatuak lanabes inoiz baino erabakiorragoak izan zituztelako.

■ Hizkuntzen trataera politikoak (1789-1876)

Batzutan, hizkuntza ofizialaren aldeko erabakiak hartuz eta, bestetan, hizkuntza ez-ofizialen arazoa aintzakotzat ez hartuz, XIX-XX.eko Gobernu eta Erregimen ezberdinek beti egin zuten hizkuntza politika-aren bat, Espainian eta Frantzian.

XVIII. mendetik zetorren elebakartze-asmolari eutsi zitzaion Espainiako Monarkian. Oro har, XIX. mende osoan apenas jarri zen dudatan jokabide politiko hori. Isilean-misilean, mendean zehar, legeak eta praxi politiko-administratiboak zentzuzabarrak izan ziren: Estatu zentralaren hizkuntza zabaldu eta ezartzeko asmatuak. Lege-hitzetan espreski esaten zenak baino



■ NAPOLEON III.a (1870)

Frantziako Iraultzak hizkuntza herritarrekiko politika gogortu zuenetik (1793tik aurrera), XIX. mendeko Erregimen politikoei ez zuten burubide haren kontrakarrik erabaki, eta Napoleon III.ak (1851-1870) ez zuen bestelako asmorik izan. Hala ere, bizitza politikoak une jakin berezietan —jendearrekiko komunikazio-beharrengatik— honelako aldarrikapen-iragarki elebidunak behar izaten zituen.

FRANTZIA, FRANTSESA OTE? (1864)

1792an, inkesta ofizial baten ondoren esaten zenez, 12 milioi hiritarrek ez zuen frantsesa erabiltzen eguneroko bizitza arruntean (27,5 milioi bizilagun zituen Frantziak 1801ean, egindako lehenengo erroldan). Iraultza egin eta laurogeiren bat urte geroago ere, Frantzian milioika asko, frantsesez ez baina beste hizkuntzatan mintzatzen zen. Areago oraindik: Frantsesez ez zekitenak portzentaia handia ziren eskualde batzuetan, eta handiagoa oraindik, jakinik ere, arruntki hura erabiltzen ez zutenen taldea gehituz gero.


gehiago ezikusiz isildutakoak lagundu zuen prozesu hori Espainiako Estatuan.

Hamarkada luzetan, han-hemenka ageri den ahots galduren bat ezik ez da botere-zentralen eskuetara hizkuntzaren aldeko deirik iristen: banaka horietakoa izan zen D. J. Garat uztariztar ministrariak Napoleoni egindako eskea (1808).

Espero zitekeenez, alderdi abertzaleak izan ziren egoerari politikoki garbiki aurre egin ziotenak. Katalunian lau agiri sonatutan bildu ziren hizkuntzaren aldeko eske politikoak. 1885ekoa izan zen katalanismo politiko taldetu eta elkartuaren lehen azalpena: Cánovas-en erregimen monarkiko zaharberriaren barnean katalanaren ofizialtasuna eskatu zioten Errege gazteari. Ondoko egokiera politiko handienetan, ofizialtasun bera eskatu zitzaion Erreginari, Lore-Jokoen aukeraz baliatuz (1888), eta gisa berean mintzatu ziren indar sozialak 1916an eta 1924ean, tartean egon zen beste agiriren bat aipatu gabe. *Manresako Hastapenak* deituriko dokumentu historikoak, adibidez, "Katalunian erabili ahal izango den mintzaira bakarria hizkuntza katalana izango da" esaten zuen (1892). Gero eta botu gehiago jaso-

FRANTZIA

BIZILAGUNETATIK FRANTSSEZ HITZ EGITEN EZ ZUTENEN PORTZENTAIK (1864)



*Ez diru sekula ghegi auzpitu
politikan,
urte den baino gantzi lagoa da.
hizkuntza urte horien ugartan
moztea.
inbajonieren hantza
eta auzentzen zahartzara
buzatzen ari bat diru noriek.*

Grégoire Txostenak (1793)

*Heni libere lotan, hizkuntzak
lakana eta bat. beraz
izan behar du gaztietzat.*

Barère Txostenak (1794)

IRAULTZAREN ELEBITASUNA

Frantziako Iraultzaren lehen urteetan, esan bezala, tokiko hizkuntzei ere lekurik eman izan zitzairen Gobernu zentralaren eginkizunetan.


tzen zituzten politikarien ahotan zegoen, hortaz, hizkuntzarekiko eskakizuna Espainian...

Frantziako historia XVIII. mendea baino lehenagotik hartu behar da. Erregimen Zaharrak, bereziki Luis XIV. arekin hasita, eskuratutako eskualde berrietan egin zuen ahaleginik aski, lekuko hizkuntzak baztertu eta frantses-frantsesari leku egiten. Erregimen aldakuntzarekin espero zitekeen bestelakorik izango zela; baina, zalantza batzuren ondoren, luzarora ez zen halakorik gertatu. Iraultzarekin, Estatu berriak eraiki beharko zukeen nazioaren teoria landu eta zabaldu zen 1789tik aurrera, eta teoriarekin nazioaren hizkuntza.

Iraultzak, barneko eta inguruetako mehatxu guztien erdian, premiazkoa zuen, lehen pauso bezala, barneko herriak bereganatzeko Hexagonoko hizkuntz arazoari aurrepegi ematea. Hasieratik bertatik hartu ziren erabaki kontrajarriak: Lege-dekretuetarako itzulpen-bulegoa sortu zen Parisen, baina urte berean agindu zen herrietako igandezmezen ondoren testu ofizialak frantsesez aldarrikatzea (1790). Frantziako egoera linguistikoa oso gutxi zen "frantsesa", eta ho-

*Euzkara hizb gero
Fueroak ez dira bizirik.
Fueroak nahiz dituenak,
Euzkara maite izan behar du.*

J. I. Iztueta (1847)




rrek eztenkatuta inkesta ofizial bat eratu zen errealitatea ezagutzeko, eta nola manea jakiteko (1790-1792): Ondorioz, Grégoire abadearen txostenak deskribatu zuen egoera, eta etorkizunerako politikaren lerro nagusiak definitu. 1793tik aitzina, aurreko urteetako jokabide liberalagoa baztertu egin zen, frantsesa hizkuntza nazional bakartzat hartuz eta tokiko hizkuntzak Erregimenaren argien etsai bezala ezagutzuz.

Aipatu diren hasierako duda-muden ostean, finkatuta geratuko zen, funtsean, Frantziako hizkuntz politika hertsia. Altsazia, Rosselló, Britainia, Euskal Herria, etab. egon ere ez zeuden erabaki hori ezartzeko baizik. "Tokiko hizkuntzen aurkako borroka, kulturaren aldeko eta ezjakinaren kontrako borroka bezala aurkeztu zen, borroka laiko eta errepublikazale gisa" (J. L. Calvet). Erabakita geratu zen, beraz, Hexagono osora zabaldu behar zela frantsesa.

Oinarrizko erizpide ideologiko eta politiko horiek baldintzatu zuten gure gaineko bi Estatuaren hizkuntz jokabidea, Espainian II. Errrepublikarekin eta Frantziaren Deixonne Legearekin ohizko politika horri, momentuz eta partez, nabardura berriak eman zitzaizkion arte.

AHETZE (Lapurdi)

Herri euskaldunetako hainbat Udaletxetan agertu izan dira, maizegi ez izan arren, euskaraz idatzitako agiri eta aktak. Hona dakargun hau Ahetzekoa da, Mattin bertsolariaren herrikoa. Iraultzaren lehen urteetan ikusitakoaren segida da ohitura hau, eta urte multzo batean bederen irauin zuten (1790-1822).



Erakudetan eta Erakundetatik (1789-1876)

Aro Moderno-Garaikideetako Erakunde Publikoetan euskarak izan duen lekua aztertzean, komeni da, hasieratik bertatik, hizkuntza mintzatuaren eta idazketaren mundua ongi bereiztea. Euskaldunak ziren eskualdeetan (herrialde nahiz herri) betidanik euskaraz mintzatu egiten ziren egunoroko zereginak bederen. Euskal Herria elebakarra zen gehienbat, eta pentsaezina ere bazen bestelakorik gertatzea.


Erakundeen artean ere maila ezberdinetakoak bereizi beharrean aurkitzen gara. Gauza bat ziren lekuan lekuko Erakundeak, eta besterik Herrialdeetakoak. Hauetan, batez ere erret ordezkari erdaldunen batek bilera-lehendakaritza zuenean, hizkuntza mintzatua ere errazkiago gerta zitekeen erdararen bat izatea: Gaztelania Hegoaldean, kaskoia edo frantsesa Iparraldean. Gogora dezagun, hasteko, aipatutako datu zenbait.

Administrazio-zerbitzuen mailan inoiz espreski arautu zen lekuko hizkuntza go-goan izatea, Nafarroa Beherean adibidez (1611). Hizkuntz hautapena gatazkatsua ere izan zitekeen, agintariak hizkuntzen lege-baldintzak euskaldun hutsen aurka ezarri nahi zituztelako, edo erboltaren batean herriar euskaldunak euskaraz mintzatzea

eska zezaketelako. 1631ko Bizkaiko Batzarreetan, adibidez, matxinatuek zera zioten, Batzar-Etxearen aurrean: “guztiok aditzeko, euskaraz egin daiela berba”. Lehenago ere gogoratu ditugu hauek.

Hizkuntza mintzatuaren erabilpenaz da hori. Erakundeen paperetako hizkuntza idatziarena bestelako bidetatik ibili zen, ordea. Alde honetatik, Euskal Herriak ez du bere historian euskararen aldeko hautapen ofizial garbirik egin: inoiz zerbaitetan erabili izan du, baina beti ere anekdota txiki edo handiago izatetik pasa gabe. Hauxe izan da euskaldunak beren aurka izandako hutsune larrietako bat.

Foruetako Legeak ez ziren euskaraz idatzi, beste edozein hizkuntza erromanikoz baizik: Nafarrera erromanikoz zegoen Nafarroako Forua; Araba (1463), Bizkaia (1452, 1526) eta Gipuzkoakoak (1397, 1696) gaztelaniaz, eta Iparraldekoak kaskoinez (Lapurdi, 1514; Zuberoa, 1520; Nafarroa Beherea, 1611). Horren ondorioz eta berorren luzapen bezala, agiri ofizialak aipatu hizkuntza horietan eta Iparraldean (1620tik aurrera) frantsesez eman ziren. Badaude salbuespenak, noski, baina salbuespenetan geratzen dira.



EUSKARAREN ALDEKO BATZORDEA

Gipuzkoako batzarreek, Arrasaten egindako bileran (1830), Probintziako arazo ekonomikoetara euskarak zituen premiei erantzuteko Batzorde berezi bat sortu zuten.

■ LANGILERIA ETORKINA

Bizkaiko meatzek eta burdin olek kanpotar langile asko erakarri zuten. Euskal Herriak ez zuen modurik izan etorkin haiei bere balioak, eta berorien artean hizkuntza, eman ahal izateko, euskalduntze-tresnak falta zirelako eta langileen egunoroko bizitza gordinak balio kultural hauei lekurik uzten ez zirelako. Argazkia: Enkarrietako meatzetan.



■ AGINTEAREN BILA


Joan den mendeko Karlistadak, botere politikoaren bila egindako gerrak izan ziren, noski. Besteak beste, Foruen ikurpean herri xeheak —argi ohar-tuta edo erdizka jakinda— Euskal Herriaren nortasuna eta izanmoldea defendatu zituen. Hemen, sinbolo bezala, karlisten Auzitegi Gorenaren eta Postaren zigiluak.

XIX. mendean Erakundeetako euskarren ofizialtasunaren arazoa jite berria hartuz joango da, Bizkaiko Batzarreetan adibidez. Lehen Karlistada-urteetan eta ondoko berehalakoetan arazoan ahozko azalpen bat euskaraz eskaintzeko ohitura sortu zen (1833, 1839, 1841). Ulibarri-k eguneko Aktaren testu idatzi euskaraz eman zedila eskatu zuen (1841). Gisa berean korregidorearen hitzaldiak ere euskaraz ematea erabaki zen (1844), eta halaxe egin (1846). Horretarako itzultzaileak jartzea eskatu zitzaion Diputazioari. Bienbitartean, eztabaidak eta txostenak euskaraz aurkeztea gero eta sarriago gertatu zen Bizkaiko Batzarreetan. Hizkuntz joera berriok finkatuta geratu ziren 1854eko Arautegian, beronek zioenez, handik aurrera “espediente eta agiriak gaztelaniaz irakurriz emango zaio hasiera bilerari, eta eztabaidak bi hizkuntzetan egingo dira, harik eta gaietan ordezkarriak aski argituko diren arte”. Erakundearen barruko burubide linguistiko-instituzionala, arauen aldetik, hobe zuzihoan, hortaz, Batzarreetan.

Bizkaiko Diputazio eta Udaletan zer gertatzen zen xehetasunez ez badakigu ere, inguru euskaldunaren eragina samurragoa zen, noski, aurreko mendeetan baino, nahiz

eta, esate baterako, funtzionarioen euskalduntasuna zaintzea kasik legez kontrakoa izan (1886). Euskal Herriko beste herrialdeetakoaz ezin gaitzeko hemen luza; baina komeni da Erakundeen hizkuntzarekiko gizarte-politikaz zerbait aipatzea.

Izan ere, euskal gizartean euskarak jasaten zuten abagune zaila, urteak pasa ahala, nabariagoa zen, eta Erakunde Publikoei zegokien zerbait egitea. 1832an Ulibarrik hogeitalau laguneko Euskararen Akademia bat eraikitzeko erregutu zien Bizkaiko Batzarreei, hizkuntzari, ikusten zizkion arriskuetatik zaintzeko. Gipuzkoakoetan ere, Arrasateko bileran (1830), Erro jakitun eta politikariak proposaturik, *Comisión Auxiliar de la Diputación para el Fomento de la Industria, Comercio y de la Lengua Vascongada* bat antolatzera erabaki zen. Hizkuntzarena, beraz, beste hainbat arazo ekonomikoren artean aztertu beharrekotzat hartu zuten Batzarreek. Ondoko hamarkadetan Erakunde nagusienek onartuko zituzten arau batzuk kezka sozio-kultural beraren ildotik joango ziren (eskolari begira hartuak bereziki), Eusko Pizkundean hizkuntz abertzaletasunak zituen definizioa eta borondatea argiagotu ziren arte.



■ PARLAMENTARIAK (1931)

“Gutiengo Eusko-Nafarra” izan zen, mundu euskaltzaleak Madrilen sekula izandako talde politiko esperantzagarriena. Hauen eta ondoko urteetako euskal parlamentarien lana ez zen aski izan hizkuntzari ofizialtasun finkatua lortzeko. Gerrateak ekarritako Estatutuak eman zion gerraurrean euskarari hilabete batzuetan izan zuen egoera ofiziala.

(Sabino Arana Kultur Elkargoa. Artxibategia)

■ Krisi sozio-politikoan (1789-1936)

Frantziako Iraultzarekin Aro Garaikidea hasi zen Europan (1789). Hiritar banakoaren eskubideak aldarrikatuz, jabegoaren eta boterearen banakuntza berri bat egin zen gizarte europarrean. Aristokraziarekin eta Elizarekin batera, ordurarte Koroak eskuetan izandako aginte politiko-ekonomikoa burgesiarenetara pasa zen. Iraultza Industrial hasi-berriaren gidaria bilakatu zen, ba, goraka zetorren klase hau: Industriaren irabaziak, halakorik zegoenetan, eta lurraren jabetasunak ondasun handiak metatu zituzten aberats heldu-berrien altxorretan. Monarkiaren bidez edo Errepublikarekin, izan, burgesia hau izan da XIX-XX. mendeetan Europaren protagonista historiko nagusia. Horren ondoan, langileriaren historia, indartuz etorri den klase sufrituarena izan da, bizimodu apalenetik beste erosoago batera oso pixkaka-pixkaka igoz.

Joan den mendeko aldakuntza ekonomiko haiek hizkuntzen bizitzarekin zerikusirik izan zezakeen hainbat gertakari ekarri zuten: Bata, Estatu-mugen birdefinizio ekonomikoa, muga horien betekizun linguistiko-kulturalak ere finkatuz; bigarrena, Estatuaren kontrol- eta gestio-aparatuaren eraikuntza, funtzionarien prestaera eta hauta-

pen-modu berriarekin, soldadutza orokorrarekin; hirugarrena, Estatu birrantolatuak gizartearen gain ezarritako gidaritza ideologikoa, eskolaren eta komunikabideen erabilerak arautuz; laugarrena, Estatu propiorik gabeko herri eta nazio txikien kontzientzia eta borondatearen sendotza; eta azkena, horren ondorioz, minoria etniko desbideratzaile hauek Estatu indartuaren bideetatik berbideratu-nahia... Asmo edo helmuga guzti hauen sareetan harrapatuta gertatuko dira Europako hizkuntza ez-ofizialak ere. Baita Euskal Herrian ere.

XVIII. mendetik zetorren euskal Foruen aurkako eraso, Aro Garaikidearen hasiera-hasieratik areagotu egin zen: Iparraldean, 1789an bertan galdu ziren euskal Foruak, eta hango hiru herrialdeak, nortasun politiko berezirik gabe, Departamentu zabalago batean galdu ziren. Handik aitzina, Parise jakobindar erdirakoiarentzat ez zegoen, Administrazioaren ikuspuntutik, ez Euskal Herririk, ez euskararik. Hobeki esanda: *Nazio*-politika eta hizkuntz politika bakar eraberdindu batera ekarri behar zen lurralde geografiko hutsa baizik ez zen Euskal Herria. Ikusiko dugu hurrengo orrialdeetan ere.



■ EUSKAL BURGESIA HANDIA

Iraultza Industrialeko Euskal Herriko burgesia aberatsenak gehienetan ez zituen garatu euskararen munduarekin izan zitzaizkeen harremanak, edo/eta euskaltzaletasunak ez zuen lortu indar sozial hori bereganatzea. Horrela, langile-arazo linguistikoaren ondoan, beste talde sozial honen atxekimendurik eza jasan zuen euskarak. Argazkian: Txabarri enpresariari monumentua (Portugalete).

■ J. M. IPARRAGIRRE (1820-1881)

"Gernikako Arbola" kantaren egile bezala gogoratu ohi da batipat Iparragirre; baina hizkuntzari eskainitako bi abesti ere zor dizkiogu berorri: "Gora Euskera", Aizkibel hiztegiaren omenez egina, eta "Arren, ez bedi galdu euskera". Euskal Herriaren hizkuntz kontzientziaren aldakuntzan lekurik badu, hortaz, Iparragirrek ere.



EUSKARA KANTATZEN

*Galdu dirade oitura onak,
galdua degu euskera...
ola bagaude, eun urte barru
galdu da gure izena!
Erro, Aizkibel ziran bezela
erakuslerik gaur ez da.
Gure euskera...ai! galtzen bada
gu... euskaldunak ez gera!*

*Arren, ez bada galdu euskera,
nere anaia maiteak!
Galtzen badugu... galduak gera
gu eta gure semeak.
Beti euskeraz itz egin, bada,
oso zaar ta gazteak,
esan ez dedin denok gerala
euskaldun biotz gabeak.*

"Arren, ez bedi galdu euskera"

*Gora, gora euskera!
Biotzean gurutza,
eskuan bandera
esan lotsarik gabe
euskaldunak gera!*

*Pakean bizitzeko
gure mendietan
euskera itz egin bear da
batzarre denetan. (...)*

"Gora euskera", 1856

J. M. IPARRAGIRRE

Hegoaldeak agonia politiko luzeagoa izan zuen, harik eta azken Karlistadaren ondoren bere azken Foru-hondarrak erabat galdu zituen arte (1876). Gerra galdu baten ondoko Monarkiaren Errestaurazioa nekez izan zitekeen, izan ere, lehendik hiltzear zeuden Foruak salbatzeko egokierarik proposena. Hondamendi hark benetako krisi estua sortu zuen garaiko belaualdiaren barnean: Zein izan zitekeen Euskal Herriaren etorkizuna? Eta aldatz behera zihuan hizkuntza erreka jotzeraino joango ote zen, gero?

Gure gizartearen gatazka sozialetan, ba-koitza bere arrastoan, saiatu zen irtenbide zaharberrituak edo berriak bilatzen, ekonomian bezala kultur lanean edo politikan ere; baina ez geure indarrak sakabanatu gabe. Dirudunen artean, erbestean oinarritutako irabaziek, adibidez, edo intelektual batzuren artean, atzerriko arrakasta sozialak, erakarmen bizia zuten. Ondorioz, gidaritza sozial euskaltzale erabakior baten faltaz, Euskal Herriaren barnetik pentsaturiko herri-proiektua oratzea oso zaila gertatu zen,

gero eta konplexuagoa eta deseuskaldunduagoa zen euskal gizartean. Diruaren eta agintearen botere sozialak ez ziren euskaltzale; langileria etorkina ez zen euskaldundu ahal izan; euskalduna, berriz, atzerri eta hiri are eta erdaldunduagoetara joan zen. Bestalde hizkuntz erabaki larriak hartzeko boterea ez zegoen hemen, erbestean baizik.

Berrogei urteko ahaleginen ondoren (1893-1931) eta katalanen lagunartean izan genuen Madrileko politikan zerbait gorkiago hitz egiteko aukerarik eta orduan ere berandu eta epe laburrerako lortu zen hizkuntzarentzat errespetagarritasun ofiziala (1936-1937). Hala ere, aurreko hamarkada haietako lana (1876-1936) ekarri handikoa izan zen, ondoko erasoaren ondoren (1937-1975) aurrera segi ahal izateko.

■ ABADIA JAUREGIA (Hendaia)

"Euskaldunen Aita" deitu zitzaion Antoni Abadia, munduan zehar ibilitako gizona zen: Ethiopian urteak eman zituen, Brasil-en ere egon zen. Azkenik, jakitun aberats honek bere egoitza Hendaian jarri zuen, Viollet-le-Duc famatuak eraiki zion jauregian (1862-1870). Euskarari lagundu zion gure dirudun gutxietako bat izan zen.

■ Pizkundeurreko euskaltzaletasuna (1853-1876)

XIX.eko Euskal Karlismoak defendakizunen artean hizkuntzarena ere hartu zuen bere bizkar. Karlismoaren euskaltzaletasuna azken gerratean (1873-1875) era askotan agertu zen. Bazuen, inoiz talde idelogiko eta politikoetan izan ohi duen zentzu interesaturik: hau da, ideia karlisten zabalkunde herritarerako eta propaganda liberalaren kontrako hesi bezala ikusten zuten batzuek hizkuntza. Nolabait ere, hauentzat borroka politikoaren tresna bat gehiago zen.


Baina, Karlismoa mugimendu herritarra ere bazenez, eta herri hura hemen Euskal Herrian euskalduna izanik, ez da batere harritzekoa karlista euskaldunak, garaiko tesuinguruan, euskaltzale bilakatzea. Euskal herritasunaren eta berezitasun historiko-instituzionalaren azalpen kultural bezala hartu zuten hauek euskara. Batzarre karlistetan edo, areago oraindik, eskola eta irakaskuntzako Txosten eta Batzorreetan hizkuntzaren defentsa behin eta berriz ageri zaigu, Bizkaian bezala Gipuzkoan. Defentsa honen lehen bultzada gidariena baino herri-herritik zetorrena izan zen inoiz (1875eko


Gipuzkoako Batzarreetan, adibidez); bestalde, kasuren batean, aldizkari karlistek zerabiltzaten arrazoiak kasik modu abertzale batean esanak izan ziren: "Hizkuntza da aberri-maitasuna, nazio-maitasuna, sendoen korapilatzen duen lokarria, eta horregatik euskarari lekurik onena eman behar zaio irakaskuntzan", esaten zuen aldizkari karlista bilbotar batek (1871).

Baina abertzaleurreko formulazio politiko hauen aurretik, ez dira ahantzi behar, 1850az geroztik gutxi gorabehera, mundu kulturaletik zetozela hizkuntzaren arreta, jakin-mina eta hobe-nahia. Kaleratu gabe, gordeta, zegoen zenbait euskal lan mardul orduan hasi zen argitara irteten (Lizarraga, Gerriko, Agirre), eta Pizkundeurre honetan gogoratu behar dira XIX. mendeko izen giltzarri batzuk: Antoni Abadia eta L. L. Bonaparte lehenik, eta oso bestelako adiera batean J. M. Iparragirre, nahi bada.

Irlandan jaiotako zuberotar baten semea zen Antoni Abadia (1810-1897). Munduko ibilaldi handien ondoren Euskal Herriaz eta euskaraz maitemindu zen. Frantzia eta Europar jakitun handitzat zeukatenak Hendaian jarri zuen bere egoitza. Eskuzabalki lagundu zion euskal olertiaren loraldi berriari, beretik dirua jarriz eta urteoroko olerti-jaiak antolatuz (1853), lehenik Ipa-







EUSKALKIEN MAPA (1863)

L. L. Bonaparteri zor dizkiogu XIX. mendeko euskalkiei buruzko albisterik onenak. Urtetako eta lankide askoren fruituak izan ziren euskalkien mapa hauek.

rraldean eta gero alde bietan. Lehiaketa haietan parte hartu zuten Elizanburu, Etxahun, Arrese Beitia eta abarrek.

Abadiak hizkuntzaren jai herritar-kulturalak sustatu zituen bezala, L. L. Bonaparte Printzeak (Bonapartetarren arteko Printze titulukoa bait zen) hizkuntzaren inguruko ikerlan, itzulpen eta bilaketa isilagoak eta oinarritzkoagoak lagundu zituen. Bonaparteri (1813-1891) zor dizkiogu euskal dialektologiaren lehen argibide sistematikoak. Ez zuen bere gisara, bakarrik, lan egin, Euskal Herri osoan informatzaile egokiak bilatuz baizik. Zituen itzal soziala eta dirua lagun, lankide ainitz inguratu zuen eta argitalpenak ugari egin. Ondoko hamarkadetako euskal zientziaren zimentari segur batzuk bederen Bonaparteri esker gelditu ziren ongi finkatuta. Euskara, inork gutxik bezala ezagutu ezezik, maitatu ere egin zuen, eta maitatzen irakatsi.


Bi begirapuntu ezberdinetatik, Abadia-k eta Bonaparte-k hizkuntzaren zaletasuna eta balioztapen soziala zabaldu egin zituzten, eta herritarren artean jaioko zen hizkuntz abertzaletasunari giltzarri baliosa eman zioten.





■ J. ITURRALDE ETA SUIT (1840-1909)

Historiari, idazle eta margolari nafar hau, 1868tik aurrera Nafarroako mugimendu euskaltzalea bildu, eratu eta indartzen ahalegindu zen. "Asociación Euskara de Navarra" hura Iturraldearen etxeko supazterrean jaio zela esan daiteke. Euskal herrialde guztiak zituen gogoan beti, eta hola idatzi zion hogeitabi urte zituen Kanpion-i, Foruak galdu ziren urtean: *Herri baten hizkuntza da berorren berarizko jeinuaren azalpenik esankorra.*



■ Eusko Pizkundearen gizartea (1876-1936)

Azken Karlistadatik Gerra Zibilera doazen urteetan, euskal gizartean egiturazko hazkuntza eta birmoldakuntzak gertatu ziren. Ekonomiak eta biztanleriak oreka eta desoreka guztiz berriak izan zituen.

Erregimen demografiko zaharreko gizartean edozein hizkuntzak bete ohi zituen funtzioetatik beste gisa batekoak hartu behar izan zituen euskarak; Iraultza industrialak ezezik biztanleriarena ere jasan zuen Euskal Herriak.

Hori dena ulertzeko, garaiko zenbait estatistika eta lekuko bildu ditugu ondoko orrialdeetan, euskararen berehalako etorkizuna eratzeko ere premiazkoa bait da iraganaldi hurbil hau ezagutzea.

■ ARTURO KANPION (1854-1937)

Idazle nafar hau Eusko Pizkundearen ardatz kulturala izan zen. Nafarroako historia, euskal erakunde eta eskubide politikoak eta hizkuntzaren aldeko lana izan ziren Kanpion-en ardurakizun handiak. Iruñeko *Revista Euskara*-tik zabaldu zuen bere mezu gaztea. Hizkuntzaren zerbitzuan emandako lehen obra handia bere *Gramática* (1884) izan zen, hitzaurre eder batekin hornitua.

■ Eusko Pizkundera

Azken Karlistadaren (1876) eta Gerra Zibilaren (1936) artean garatutako euskal mugimendu sozio-kulturalari deitzen zaio Eusko Pizkundera: hirurogei urteko historia da, eta Euskal Herriaren krisi bortitz bati erantzuna eman nahirik garatutako belaun-pare baten lana izan zen.

Karlistadaren ondoren, galdu ziren azkeneko Foru-hondarrak, eta Euskal Herriak, bere herri-nortasuna nola zainduko, gogoetari eta lanari ekin behar izan zien, batera. Hizkuntzarekiko ere kontzientzi argitze bat gertatu zen orduan, izan ere hori, *euskara*, esku-eskura zegoen ondare aberatsa bait zen. Hortaz, hizkuntzari bere balio nazionala ikusi zitzaion, eta herri-nortasuna gordetzeko baliabide salbatzaile bezala begiratu zen.

Aurreko hamarkadetan (1839-1876) oin-harturik (Iztueta, Iparragirre, Abadia, Bonaparte...), eta kanpoko eraso politikoari eta etorkinen uholdeari aurre egiteko, asmo eta ekintza berriak jaio ziren, batez ere Hegoaldean: kultur aldizkariak, berauen ingu-



■ J. M. MANTEROLA (1849-1884)
P. BROUSSAIN (1859-1920)

Euskal Herri osoko indar euskaltzale baliozkoenak bere ingurura bildu eta, denekin batera, kultur ekinbide emankor bat sortzen abila izan zen Manterola donostiarra: *Euskal-Erria* aldizkaria gertatu zen guztien lantegi (1880-1918).

Broussain-ek Hego-Iparraldean batasun-gogo bera oso garaiz erakutsi zuen Iparraldean, Azkuerekin izan zuen eskutizketa luzean irakur dezakegunez: hizkuntz abertzalea zen lapurtar idazle hau eta hizkuntzaren etorkizunaz biziki arduratua. Batasuna, hizkuntz erakundeak, eskolak...: hizkuntzarentzat espazio modernoago horiek nahi zituen Broussain-ek.

ruko lantaldeak, hizkuntzaren Euskal Jaiak eta Lore-Jokoak (Durango 1886), aldizkari eta argitalpen herritarragoak, etab; Iparraldea, Iraultza-ondoko borroka politiko-ideologikoetan murgilduta, bere euskalgintzan ari zen, bitartean.

Dirudun handiak urrun geratu arren, lehenago baino itzal hobeko ahots eta luma jasagoak agertu ziren: Iruñean lehenengo, eta Bilbon, Donostian eta Gasteizen berehala. Jaiotzear zegoen abertzaletasunak izango zuen lur ongarrizaturik. Denen artean, hizkuntzaren kontzientzia nazionala formulatuta geratu zen urte haietan (1876-1890), eta S. Aranak mugimendu politikoan txertatu zuen berori.

Ahalegin kultural eta politiko haiek, gero eta ozenago hitz egin zuten hizkuntzaren alde, eta egokierarik izan zenetan baita eskakizun hori programa politikoetara eraman ere. Dena den, ohartu ziren euskaltzaleak nahitaezkoa zela hizkuntzari baliabide instituzionalak sortu eta Euskal Herri osoan euskararen batasun linguistikoa segurtatzea, ahul zena bizkortu nahi bazen, bederen.

Euskal Herri osoko indarrak bateratzea ez zen samurra gertatu, eta Ipar-Hegoaldeetako elkarrizketek inoiz porrot ere egin zuten (1901, 1902). Azkenik, Diputazioen mandatuari erantzunez, Oñatiko Batzarrean (1918) aurkitu zen biderik, ekintza pribatuen mugak hautsita, euskarari erakundeztapen publikoa emateko: horrela jaio zen Euskaltzaindia (1919).

Ahalegin sozial guzti hauek prestatu zuten euskararen saila, euskaldungoa, 1927-37. etako arrakastak lor zitzen. Arrakasta erlatiboak, baina ederrak: Euskal eskolaren saioetan, bertsolaritza berraurkitzean, literatur lanetan, herritarrak hizkuntzaren ingurura biltzean.


Lanak halaxe eskatuta, indarrak bildu eta hizkuntz erresistentzia hobetzeko erakunde berriak sortu-mina nabaria zen, berehala ikusiko ditugun arabera.

Itxarokizunak handiak ziren Gerra Zibilekin gaua bapatean erori zenean.



■ SABIN ARANA GOIRI (1865-1903)

Euskal Abertzaletasunaren aitagoia izan zen Sabin Arana. Beronen proiektu politikoan hizkuntzak lekurik behinena izan zuen: hark argitara emaniko lehenengo artikulua (*Euskal-Erria*, 1886), hizkuntzaren balio nazionalaz ziharduen. Arana-ren Idazlan Guztietan ikus daitekeenez, hainbat lan egin zuen hizkuntzari duintasuna eta leku sozial hobekak irabazteko. Honen ideia eta ahaleginekin egindakoaz gain, jarraitzaile politikoen euskal ekarria Aranari ere egotzi behar zaio, bidezkoa denez.



■ GRAMÁTICA (1884) eta LITERATURA (1896)

XVIII. mendean, Larramendi-k euskara idatzi eskolatu bat nahi izan zuenean bezala, Eusko Pizkundean, hizkuntzaren balio nazionala barruntatzean, Euskal Herri osoko euskaltzale guztiei euskara osoaren gramatika prestatu zien Kanpion-ek: *Gramática de los cuatro dialectos literarios de la Lengua Euskara* (Tolosa, 1884). Eta Kardaberaz-ek erretorika-liburu batean erdal eskolaren bidegabekeria salatu zuen antzera, ipuina eta nobela erabili zituen Kanpion-ek eskola beraren kalteak egun-argitan jartzeko: *Blancos y Negros* (1896an idatzia).

■ Hizkuntz abertzaletasuna

Hizkuntz abertzaletasunaren agerpena inguruko jazoera sozio-kultural eta politikoei erantzun nahirik gertatu zen, eta beti ere Espainian eta Europan ikus zitezkeen abertzaletasun-ereduen iradokizunak jasoz.


Azken Karlistada-ondoko Foru-galerak euskal nortasunaren galdera piztu zuen gure herriaz kezkatuak zebiltzanen artean, eta nortasun hori hizkuntzaren bidez defini zitekeela ikusi zen: Erakundeak berak baino funtsezkoagoa zen hizkuntza, eta boterearen aldarreak edo armek, bapatean bederen isileraz ez zezaketena.

Hizkuntz abertzaletasunaren aitzindariak nongoak ziren gogoan izanik, lehenengo arrazoi politiko orokor horren ondoan beste geolinguistikoko bat soma daiteke: Erakundeen hondamendiarekin batera hizkuntzaren nortasun-zeinua galtzen ari zen Nafarroa. Urtez urte atzeraka, agonia batean, ikusten zen nafarren euskara, hain zuzen XIX.a bait da Erreinuan galera-erritmoa guztiz bizkortu zen mendea. Ez da, beraz, harriztekoa hizkuntz abertzaletasun ohartu baten lehenengo ahots ozenenak Nafarroan entzun baldin baziren.

Abertzaletasun politiko-linguistikoko honen aitatzat Arturo Kanpion eman dezakegu, beronek abertzaletasun-molde hau hain goiztar eta halako osotasun kulturaleraz ondu zuelako. Kanpion-en *Gramática* (1884) ez da Bonaparte-ren lan zientifiko neutralen edo Van Eys-en gramatikaren (1879) zentzu berekoa: Kanpion-ek gramatika-lana batez ere herri baten hizkuntza salbatzeko eta herri beraren nortasuna indartzeko egin zuen. Hizkuntzaren zentzu nazional hau eta ikusmolde honen ondoko ondorio politikoak argiro ageri dira Kanpionen idazlanetan: Euskal Herriaren nortasun funtsa hizkuntzan ikusi zen.

Abertzaletasun honek bizpahiru bide ezagun hartu zituen berehala: Idazle-lan intelektualarena, prentsa, aldizkari eta liburuak kaleratuz; antolamendu sozialarena, lagunarte euskaltzaleak sortu eta mantenduz; eta ekintza politikoarena, alderdi abertzaileen bidez hizkuntzari babes politikoa bitlatuz.

Gogoeta intelektualak, hizkuntzaren aurkako bidegabekeriak deskribatu eta salatu zituen, Kanpion-ek bere "Erraondoko



■ EUSKAL-ESNALEA (1907. 1908)

Eusko Pizkundearen barnean euskarazko aldizkari euskaltzaleak euskaldungoaren hizkuntz kontzientzia argitzen saiatu ziren aspertzeko. Hasierako zenbakiaren lehen orrietan eman ohi zen aldizkari berriak bere gain hartzen zuen hizkuntzaren aldeko alor hautatuaren albisteak. *Euskal-Esnalea*-renean garbiago ageri da oraindik asmo hori (Tolosa, 1908).

Euskara, hizkuntza nazionala

1884

Gure independentzia nazional sekula menperatugabearen lekuko bizi eta fedemailea da [euskara]. Berarizko aurpegia ematen digun eta besteengandik bereiztera garamatzen funtsa da, gure asimilazio osoari enbarazo egiten diona, aspaldidanik bilatzen den asimilazioari, eta halako baliabide maltzurrez egikaritu nahi denari.

Arturo KANPION

1884

Munduan ez da, seguru nago, au baño erri bat obia; gorde dezagun, bada, osorikan ama Euskeraren legia. (...) Oroi gaiten Euskera gozo munduan paregabeaz, ta aurrerontz ere izango gera mirestuak erbestez.

Jose MANTEROLA
"Post Tenebras" poeman

1886

Hortaz, nazio euskaldunaren funtsezko osagaia da [hizkuntza]. Euskararen desagertzeak, nazio haren hondamendia ekarriko luke erremediorik gabe. (...) Euskara desagertzen bada, ezingo dugu berpiztu; egon, badagoen bitartean, beti ere Euskal Herriko alderdi ezkutuenetara zabaldu eta garatu ahal izango dugu.

S. ARANA GOIRI

1897

Egia honetaz ongi konbentziturat egon beharra dago, hau da: hizkuntza dela ideien zabalbiderik onena eta hizkuntza eta aberria gauza bat bera direla herrien eskakizun nazionala.

Pierre BROUSSAIN

azken tanbolinteroa"n edo "Blancos y Negros"en Martinikorekin egin zuen bezala. Garaiko Aldizkariaren lehen zenbakietan ere nabari ageri da idazleen salakuntza soziolin- guistiko hau.

Hortik, hurrengo pausoa berez gertatu zen: idazle eta kultur taldeen abertzaleau- rreko euskaltzaleatasunek, alderdi jeltzalea agertzea (1894), espresabide politiko osoa- goa izan zuten, bere hizkuntz abertzaleatasu- naren alde politika eratu bat espreskiago landuz. Bihurgune historiko baten aurrean aurkitu zen Euskal Herriaren kontzientzia linguistikoa.


Ondoko hamarkadetako ahaleginak ildo berri honetatik saiatuko dira aitzina egi- ten, euskaldungoaren gogoia, batasuna eta ekimena hedatuz. Hizkuntzaren gidari so- zial berriak agertu ziren XIX.aren mende- laurdenean, banaka edo taldean. Eta, sarri- tan, gidari jakitunak eta ongi jantziak izan zi- ren. Horrela, ba, 1876ko Euskal Herri nora- gabeak, hizkuntzan eta beronen inguruan, hortxe, berraurki zitzakeen helburu aman- komun berri batzuk. Hori izan zen hiz- kuntz abertzaleatasunaren ametsetako bat.

■ EUSKARA, ZERGATIK?

Lau herrialdetatik lau pentsamendu jasotzen ditugu: Kanpion nafarrak hartu zuen aurrea, eta Manterola giputzak egin zuen hilondoko poema hori; Arana bizkaitarrak heldu zion hizkuntzaren defentsa

politikoari, eta, geroxeago, Iparraldean Broussain lapurtarrak azpimarratu zuen euskararen herri-balioa, adibidez.

HEGOALDEKO BIZTANLERIAREN SEKTORIZAZIOA



- Lehen sektorea.
- Bigarren sektorea.
- ⊙ Hirugarren sektorea. (1860-1985)

ITURRIA: Banco de Bilbao. *Situación 1986/1*. pp. 36, 43, 49

BIZTANLERIAREN SEKTORIZAZIOA

Demografiaren iraultzak, hazkuntza koantitatiboa ezezik, jendearen lan-moduen aldakuntza ekarri zuen. Mende t'erdian, hiru sektore ekonomikoak itzulipurdikatu egin dira, baina herrialde bakoitzak bere erritmoa izan du prozesu horretan. Adibidez, lehen epealdi batean, Nafarroaren eta Hiru Herrialdeen lehen sektoreko portzentaiak elkarrengandik aldenitu egin ziren (1860-1930), bigarren unean hurbilduz joateko (1940-1985). Aldakuntza hauetan, euskaldungoaren hizkuntzak, euskarak, zeresan berriak hartu edo utzi zituen gizartean.

Iraultza demografikoa

Iraultza Industrialaren bezperan, 1857aren ingurutik hasita, Hegoaldeak iraultza demografikoa ezagutu zuen, hau da, demografia modernoari dagozkion hazkuntz sakak izan zituen. Euskal Herriko Hegoaldea 754.883 biztanletatik (1877) 2.343.503tara (1970) igo zen. Hala ere, hazkuntza horren erritmo eta uneak ez ziren izan bat berak herrialde guztietan. Errezela daitekeenez, aldakuntza hauek zerikusi hurbila izan zuten euskaldungoaren biztanle-portzentaiak birbanatzen.

Hegoaldeko lau probintziak binaka bereizita doaz prozesu demografiko honetan: Bizkaia eta Gipuzkoa alde batetik, Araba eta

Nafarroa bestetik. Bizkaiak hasi zuen lehen garapen hori, eta Gipuzkoak 1900az gerotik azeleratu zuen batez ere bere hazkuntza erritmoa. Bi herrialde hauetako aldakuntza hauek, berrietako garapen ekonomikoarekin lotuta zihoazen. Araban eta Nafarroan, berriz, ohizko nekazal ekonomiak —berau bait zen artean nagusi— balaztatu zuten biztanleriaren hazkuntza, hain zuzen populazioaren parte bat kostaldeko beste bi probintzietara bidaliz.

Euskal Herriko lehen Iraultza Industrialaren datu demografikoak laburbil nahi badenitu holatsu aurkez genitzake hemen:

| URTEA | BIZKAIA | GIPUZKOA | ARABA | NAFARROA |
|-------|---------|----------|--------|----------|
| 1857 | 160.579 | 156.494 | 96.398 | 297.422 |
| 1877 | 189.954 | 167.207 | 93.538 | 304.184 |
| 1897 | 290.665 | 191.822 | 94.622 | 302.978 |
| 1910 | 349.923 | 226.684 | 97.181 | 312.235 |

Lauki honen arabera, berrogeitamar urtetan Bizkaiak doblatu eta gehiago egin zuen bere populazioa, Gipuzkoak ere hazkuntza bizia zuen bitartean. Arabak, oster, batzue-

tan biztanleak galdu ere egin zituen, Nafarroak, aldiz, bereari ozta-ozta eusten ziola. Iraultza industrial eta demografikoa askoz geroagokoa izan zen bi herrialde hauetan (batez ere 1950etik honakoa).

Hazkuntza absolutu hauekin batera, Hegoaldeko biztanleak lan eta bizimoduz aldatzen hasi ziren, eta batez ere nekazal edo arrantzaletatik industriara pasatzen, lehenengo, eta zerbitzuetara gero. Aldakuntza sozio-ekonomiko honekin batera, hizkuntzak ere hiztunaren espainetan funtzio berriak hartu edo utzi zituen, ondoko hamarkadetako garapen sozialean aukerak galdu edo irabaziz. Biztanleria aktiboaren historia aldakor hau zinez garrantzizkoa izan da, inmigrazio-uholdeak bezainbat, gutxienez. Hiriek bizilagun berriak erakarri zituzten, gainera, inguruko eskualdeetatik eta erbestetik: 1857-1930 urteetan, Bilbo 18.000 lagun eskasetatik 83.000tara pasa zen, adibidez, eta meatz- eta industri herriek gora egin zuten.

Nekazal eskualdeek, oster, ezin izan zuten beren biztanleria sostengatu, eta emigrazioa handia izan zen, Ameriketarako bereziki. Iparraldean, gainera, ia irtenbide baka-



rra izan zen berau: 1832-1891etan, 80.000-ren bat da handik itsas bestaldera joana. 200.000 edo izan litezke Hego-Iparraldeetatik Amerikako bidea hartu zutenak.


Herri eta herriska euskaldunetatik emigratuak ziren horietatik asko; eta, ondorioz, biztanlez urritu egin ziren: Etxalar (Nafarroa) 1824-1905etan 1.724 lagunetatik 1.397tara erori zen, edo Murelagak (Bizkaia) 303 bizilagun galdu zituen hirurogei urtetan (1860-1920). Nekazaritzaren krisia, kapital-metatze basatia, erakunde, kultura eta hizkuntza arrotzen ezarpena aipatu izan dira herri txiki hauetako emigrazioaren esplikabide bezala. Honelako eta antzeko datuetan soma daiteke, populazioa-aldakuntzak demolinguistikarekin izan zezakeen zerikusia.

Jendetzaren goraldi guzti horrek, ordea, euskaldun/erdaldunen koerlazioa euskarren kontra aldatu zuen, laburbil litezkeen arrazoi hauengatik:

ERBESTEAREN ERAKARMENA OTE?

Elizondoko baserri batean egindako argazkia da hau (1924): aurreko hamarkadetako euskal emigratioaren sinboloa izan liteke. 1-2-3 zenbakidunak sortetxean bizi ziren, semearekin (9): etxejoaun zaharra eta senar-emazte gazteak dira. Gainerako guztiak etxetik kanpora eta erbestera joanak: 4. Puebla-ra (Mexiko). 5. Aurrekoaren emazte mexikarra. 6. Gasteiz-a. 7. Glasgow-ra (Montana, USA). 8. Ziburu-ra (Lapurdi). 10. Toronto-ra (Kanada). 11. Azopardo-ra (Argentina). 12. Argentina-ra.

ITURRIA: DOUGLAS, W.A.; BILBAO, J. (1986): *Amerikanuak. Los vascos en el Nuevo Mundo*. UPV/EHU. Bilbao.



■ VICTOR HUGO, EUSKALDUNEN ARTEAN (1843)

Mutikotan egonaldi bat egin ondoren (1811), 41 urte zituela etorri zen berriro V. Hugo Euskal Herrira. Ohartu zen, hemen jendea euskalduna zela, eta euskaraz zerbait hitz eginez gero, beste irekitasun batekin hartzen zutela. "Nafarroa" hitz zaharra ez da hitz hutsa. Euskaldun jaiotzen da hemen, euskaraz hitz egiten da, euskaraz bizitzen eta euskaraz hiltzen. Euskara, aberria da, kasik erlijio bat esatera nindoan, idatzi zuen Victor Hugok orduko hemengo giroa ezagutu zuenean (1843).

- Erdal herrietatik zetorren inmigrazioa euskaldun ezina zen, ezarritako sistema sozio-kulturalaren barnean bederen.

- Aldiberean, herri euskaldunetatik atzerrirako emigrazioa jasan zuen Euskal Herriak, jatorrizko euskaldun-multzo bat galduz.

- Iraultza industrialarekin, herri eta hiriburu gero eta handiago eta erdaldundua-goetara pasa zen jende euskalduna.

- Euskal Herriko euskal/erdal lurraldeen muga-hesia hautsiz, euskal lurraldea bera barnetik erdalduntzen hasi zen, eboluzio demografikoaren ondorioz.

Faktore guzti horien emaitza, biztanleria osoaren euskal portzentaia erdira erortzea izan da: % 52 (Velasco, 1879) eta % 20,05 (Yrizar, 1973).

■ Euskal hiztunen estatistikak (1866-1868)

Iraultza industrial eta demografikoaren aurretik, 1866-1868 urteetan, Euskal Herriko bizilagunen albisteak, eta hauen artean euskaldunen estatistikak zifra hauetara ekarri zituen L. Velasco-k (1879), beste autore batzuen datuak ere aztertu ondoren. Zen-

EUSKALDUNGOA (1866-1868)

| HERRIALDEAK | BIZILAGUNAK | EUSKALDUNAK | % |
|--------------------|-------------|-------------|-------|
| IPARRALDEA (1866) | 123.000 | 80.000 | 65,04 |
| HEGOALDEA | 780.217 | 391.000 | 50,11 |
| Nafarroa (1867-68) | 300.328 | 60.000 | 19,97 |
| Araba (1867) | 120.494 | 12.000 | 9,59 |
| Bizkaia (1867) | 183.098 | 149.098 | 81,43 |
| Gipuzkoa (1867) | 176.297 | 170.000 | 96,42 |

ITURRIA: VELASCO, N. (1879): *Los Euskaros en Alava, Guipúzcoa y Vizcaya*. Barcelona. 479-490.orr. ALTADILL, J. (1918): "Provincia de Navarra", in: *Geogr. Gen. del País Vasco-Navarro*. Barcelona. 13. or.

■ EUSKALDUNGOA (1866-1868)

Velasco-ren estatistika hauek dira joan den mendeko euskal hiztunen kopuruaz ezagutzen ditugun daturik fidagarrienak. Bereziago aipatzekoa da, Bizkaia-Gipuzkoa-Iparraldeetan, herrialde horietako bizilagunetarik % 82,73 euskalduna zela orduan.

baki hauen balioa garaiko estatistika seguruen artean edo laga liteke.

Herrialdeka datu hauek erakusten diguten Euskal Herria, hizkuntzen aldetik, ongi ezberdinduta ageri da: Iparraldea/Gipuzkoa/Bizkaiek euskaldun gehienak zuten (guztiki batera beren biztanleriaren % 82,73 euskalduna zuten); Nafarroan, ordea, eta Araban bereziki, euskal hiztunak minoria ziren orduko. (% 19,98 eta % 9,59, hurrenez hurren). XVIII. mendeko Arabako galera eta Nafarroan XIX.aren lehen erdialdian izandakoa ispiatzen dituzte datuok.

Handik hona ondorengo azken mende eta laurdenean zer gertatu den ikusteko, aski da hemengo datuok liburuaren bigarren atalean aurkeztu direnekin alderatzea. Ez da ahantzi behar, gainera, gaur eguneko euskalduna (XIX. mendeko gehienak ez bezala) elebiduna dela, hau da, erdara ere badakien euskalduna, eta erdalduntzat eman ohi direnak erdaldun hutsak izan ohi direla gehienbat. Aurreko mendeko egoera hura hagitz bestelakoa zen, ordea.

L. Velasco-k, bildutako datu hauei ohar jakingarri batzuk egin zizkien bere liburuan, eta hauen artean Gipuzkoako egoera sozio-

| HEGOALDEKO EUSKALDUNGOAREN BILAKAERA (1863-1936) | | |
|--|---------|----------|
| URTEA | GUZTIRA | NAFARROA |
| 1863..... | 610.000 | — |
| 1868..... | 391.000 | 60.000 |
| 1884..... | — | 85.000 |
| 1931..... | 400.000 | — |
| 1934..... | 570.000 | — |
| 1936..... | 700.000 | — |

ITURRIA: BELTZA (1978): *Del Carlismo al nacionalismo burgués*. Donostia: Txertoa. 141 or.

HEGOALDEKO EUSKALDUNGOAREN BILAKAERA (1863-1936)

Lauki honetako datuok kontraesanean bat edo beste badute, noski (1863ko eta 1868ko zifren artean, adibidez); baina, oro har, badute interesik azken mendeko euskaldungoaren kopuru-bilakaera ezagutzeko. Autoreak hainbat iturri ezberdinetatik jasotako estatistikak dira.

linguistikoaz zer zioen jasoko dugu, hitzez hitz: “La lengua del pueblo es el vascuence, y aun las clases altas del país que viven en las capitales y pueblos más importantes, lo hablan también siquiera no lo usen siempre en su habitual comercio. De las 176.297 almas que poblaban Guipúzcoa al realizar este acensamiento, creo bastante exacto calcular, por los datos adquiridos, que las 170.000 hablaban el vascuence y entre ellas las 140.000 hacían uso casi exclusivo de esta lengua en sus diarias relaciones”.

Era nabarmenagoan azpimarratzekoa da, Velasco-ren datu absolutuen ondoan, klase sozial garaien hautapen linguistikoaz esaten dena: hiri eta herri handietako klase jasoagoen hizkuntza ere euskara zen, beti-beti ez izan arren. Hizkuntz ohitura hau geroago aldatu zuten, beraz, talde sozial haiek.


Pizkundeko lehen ekinaldian (1876-1903)

1876.eko galerek eztenkada mingarria eman zioten euskal gizarteari: dena birpentsatu beharra zegoen! Gogoeta politiko eta nazional horretara herrialde guztietako

personaiak bildu ziren, Foruak galdu eta biharamunean.

Garaiek eskatzen zuten gogoeta honetan lau herrialdeetako buru argienek hartu zuten parte. Lehendabizi, Madril-en elkartu ziren, Euskal Herrian ezarritako zentsuratik ihes eginez, *La Paz* deituan (1876-1878); ondoren hemengo lau hiriburuetak aldizkariak ahalegindu ziren giroa aldarazi eta ideiak hedatzen. Guztien aitzindari *Revista Eúskara de Nabarra* izan zen (1877-1883); hizkuntzaren defentsan berau nabarmendu zen besteak baino areago. Nafar idazleen artean herrenkan datoz izen sonatuak: Kampion, Iturralde, Arantzadi, Oloriz, Landa, Obanos, etab.

Iruñetik eta Nafarroatik kanpo ere sortu zen antzeko talde intelektualik. Han bezala beste herrialdeetan, aldizkariak eta berauen inguruko elkarteak izan ziren bilpuntuak. 1879an, Gasteizen Herrán-ek *Revista de las Provincias Eúskaras* kaleratu zuen, eta inguruan jardun zuten Becerro de Bengoa, Apraiz, Baraibar eta abarrek. Donostian, berriz, Manterola gazteak *Euskal-Erria* hasi zuen, bizitza eta lan luzeagoko aldizkaria (1880-1918); sortzailearen heriotzak ere ez zuen ito (1884). Bilboko *Revista de Vizcaya-k*



REVISTA EUSKARA (Iruñea, 1877-1883)
EUSKAL-ERRIA (Donostia, 1880-1918)

Hona Eusko Pizkundeko bi aldizkari elkarren adiskide, eta historiaz benetan ezberdinak. Lehenengo Iruñean jaio zen eta bizitza laburra izan zuen, argitara ekarri zuen taldeak baino laburragoa. *Revista Euskara*-ren gurasoetako batek, Iturralde eta Suit-ek, margotu zuen *Euskal-Erria* donostiarrak bere harpidedunei, lehen urtean, eskainitako urteko azal dotore hori. Honela, orduan genituen bi kulturgune euskaltzale (Iruñea eta Donostia) sinbolikoki elkartuta agertzen zaizkigu: Manterola Zuzendariak bere iruzkin programatikoa eman zion azalari, eta bertan Euskal Herriaren batasun-lokarri bezala aitortzen zuten euskara.

AMA EUSKERIARI AZKEN AGURRAK

*Neure biotzeko Amatxo zarra,
Antxiñako Ama Euskera,
Seme leial bat orain datortzu
Azken agurra emotera;
Ainbeste gerra goitu ezinda
Danori atsotu zara,
Zaurien zauriz galdu-galduta,
Amatxo, zoaz iltera. (...)*

*Agur illun bat egin deuskue
Guraso zarren legiak
Umezurtz batzuk gelditu gara
Billoxik Foru bagiak;*

*Izan bagina eurak legetxe
Euskeriaren zaliak,
Oso ta garbi gordeko ziran
Oitura ain miragarriak*

*Errazoiagaz esango dabe
Gure urrengo umiak,
Izan giñala, duda bagarik,
Ero ta zoro garbiak;
Jakingo dabez euskariagaz
Genduzan eskubidiak,
Erdera-zale giñalako egin
galdu zirala guztiak. (...)*

*Euskeriari gorroto eta
Gozau nai bere Foruak,
Dirala uste dot barru-barrutik
Auterestia zoruak;
Izan leiteke ori alan, baña
Niri ezetz diñost goguak:
Baldin Euskera bizten ezpada,
Iltzat daukadaz Foruak.*

F. ARRESE BEITIA

Elizondoko Jaietan saritua, 1879

■ EUSKARARI KANTARI

Ezerk gutxi adieraziko luke garaiko euskaltzaletasunaren bizia orain erromantikoezia gertatzen zaigun Arrese Beitiaren (1841-1906) olerki honek baino. Orduko buru eta ahotan ibilitako hitzak eta sentimenduak ditu, eta badu, noski, hizkuntzarekiko sen agoniko bat ere. Kanpion-ekogoz eta bihotzez gorapatu zuen Arrese Beitiaren lana (1900). Hizkuntza galduta lukeen Euskal Herriaren euskara hildakoari eresi eta kantu etsia da Otxandioko poeta honena. Balio literarioengatik baino interesgarriagoa dugu hemen dokumentu historiko bezala. (Bertsio hautatuak).

■ EUSKALZALE (1897-1899)

Erdaraz batez ere eskolatuentzat argitara eman ziren aldizkariak eta herri apalagoarentzat idatziriko *Eskualduna*-ren antzekoen artean geratzen da Azkuek ateratako *Euskalzale* hau. Irudia ere erabili, euskaraz argitaratzen zituen lanak. Azkuek berak idatzi zuen gehienbat, ikerlanei kendutako orduak dibulgazio-lanari eskainiz.

■ ESKUALDUNA (1887)

Baionako astekari honek, gorakada ederra ezagutu zuen jaio eta ondoko urteetan. Harpidedunen irakurlegoa zabala zen garai haietarako: 850 (1888), 950 (1889), 1.200 (1890), 1.300 (1891), 5.000 (1905), 7.000 (1908), etab. Honela, ba, Iparraldean irakur-ohitura berriak sustatu zituen, urtelan irakurriena izan zen prentsa-argitalpen herritar honek.

(1885-1889) inguruko gizartearen pentsamendu eta amets kontrajarriak ispilatu zituen, euskaltzaletasun militantea beste haien tamainara eraman gabe.

Revista Euskara nafarra, lehen ekinaldian, eta *Euskal-Erria* donostiarra ia berrogei urtetan, izan ziren euskal balioen eta berezitasunen, eta horien artean euskararen, defentsa ausartkienik gidatu zutenak. Iruñekoan batez ere teorikoa izan zena, Donostiatik neurri handiago batean praxi bihurtu zen.

Urte beretsuetan, Iparraldean euskal borroka bestelako bidegurutzetatik abiatu zen: Frantziako III. Errepublikaren eztabaidakizunetatik. *Eskualduna* (1887) astekariak irakurle goero eta zabalagoa eta atxekia aurkitu zuen, borroka politikoak, setakeria “radikalak” eta euskararen legezko zapalkuntza administratiboa tarteko zirela (1902). Gaurko talaiatik tradizionala deritzagun borroka hark izan zuen ondoan ahots gazteago eta modernoagorik. Hauetako adibide bat bilatuz, Broussain mediku hazpandarra ekar genezake hona. Nabaria da honengan pentsamolde abertzalea, hizkuntzari atxekia; Arana eta Azkuerekin, biekin aldiberean, harreman minak izan zituen, euskararen eta Euskal Herriaren batasuna suharki sentitzen zuela.




Aldizkari euskaltzale elebidun haien ondoan, hizkuntzaren ospakizun herritarrak, Iparraldetik etorritik, Hegoaldean ere lortuko dira (Elizondo, 1879). Abadiak kasik hogeitar urte lehenago hasitako ahalegina, hemen aintz herritan erein nahiko da. Kasu batzutan (Durango-koa da bat, 1886) Lore-Joko haiek itzal eta oihartzun ozena irabazi zuten euskal gizartearen.

1876-1900. etako urteek berrikuntza osoa ekarri zioten hizkuntzaren balioztapen ideologikoari (ez hainbeste sozialari), eta euskaltzaletasunak harez gero abiapuntu berrietatik ekin zion lanari. Pentsamenduz eta asmoz urte aberatsak izan ziren, aberatsegiak hemen laburtu ahal izateko. Ondoko laukian, lau gizon eta lau pentsamendu aukeratu ditugu zerbait adierazteko.

■ Hizkuntza zabaldu eta ikertzen

Eusko Pizkundean, urteak pasa ahala, jakitun gutxi batzuren lana eta herritarren hizkuntz ospakuntza hurbilago ageri dira: zientziak eta gizarteko hizkuntz mugimenduak elkarri lagunduz egin zuten gorantz.



ELIZONDOKO JAIK (1879)

Herri honetan ospatu ziren Hegoaldeko lehenengo Lore-Jokoak. Iparraldeko Abadiak eta Nafarroako "Asociación Eúskara"k, elkartuta, antolatu zituzten ospakizunak. Arrese Beitia izan zen lehen saritua bere "Ama Euskeriari azken agurrak" olerkiarekin; baina, Iparragirrekin lehian, Saria zozketa baten bidez erabakita gero.



J. HIRIART-URRUTY (1859-1915)

Frantziako Eliza-Estatuen arteko eztabaida-liskarretan berotu zuen kazetari fin eta gihartsu honek luma. Bere pentsamolde kontserbakorretik, euskararen defentsa ederrik idatzi zuen: "Dugun atxik eskuara" hura, adibidez, Baionako Kristau-Biltzarrari zuzendua (1909).

Pizkundeko hizkuntzaren aldeko ekin-tzen artean, liburu, argitalpen, aldizkarien ondoan, hizkuntzaren ospakizun herritarrak ez dira ahantzi behar, hortaz. Bultzatu nahi zuten hizkuntza, herri xumearena zela eta hitzun arrunten atxekimendu soziala erabakiorra izan zitekeela jakinki, euskaltzaleek era askotako jaiak asmatu zituzten herritarrak euskararen alde biltzeko: Bertso-lehiaketak, Olerti-Egunak, Euskararen Egunak, mota ezberdinetak Sariketak...

Abadia, Kanpion, Manterola, Aitzol edo Lizardiren lanak begiratzea aski da Pizkundean herriz herri egindakoak ezagutzeko. Testuinguru honetan ekar dezagun hona Gregorio Mujikaren izena (1882-1931): merezi du aipu hori, euskararen aldeko herri-ekintzan eta aldizkarietan, hizlari eta kazetari bezala, hizkuntz leialtasuna sendotu eta argitzen egin zuenagatik. Eredu bat izan zen eta ahantziegia izan dugu Mujika. Eta guztiek ere herri-indarrarekin eta duintasun batekin jaso nahi izan zuten euskararen itzal soziala.

Bestalde Euskal Herria berarizko gaitzat hartuta sortu ziren aldizkariak garrantzirik handiena izan zuten Pizkundean, nahiz eta lehenengo hartan gehienbat erdaraz idatzita

egon. Batzuk aipatu-berriak ditugu. Gogora ditzagun, gainera, Iparraldeko *Ariel* (1848), lehenengo euskal kazeta, Hegoaldeko *Euskal-Esnalea* (1908) eta bereziki Errepublikaturteetan indartutako *Argia* (1921-1936), hizkuntzari aurrera-pauso bat eman erazi bait zioten zabalkunde idatziaren aldetik.

Horiek horrela, badago besterik Eusko Pizkundearen barruan: Aldizkari euskalariena, alegia. Euskal Herrian bertoko nahiz kanpoko aldizkari euskalari eta zientifikoek egiteko emankorra bete zuten euskara aztertu eta hizkuntzari buruz ezagumendu modernoak landu eta zabaltzen. Ez zuten izan, noski, guztiek tamaina bereko ekarria, eta horregatik ere, zilegi izango da hemen, arrazoi oso ezberdinengatik, bi hautatzea.

- Bata, zinez bitxia eta harrigarria da: *Euskara* zuen izena, eta Berlinen eman zen argitara (1886-1896), K. Hannemann eta Th. Linschmann-en ardurapean. Bere hamar urteko bizitzan euskarari buruzko hainbat albiste jakingarri bildu zuen.

- Besteak, *RIEV* bezala aipatu ohi denak (= *Revista Internacional de Estudios Vascos/Revue Internationale d'Études Basques*, 1907-1936), hogeitamar urtetan lan eskerga egin



DURANGOKO LORE-JOKOAK (1886)

Durango-k euskal kulturaren leku nabaria izan du: Kapanaga bertan izan zen gramatika-maisu († 1661), Artzadun dotrinagilea (1731) bertako elizaduraduna zen, hantxe argitara eman zen lehenengoz *Peru Abarka* (1881), durangarrak ziren Astarloa apologista (1752-1806) eta Astarloa frantziskotarra (1751-1821), etab. Talde-ekintza herritar bezala, 1886an hasi ziren Lore-Jokoak gogoratu nahi ditugu hemen. Argazkian: Jai haien zigilua.

„Euskara.“

Organ für die Interessen der „Baskischen Gesellschaft“.

Ersteheft
erschienen in der Zeitschrift
von 1 bis 14, Heft
Verlagsort
der Baskischen Gesellschaft
No. 17.

Verantwortlich Redakteur
Karl Hannemann
in Berlin.

Bestellungs-
stelle man direkt richten
an Herrn
Th. Linschmann
in
Lohndamm bei Wilmsh.

1. Jahrgang | Berlin, den 1. October 1886. | No. 1.

Das gestrige Heft des „Euskara“ enthält den Inhalt der „Euskara“-Zeitschrift, welche seit dem 1. October 1886, unter der Leitung von Herrn Karl Hannemann, in Berlin O. erscheint. Die Zeitschrift gewährt eine vollständige Darstellung der baskischen Sprache, Literatur und Geschichte. Man findet in der „Euskara“ eine vollständige Darstellung der baskischen Sprache, Literatur und Geschichte. Man findet in der „Euskara“ eine vollständige Darstellung der baskischen Sprache, Literatur und Geschichte.


Die Zeitschrift „Euskara“ wird in Berlin O. unter der Leitung von Herrn Karl Hannemann, in Berlin O. erscheint. Die Zeitschrift gewährt eine vollständige Darstellung der baskischen Sprache, Literatur und Geschichte. Man findet in der „Euskara“ eine vollständige Darstellung der baskischen Sprache, Literatur und Geschichte.

Als wir am Schluss v. J. unseren Aufruf zur Gründung einer Baskischen Gesellschaft veröffentlichten, erwarteten wir von vornherein keine allzu glänzende Resultate desselben. Dennoch sind wir davon befriedigt, da sofort zwei der berühmtesten Forscher auf baskischem Gebiete, S. H. der Prinz L. Bonaparte und Herr Prof. Malin, sich für unser Unternehmen erklärten. Diese Herren aber waren für obigen Gesellschaft, besonders der Umständen, annehmend unterbreitend gebildet, soll eine solche wissenschaftliche Unternehmung, an dem nun gestifteten Ziele fortzuführen und weiter zu streben auf dem wissenschaftlichen Wege, „Chiptasunan antitasuna le egiten da“ (In der Wissenschaft sich zu betheiligen und vorzugehen), also wird auch unsere noch kleine Gesellschaft sich mit der Zeit kräftigen und vergrößern. Deshalb, um das Interesse für unser Unternehmen mehr und mehr wecken zu können, und, wenn es gewandt, auch zu erklären, haben wir es unternommen, für unsere Gesellschaft eine eigene Zeitschrift zu gründen, deren erste Nummer hiermit allen Freunden der baskischen Sprache empfohlen sein möge. H. Mal.

La dialecte de Daxepare.)
Bernard Daxepare est natif de St. Michel de Nizan, un beau paysan, champ ou vignage aride, petite ville de la Basse-Navarre; mais le langage se trouve d'une inflexion typique, quoique évidente du dialecte Souletin. Les particularités qu'on peut appeler aujourd'hui Souletines, dépassant même à cette époque les frontières de la Soule? Il est difficile de répondre à cette question. Le seul ouvrage d'un Bas-Navarrais de cette époque sur le Nouveau Testament de Liguine et est entouré de mots Souletins, ni de Souletins qui n'appartiennent au dialecte. Le seul particularité que Liguine a permis, et rarement encore, c'est le datif pluriel Souletin en -s. L'auteur lui-même, dans le titre de son ouvrage, reconnaît un Souletin depuis longtemps.

JULIO URKIXO (1871-1950)

Urkixok Pizkundean burutu zuen lana berria izan zen bere garaian; eta ondare ederra utzi zuen ondoko euskaltzaleentzat. Hiruzpalau puntu nagusi azpimarra litezke hemen: RIEV aldizkariaren ekarri zientifikoa, euskal idazle zaharren argitalpenak, haren Biblioteka paregabea eta harreman pertsonalen bidez eta aldizkarian, hemengo euskal ikerkuntzarentzat lortu zuen nazioarteko familiartea. Handik aurrera kanpoko eta barneko zientzilariek elkarrekin lan egin ahal izan zuten.



zuen, euskalari jakitunenak bere orrietara erakarriz. Benetan, nazioarteko lana izan zen, eta gaur egun ere —hura hil eta berrogeitamar urte geroago— behar-beharrezkoa gertatu ohi da euskal lanetan.

Herriaren bihotzean egindakoekin, herri horren berorren borondatearekin, jakitunek beren liburu eta aldizkarietan irakatsita-koaren bidez, olerkari eta bertsolariak abes-tutakoarekin hedatu zen hamarkada haietan hizkuntzarekiko grina.

Jakitunak eta hizkuntzaren etorkizuna


Eusko Pizkundean molde askotako argitalpenak egin ziren: Euskal Herriaren eta euskararen aldeko erdarazko literatur lanak (ipuin, elaberri, olerkiak...), euskara irakasteko gramatika eta hiztegi arruntak, eskolatarako ikasliburuak, aldizkari zientifikoa nahiz albistariak, antzerkiak, bertso-pape-rak, etab. Dena izan zen mugimendu sozial zabal baten agerpena, eta euskaltzale askok eman zituen bere izerdiak alor zabal edo apalagoren bat jorratzen.

Orain, urte haietako jakitunak gogoratu nahi ditugu batipak. Batzuk atzerritarrak izan ziren, eta inoiz Euskal Herrian hilabete gutxitan egondakoak, gainera; baina euskalari kanpotarrok bihotzez maite izan zituzten gure hizkuntzaren azalpen guztiak: herriaren ahotan entzunak eta gure idazle zaharren lumetatik jaiotak. Berauei esker, obra agortuen edizio berriak eduki ahal izan ginituen, batzuetan iruzkin eta oharrez hornituta, eta bestalde, inoiz argitaragabeko lanak ere eman zituzten argitara, horrela euskal ondarearen altxorra zaindu eta aberastuz.

Zeregin gaitz hau burutu zutenen oroitzapenak euskaltzaleon artean bizirik egon beharko luke: W. Webster (1828-1907) eta E. S. Dodgson (1857-1922) ingelesak; XIX.aren hasieran etorri zitzaigun W. von Humboldt-en (1767-1835) ondoren hurbildutako alemanak: V. Stempf (1841-1909), H. Schuchardt (1842-1927), G. Bähr (1900-1945); Van Eys (1825-1914) edo Uhlenbeck (1866-1950) holandarrek, eta Vinson (1843-1926), Saroihandy (1867-1932), Hérelle (1848-1935) frantsesak. Hauetako batzuk izen handikoak ziren mundu osoan ere:

EUSKARA (1886-1896)

“Organ für die Interessen der Baskischen Gesellschaft” zioen aldizkariaren azpititulua, alemana bait zen *Euskara* hau, Berlin-en jaito eta bizia. Hortaz, hemen, Euskal Herrian, RIEV jaito baino lehenagoko iker-aldizkaria eta “Euskal Elkargo” deitubaten lanen berriematea. Izen ezagunak ibili ziren argitalpenaren orrialdeetan: K. Hannemann, Th. Linschmann, Van Eys, Vinson, Bonaparte...



Schuchardt eta Uhlenbeck, adibidez. Guztion lanek, oinarrizko hutsuneak betetzeaz gain, metodologia hobekak ekarri zizkiguten gurera, eta ondoko hamarkadetako euskalari atzerritarren etorriari ateak ireki zizkionten.

Esandakoen ondoan etxetarren ekarpena ezin da ahantzi, ordea. Euskalaritzaren alorrean, bi dira batez ere gogoan hartu behar ditugunak, Resurrección M. Azkue lekeitiarra (1864-1951) eta Julio Urkixo deustuarra (1871-1950). Puntako bi gizon hauek euskal ikerkuntzaren mundu oso bat gogoratzaren dute.

Hizkuntzalari, folklorezale eta musika-biltzaile eta sortzailea, eta denetan handia, izan zen Azkue: laster mendea beteko duten lanak zor dizkiogu Azkueri. Hizkuntzarenera bilduz, bi obra historiko aipatu behar dira gutxienik, biak euskararen ezagumendu modernoan zinezko mugarriak: *Diccionario Vasco-Español-Francés* (1905-1906) eta *Morfología Vasca* (1923). Euskaltzaleek beti gogoan eta eskuetan izan dituzte gaurdaino bi liburu horiek.

Urkixo-ren lana, berriz, *RIEV* aldizkariaren inguruan burutu zen: honi esker, euskal ikerlanek nazioartean ez-ohizko duinta-

sun zientifikoa lortu zuten mende honen lehenengo hamarkadetan. Aldizkariaren ingurua benetako nazioarteko *forum* irekia bilakatu zen, hura bizi izandako hogeitamar urteetan (1907-1936). Erakundeak eta euskaltzaleen gizartea ohartu ziren zientzi argitalpen honen balioaz eta, 1922an, Eusko Ikaskuntzaren aldizkari bihurtu zuten, beti ere Urkixo-ren eskuetan segitzen zuela. Urkixo-ren balio gaitzeko beste obra, beronen liburutegi pertsonala izan zen: urte askotan bildutako biblioteca hau Gipuzkoako Diputazioaren eskuetara pasa zen eta orain hiritar guztien eskumendean dago.

Euskara, jakin-minez maite zuten hauen baitan, eta inguruan, hizkuntzaren iraganaz ezezik etorkizunaz ere sortu zen kezka eta galderarik. Egia da ez zela beti lortu, jakitunon eta euskaltzale eta politikarien arteko elkarriketa eta lankidetzaren samurrik. Baina haserre zirenetan ere (Arana eta Kanpion, Azkue eta Arana, Urkixo karlista eta aberztzale jeltkideak, etab.), ohartuta nahiz ohartu gabe, denen artean euskararen etorkizun hobeago bat eraikitzen ari ziren, inoiz urtetako bide-galtze eta alfer-lan batzuk jasan arren.

Honelako zerbait gertatu zen, esate baterako, 1901-1902etan, euskarari batasun idatzia emateko Hendaian eta Hondarri-

■ W. J. VAN EYS (1825-1914)

Amsterdam-eko semea zen. Hizkuntzalaria izanik, bere bitzita gehiena euskara ikertzen eman zuen. Bi bidaia egin zituen Euskal Herrira (1866, 1868), baina ez zuen egonaldi luzerik egin hemen. Hiztegi bat (1873) eta euskalkien gramatika konparatua (1879) dira haren lan handienak. Horrez gain, testu zaharren argitaratzaile izan zen Van Eys.

■ HUGO SCHUCHARDT (1842-1927)

XIX-XX. mendeetako hizkuntzalari handietako bat izan da: Latin herritarren bokalismoaz egin zuen bere tesia. Leipzig, Halle eta Graz-eko Unibertsitateetan irakatsi zuen. Erromaniar arduratu zen bereziki, baina baita latinetik hizkuntza ez-erromaniaroketarako eraginaz ere. Kezka honetatik iritsi zen euskarara. Saran udaldi bat egin ondoren (1887), osorik eman zen euskal ikerkizunetara. 1893an argitaratutako *Baskische Studien* liburua euskal hizkuntzalaritzako obra maisua da.



■ R. M. AZKUE (1864-1951)

Apaiza zen Azkue, baina bere bitzita luze osoko zeregina euskara izan zen. 1888an, Bilboko Institutuan Diputazioak sorturiko Katedra irabazi zuen, eta erabat euskal lanetan ibili zen. Ikerlanak, dibulgazioa, gramatika txiki eta handiak, herriarengandiko euskal materialen bilketa, euskal eskola, Akademia...: zernahitaz arduratu zen Azkue. Langile porrokatua, osasunak ere lagundu zion, eta obra erraldoia burutu zuen. Euskaltzaindiaren Lehendakaria izan zen, hasieratik bere heriotzeraino (1919-1951). "Zalantzarik gabe, euskarak gehien zor dion gizona" idatzi da.



■ HONDARRIBIA (1902)

Mugaren bi aldeetako euskaltzaleek sentitu izan dute Euskal Herriari eta hizkuntzari batasun hobeago eta hertsia goa eman beharra. Baina sentipen horrek aldian aldiko beroaldiak ere izan ditu, mende honen hasierako urteetan, adibidez. Hendaian (1901) eta Hondarribian (1902) egindako bilerek ez zuten, ordea, nahi zen adinako fruiturik eman.

bian egindako bilerekin. Hegoaldean bezala Iparraldean, euskaltzaleek erasota ikusten zuten hizkuntza, eta bazirudien bi aldeetako indarrekin elkartasun estuagorik sor zitekeela. Pot egin zuten, ordea, bilera haiek eta batasunerako izan zitezkeenak bitasuna ekarri zuten 1960etako urteetararte: Iparraldeko euskaltzaleak *Eskualtzaleen Biltzarrea*-n elkartu ziren (1901), Hegoaldean *Euskal-Esnalea*-n biltzen ziren bitartean (1907). Orduan bakoitzak bere batasun-bideari heldu zion, eta Euskaltzaindia jaiotzean (1919), be- rrau gertatuko zen batasuna eginez joateko Erakunde nagusia. Akademia eratzean, ba, etorkizunerako ahalegin sozialak, zientzia- ren egoitza bat izan zuten ondoan.

■ Hizkuntz politikaren inguruan (1876-1936)

Ikusi ditugun aldakuntza sozial laster horien artean, gatazka linguistikoak ere agertu ziren, noski. Eta gertakari soziolin- guistiko horiekin batera baita hizkuntz ara- zoari buruzko hainbat ideia berri ere. Eus- kararen defentsarako indartsuago zuzendu ziren gizartetik agintea zutenengana erabaki politiko hobeagoen eskeak.

Alderdien programa politikoetara ere iritsi zen hizkuntzaren arduraren hau. Zer esa- nik ez, alderdi abertzaleenetara. Guztion arreta bizienak, hizkuntzaren eta eskolen ar- teko zerikusiak politikoki eratzera zuzendu ziren; artean, komunikabideen munduak ez zuen gaurko garapenik lortu.


Esan dezagun, ba, guzti horretaz zerbait.

■ Erakundeen barruan

Iztuetak edo Arrese Beitiak, adibidez, Foruen eta euskal erakundeen etorkizuna euskararen geroari lotuta ikusi zuten, nahiz eta gutxi izan arazoa horrela ikusten zute- nak: baina Foruak “oso eta garbi gordetzeko gauzarik beharrena zer den ezagutzen dute- nak gitxi dira txit” (Iztueta, 1847).

Alderantziz ere esan zitezkeen noski, Era- kundeek hizkuntza defendatu eta zaindu be- har zutela, beraz hizkuntz politika bat as- matu eta egiteko tresna politikoa izan zitez- keela Foruak, alegia. Baina baieztapen poli- tiko horretara iritsi aurretik bide luzea ze- goen ibiltzeko.

Hain zuzen, mendearen azken partean, Espainiako Cánovas-en erregimenak eta Frantziako III. Errepublikak, oro har, ez zu-



■ BIZKAIKO BATZARREETAN (1846)

Lehenengo Karlistadaren ondoren, 1840tik aurrera, Bizkaiko Batzarreetan euskararen erabil-modu berri bat sumatu zen. Bileretako Aktak eta zenbait agiri ofizial euskaraz ere jarri ziren, eta eztabaidak, denek oro ongi ulertu arte, euskaraz ere egitea erabaki zuten (1854). Hemen ikusten dugun hau erret ordezkariaren, Korregidorearen, hitzaldia da, euskarara itzulita.

ten aintzakotzat hartu euskaldungoaren hizkuntza. Botere zentralak beren hizkuntz politika erdalduntzaileak eraman zituzten aurrera. Eta aginte zentralaren eskuetatik zeuden erakundeetan euskarak ez zuen lekurik aurkitu: hain zuzen erakunde publiko horietxe izan ziren hizkuntza honentzat itxienak. Ministraritzetan, indar armatuetan, Gobernu Zibiletan eta Gobernu zentralaren ordezkarietan ofizialki ez zekiten euskararik, eta gaztelania edo frantsesa ziren hizkuntza bakarra. Bestalde, aginte-organu berorren beste erakunde gutxi-asko autonomoetan (osasan-etxeak, eskola, trenbidea, etab.) euskarari ausentzia beretsua ezartzen zitzaion.

Dakigunez, Erregimen Zaharrean Legeak erdaraz idatzi ziren Euskal Herrian. Hori ohitura finkatutzat jota, Estatu zentralak ez-ikusin egin zion euskarari, hizkuntzaren bizitza eta etorkizuna zuzenean uki zezaketan lege eta arauetan ere. Alde askotatik, hauxe izan da, luzarora, egoera soziolinguistikoa sakonagotik itzulipurdikatu duen burubide legala.

XX. mendean, salbuespen gutxi batzuk aparte, euskararen erabilera publikoa mugatu edo debekatzeko legeak eman ziren le-

henengo hiru hamarkadetan: zentzu honetan, Estatuko araurik gogorrenetako bat 1902an aldarrikatu zen, kristau-dotrina irakastean gaztelania ezik besterik erabiltzea debekatu.



Geureak edo bertokoak genituen Diputazio eta Udaletxeetan, beti bezalatsu Administrazioiko hizkuntza idatzia gaztelania zen. Besterik zen, noski, euskararen erabilera mintzatua, euskaldunak ziren eskualdeetan. Abertzaleekin indar politikoen koerlazioa aldatzen hasi zenetik (1912tik aurrera bati-pat) suma daiteke Diputazioetan hizkuntzarekiko interes berri bat. Ezagutzekoak dira, batez ere, Diputazioartean elkarrekin hartutako pisuzko erabaki batzuk: Euskal eskualdeetarako Notarien euskalduntasuna eskatzen zuena (lau Diputazioek 1910-1911n), Eusko Ikaskuntzaren Kongresurakoa (Bizkaia-Gipuzkoa, 1918), Euskaltzaindia sortzekoa (lauena, 1918-1919), eta Unibertsitatea eraikitzeko ahaleginak (1866, 1919, 1921, 1923).

Diputazioek, bakoitzak bere aldetik egin zituzten lanetan, Bizkaia eta Gipuzkoa dira, pentsa daitekeenez, erabaki instituzionalik gehien hartutakoak. Hauetako batzuek, Gipuzkoan, jada kalean zebiltzan aldizkari



■ NAFARROA EUSKARAREN ALDE (1896)

Foruen galerak, euskararekiko atxekimendua estutu egin zuen nafar askorengan. 1868tik aurrera, gero eta sarrigo entzun zen hizkuntzaren aldeko deia. Diputazioak bat egin zuen, behin baino gehiagotan, beste hiru Diputazioekin hizkuntzaren defentsan; hala nola, 1896an, irakasleen arazoa tartean zela, Foru-Aldundi hark Gipuzkoakoari honela idatzi zion: *La Diputación de Navarra [...] ha acordado gestionar cerca del Gobierno de S. M. la declaración preceptiva de la enseñanza del vascuence en las escuelas del territorio vascongado.* (1896-I-11). Argazkia: Foruen Monumentua, Iruñean.



EUSKARA, UDALETAN

Euskara funtzionarien betekizunetarako betebeharrezko baldintza bezala eskatzeko legezko eskubidea defendatzea ez da samurra izan legeen arabera. Donostiako Udal-Idazkariaren eta -arbitrioetako zeladoreen hautapenean, izan zen gorabeherarik, Udaletxean ezik baita hiriko Prentsa-ere. Argazkia: *Euskal-Erria* aldizkariaren protesta-editoriala (1891).

(*Euskal-Erria*, *Revista de las Provincias*) eta liburuen (*Azkueren Ardi galdua* argitaratutako, adibidez) egile-editoreei lagundu nahiz zieten, eta besteek Erakundeetako funtzionarien hizkuntz gaitasuna zaindu. Esate baterako, mikeletegaiek euskara jakin behar zuten (1900), telefonistek ere berdin (1909), eta Fraisoroko zuzendaritarako euskalduntasuna baldintza ezinbazitertua izango da (1912), orobat Basozaingorako zuzendariak euskalduna beharko du izan (1916), etab.


Bizkaiko Diputazioak ere, arloaren bi alde horiek (euskara gizartean nolabait laguntzeara eta funtzionarien hizkuntz baldintzena) zaintzeko, argitaratu zuen hainbat arau; interesgarrienak eskolarekikoak dira (1917-1920). Minoien buruzagitarako hautagaien artean euskaldunak hobetsiko dira (1914), Abadinoko nekazal etxeko zuzendarigaiari baldintza hori betetzea eskatu zitzaion (1918), Lehen Irakaskuntzako Ikuskatzaileari bezala (1918); Gorlizko erietxeko mendiku izendatu-berriek urte beteren buruan ikasi behar zuten euskara (1919). 1921ean erizpide orokorrago bat jarriko da: eskualde euskaldunekin edo mintzatzaile euskaldunekin harremanak izan beharko dituzten enplegatuei euskara jakitea eskatuko zaie Bizkaian. Oro har, 1918-

-1923.etan eskola-funtzionarioei (irakasleei) euskara jakitea eskatu zitzaion, auzo-eskola berriak eraikitzen ari ziren unean, hain zuzen. Gerraurreko hizkuntz erabilpen administratiboaren unerik eredugarrienetako bat izan zen, noski, aipatzen dugun Bizkaiko Diputazioaren hau.

Horiek horrela, esan beharra dago, gerraurre hartan Hegoaldeko Diputazio eta Udaletxeek, beren jokabide arrunt orokorrean, utzikeria nabaria ere erakutsi zutela: ez da ageri euskara indartzeko proiektu orokorrik, han eta hemen unean uneko garrantziko erabakirik falta ez arren. Hutsegite larria izan zen hau, Erakundeen euskaltzaletasun eskasak markatua.

Hizkuntz erakundeen bila: Euskaltzaindia

Hizkuntzaren defentsa, eginkizun politiko bezala definituz eta gizartean horrelaxe onartuz zihoan bitartean, mugimendu euskaltzaleak orokorki eta abertzale euskaltzaleak geroxeago, hizkuntzari erakunde pribatuak sortu behar izan zitzioten. Antolamendu sozial hauek, hiriburuetan izan ziren indartsuenak, Iruñea eta Donostian lehenik, Bilbon gero.



AKADEMIA BATEN ESKEA

XIX. mendean behin baino gehiagotan eskatu zen euskara zainduko zuen Erakunderen bat (Ulibarri, Aizkibel, Abadia, Artiñano). Inoiz xehetasun zehatzekin azaldu zen, gainera, asmo hori. Hauxe da dakargun Artiñano-ren "Proyecto de Academia Bascongada" honen kasua, autoreak Durango-ko lehenengo Euskal Jaietan aurkeztu zuena (1886).



Jaiotzen ari ziren elkargo euskaltzaleentzat, eta berauen argitalpenetarako, edo ikastola jaio-berrietarako subentzioak bilatu ziren lehenengo Erakunde Publikoetan. Laster intelektualek eta alderdi abertzaleek, beren programa eta eskakizunetan, euskaren ardura bete behar publiko bat bezala ikusi eta aurkeztu zuten. Orduan, lehen pauso gisan, sariketa ofizialak eratu ziren (Iruñeko Udaletxeak, 1882).

Euskaltzalegoak, hurrengo urrats anztzera, berehala ikusi zuen Administrazioak bere eskuetan zituen eta hizkuntzaren zabal-kundearekin, edo hondamendiarekin, zerikusia zuten Erakunde Publikoetan politika berria asmatu beharra. Euskal eskolagintzan pentsatu zen batipat, eta horraxezuzendu ziren lehenengo erreforma-gogoak. Baina, hor eta bestelakoetan, egin zitekeena zaila eta oso aldapa-gorakoa zela ikusita, eta lortzen ziren emaitzak nahikoa motzak, Hizkuntz Erakunde Publiko teknikoaren premia barruntatu zen. Hizkuntz erakundeen bila hasi zen euskaltzalegoa: hasteko, Euskararen Akademia behar zen, Euskal Herri osorako eraikia, alderdien gaintetik egongo zena, eta publikotasun osoz hornitua.

Egia esan, Euskal Akademiaren ideia aspalditxotik zetorren, eta ez zen bapatean agertutako asmoa. Hemen berriro ere gogo-


ratzekoa da, Ulibarri arabar-abandotarrak hogeitalau laguneko Elkargo bat izendatzea eskatu ziela Gernikako Bazarreei, hizkuntza salbatu, zaindu eta berritzeko (1832); baina J. F. Aizkibel-ek aipatu zuen lehenengo Akademia baten beharra: euskalki literario edo klasiko bat moldatu premia azpimarratu zuen, eta, horretarako, "beren hizkuntzaz ikasketa bereziak egindako euskaldunek osaturiko Akademia baten beharriaz nahihaezkoa" zeritzan (1856). Egiteko hau beren eskuetan hartzea eskatzen zien Aizkibel-ek Euskal Herriko agintariei, eta, Erakunde berriaren bidez lortutako hizkuntza bakar guztientzako ulergarriak ekar zitzakeen hizkuntz ondorio kulturalak aipatu zituen: mende beteren edo biren buruan, zioen Aizkibel-ek, politikoki bi Estatutan banatutako euskaldunak elkar ongi ulertu ahal izango lukete, euskal literaturak aurreramentu handia egingo luke, gramatika, hiztegi eta obra baliagarri asko argitaratuko litzateke, eta, oro har, euskal kulturaren merkatua hedatuko.

Urte gutxi geroago (1862), Bonaparten lankide zen Duvoisin kapitainak ere Akademiaren asmoaz idazten zion Abadiari, beronek lehendik ba omen zuen ideia indartuz. Prest zegoen idazlea Abadia jaunaren gogo hori gauzatzeko. Pizkundearen



AKADEMIA, DIPUTAZIOEK SORTUA (1918-1919)

Hainbat asmo eta ahalegin pribatuk pot egin zuenean eta Erakunde Publikoetan euskaltzaletasuna aski indartu zenean, Diputazioek sortu zuten Euskaltzaindia, beronen gastuak ere beren bizkar hartuz. Bizkaiko Diputazioan onartu zen lehendabizi proiektua, Elgezabal eta Landaburu diputatuek proposatuta (1918-I-25), hasieratik bertatik beste euskal Diputazioekin batera sakatzeko asmoarekin.



AKADEMIAREN ARAUTEGIA

Hizkuntz Erakunde Publikoaren barne-bizitza gidatzeko idatzi ziren Euskaltzaindiaren Sortarauak. Oñatiko Batzarrean izendaturiko Batzordeak egin zuen lana: Iradokizunak egiteko hamabost egun eman ziren Prentsan, eta guztiokin Olabidek idatzi zuen Aurreproiektua. Emendakinak jaso eta dena Diputazio bakoitzak onartu ostean, eratu zen Euskaltzaindia (1919). Hurrengo urtetik aurrera hasi zen *Euskera*, bere iker-aldizkaria, argitara ematen.

lehen hamarkadatik aurrera, arazoaz giroan somatzen zena batek baino gehiagok berresan zuen. Manterola-k tamalgarrizat zeukan Akademiaren falta (1880), baina Artiñano izan zen honetaz indar eta adorez mintzatu zena (Durango, 1886), Arautegia ere proposatuz: “Academia Bascongada” deituriko honek euskal Historia eta Hizkuntza izan omen zitzakeen bere ikerkizuntzat.

Handik aitzina, gainerako ahaleginek pot egin ahala, Erakunde Publikoek sortu beharko zuketena Akademia baten asmoa indarberrituz zihoan. Bizkaiko Diputazioan Arautegigai bat prestatu ere egin zen (1906-1907), eta Iparraldetik edo Arabatik Azkue-ren gutundegira asmo berarekin iritsitako iradokizunik ez da falta (1907). 1913an, *Euskal-Esnalea*-k inkesta bat egin zuen Akademiaren ahalbideratzeaz, berorren komentziaz eta ekar zitzakeen ondorioez galde-tuz. Erantzunak, denak ideiarekin aldekoak izan ziren.


Azkenik, Euskaltzaindia izango zena Bizkaiko Diputazioaren lehenengo erabakiari jarraikiz jaioko zen (1918). Beste Aldundiek ere beren oneritzia azaldu ondoren, Oñatiko Batzarreari utzi zitzaion, bidezkotzat joko zen prozedurarekin, Akademia eraikitzeko lehen pauso ofizialak ema-

tea. Arautegi-Aurreproiektu publikoa eztabaidarako zabaldu ostean, 1918ko Azaroan onartu zuen horretarako Batzordeak Arautegi-Proiektua, eta Eusko Ikaskuntza Elkargo sortu-berriak Diputazioei bidali zien bera, eta hauek onartu (1919).

Diputazioen eskariari erantzunez, Eusko Ikaskuntzak egin zuen lehen euskaltzainen hautapenerako deialdia, Oñatin aukuratutako laurak (Azkue, Kanpion, Eleizalde, Urkixo) eta garaiko aldizkariaren zuzendariak bilduz. Falta ziren zortzi euskaltzainak izendatu ziren, Akademia osatuta uzteko: Adema, Agerre, Tx. Agirre, Broussain, Eguzkitza, Intzagarai, Lhande eta Olabide. Euskaltzaindiaren egoitza Bilbon jarri zen, eta R. M. Azkue izendatu zuten Lehendakari.

Eliza eta eliztarrak

Eusko Pizkundeko loraldira baino bizpahiru mende lehenagotik eliz euskarak eta eliztarren euskal lanek beste lehenagoko loraldiak ezagutu zituzten (Etxepare/Leizarraga, Donibane-Sara, Larramenditarrak eta berauen ondokoak). XVII.az geroztik euskarak bazuen, gainera, ofizialtasun-maila bat. Guzti horrek, hala ere, ez zuen



esan nahi abagune bakoitzean herri baten hizkuntzaren zerbitzuan historikoki egin beharreko dena bete zenik. Baina, dena den, Eliza, bere euskal tradizioari jarraiki, Pizkundeko zereginetan parte hartzeko lasterketa-irteerako marra-marran zegoen, gizarteko beste edozein talderi aurrea hartuta.

Premiazkoa da, Euskal Herrian halako garrantzia izan duen Erakunde honen euskal historia aurkeztean, zenbait bereizkizun gogoan hartzea. Hemen, Eliza esatean, behingoz bederen herritar laikoak ez, baizik apaiz eta erlijiosoak hartzen ditugu aintzakotzat, eta berauen burubide soziolinguistikoa da aipatu nahi dena. Izan dugu, noski, eliz alorrean ari izan den herritar "paisano"-rik (G. Arrue edo Orixe, adibidez), orain hona haien lana ez ekarri arren.

Elizak eta eliztarrek beti izan dute eskuartearen herrien hizkuntzekiko praxia ezezik, teoria orokor bat ere; baina, aldarte eta argi-iluntasun historikoen arabera, ezberdinki erabili izan dira bai bata eta bai bestea. Gurean ere halatsu izan da. Dena den, eliz barneko espazio linguistikoen—instituzionalen eta pertsonalen— banakuntza ulertzea komeni da Erakundeko hizkuntz ofizialtasunaren tamaina eta balioa zuzen neurtzeko.

Elizaren lehenengo hizkuntza ofiziala latina zen orduan, eta gero zetozen gaztelania/frantsesa eta euskara. Meza eta Sakramentuak latinez entzuten ziren egunoro edo igandeoro, baina predikuak, kantuak, norberaren aitortzak eta kultura erlijiosoko hainbat argitalpen osagarri euskaraz ere bazeuden edo egin zitezkeen. Katekesia (doctrina) eta herri-otoitzak euskaraz egiteko ohitura zabaldua izan da Euskal Herrian. Ez da ahantzi behar, aipatzen ditugun zeregin hauek izan direla—eskola erlijiosoekin batera— egunerokotasun maizena zuten hizkuntz funtzio eliztarrek. Horregatixe ere, alor horietan huts egin denean, kaltea larriagoa izan da. Bestalde, hizkuntzen planteamolde, balioztapen eta erabilpen etnokulturalak bereizi beharra dago beraien erabilerara pastoral eliztarretatik. Ikuspuntu hura nahiz bestea, edo biak, erabili izan dituzte eliztarrek euskalgintzan, baita orain gogoan ditugun garaietan ere, azken hamarkadetan bereziki.


Erakunde honen eta euskaldungoaren arteko harremanen tartean Euskal Herria inguratu eta bertan agintzen duten Estatuak egon dira. Estatu liberal hemeritzitar haiek bazuten, *a negativo* gutxienez, beren hizkuntz politika, eta Elizak euskararen balioztapen etnokultural edo nazionala egin au-

■ ELIZETARAKO ESTATU-DEBEKUAK (1902)
Madriletik bezala Parisetik, 1902an debekatu egin zen katekesian gaztelania edo frantsesa besterik erabiltzea. Madrileko dekretu hau sozialki, bortxatuz ere, ezin aplikatua gertatu zen, errealtatetik hain lekuz kanpo bait zegoen bera, eta ondoren arindu egin behar izan zen. *Eskualdunak* aldizkariak (24-X-1902) antzeko beste gatazkaldi bateko albisteak dakartzat: Bretaniako dotrinetan bretoiara debekatu zenekoa.



■ JOSE CADENA Y ELETA

Gasteizko apezpiku honek (1905-1913) gorabehera handiak izan zituen garaiko abertzalegoarekin. Euskarazko bataioen eta izenen onarpen-arazoak (1911-1913) eta A. Zabalaren *Historia de Vizcaya* (1910) izan ziren harremanak erabat ospindu zituztenak. Gasteizko gotzainetarik Cadena y Eleta izan zen errezelo eta etsaigoan modurik txarrenez nabarmendu zena.



■ ELIZA ETA EUSKARA

Hierarkiak eta eliztar soilek egindako lanaren ondoan, gogoeta teorikoa ere ondu nahi izan zen eliz Erakundearen eta euskaldungoaren arteko elkar-bizitzan bizibide bidezkoago bat lortzeko. Intxaurrondoren argitalpen hau Iruñeko Seminarioan, Ikasturteari hasiera ematean egindako hitzaldia da (1926).

rretik ere, bizitza pastoralean jarraitzen zuen burubideak ere egin zezakeen Estatuekin beaztopa gaizto. Horrela gertatu zen Ipar-Hegoaldeetan, 1902 eta 1906an, modu zinez desitxurosoan: gaur egun nekez ulertuko litzatekeen gisan, esku-sartu nahi izan zuten Pariseko eta Madrileko agintariek elizetako katekesiko eta predikuetako hizkuntz hautapenetan. Madriletik benetan zitalki debekatu zen haurrekin euskararik erabiltzea (1902); Parisek, ostera, apaizen igandetako hitzaldietan frantsesa bakarrik onartzen zuen (1906).

Botere zentralekin haserre (Iparraldean bezala) edo sobera adiskide (Hegoaldean Koroarekin bezala), Hierarkia katolikoak hizkuntzaren arazoarekin nahitaez egin zuen topo; baina gure apezpikuen pentsamoldeak ez zeuden batere prest herrian itsasgora zetorren euskaltzaletasuna ulertzeko. Gasteiza Muxika etorri zen arte (1928) elizbarruti honek ez zuen euskaltzaletasuna taxuz ulertuko zuen Gotzainik izan. 1910-1913etan Eleta y Cadena-k, euskarazko bataioak eta euskal izenak tarteko zirela sortu zuen aginte-auzia neurritz kanpoko gertatu zen nahitaez, berehalako urteetan ikusiko zenez.

Eliztarrak abertzaletuz zihozten neurrian (gogoan izan Ibero kaputxinoaren *Ami Vasco* 1907koa dela), euskaltzaletasunak ere aurpegi modernoagoa hartu zuen, eta batez ere ekintzaleagoa. Ordena erlijiosoetan bezalatsu diozesietako apaizen artean, mugimendua bere fruituak ematen hasi zen, aldizkari eta argitalpen-mota guztietan. *Jaungoiko-zale* (1912) bezalako lantaldeak sortu ziren, lehenengo, eta, ingurua indarrean zetorrelako nonbait, Seminarioetan ere egin zitzaion leku euskal kulturari. Barandiaran eta Lekuona, mendearen bigarren hamarkadan ziren Gasteizkoan irakasle; kaputxi-noen artean, Bera eta Arrigarai-ren lanak kaleratu ziren; josulagunek *Jesus-en Biotzaren Deya*-ri ekin zioten (1916), eta abar.

Hurrengo bi hamarkadetan (ez da ahantzi behar Oñatiko Batzarrea, 1918) euskararen onarpen instituzionala indartu egin zen. Muxika integrista baina euskaldunaren zentzu onak lagunduta Iruñean zegoela bi gertakari ofizial esanahitsu dauzkagu: Kristau-Ikasbideari hizkuntz duintasun eguneratu bat ematearren, Aita Intzari beraren euskal idazketa berria egitea eskatu zitzaion (1927), eta, esanahitsuagoa dena, 1926an Seminarioko Ikastaro-irekiera euskararekiko burubideaz eliz dotrina sozio-kulturak zituen erizpideak aztertuz egin zen.



■ GASTEIZKO SEMINARIOA (1935)

Gasteizko Seminarioan (berria 1930ean ireki zen), 1920aren ingurutik aurrera ikas-programaren aldakuntzak egin ziren. Euskararen eta euskal literaturaren katedra sortu zen, "Kardaberaz" Akademia, etab. Hizkuntzak, hortaz, leku ofiziala izan zuen apaizgaien hezieran. Seminario-hartako irakaslegoaren artean ikusi ditzakegu, hemen, J. M. Barandiaran eta M. Lekuona.


■ Euskara, Eskoletara?

Jarrera-aldakuntza hauek beren fruitua eman zuten, eta hainbat elizgizon ikus daiteke euskalgintzan sartuta gerraurreko azken hamarkadan: pastorala euskaraz egiten zen, noski; baina, hortik aurrera joz, baita kultur lanik franko ere. Euskararen aldeko elkargoetan sortzaile, sustatzaile edo gidari bezala ageri ziren eliztar ugari: Euskaltzaindian, Euskeltzaleak-en, aldizkarietan, Eusko Ikaskuntzan eta abarretan. Izenak, aipatutakoek gain, eurrez zerrenda litezke: Artubiaga, Olabide, Azkue, Aitzol, Tx. Agirre, Estefania, Donostia, etab.

Baina, bestalde, urte hauetan, garairik euskaltzaleen artean ere, Elizak bere garrantziko erakunde-barruti batzuk ia osorik erdaldunak izan zituen: Seminarioetako irakaskuntza eta bizitza amankomuna, komentu-etxeetako bizitza arrunta, ikastetxe erlijiosoetako irakaskuntza, etab. Eta pastoraletan ere ez zen zabarkeriarik falta izan, Iruñeko Elizbarrutirako Eusko Ikaskuntzak salatu zuen bezala (1933, 1934). Euskal gizartearen hizkuntz minorizazioa nabari ageri zen barneko ohitura haietan eta parrokiak utzikerian. Dena den, eliztar askok bere kabuz edo inoiz Erakundearen babesarekin egindako lanak probetxuzko uzta utzi ziguten.

Ipar-Hegoaldeetako euskal herrietan bi Estatuetakotako botere zentralak beren legeria sortu eta ezarri ahala, Euskal Herriko eskola-arazoa larriagotuz joan zen. Mendearren lehen urteetatik zetorren Iparraldean berau, Mauleko suprefetak idatzitakoaren arabera (1802): "Hizkuntza berezi batez mintzatzen zen herriaren ezjakintasuna gainditu eta gainerako Nazioarekin harremanak lotzeko" ikastetxe bat eskatzen zuen gobernadore-ordeak.

Guizot (1833) eta Falloux (1850) Legeek eta Ferry-ren Lege-multzok (1879-1882) eratu zuten Frantzia eskolagintza berria, Estatuaren eta irakaskuntza librearen joko-arauak definituz. Eskolen konfesionaltasuna izan zen eztabaidagaririk gaiztoena; hizkuntzen lekua, ordea, erabakitaz jotzen zen. Espainian, Moyano Legeak (1857-1970) birdefinitu zituen eskolaren mundua eta berorrekiko kompetentziak. Hizkuntzar-teko hautapen politikoak tartean zeuden, noski, eta Diputazioek —kontraforutzat hartu bait zuten Lege berria— bildu eta Erreginari *Instancia* bat zuzendu zioten (1857): Euskararentzat ekar zezakeen kaltea ere aipatu zen idatzian. Ondoko urteetan (1859, 1874) ikusi zen, batez ere funtsezko




■ AITA DAMASO INTZAKOIA (1886-1986)

Ordina erlijiosoaren artean, josulagunek eta kaputxinoek egin zuten gerraurrean lanik itzelena. Aita Damaso kaputxinoa dakargu hona: Herriko hizkuntz langaiak bildu, kristau-ikasbidea hobetu eta aldizkariak argitaratzen (*Zeruko Argia*, 1919) saiatu zen. Ia ehun urteak bete zituen euskaltzain kaputxino hau erlijioso euskaltzaleen lekuko bezala aukeratu dugu.

DONOSTIAKO IKASTOLAK (1914)

Koruko Amaren Ikastoletako Zaingoa (c. 1928 ?), D. Mateo Muxika erdian dela. Babes sozial hauei esker atera zen aurrera Muñoatarrek sortutako ikastola donostiar hauen asmoa, gerrak bizitza moztu zien arte.



EUSKARA ESKOLETAN

1830

Esaizu:
Zelan da hau,
edo zetara adi gara?
Euskera berba eginda,
eskolia erdera?
Ori da asmo gaiztoak egitia
gu galtzera.

J. P. Ulibarri
(1775-1847)

1833

Nik
euskararen erabilera
klasean erabat debekatzera
behartu ditut maisuak.

Mauleko Eskola-Ikuskatzaile batek

1846

Gure eskolen helburu berezia,
Euskal Herrian, euskararen ordez
frantsesa ezartzea da.

Pirinio Beheretako Prefetak

gatazka maisu-maistren izendapen-konpetentziarena zela. 1876tik aurrera, saiatu ziren Diputazioak eta Udalak, zituzten konpetentzien arabera, eskola euskararen alde gidatzen, edo haren kalteak mugatzen bederen.

Eskola frantsesak edo gaztelauak Euskal Herria elebiduntzeko, edo euskara itozteko, egindako ahaleginen historia ezin dugu hemen azaldu. Politika haren izpiritua orokorki bada ere deskribatzeko, aski izan bedi, adibidez, Iparraldean Donapaleuko Lehen Irakaskuntzako Batzordearen arautegiak zioena jasotzea: "Ikasleei debekatu egiten zaie hitz itsusirik esatea, eta euskaraz hitz egitea ere bai. Frantsesez hitz egin behar dute, baita atsedendietan ere". Eta euskaldunak ziren batzorde-lagunak...

Horrekin, ba, inguruko gizartetik deserrotua geratu zen eskola, eta elebitasunak —malgutasun hobe batekin— lor zezakeena ere ez zen jardetsi. 1872an, Iparraldean biztanleetako % 60-74 analfabetoak ziren, ia Biarno osoan % 50etik behera ziren bitartean. Hegoaldean, berriz, 1900ean, % 29ko analfabetismoa genuen, hogeitamar urte geroago % 11ra jaitsi bazen ere. Euskara baz-

tertzak egoera horretan izandako eragina ongi aztertu gabe badago ere, ezagutzen den hainbat gerkaritaritatik ongi barrunta daiteke burubide politiko ofizial haren kostu sozial eta pedagogikoa.

Hori ikusten zelako, aspalditik eginda zegoen eskola euskaldun edo, gutxienez, elebidunaren eskea: Ulibarri, Iturriaga, Hiribarren, Astigarraga eta abarrek egin zuten galdea beren garaian, eta adierazgarriak izan litezke gerrateko Estatu karlistaren ahaleginak (1873-1875).

Gipuzkoako Aldundia nabarmendu zen batipat, gainerakoan artean, bere kabuz beste Diputazioak ere asmo beretara deituta, irakasle-izendapenetan Udal-Diputazioek kompetentzia autonomo bat eskura zezaten. Helmuga honekin bildu ziren lau Diputazioak Iruñean (1898), eta asmo politiko honek bizirik iraun zuen 1920raino edo, eta geroko Estatutu-Proiektuetan. Izendapen-autonomia egiaz lortu zuen bakarra Nafarroa izan zen: maisu-maistratarako hautagaia izendatuki banaka aurkezteko-eskubidea 1914ean ezagutu zion Gobernu zentralak Nafarroari.

Eskolaren Udaleko Diputazio-autonomiaren eskakizun politiko honetarako arrazoi ainitz ematen zen, bat eta nagusieneta-



■ NAFARROAKO LEHEN IKASTOLA (1933)

"Euskeraren Adiskideak" Elkarte nafarrak hainbat zeregin hartu zuen bere gain, euskararen bizitza sustatzearren. Ikastolen hau izan zen horietako bat. Hau sortzean bertan bildu ziren haur-irakasleak dakartzagu hona, argazkian.

koa Euskal Herriko errealitatea eta hemengo egoera linguistikoa bertatik ezagutu beharra zen. Etengabeki errepikatzen zuten hau ordezkariak elkarrekin hemen edo Madrilen egindako bilkuretan. Horrela, lehen Irakaskuntzaren inguruan sortu zen gogoe-tan Eskola Berri eta Euskaldun baten eredia marraztu zen: Berria, bide pedagogiko berri modernoagoak deskribatu, eskatu eta praktikatzeko zituelako, eta Euskalduna hizkuntzaren aldetik euskaraz ere lan egingo zuen Eskola nahi zuelako. Eduardo Landeta izan zen Eskola Berri honen definizioa hobeki formulatu zuena, eta berorren elebitasunaren mailaketa eman zuena. Eusko Ikaskuntzaren Batzarre eta argitalpenetan barreiatu ziren autore honen eta beste askoren ideiak. 1918tik aurrera, hortaz, gogoak prest zeuden erdizka hasitakoa eta hasigabeak praktikara eramateko.

Erakunde Politikoen kompetentziaren hutsune-betegarri bezala, baina egon baze-goen nolabaiteko Erakunde-babes horren atarpean, bi motatako gertakari emankor ekarri behar dira lerro hauetara, egoeraren adierazle bezala: Bizkaiko Auzo-Eskolen eraikuntza, eta han-hemenka apalki garatuz joan zen gerraurreko Ikastola.

Hori gabe, beste hiru Diputazioek ez zuten Irakaskuntzan berezko botererik, baina

Kontzertu Ekonomikoak eta uanean uneko akordioez baliatuta, parte hartu ahal izan zuten eskola-munduan ere (1900, 1901, 1911-1913). Eskolagintza zentralak uzten zuten hutsuneak betetzeko edo, ahalbidea izan zezaketen. Bide horretatik, Diputazioen presentzia gora joan zen, eta 1918an Bizkaiko Udalek eskoletarako ordainduta-koak 729.000 pta. ziren, Estatuarenak 268.000 bakarrik ziren bitartean.

Eleizalde, Landeta eta Azpeitia bezalako teknikari trebatu eta euskaltzaleak gidarizat zituela, Estatuak betetzen ez zituen beharri-zanak betetzen ahalegindu zen Bizkaiko Diputazioa (1919-1936): 125 Auzo-Eskola eraiki ziren hamarkada batean (1920-1932), 6.321 ikasle biltzen zituztela (1933-1934). Baina ezin da ahantzi hemen eskola hauek politikarien artean piztutako eztabaida. 1919an bertan, abertzaleek gehiengo gal-tzean, Diputazioaren gidaritzza Liga Monar-kikora pasa zen. Hauek eredu linguistikoa berdefinitu zuten, euskararen presentzia gehiago mugatuz. Hala ere, Bizkaiko hizkuntz egoerak behartuta, euskarak irakas-tresna izaten jarraitu zuen, Primo de Rivera-ren erregimena are gogorrago jarri zen arte (1925).



■ EDUARDO LANDETA (1862-1957)

Euskal Eskolaren teorikari argia eta Bizkaiko Diputazioaren Irakaskuntzako teknikari saiatua. 1905-1909etan *Euskalduna* aldizkarian argitara eman zituen bere ideia pedagogiko eta politikoak; 1910-1917etan tokiko irakaskuntza publikoa hobetzen saiatu zen, eta 1917-1936etan Eusko Ikaskuntzan eta Diputazio hartako batzorde teknikoetan hartu zuen parte. Eskola-hizkuntzei buruzko Landetaren ideiak 1918 eta 1923ko idazlanetan geratu ziren definituta (Oñatiko Batzarrean, Eusko Ikaskuntzako Buletinean, eta, azkenik, *Yakintza*-n, 1933).

SOLDADUTZAKOAK BERTSOTAN

Gizarteko bestelako gertakari mingotsak nahiz pozgarriak bezalatsu, soldadutzarekiko kezkak eta han jasandakoak, edo gozatutakoak, bertso-paperetan ibili ziren. Bertso-bildumetan metatu dira idatzi edo kantatutakoetatik gorde ahal izan direnak. Gutxienez, herriaren parte baten pentsamoldea isplitzen dute.



IKASLIBURUAK

Eskoletarako ikasliburuen beharra nabaria izan zen gerraurrean. Erakundeak eta autoreak saiatu ziren, lehen mailatarako, pauso batzuk ematen. Argitalpen txukunak eta atseginak izan ziren hauek, eta hizkuntza probaleku ezezagun batera eraman zuten. Hemen: I. Lopez Mendizabal-en hau, Txiki-k apaindua.



Esperientzia sozio-pedagogiko honekin batera, eta lehenagotik hasita, Ikastolaren historiaurrea eta historia daude. Gogorra zen Euskal Herriko eskola publikoari egiten zitzaion kritika: hizkuntzarekiko jokabidea salatzen zitzaion batipat. Aranak hainbat idazlan argitara eman zuten honetaz (1894-1901), Azkuek bere *Bizcaytik Bizkaira* antzerkian kritika bizia egin zion maisu gazteluari (1895) eta ondoren bere Ikastetxea ireki zuten (1896); baina kritikan, hauei aurrea hartu ziena Kanpion izan zen, bai bere lan politikoetan (1877), eta baita literatur lanetan ere. Hiru autoreok esandakoak laburtzea luzeegi joango litzateke hemen.

Mugimendu politikoak eta intelektualak (kultur erakunde bezala Eusko Ikaskuntza da azpimarragarriena, eta berorren barruan Aita Altzo, Urabaien, etab.) ahalbideratu zuten Ikastolaren jaiotza: Donostian Muñõatarrek sortu eta gidatu zuten Koruko Amarena izan zen lehena (1914). Nafarroan Errepublika urteetan ireki zen ikastola, Euskeraren Adiskideak Elkargoak sustaturik.


Bi euskal eskolagintza horietan (Auzo-Eskoletan, Ikastolan), ikasliburuak sortu beharra berehala ikusi zen. Autore solteek,

beren gisara nahiz talde edo Erakunderen batek eskatuta, balio ezberdineko eskola liburuak atera zituzten. Auzo-Eskoletarako lehenengo argitalpenak lehiaketa ofizial baten ondorioz atera ziren Bizkaian (1918); Gipuzkoan, ostera, argialetxe eta autore pribatuek lan aberatsa bete zuten, hasiera haierarako.

Gerra-ostean era batera nahiz bestera egindakoarekin, hizkuntz abertzaletasunak ondoko hamarkadetarako zuri eredugarria izango zuten eskola-mundu hau.

Soldadutza eta euskara

Hemeretzigarren mendean, euskal Foruak behera etortzean soldadutza egin beharra ezarri zieten Euskal Herriko gazteei (Iparaldean, III. Errepublikarekin; Hegoaldean, azken Karlistada-ondoren): 1876eko Legearen arabera, Hiru Probintziak soldadualdi arrunt nahiz berezietan bortxatuta egongo ziren legezko gizon-kopurua aurkeztera (2. art.). Betebehar honek oihartzun handia izan zuen euskal herri eta familietan, erbestera eta euskararik mintzaten ez zen



herri arrotzetara irtetera bortxatuta aurkitu bait ziren gazte euskaldunak. Horrek herri-tarrak nola hunkitu zituen asmatzeko, bertso-paperetan ageri zaiguna ikus liteke: *Afrikako gerra, Soldaduzkako bertsoak, Kubako gerra, Euskal mutillak armetan* edo *Tiro tartean bertsoan* Auspa-ko bertso-bildumak aipa litezke.

Izan ere traumatikoa bilaka zitekeen soldadutza bortxatua. Soldadutzara joaten hasi eta berehala, lehenagotik lehertuta zegoen arazo koloniala gaiztoagotu orduko, koartelera zihoana zorigaiztoko zozketa itsu batek frontera bidal zezakeen, nahi baino gehiagotan. Eta euskaldun askok, itxuraz, ez zuen argi ikusten gerra batek hona, halako kalteak ekarri bazizkigun, beste herrietako gerrak zergatik ekarri behar zuten onura estimagarriagorik. Gorostidi-ren ondoko bertsoetan ikus daitezke herritarren zailantzen oihartzunak.

Soldadutzak, gehienak euskaldun hutsak ziren gazte deituei txoke kultural zitala ezartzen zien: sistemak laster erakusten zien euskararen balio eskasa eta gaztelania edo frantsesaren erabateko nagusitasun bakarra. Bada gurasorik, han pairatutakoaren ondo-


rioz, seme-alabei gehiago euskaraz ez egitea erabaki zuenik.

Trago txarraren albistea soldadugai gaztegoen etxetara ere iritsi zen, eta baserrietako guraso askok erabakia hartu behar izan zuen: Semea koartelera bidali aurretik ere komenigarria ikusi zen Araban, Errioxan edo bertoko hiri handiagoetan —beti ere lagunarteanago, noski— gaztelania zerbait ikastea. Honela, soldaduarreak ezarriko zigun nahitaezko erdal eskolaren aurretik, geuk ordaindutako bigarren “eskola” erdalduntzailea ezarri zigun soldadu-sistemak euskaldunoi.

Handia zen, nonbait, erdaraz tutik ez zekiten soldadugaien kopurua, eta, 1918an, Gipuzkoako Diputazioak, Madrileko Ordenaren aurka eta mediku erdaldun baten izendapenaren kontra, beharrezkoa ikusi zuen, soldaduaurreko berriuspenetarako mediku euskalduna hautatzea. Hauxe zen arrazoia: “puesto que la mayoría de los mozos sujetos a reconocimiento no conocen el castellano y es justo que posea [medikuak, alegia] la lengua propia de éstos para que pueda entenderse con ellos”. Horregatik Diputazioak bere protesta aurkezku zuen.

■ MAROKKOrA EZ ZUEN NAHI JENDEAK (1920)

Soldadutza eta fronteko tiroketa, hiriburuetako geltoki-agurrak eta berehalako zauritu edo hildakoak, bata bestetik hurbilegi sentitu zituen herriak Gerra Zibilaren aurreko gerra kolonialetan (Kuba, Marokko). Argazkian: Marokkoko hondamendiaren errudunak auzitara eramateko eskatuz, Donostian egindako manifestaldia.



■ GAZTELARA BEHARKO

XIX. mendearen hondarretakoak dira, inondik ere, bertso anonimo hauek. Nahikoa buruhauste zen, soldadu-bezperan Tolosan kantari zebiltzan gazte haientzat, erdaraz gutxi zekiten euskaldunak izatea. Mende bete geroago, abilagoak gara...

KUBAra!

*Monarkitarren gobernu txarrak
gauz onik eziñ ekarri,
ixtillu ederrak jarri diozka
oraiñ ere erriyari:
amen ondotik semea eraman,
kendu senarra andreari,
errukimenik ez diyo artzen
aien ume tristeari.*

*Gobernu txarrez aspertu dira
Kuba'ko gure anaiak,
zergatik arki diraden illun
lengo paraje alaiak;
ez dituzte nai aiek sufritu
emengo zitalkeriyak,
ta altxa dira defenditzera
bear diran lege garbiyak.*

*Autonomiya eskatzen dute,
ta au da eskamen prestuba,
nork bere etxia gobernatzia
ez al da gauza justuba?
Urte askuan sufritu dute
lepoan zepo estuba...
Onian eziñ logratu dana
logratzen da odoleztuba.*

Elias GOROSTIDI (c. 1898)

ITURRIA: ZAVALA, A. (1983): *Kuba'ko Gerra*.
Tolosa: Auspoa.



TXOMIN AGIRRE (1864-1920)

Euskal narratibaren berrikuntzan, Txomin Agirre ondarrutarren nobelek leku klasikoa dute: *Auñemendiko Lorea* (1898), *Kresala* (1901-1906), *Garoa* (1907-1912). Batez ere bi hauek eman diote Agirrerri bere sona: bata bizkaieraz eta bestea gipuzkeraz idatzi zituen.

Soldadutzatik ihesi

Soldadutza, mundu ezezagun eta doilorra egiten zitzaien gure gazteei, eta berauen familiei, azken Karlistadaren ondoko hamarkadetan, eta nahiago zuten, denborarik galdu eta gerratan arriskatu gabe, Ameriketan edo, ogibide berria urratu.

Hamarkada haietako euskal herrietatiko emigrazioa (euskaldunena), partez bederen, soldadutza-arazoekin lotuta ageri zaigu. Iparraldetik ihesi zihozaren gazteak Pasaian igotzen ziren Ameriketarako untzira eta Hegoaldekoak Baiona, Bordale edo Liverpoolen. Armetatik eta gerratik ihes egitea zen seta bakarra: gerraldietan nabariagoa zen hori estatistikek erakusten dutenez.

Bestalde, Frantzia eta Espainiako Estatuak ongi ulertu zuten soldadutzaren betekizun linguistikoa: "Arruntki, gure batailoietan frantsesez egiten da, eta erabileraren ohitura hori hartuko dutenez, beren etxeetan zabalduko dute gero hizkuntza" (Grégoire, 1792). Asmo horiei jarraikiz, Frantziar armadaren betekizun frantsestailea indartu egin zen erregimenduetan hizkuntza ezberdinetakoak elkarreganatzean, Gerrate Handiaren ondoren bereziki.

Soldadutzak, azkeneko mende-betean Euskal Herria erdaldundu eta elebiduntzeko izan zuen eraginaren tamaina ikertzeko dago oraindik; baina dagoeneko, jakin badakigu garrantzizkoa izan dena, beste arrazoien artean honena juxtu norainokoa izan den ez badakigu ere.

| IPARRALDEAN | | HEGOALDEAN | |
|-------------|--|------------|-------------------------------------|
| 1850 | Frantziako iheslarietarik erdiak, euskaldunak | 1913 | Deituatarik % 20,76 iheslari. |
| 1852-55 | 1.311 iheslari | 1914 | Deituatarik % 22,09 iheslari. |

Literatura, hizkuntza edertzen

Zilegi bekigu hemen, Literatura idatzia ezezik, ahozkoa ere gogoratzea, bietan eman bait zuen euskaldungoak fruitu hobetik. Olertian eta kontaketan, antzertian eta saiakeran, eta guztietan gai berriak ederbidez ematen aurrera egin zen Eusko Pizkundean. Gogo hau, are ohartuago ageri zaigu epe honen azken hogeitertean. Agian, Oñatiko Batzarrean jarri dezakegu bihurgune-puntu soziala.



Kanpion bezalako erdal luma euskaltzaleren bat edo beste erabat baztertu gabe, euskarazko idazle-multzoa gogoratu behar da hemen, nahiz eta, labur beharrez, prosa didaktiko-funtzionalaz deus ez aipatu. Ipar-Hegoaldeetan, poesia agertu zen emankorrena: Elizanburu edo Adema/Zaldubi-ren olermenak, onenak emanda zituen XX.aren aurretik, baina Hiriart-Urrutyren kazetari-prosak bi mendeetan banatu zuen bere zabalakundea. Eta zer esanik ez, ondoren etorri Barbier eta Oxobi bezalako olerkari eta kontalari iparraldetarrek.

Onak ziren hangoak, hala ere ugaritasunean non aukeratu zabalagoa Hegoaldeak eman zuen, molde guztitara. Bilintx-ek ez zuen ia ikusi Foruen hondamendia, baina, zorigaitzaren ondoren, Arrese Beitia-k (1841-1906), eta Iparragirrek ere oraindik, Pizkunde arduratuan ahots ongi egokituak jarri zituzten, une hartako antsia eta ezinei, eta hizkuntzaren herio-zoriari bereziki, hitza emanez.

Olerkarion ondoan, ordea, literatura politikoa ozenkiago mintzatu zen, euskaldun-
goa euskaltzaletuz eta politikoki ere kontzientziatuz. Aranaren lana oparoa izan zen, nahiz eta literarioki indartsuena erdaraz idatzia izan. Azkueren euskarazko lanek, aitzitik, hobeki ezkondu zituzten balio lite-

rarioak hizkuntz eskearen protestarekin. Kontalari bezala, bi soil-soilik ekarriko ditugu: Iparraldean Barbier (1875-1931) eta Hegoaldean Txomin Agirre (1864-1920). *Piarres*, *Garoa* edo *Kresala* mugarri berriak izan ziren euskal narratiban.

Gerraurreko belaunaldiak, batez ere olertian eskaini zizkigun literatur balio lortuenak, eta ez, noski, ausaz. Tartean hizkuntzaren salbabiderako teoria osoa bait zegoen. Ahantzi samartuta izan dugun maisu bat dago: Aita Estefania josulaguna, Orixe-ri hitzaurre bat egina, eta Lauaxeta eta "euzko-gogoatarrak" eskolatu zituena. Horrekin batera, Mokoroa/Ibar-en *Genio y Lengua* (1936) eta Aitzol-en kritika dago (egunkarietan eta *Yakintza*-n argitaratua), eta Lizardiren buru-bihotz argiak. Belaunaldi honek, bere idazketa ongi landuan, helmuga aitortu bakarra zuen: Euskararen salbamendua. Hizkuntzaren grinak eztenkaturiko lan literarioa izan zen: Hizkuntza edertu, hizkuntza salbatzeko.


Literatura onaren izen onak euskaldun-
goaren hizkuntz borondatea zuzpertz nahi zuen: Arlotea omen zen hizkuntzari, ukatu nahi izan zitzaion itzala berreskuratuz, euskaldunengan hizkuntz harrotasuna indarberritu, alegia. Antzeko zerbait gertatu zen, hitz-ikuskitzaren antzertian eta bertso-

POETAK

Orixe (1888-1961), Lizardi (1896-1933) eta Lauaxeta (1905-1937) dakartzagu hona, belaunaldi poetiko baten hiru tontor nagusi bezala. Gogora ditzagun lehenengoaren *Barne-muinetan* (1934) eta *Euskaldunak* (1935, 1950), eta, hurrenez hurren, beste bien *Biotz-begietan* (1932) eta *Bide Barriak* (1931). Hiruron obra, ondoko belaunen abiapuntu ezinbaztertua gertatu da. Olerkari hauek egindakoa, garaiko literatur kezkearekin eta mugimendu euskaltzalearekin guztiz lotuta ageri zaigu.

GENIO Y LENGUA (1936)

A. Justo Mari Mokoroak (Ibar) idatzi zuen liburua hau: Gerraurrean oso bizirik zegoen zenbait ideia literario-linguistiko azaldu zuen bertan. Hizkuntza indaberritzeko obra literarioak izan lezakeen eragina azpimarratzen zuen. Bestalde, orduan eta gero, gure euskal klasikoak birbalioztatzen lagundu zigan liburua honek.



timientos y se funden las ideas en trevida amalgama que aborta en consecuencia las aberraciones que hoy deploramos. En los naturales de las regiones que, como las del norte de Lapurdi y Sueroa, este de Nabarra, oeste de Bizcaya y sur de Alaba y Nabarra, han perdido su idioma, el carácter euskariano ha desaparecido en la mayoría, y desfallece y casi muere en los que han conservado para la sangre de su raza.

El euskara es, pues, elemento esencial de la nación *euskaldunak*; sin él, las instituciones de esta son imposibles. La desaparición del euskara causaría irremediablemente la ruina de aquella nación, que moriría como muere la hoja en otoño al ser privada por la naturaleza de la savia nutritiva, como desaparecería en nuestro globo todo rastro de existencia viviente si el sol nos negara su luz y calor civilizadores. Irrecusable es esta consecuencia, que si a tiempo no empleamos todas nuestras fuerzas por salvar nuestra patria de tan fatal desengaño, el hecho causal es inevitable. A tiempo digo, porque si esperamos a la realización de este hecho, serían inútiles cuanto esfuerzos se dirijan a contrarrestarle. Valgámonos de la higiene, por que no tengamos que servirnos de la medicina; que bajo las leyes naturales nada se crea, todo es modificación o desarrollo. Si el euskara desaparece, no crece, todo es modificación o desarrollo. Si el euskara desaparece, no crece, todo es modificación o desarrollo. Si el euskara desaparece, no crece, todo es modificación o desarrollo.

Si somos, pues, patriotas, debemos tender de ahora a la determinación precisa de nuestra historia, a la perfección del euskara, y a la propagación de una y otro por todo nuestro suelo. Que todo *euskaldunak* conozca la historia de su raza; que todo euskariano de sangre lo sepa también de idioma y pueda llamarse *euskaldunak*.

Más para llevar a feliz término el estudio de la lengua e historia euskarianas, precisa la uniformidad de ideas, la unidad y simplificación de métodos y la unificación de teorías. Hoy cada tratadista de euskara tiene su sistema especial, y no puede atenderse a un nombre fijo, porque que su sistema sea posible cuando las historias euskarianas no se constagran con más o menos interés a los estudios históricos que y filológicos, reuniéndose en sociedad, constituyan una Academia que tienda al esclarecimiento de la verdad en aquellos dos órdenes de estudios y móviles patrióticos, una Academia que en historia elimine la fábula y admita solo los hechos, demarque exactamente el fin



HIZKUNTZA NAZIONALA

Arana Goirik oso gazterik azpimarratu zuen hizkuntzaren esanahi nazionala. Donostiako *Euskal-Erria* aldizkarian agertu zen Aranaren lan hau (1886).

ritzan. Urteroko tradizio literario bat gertatu zen antzertiarena, Soroa (1848-1902) eta Toribio Altzaga-rekin (1861-1941). Benetak oihartzun soziala irabazi zien ia ezerezetik hasitako lan honek.

Bertsolaritzarena, bestelako historia da. Aspaldidanik bizirik zegoen hitz-jokoa zen hau; baina gure herri apalaren sagardotegi eta tabernetan erdi-galdua. Jakitunen eta kultur gizonen lanek atera zuten arlotemundutik, berezkoak zituen eder-balioak ezagutzeko eta gizarte-duintasuna aitortzeko. Lekuonak eman zion jite akademikoa (1918), eta Aitzolek bildu zizkion herritarren txaloea eta sari sozialak.

Era berean, mota guztietako euskal jaietan, sarritan izan zuen lekurik euskal literatur lanak. Euskararen Egunek, Olerki- eta Antzerti-Egunek herriari zuzenean aurkeztu nahi izan zizkieten Literatura berritzaile baten balioak. Eusko Ikaskuntzako FAPEk edo *Euskaltzaleak*-ek esku bizkorra erakutsi zuten Literaturari leku sozial bat zabaltzen, aipatu mugimendu herritar hau eratuz eta idazleei lagunduz (Sariekin ezezik, inoiz enkargu bidez eskatutako sorketa-lanak ordainduz ere).

Hizkuntzaren eske politikoak

Hizkuntz abertzaletasun politikoak, teoriar eta praxian, bere eskakizunak indartu ahala, alde bateko nahiz besteko Alderdiek ere birpentsatu egin behar izan zituzten hizkuntzen gizarteko oreka edo desoreka sozialak eta, berezikiago, galduz zihoan euskararen leku eta etorkizuna. Intelektual eta politikarientzat, talde kultural eta Alderdi politikoentzat gero eta argiago ageri zen, Euskal Herriko hizkuntz egoera politikoki baldintzatuta zegoela agintetik eta, etorkizuneari ere, botere politikoek nahitaez esku hartu beharko zutelako egoera hura alde batera nahiz bestera bultzatzen.

Lerro labur hauetan ezingo dugu Alderdi guztiek ibilitako bidea marraztu, baina aipa dezagun zerbait bederen euskaltzaletasunak bere proiektu politikoetan azaldu-takoa. 1918-1937etan euskal hizkuntz kontzientziaren historian formulazio politiko eta ofizialen katebegi berria jarri zen. Foruak galdu genituenetik Estatutua lortu genuen arte, Alderdi eta Erakundeetan hizkuntzari buruzko gogoeta-une eta testu asko sortu zen. Urtealdi bereziki berorik ez zen falta izan hizkuntz(ar)en politika definituz joateko: Diputazioek Gobernuari zuzenduriko Mezuan (1917) eta beronen aurreko eta berehalako Gorteetako eta parlamentu-kanpoko lanetan (1918), Gipuzkoako Diputa-

LITERATUR MAISUGOA

Eusko Pizkundearen azken hamarkadan Literaturarekiko ardura bizitu egin zen (1927an Arrasateko Euskararen Eguna eta Euskaltzaleak Elkartearen sorrera). Kanpoko literatura minorizatuen historiari aztertuz eta hemengo argitalpenen gain lan kritiko bat eginez gidatu zen berrikuntza literarioa. *Yakintza* aldizkaria premiazkoa da giro hura ezagutzeko. Bestalde, Literaturaren balioztapen berri honetan, eskolatuek ezezik, herritarrek ere parte hartu zuten urteoro herrietan ospatu ohi ziren literatur jaietan. Olerki sarituak, argitara ematen ziren gero.



EUSKALTZALEEN ELKARTZEA

Lana hobeki egin eta indar egin ahal izateko, euskaltzaleek elkartu beharra sentitu zuten gerraurrean. Euskaltzaindiak zuen betekizun akademikoaren ondoan, ezin ahanzia gertatzen zen, gazteentzat batipat, herrian ekintza bidez euskaltzaletasuna sustatu-beharra. Horretarako, Eusko Ikaskuntzaren barnean *Euskal Elkarte-Baztapa / Federación de Acción Popular Euskerista* eratu zen (1928). Elkarte honek sei talde bildu zituen: Eskualzaleen Biltzarra, Euskal-Esnalea, Jaungoiko-zale, Euskeraren Adiskideak, Euskeltzaleak eta Baraiabar taldea. Hemen ikus daiteke Elkartearen zuzendaritza: Landaburu, Barandiaran, B. Etxegarai eta A. Apraiz eserita; ezezaguna, Aitzol, Arrue, Espartza eta Anabitarte zutik.

zioak "Directorio Militar"ari bidalitako Memoriam (1923-1924), eta Errepublikar-urteetan: Eusko Ikaskuntzaren Estatutugaian eta Lizarrakoan (1931), edo hurrengo urtekoan (1932), Hiru Probintzietan plebiszituan (1933), eta azkenik onartuan (1937).

Hizkuntz abertzaletasunaren hauetako testurik helduena, eta euskaltzaletasun horretatik zuzenago datorkiguna agian, Eusko Ikaskuntzaren testu hura da (1931): "Euskara da euskaldunen hizkuntza nazionala. Ofizialtzat ezagutua izango da, gaztelaniaren baldintza beretan" (16. art.). Lizarran horrelaxe onartu zen; baina hurrengo aurreproiektuan "eusko-nafarren jatorrizko hizkuntza" bilakatzeko (1932). Hiru Probintzietan plebiszitu zen aurreproiektuan, berriro ere (1933), azken definizio-molde hau bera geratu zen (11. art.), eta Errepublikak onartu zuenak, definizioak utzita, ofizialtasunaren arazoa bakarrik aipatu zuen (1. art.): "Euskara, gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala izango da Euskal Herrian" (1936).

Estatuturako abertzaletasunak bere baitandik azaldutako jarreretatik azken ahalbidetako formuletara euskaltzaletasun abertzaletak gexalagotzat jo zitzakeen definizio posibilista hauetara lerratu zen politika, hortaz.

Hizkuntzen eztabaida politikoa

1915

Eta adierazten dut, behartu egin behar ditudala Justizi Auzitegiak, bultzatu egin behar ditudala hauek, sendotu, pentsamendu eta erabaki horretan, alegia, Espainian ez dagoela, maila ofizialean, gaztelaniaz beste hizkuntzarik.

M. de BURGOS Y MAZO

Grazia eta Justiziako Ministraria
(Senatuan Egindako hitzaldian)

1923

Maisu guztiek saiatuki eta pedagogia zainduz irakatsiko dute gaztelania, haurra Eskolan sartzen den lehen egunetik. (...) Une honetatik (hirugarren ikasturtetik) aurrera, Maisuak beti gaztelaniaz mintzatuko zaizkie haurrei.

Irakaskuntzako Zuzendaritza Orokorra
(1923-X-23ko Zirkularra)

1925

Lehen Mailako Irakaskuntzako Ikuskatzaileek, egiten dituzten bisitetan, Eskolako testuliburuak aztertuko dituzte, eta berauek gaztelaniaz idatzita ez baleude (...), haurren eskuetatik kendu eta erretirarazi egingo dituzte berehalaxe eta espedienteak irekiko diote Maisuari, enplegua eta soldata-erdia etenez eta guztiaren kontu Z.E.ri emanaz.

1925-X-13ko Erret Ordena

1932

Estatu espainolak —eta bera da botere gailena— hizkuntza bat bakarra du, espainiera, eta hau da, ezinbesteko ondorioz, juridikoki gailendu behar duena.

J. ORTEGA Y GASSET

1923

Mediku, notari, maisu, Udal-idazkari eta, oro har, euskara, eskualdeak ofizial deklaratu, nahiz lurralde osoan, nahiz honen parte batean, normal erabiltzen den eskualdean funtzio publiko bat egikaritzen duten guztiek ezagutu beharko dute hizkuntza hori ofizialkidetasuna deklaratu izan den leku haietan, beren funtzioak bete ahal izateko.

GIPUZKOAKO ALDUNDIA

(Directorio Militar-ari Memoria)

1931

Euskara da euskaldunen hizkuntza nazionala. Ofizialtzat ezagutua izango da, gaztelaniaren baldintza beretan. Euskal Herriko lurralde euskaldunetako eskoletan hizkuntza biak erabiliko dira irakaskuntzarako, horretarako autua den lurraldean kokaturiko Diputazioak finka ditzakeen arauak betez.

EUSKO IKASKUNTZA

(Eusko Estatuturako Aurreproiektua: 16 eta 17. art)

1936

Euskara, gaztelania bezala, Euskal Herriko hizkuntza ofiziala izango da, eta, ondorioz Botere autonomoek eman ditzaketen izaera orokorreko xedapen ofizialak bi hizkuntzetan idatziko dira. Estatu espainolarekiko edo honen agintarierekiko harremanetan, gaztelania izango da hizkuntza ofiziala.

Euskal Herriko Autonomi Estatutua

(1936-X-6an onartua: 1. art.)

METROAK

IBILALDIA '84
EKANAK 3 JUNO

Nafarroa Oinez

ARABA
EUSKARAZ

KANPEZU 87

ATZAK 17



AGVR

ARGIA

IXIKI TO ERDUSIA

SALAZER/ J. S. MARTIN MORILLA/
I. KINKARA ELIZEN/ S. GARCE-
DIA, S. SANTAMARIA, G. ARISTI/
J. S. ROMALLO FORSIA/ S. AN-
DREA, R. SAIARBITORIA I. P-
A/ S. KINDEGA, M. I. SERRANO/
P. ARKITU, eta beste batzuk

HADA 100 HADA


EUSKAL ELER
89

AIZU!

BOIZ-ARGI



HERRIA

ANATZAK



VII


BERROGEITAMAR URTE
(1937-1987)



GERRAURREKO EUSKALTZALEAK

Lizardi-ren heriotzondoko omenaldian (Tolosa, 1934) egindako argazki honek balio digu hemen gerraurreko gizon-emakume euskaltzaleak gogoratzeko. Antonio Garmendiaren lehendakaritzapean egin zen ospakizuna. Ezkerretik eskuinera: A.M. Labaien, E. Urkiaga "Lauaxeta", N. Ormaetxea "Orixe", Lupe Urkiola, A. Garmendia, Pilar Sansinenea, J. Ariztimuño "Aitzol", D. Ziaurritz, F. Leunda. Aitzol eta Lauaxeta frankistek afusilatu zituzten urte pare bat geroago. Gainerakoek erbestea edo barruko isilaldia pairatu zituzten, ondoko egunkarian irakur litezkeen helburu politikoen izenean (*Unidad*, 1937-III-18).

(Aurrezki Kutxa Muzizipalaren Argazki-Artxibategia)



URTE LATZ ETA EMANKORRAK

Mende-erdi honetakoa euskararen historia hiru epe nagusitan bana genezake:

- 1937-1956: Gerraondoko pertsegizio eta debekuen urteak. Lehen urteetan bati-pat, euskara mintzatua ere erasana izan zen, herri handiagoetan bereziki; eta euskaldungo eskolatuari debekatu egin zitzaion elkartu eta bilerak egitea ere. Salbuespen gutxi batzuk egon ziren, noski, urteak pasatu ahala.

- 1957-1975: Ekinkizun sozial herritarren eraketa- eta garapen-urteak dira. 1956-tik 1965erako hamarkadan bihurtu ziren zabal eta aldagarri batean aurkitu zen hizkuntza: handik aurrera gauzak ez ziren lehengoak izango. Euskaldungo aitzindariaren iratzaraldia da, hizkuntzaren inguruan, kulturen, politikan.

- 1976-1988: Hizkuntz erakunde (ber)antolamendu sozial publiko eta pribatuaren urteak dira. Euskaldungo politikoak aukera berrien aurrean bere hautapenak egiten ditu, eta oraindik ere egiten ari da.

Lehenengo bi hamarkada haietan (1937-1956) barneko ezinak eta kanpoko erbestealdia jasan zituen hizkuntza. Lotsagabeki eraso zioten odol-hustuta eta ahulduta zegoen euskaldungoari. Bien bitartean, gerraondoko lehen etorkin-olatuak iritsi zen. XIX.aren azkenetan eta XX. mendearen lehenetan izandako inmigrazioaren bigarren edizioa da hau: Bizkaia ezezik, Gipuzkoa, Nafarroa eta Araba ere etorkinen Lur Prometatuak bilakatu ziren. Euskal Herriari, berriz ere, ez zuen etorri-berriei bere hizkuntza eskaintzerik izan, gaztelania bait zen aintzakotzat hartzen zen hizkuntza bakarra.

1960ra hurbiltzean, gerra egin gabeko gazteak datoz, euskal lantegian errelebo-ndar oldartsua eskainiz. Hizkuntzaren aldeko grina, nabaria da: aldizkariak, taldeak, erakundeak, alor berriak, inbertsioak... Hizkuntza mintzatua, irakatsia, kantatua, idatzia... Astekariak, irratiak... Kultur asteak, hamabostaldiak, bertso-txapelketak, jaialdiak... Ikastola, alfabetatze-kanpainak, euskal Unibertsitateko ahaleginak... Hizkuntz batasun-proiektuak... Kanta Berria,





■ EUSKALTZAINDIAREN BATZARREA (1956)

Gerraondoko Euskaltzaindiaren jendaurreko lehenengo Batzarrea Arantzazun egin zen, gerra bukatu eta ia hogeit hamar urte geroago. Belaunaldi helduaren eta gazte estreinatu-nahiaren topalekua gertatu zen bilera hura. Aurpegi ezagunak ez da falta argazkian.

argitaletxeak, liburu- eta diska-azakoak... Euskal liburuaren eta kazetaritzaren goraldia... Guzti hauen azterketa zehatz batek liburu-bilduma osoa beteko luke. Hemen aipamen labur hutsetan geratuko gara. Bibliografia ere eman ez dezakegunez, bi aipu baliagarri eta eskuragarri eman daitezke. *Jakin* aldizkariaren azken aldiko bilduman (1977-1988) gai hauetako gehienak aurkeztu dira, eta *Euskal Herria. Errealitate eta egitasmo* obran (LKA/Jakin, 1985) gaiak, laburtuta, eta bibliografia aurki litzake irakurle kezkatuak.

Hizkuntzaren aldeko ahaleginok jende askoren indarrak metatu zituzten, eta hizkuntzen arteko (des)orekak birmoldatzeko datu sozial iraulgarriak finkatu ziren. Euskaldungoaren baitan inoiz gutxitan bezalako itxaropena ikusten zen 1975ean.

Franco-ren ondoko hamarkadak garapen, lan eta gatazka berriak ekarri ditu euskararentzat: egindakoek eta eginkizun direnek, baliabide zabalagoak dituzte. Baina askoren itxaropenak epeldu egin ziren (1975-85), eta agian lanerako grina ere bai. Euskaltzale askok, mota guztietako erakunde

eta taldetan, aterpe eramankorragoren bat bilatu du, alde aurretik ikus zitekeen lege soziologiko arriskutsu baina onuragarri eta premiazko bati jarraiki. Gertabide hau, ordea, irekita dago oraindik, eta berehalako urteak (1988-1994) erabakiorrak izango dira euskaldungoaren etorkizuna birdefinituta uzteko.

Hala ere, esan behar da, hizkuntzaren erakundeztapena, abiada biziago eta ezberdin batean sartu da komunitate politiko ezberdinetan. Egokiera historiko honetatik funtsezko hiru eginkizun aipatuko ditugu:

1. Euskaltzalegoaren eta Erakunde Publikoen arteko harreman-eraketa, gatazka guztien artean sobera atzeratzen ari zaiguna.


2. Euskal Herriko komunitate politiko ezberdinen arteko hizkuntz politikak, indarririk galdu gabe, elkarretara biltzea, haiek denak ekinbide elkar-osagarrietan abiaraziz, eta, azkenik,

3. Hizkuntzaren plangintza orokorra, seguraski datorren hamarkadatan oraindik herrialdez herrialde joango dena, plangintza bakarrean Euskal Herri osoa hartu gabe, alegia.



■ "BAI EUSKARARI" (1978)

Bilboko Santimamiñe futbol-zelaian 40.000 lagun bildu ziren euskararen aldeko "Bai Euskarari" deitu kanpainari amaiera emateko. Euskaltzaindiak babesturiko kontzientziatze-ekinaldi hark harrera sozialik onena izan zuen, honelako ekintzetan aurretik ezagutzen ziren marka guztiak onduz.



■ BURGOSen PRESO

Gerrak lurpera edo erbestera bidali zituenen ondoan, presondegitara eramandakoak gogoratu behar ditugu. Gabon-jaietako egitarau honek erakusten digunez, 1942-43etan ere bazen Burgos-koan aski euskal jende, honelako ekintza kulturalak eratzeko.

■ Gerraondoko urte luzeak (1937-1960)

Hizkuntz zapalkuntza ez zen frankismoarekin hasi; hala ere, aspaldidanikoa zena, urte haietan inolako lotsa politikorik gabe azken muturreraino eraman nahi izan zen. Bizitza publikoan ezezik, pribatuan ere bortizki eraso zitzaion euskarari: kontrolagarri ziren hizkuntzaren azalpen sozialak kupidarik gabe ito ziren (jaiak, argitalpenak, gizarteko erabilera, etab.). Euskaltzalegoari ahotsa ukatu egin zitzaion, eta sakabanatu egin zuten, honela talde sozial horren erresistentzia desagiteko. Hizkuntzarekiko programa politiko bakarra geratu zen zutik: faxismoarena. Ehundaka testu historiko dira berorren lekuko.

■ Barneko Zapalkuntza

Hizkuntzaren zapalkuntza, euskararen nolanhiko edozein ofizialtasun kentzetik hasi zen, hau da, gerra lehertu eta Bizkaia eta Gipuzkoa traidoretzat jo zituen dekretutik (1937). Estatutuak 1936an aitorturiko ofizialtasuna ukatu zitzaion hizkuntzari. Hortik aurrerako urratsak, garaile buruberoen aldarteen arabera eta ideologia nazionalista espainiarraren gidaritzapean eman ziren. Hau da, hizkuntza bat baztertu eta zigortu (euskara) eta beste bat (gaztelania) ezarri nahi izan ziren.

Politika linguistiko zapaltzaile hau lege eta jokabide zitalenez burutu nahi izan zuen frankismoak. Euskal pertsona-izenak ezabatu egin ziren ("denuncian indiscutible significación separatista", zioten: 1938), eta Sota-ren "Mendi" untiak, denak, "Monte" bilakatu ziren. Ofizialtasuna ukatu eta euskararen edozein azalpen publiko debekatu zenetik, legez egon ere ez zegoenez, aski zen aintzakotzat ez hartzea, dena gaztelaniaz egin behar izateko. Hala ere, bazeuden hizkuntz garbitasun ofizialaren kontrako hutsegiteak, legegileak zioenez, ezinaren ezinez jerdartean agertzen zirenak ("trascendiendo del ámbito parcialmente incoercible de la vida privada"). Halako kalteak omen zekartzan bizitza pribatu euskaldunari ere eraso zitzaion, batez ere lehen urteetan.

Euskararekiko mezpretxua eta gaztelaniaren ezarpen-gogoia garaiko isun eta egunkarietan ikus daiteke. Gisa honetakoak dira Donostiako *Unidad*-ek (1937-IV-15) zekarren hura: "En todos los cafés. En todos los restaurantes. En todas las tiendas. En todas las oficinas deberían colgarse carteles que digan: Si eres español, habla español". Maila ofizialago batetik, Gobernadoreek ere zabaldu zuten beren hitza eta zigorra. Gipuzkoakoak "Hablad castellano" zioen

■ EUSKALTZALEAK PRESO ETA HIL

Jose Ariztimuño "Aitzol" (1896-1936), Errepublikan urteetako euskaltzale-gidaria itsasoan harrapatu zuten frankistek. *Diario Vasco*-k (1936-urria-17) honela eman zuen gertakariaren berri.





bando bat zabaldu zuen; arrazoiak laburrak eta erabakiak zituen: "Preocupación de toda autoridad debe ser el eliminar causas que tiendan a desunir a los gobernados" idatzi zuen gaztelaniaz egiteko agintzean (1937-IV-16).

Politika honek, azpitik bere ideologia landuagoa zuen: *Nazio bakarra = Hizkuntza bakarra* binomioarena, alegia. Gaztela eta Espainia berdintzen zirenez, gaztelaniak izan behar zuen proiektu nazional espainiar horren ardatz linguistikoa. Garai bateko Nebrijaren ideia hura egunoroko praxi bilakatu zen. Inperioaren azken helburuak egiten zuen Espainiaren batasuna, eta batasun horren barne-lokarria hizkuntza bakarraren ahots bakarrean zegoen.


Idea hauek berehalako ondorenak izan zituzten Euskal Herrian. Euskaltzeleek hainbat kostata jasotako erakundeak ez zuten etorkizunik harez gero: gehienak desagertu egin ziren, batzuk negualdiko lozorro luzean isildu, denei bizitza normalerako lege-aterpea eta/edo dirua ukatu zitzaient. Alderdi politikoenek, noski, ez zuten inolako errukirik aurkitu, Erakunde ofizialen euskal instituzioak isilerazi egin zituzten...

Politika honen adibide asko dago: Eusko Ikaskuntza itota gorde zen, eta euskararen aldeko haren lanek ez zuten segidarik aurkitu. Sariketek eta herri-jaiek ez zuten kaleratzeko ez laguntzarik, ez baimenik izan. Hamar-hamabost urte igaro ziren Euskaltzaindiak, apurka-apurka, bere lanekin berri zerbaitetan hasi ahal izan zuen arte. Eta beronen aldizkaria ezin izan zen benetan argitara eman 1954-1956etararte.

Euskaltzaleak, Zabalkundea, Jaungoiko-zale eta beste editorialek ezin izan zuten deus kaleratu 1940. eta 1956. urteetan. Autore solteren batzuek, eta beti ere eliztarrek eta eliz gaiekin atara ahal izan zuten *Dotriña* edo *Bederatziurrenen* bat. Argitalpenak ez ziren hegoaldean egiten, Buenos Aires, Txileko Santiago, Baiona edo Madrilen baizik. Zabalkunde ugari bat izan zezakeen lehenengo argitalpen baimendua Arantzazuko *Egutegia* izan zen (1947), eta Aita Beraren hiztegiaren edizioa hizkuntz hedakuntzarako lehenengo obra (1948). Lekuona (1948) eta S. Mitxelenarenak (1949) lehenengo literatur argitalpenak. Zarauzko Itxaropenak, azkenik, 1949an eman zion hasiera *Kuliska Sorta*-ri.

■ KRISTAU-IKASBIDEA (1921) CRISTAU-DOTRIÑA (1941)

Gerraondoko zapalkuntzak ongi ikusi zuen, euskarari bere ortografi normalizazioa ere eragotzi egin behar zitzaioela erabakitzean. Batzuek jakinda eta besteak jakingabe, gerraurrean normalizaziorako emandako pausoak moztu egin ziren. Katalunian ere gauza bera gertatu zen Verdaguer-en edizioekin. Ikus argazkien argitalpenen ortografia eta edizio-urteak.




■ O.P.E. (1947)

Eusko Jaurilaritzaren prentsa-bulegotik zabaldu zen mundura buletin albistari hau, Euskal Herri barnean eta erbesteko euskaldunen artean sortzen ziren berriak hedatzeko. Atzerriko prentsarako ezeezik, barneko euskaltzaleentzat ere albiste-iturri irakurria izan zen. Gerora, euskal idazle berriak sortuko zituzten ikastetxe batzuetan eskuz esku pasatzen ziren orri hauek.



■ ALDIZKARI POLITIKOAK

Ameriketan argitaratu ziren aldizkari politikoak, oro har, erdaraz idatzita agertu ohi ziren; baina, eskasenean ere, euskal atalen bat izan ohi zuten. Erbesteratu sakabanatuen artean elkartasun bat sortzeko balio izan zuten, eta baita hizkuntzaren inguruko albiste jakingarriak zabaltzeko ere.



Lehen eginahal berri horiek, ordea, ezin zuten, artean, galdutakoena ordezkatu. Prentsa osoa erdara hutsez agertzen zen. Gerraurreko aldizkari euskalariak hilda zeuden: Urkixo-ren RIEV, Aitzol-en *Yakintza*, eta gure irakurle arrunten garai bateko *Argia* edo *Eguna* berdin. Baina, kultura irakurria gora-behera, hiztunen euskal bizitza bera zegoen mehatxupean, inoiz modu politikorik traketsenean eta beti ofizialtasun elebarkarraren harlosapean. Bortxaz segurtatutako egoera hartan, herrietako maisu-maistra erdaldunek, eta bestelako jende eskolatuak (apaiz, albaitero, mediku, botikari erdaldun/erdaltzaleek), indar erdalduntzaile nabaria izan zuten, inolako babes sozialik gabe geraturiko euskaldungo ahulduaren kontra.

■ Erbestealdia (1937-1950)

Eusko Jaurlaritzak ofizialki emandako berrien arabera, 150.000 lagun izan ziren Iparraldean edo Frantzian babestu ziren hegoaldeetarrak. Hiru olatualdi handitan hartu zen erbesterako bidea: Gipuzkoa galtzean (1936), Bilbo erortzean (1937) eta gerra bukatzean (1939). Baina jendetza honen zori-

gaitza ondoko II. Mundu-Gerratearekin ka-teatu zen. Lehenago joan ez zirenetako askok orduan ekin zion Ameriketarako bideari. Euskal kulturaren eta milaka euskal hiztunen egoitza berriak Ameriketako hiri handietan lekutu ziren: Txileko Santiago, Buenos Aires, Montevideo, Bogotá, Caracas, Mexiko edo New York eta beste hainbatetan sakabanatuta ageri zaizkigu erbesteratuak.

Emigrazio-aldi hartako euskal hiztunen estatistika eta ikerlan soziolinguistikorik ez daukagu, baina orduan joandakoen euskarazko lan kulturalaz zerbait esan beharra dago lerro hauetan. Buenos Aires, Caracas eta Mexiko izan ziren, El Salvador/Guatemalako taldearekin batera, emankorrenak.

Buenos Aires-en *Ekin* argitaletxearen inguruan bildu zen euskal lan hau (1940), P. Irujo eta López-Mendizabal-en eskutik. Beronen katalogo aberatsean, urriagoak badaira ere, ez da falta izan euskarazko argitalpenik. Haren hiru sailetatik bat, *Euskal Idaztiak* zeritzana, euskarazko horietzekin osatzen zen, eta beste bietan (*Biblioteca de Cultura Vasca* eta *Aberri ta Askatasuna* sailetan) hizkuntzari buruzkoak eta euskarazkoen bat ere topa liteke. Irazusta (1946-1950) eta Eizagirrenen (1948) narratiba Buenos Ai-

■ GERNIKA (1945)

Erbesteratu irten behar izan zuten euskal intelektualak, beren egoitza eta ogibidea segurtatu orduko, lehendik ziharduten buru-lanetara itzuli ziren. J.M. Barandiaran, Fagoaga, Thalamas, Pikabea edo Hernandorena bezalako saiatiuek bultzatu zituzten *Gernika*-ren gisako aldizkariak.



Obra en poder de esta Alcaldía, atta. comunicación, nº 2486, del negociado 42, del Excmo. Gobierno Civil de esta Provincia, fecha 27 de los meses de Octubre p.pido y una de cuyas partes, omeada literalmente, dice: "...se requiera a los familiares y propietarios de las tumbas o panteones donde figuran inscripciones en vascuencas, para que sean retiradas las lemas y sustituidas las citadas inscripciones por otras en castellanas..."

Y siendo V. uno de los propietarios de la tumba en la cual aparece inscripta en vascuencas en vascuencas, requiero a V. para que con la debida urgencia sea retirada dicha placa y sustituida por otra en castellana..."

Dios guarde a V. muchos años.

Guernica y Luno 2 de Noviembre 1.949.

EL ALCALDE,

res-en kaleratu zen. Bestalde, argitalpen-lan hauen ondoan, erbestealdiko kultur aldizkari baliozkoren bat gogora liteke: *Boletín del Instituto Americano de Estudios Vascos* (1950). Ia dena erdaraz idatzia izan arren, euskarari ere leku egin zitzaion argitalpen hartan.

Mexico-k eta Ertamerikak (El Salvador/Guatemala) beste moeta bateko ekarria eskaini ziguten. Ez zegoen *Ekin* bezalako argitaletzerik, baina Monzon-ek bere obra goiztarra (1945) eta Zaitegi-k (1945-46) bere lehenengoak Guatemala eta Mexico-n atera zituzten, bertako euskal lagunak tartean zirela, noski. Mexiko-ko ekinaldi hark segida handirik izan ez bazuen ere, Ertamerikak hartu zuen txanda, *Euzko-Gogoa*-ren uzta aberatsa emateko (1950-1955). Zaitegi, Orixe eta Ibinagabeitia izen ardatzak dira historia hartan (Montevideo-tik lan egiten zuen Ametzaga ahanzi gabe). Zaitegi eta Orixe Europaratu zirenean, Caracas-ek hartu zuen, neurriren batean, Guatemalaren eginkizun-herentzia. *Eman* (1967) bezalako aldizkari bat, edo M. Ugalde-ren *Itzai-leak* (1961), hiriburu hartako euskal kezken adierazgarri dira, baina azken hauek berehalako gerraondotik honago geratzen zaizkigu.

Horiek horrela, hegoaldetarren erbestealdiko lehen babeslekua Euskal Herriarberton, Iparraldean, aurkitu zuen euskal kultura idatziak. Lehenengo estualdian, noski, eta baita Mundu-Gerratearen ondoren Ameriketatik itzultzean ere. Han bertakoak ari ziren berena ematen (Lafitte, Etxepare, Iratzeder, Oxobi, Soubelet edo Xarriton); baina Iparraldetik Hegoaldera etorri zitzaigun obrarik ezagunena, eta erabiliena, Orixe-ren *Meza-bezperak* izan zen (1950). Euskal Herriarberton idatzi, baina Tours-en inprimatu zen liburu hau, urte haietako beste asko bezalatsu kanpoko imprimategi batean. Izan ere, Baionan edo Biarritzen kaleratu zirenen ondoan, asko dira, konformidadean, Tours, Tolosa, Vienne edo Lille-n editatuak.

Bukatzeko, gogora ditzagun Parise eta Madril: azken hiri honetan ikusi zuten egun-argia Azkue-ren *Euskalerrriaren Yakintza* obraren azken hiru liburukiak (1942, 1945, 1947), lehenengoaren argitaletxe berean (Espasa-Calpe).

Parisen bestelako gertakari literarioa aipatu beharko genuke: Mirande eta Peillen gazteagoaren lanak, gerora *Igela* aldizkarian ere agertuko zena (1962-1963).

THE NEW YORK TIMES, WEDNESDAY, MARCH 1, 1950.

before the Legislature at the 10-cent fare could then face the more orderly

SLAVE LABOR

the United National Social Council and a special investigation—the spread in Soviet Russia. Later the Council's to fail and the ingot under way. Now raised anew by the ion of Labor, which, representative, Miss Tomsted the Council to the International Labor establishing a fact—that would sit hear available

the separatism, the regionalism, the centrifugal forces that a dictator in Madrid must fear in the Basque country, as he does in Catalonia. Franco comes from Galicia, where separatism is also strong, but his problems now are no different than any Castilian King. Caudillo or Cortes forced to hold such a disparate country together from Madrid. The Castilian character is constructive, authoritarian, institutional, pessimistic and romantic, and his revolution takes the form of anarchist violence. The fierce, proud, conservative Basque, especially in the countryside, takes refuge in his religion and above all in his profound conviction of racial superiority. Although Catholic, conservative and anti-Socialist, the Basques fought heroically against Franco in the Civil War because the Basque Nationalist party was won over to the Republic by a statute of autonomy.

A Move to Issue of

By ANNE O. High Commission made the headline yesterday's unification of the United States, which should be to full coverage. That news is a striking success of the this issue the "Front" in the been so loud


LANGUAGE OF EUZKADI

News from Spain that the Franco Government is continuing to attack Basque nationalism would indicate that its efforts to date have not proved successful. It is hard for those who know the Basques to figure out how repression could succeed, except superficially. The latest turn of the screw concerns the order to remove inscriptions in the Basque language from tombstones and replace them with Castilian (or, as we would say, in the Spanish language).

One can leave to the philologists the endless arguments about the origins and practical values of the prehistoric Basque language. The important point for Generalissimo Franco is that a language which was dying, like Gaelic in Ireland, was revived in the Basque Provinces on a wave of nationalism. It is

■ GERNIKA/NEW YORK (1949-1950)

1937an bonbardaturiko Gernika herri ezagunak hamabi urte geroago, beste albiste-mota hau sortu zuen "New York Times" egunkarian (1950-III-1): kanposantuko euskarazko idazkunak kentzeko agindu zuen herriko alkateak, Gobernadoreak esandakoari jarraikiz. Egunkari amerikarrak editorial bat idatzi zuen gertakariari buruz.



ITZULPENAK

Euskal idazle erbesteratuek, itzulpen labor txikiagoak ezezik, beren bizileku berrietako obra maisu handien itzulpenari ere heldu zioten. Hori egin zuen J. Hernández-en *Martín Fierro* poema nazional argentinarrarekin Jakakortexarenak (1972). Ia hogeitamar urte lehenagokoa de Zaitegiren bestea: Longfellow-ren *Ebangeline* olerki-liburua (1945).

Euzko-Gogoa (1950-1960)

Erabat euskaraz eta kultur maila jaso hura mantenduz, ordurarte sekula ezagutu ez zen aldizkaririk aberatsena izan zen *Euzko-Gogoa*. Errepublikak aurretik eta Errepublikarekin kanpora irten beharrean aurkitu ziren josulagun gazteek, beren heldutasunera iristean egindako aldizkaria izan zen. *Egan* eta, gero, *Jakin* agertu ziren arte, berau izan zen erbesteko eta Euskal Herri barneko lankide euskaltzaleak bildu zituena.

Jokin Zaitegi arrasatearrak sortu zuen argitalpen hau, Guatemalan, irakaskuntzan lortutako irabaziak honetan emanaz. Bestalde, argitaratu eta zabaltzea ezezik, redakzio-lankideak inguratzea ere bere gain hartu zuen Zaitegik (Orixe, Ibinagabeitia), beretik ere hainbat itzulpen eta saiakera ematen zuen bitartean. Euskaldun-emigrazio berri-gabeko herri batetik egin zen, beraz, lehen urteetako lana, erbestean sakabanatuta zebiltzanak erakarrit eta Euskal Herrian leku erosorik ez zutenei agerpide libre hura eskainiz. Azken urteetan (1956-1960) Miarritzen kaleratu zen aldizkaria. Orotara, 44 emanaldi izan zituen eta 3.658 orrialde, bi tamaina guztiz ezberdinetan.




Euzko-Gogoa-k, euskaraz landu gabeko hainbat gai erabili zuen, baina gehienbat giza eta gizarte-zientziakoak. Literaturak leku handia izan zuen argitalpenaren orrialdeetan (% 57); gai filosofikorik ez zen falta izan (% 3,35). Gai-berrikuntza honek helburu aitortua zuen aldizkarian eta Zaitegiren baitan: Euskal Ikastetxe Nagusiari (= Unibertsitateari, alegia) bideak samurtzea.


Kolore eta eguzkialde ezberdinenetakoa izan ziren *Euzko-Gogoa*-ko lankideak: Jautarkol, Iratzeder, Kerexeta, S. Mitxelena edo N. Etxaniz bezalako apaiz-jendea, San Martín edo Etxaide-ren gisako iritsi-berriak. Batzuek oso emankorrak izan ziren, besteak pasoko usoak bakarrik. Gerraurreko oihartzunak zekartzaten Orixe, Altube edo Leizaolak; berritasunak, Mirande edo Peillenek. Guatemalan baino Miarritzen lankidego nabarragoa izan zuen, Aresti, J.M. Lekuona edo Villasante bezalako barnekoak ere erakartzean.

1949an, Guatemalatik Euskal Herrira etorri zen "Gure asmoak" zeritzan aurkezpen-orrian eta aldizkariko atarikoetan esa-

BUENOS AIREStik (1950)

Ekin argitaletxearen eta Euskal Etxearen inguruko kulturtzaleek, J. Garate eta I. Gurrutxaga bezalako gizon baliosak tartean zirela, euskal ikerlanetarako honelako aldizkariak sortu zituzten, euskaldun erbesteratuek eta euskal arazoez arduratutako jakitun atzeritarrak elkartzeko asmoz. Buletin honek zenbaki-zerrenda luzea burutu du.





■ **EUZKO-GOGOIA (Guatemala, 1950-1955)**
 Hiru gizon hauen euskaltzaleatasunak eta lanek eraman zuten aurrera Guatemalan sortu eta inprimatzen zen aldizkari hau. Jokin Zaitegi (1906-1979), erdian; N. Ormaetxea "Orixe" (1888-1961), eskuinean, eta Andima Ibinagabeitia (1906-1967), ezkerrean. Hona dakargun argazki hau Guatemalan atera zen, Orixe Europara etortzeko zenean (1954).

ten zirenetan ikus dezakegunez, dena euskaraz eta euskaraz bakarrik ematea zen argitalpenaren asmoetako bat: "Euzko-Gogoa-ko gizaldiaren auzia Euskalerrria dugu, eta auzi horren askabidea Euskera, *Euskera soilik*. *Orainarteko* gure gizaldiek ez dute guk bezela Euskalerrriko auzia azaldu (...). Ez dago besterik: gure auzia euskerak askatuko du, ez beste ezerk (...). Gizaldi eder au *Eusko-Gogoa*-ri zor zaio, gure erriaren auzi-mauzi guztiak euskeraren bitartez garbitu nai lituzkeen gizaldi berria". Honela mintzatu ohi zen Zaitegi, eta gordinago ere bai, benetan euskaltzale ez ziren abertzaleen burubideak saldukeriatzat salatuz.

Garaiko eta betiko harpidedungoaren eskasak eta irakurleen erantzunik ezak urduri jartzen zuten Zaitegi. Harpidedunak zinez urri zetozen: bospaseik ordaintzen zituen harpidetzak Mexiko eta Venezuelan (1951). Egoera azaltzeko, Tx. Irigoien-en *Bizi* obraren gorabeherak gogoratzen zituen Zaitegik. Erbestetik Euskal Herri barnera sartzea zaila zen, ez muga eta zentsuragatik bakarrik, baita euskaltzalegoaren epelkeria berotzea zaila zelako ere.


■ **AINTZINA (1942)**
 Gerraurreko Lafitte-ren *Aintzina* politikoagoaren izen buruarekin (1934) Iparraldean ere ekin zion lanari edukin kulturalagoa zuen bigarren *Aintzina* honek. Hegoaldeko tragediak eta hara bildutako errefuxiatuek ere ziztatuta, Iparraldeko kultur langileek (Xarriton, M. Legasse izan ziren batez ere gidariak) kaleratu zuten urte t'erdiko bizitza izan zuen argitalpen hau.

■ **EKIN (Buenos Aires, 1940)**
 Buenos Aires-ko Ekin izan da, ia lau hamarkadatan, euskal kulturak erbestean izan duen argitaletxerik libreena eta langileena. Pello M. Irujo nafarraren eta I. López-Mendizabal-en eskutik jaiotako etxe honek eman zuen argitara Latin Amerikan inprimatutako gerraondoko lehen liburua (*Xabiartxo*, 1943). *Irazusta*-ren *Joañixio* izan zen lehenengo elaberria (1946).

■ **SAIAKERA**
 Gerraondan, saiakkerari hasiera eman zion obra mardulago bat Salbator Mitxelenaren, "Inurritza"ren, liburu hau izan zen (1958). Gaiaren aldetik eta bere egitura formalagatik genero-berritzailea izan nahi zuen idazlan honek.



■ **PUBLIZITATEA**
 Hizkuntzaren normalizazio-kezkari jarraiek, honelako euskarazko iragarkiak ematen zituen *Euzko-Gogoa*-k Guatemalako erdal herrian.





■ **EUSKO KONTSEILU NAZIONALA (1941)**
 Irujo-ren gidaritzapean eratu zen Londres-en Kontseilu hau, Eusko Jaurlaritza eta beronen Lehendakaria, alemanengandik ihesi, desagertu beharrean aurkitu zirenean. Eusko Errepublika baterako Konstituzio-Proiektu bat idatzi zuen (1941), bertan euskara hizkuntza nazional bezala definituz. Argazkian: P. M. Bilbao, E. Larrabeitia, M. Irujo, J. A. Aguirre, A. Onaindia eta J. I. Lizaso Londres-eko Ordezkaritza-bulegoan.

(Sabino Arana Kultur Elkargoa. Artxibategia)

■ **JAURLARITZA (1937-1960)**
 J.A. Agirre-k bere urteoroko Gabon-agurretan euskararen balio nazionala beti gogoratu ohi zuen, hizkuntzaren egoera euskal politikaren ardurakizun nagusi bezala gogoratuz. Gobernu frankista salatzeaz gain, euskaldun eta euskaltzaleei eguneroko erresistentziara dei egin ohi zien.

(Sabino Arana Kultur Elkargoa. Artxibategia)



■ **EGOERAREN SALAKIZUNAK (1952)**
 1952ko maiatzean, Aita Luis Villasantek Euskaltzaindiko bere sarrera-hitzaldia eman zuen, Bizkaiko Aldundiko Jauregian. Hitzaldi horri zegokion erantzuna F. Krutwig euskaltzainak izan zuen. Erantzunak ez zuen sarrera-hitzaldiko gaiarekin zerikusi zuzenik izan: Krutwig-ek Elizaren hizkuntz politika okerra salatu zuen erantzunean, eta mintzaldiaren ondorioz erbestera joan behar izan zuen.

■ Hizkuntz erresistentzia politikoa


Eusko Jaurlaritza erbestetuaren hogeitau betetzean J.A. Agirre-k gogoratu zenez, Estatutuaren atzerpean hizkuntzaren onetan zenbait oinarri seguru jarri nahi izan ziren. Asmo horrekin sortu ziren, adibidez, Euskara-Irakasleen Kolegio Ofiziala eta Irakasle Euskaldunen Eskola, baina gerrako porrotak dena ezabatu zuen.

Hizkuntzarekiko eskakizunak behin eta berriz azaldu ziren erbesteko abertzaleen artean. Ez, gainera, beti gatazka politikorik sortu gabe. Aipa dezagun, lehenik, Londresko Eusko Kontseilu Nazionalak, aliatuen ondoan eta Euskadiri etorkizuna ireki nahirik, idatziriko Konstituziogaia (1941): Hizkuntza nazionalizat ezagutzen zen han euskara, eta euskal Estatuko hizkuntz ofizialtasuna elebidun bezala definitzen.

Agirre Lehendakariak herriari egin ohi zizkion Gabon-agurretan sarritan agertu zen euskararen arazoa: euskaltzaleetasuna, hizkuntzarekiko atxekimendua eta berorren erabilpena eskatuz (1948), euskaldungoa jasaten ari zen kalte eta zapalkuntza salatuz (1949), geure hizkuntz nortasunari eutsi beharra azpimarratuz (1950), euskara erresistentziarako lanabes bezala aurkeztuz eta hizkuntz borrokara deituz (1951), hizkuntz zapalkuntza programatua nola ari zen ger-

tatzen deskribatuz, norberak bere burua eta ingurua euskaldundu premia gogoratuz, edo apezpiku euskaldunak eskatuz (1952), etab. Ondoko agurretan ere, urteoro errepi-katu zuen euskararekiko leloa. Inoiz, UNESCOren aurrera ere eramanean zen protesta ofiziala, frankismoak emandako euskararen aurkako Lege eta Aginduak salatzeke. Bestalde, barneko Erakunde ofizialek jarrerara euskaltzaleagorik erakutsi zutenean, Agirrek pozik txalotu zituen jokabide berriak (Nafarroa eta Arabakoa zituen gogoan) (1957).

Baina, bienbitartean, frankismoa sendotu baizik ez zen egin Aliatuen onarpenerekin, eta belaunaldi berriaren urduritasuna somatzen zen politikarien harremanetan ere. Une hauetako bat izan zen Parisen, Euskal Mundu-Biltzarreko Monzon-en azalpena: Euskarari ez zitzaion politikoki aski laguntzen. Hori izan zen hizlariaren eritzia (1956). Euskal kultura mugitzen hasita zegoen, bere burua ahal izan zuen lekuetan eskolatuz. Euskal Herrian hizkuntz genozidioa goraki salatu beharra sentitzen zuten barneko euskaltzale berri beroenek: ahots horietakoa gertatu zen F. Krutwig-ena, Villasantek-ren Euskaltzaindiko sarreran Eliza ofizialaren itxuragabeko hizkuntz burubide



ITSASU (1963)

Iparraldeko bitzta politikoan, Enbata alderdiak abertzale aitortu zuen bere burua. 1960-1974. urteetan ahots entzugarrria izan zen honena hango gizartearen. Beronen programa, Itsasuko Aberri Egunean zabaldu zen (1963). Batzar hartako txostenetan hau esan zen: *Hizkuntza propioa diogunean, jatorrizko hizkuntza ulertzen dugu eta ez normalean, lekuen arabera, "patois" edo dialektoak deitu ohi dituzte aldaera lokalak. Nire ustez auzi honetan Euskara hizkuntza bizi jatorrizkoa da inongo ezpairik gabe eta etniaren funtsezko faktore gertatzen da (J. ABEBERRY).*

(Sabino Arana Kultur Elkargoa. Artxibategia)



kaltegarriari erasotzean. Horren ondorioz, hizlariak erbestera bidea hartu zuen (1952).

Irtenbide teoriko bigunagoak eta, agian, negoziagarriagoak utzita, Euskadi eta beronen askatasunari etorkizun nazional elebarkarra opa zitzaion erakunde politiko berrietako proposamen gazteetan: "Euskara, hizkuntza nazional bakarra bezala aldarrikatzea. Beronek euskaldun guztien hizkuntza bihurtu behar du. Honen lehentasuna eta ofizialtasuna erabatekoak izango dira Euskadi barnean, behin-behineko erregimen hirureledun bat ezartzeko eragozpenik gabe, gaur eguneko errealitate linguistikoak kontutan izanik" (1962).

1960. eta hamarkadan, abertzaletasunaren formulazio berrietan hizkuntzarenak beti izango du leku bat. Ezin dira ahantzi Iparraldean jaio ziren programa politiko berriak (Enbata). Hau dena bere bidea eginez joan zen, Alderdien idazlanetan, idazki programatikoetan, harik eta, diktadorea hil ondoren, Estatutugaietan eta, Konstituzioa Kongresuan onartu ostean, Estatutura iritsi zen arte. Aurrerago ikusiko da hizkuntz ofizialtasun honen definizioa.

TESTU POLITIKOAK

1941

3. Art.-Eusko hizkuntza nazionala euskara da. Eusko Estatuaren hizkuntza ofizialak euskara eta gaztelania dira, elebitasuneko erregimenean. Xedapen ofizial guztiak, baliozkotasunik izan dezaten, bi hizkuntzetan argitaratuko dira.

Eusko Kontseilu Nazionala
Londres

1949

Zabal ditzagun gure gogoia eta euskaltzaletasuna, argitu eta piztu gaztearen buru-bihotzak, lagun espetxean dauden abertzaleei, jarrai eusko zuzendarien eta Jaurlaritzaren edo Euskadiko Gobernuaren aginduak [...], izan euskaldunak hizkuntzaz eta bihotzez.

J.A. AGIRRE
Gabon Agurra

1952

Zergaitik ez da euskara Elizaren organosietan erabiltzen? Eta baldin Elizak, Wilnako dioikesian polskarrek, lithuanara iazarri nahi zutenean, apez guztiak lithuanaraz eta erruso-zuriez ikasi behar zutela erabaki ba zuen, zergaitik Euskalherria erdaldunak bidaltzen dira? Euskaldunok Elizaren paryak othe?

F. KRUTWIG
Euskaltzaina

1956

Baina begira, oraindik oso egun gutxi dela, 200 euskal idazle aurkitzen ziren Arantzazuko mendialde haietan bilduta. Nik mistika baten eskaintza egiten diot Biltzarre honi: izan dadila hau euskararen Biltzarrea; Parisen egindako Biltzarre honek gure Herrian euskara salbatu duela esaterik izan dezagula egunen batean.

T. MONZON
Euskal Mundu-Biltzarra. Paris

1959

Ez ote da gure Herria milioi batzuk baino askoz gehiago? Ez ote da gure hizkuntza, gure kultura, lantegi hau edo beste hori baino mila bider garrantzi handiagokoa? (...) Zer ote gara, abertzale ala sabeltzale?

J.A. AGIRRE
Gabon Agurra

1961


Euskarara ematen denak, ematekoak azkeneraino emanaz egin behar du lan, erantzukizun osoarekin, arinkeriarik gabe, zentzu praktikoa handienarekin, gure hizkuntzaz izan dezakeen ezagumendu osoen eta objektiboenarekin, beste herrietako fenomeno linguistikoaren berri zabala duela.

J.L. ALVAREZ
"Txillardegi"

1963


Hizkuntza propioa diogunean, jatorrizko hizkuntza ulertzen dugu eta ez normalean, lekuen arabera, "patois" edo dialektoak deitu ohi dituzten aldaera lokalak. Nire ustez, auzi honetan Euskara hizkuntza bizi jatorrizkoa da inongo ezpairik gabe eta etniaren funtsezko faktore gertatzen da.

J. ABEBERRY
Enbata-ren ponentzia



EUSKARA, ESKUALDEZ ESKUALDE

Euskaldunen portzentaien arabera



(TURPIA: Siadeco (1979)
Geak egokitua.



EZ DA HAUTSI KATEA

Orain hogeitamarren bat urte, edo 1960aren inguruan, artean ez zitzaion etorkizun onik ikusten Bertsolaritzari. Ondoko urteetan birbalioztatu egin da bertsolariaren *status* soziala, batez ere bertsogintzaren kalitatea jasoz joan den ahala. Txapelketa handiek eta Irratietako emanaldiek zabaldu egin dute bertso-zaletasuna, eta, azken buruan, Ikastolak edo Eskolak, eta Bertsolari-Eskolek batipat, segurtatu bertsolarigaien prestakuntza teknikoa.

Euskaldungoaren sormena (1961-1975)

Lehenengo gerraondoaren ostean (1937-1960), euskaldungoak gogoberrituta sentitu zuen bere burua. Gerratearen oroitzapen larrienak samurtu ziren ordurako; belaun gaztea indarrean zetorren, oroitzapen gogor edo heroikoetatik ekintza hobetara pasatzeko asmoz. Abertzale euskaltzale bakoitzak egin zezakeen ez-ohizko zerbaitekin. Ekonomiaren goraldiak ere laguntzen zuen, baliabideak bilatzen. Elkartu eta denak batera saiatzea zen bidea.

Hizkuntzaren lotsa galdu, eta harrotasunez heldu zitzaion euskalgintzari. Nabaria da hiztunen kontzientzia berritze hau. Euskaltzale helduei gazteagoak hartzen zieten sarritan aurrea. Horrek sortu zituen inoiz mesfidantzak ere, baina ekinaren ekinez aurrera egiten zen. Lanaren fruituek segurtasun eta ausartzia ezezagunak pizten zituzten euskaltzaleetan.

Kontzientzi eta gogo-argimen horiek hizkuntzaren berrantolamendu soziala ekarri zuten hainbat gizarte-eremutan: Irakasmanduan Ikastola eraiki zen, komunikabideetan irrati herritarrek lurra jan zieten erdal irratiak, hiltzera zihoazen txistulari-taldeak berpiztu egin ziren... Adibide gisa balio duten esparru horietan eta bestetan, hizkuntzaren inguruko harreman sozialak abe-

GAZTELANIA ETXEAN DENEAN

Joan den menderarteko euskararen mapetan (bizpahiru hiri handietako gaztelaniaren irlak salbu) muga-zirrinda batek bereizten zituen euskararen eta inguruko hizkuntzen arteko lurraldeak. Azken mende honetan, ordea, etorkinek eta bestelako aldakuntza sozio-demografikoez euskararen lurraldea "sareztatu" egin dute, hau da, nonahi topa litezke erdal eremuak, eta euskaldunok geurok elebidundu egin gara, gainera. Guzti horrek, etorkizunerako berreskurapen-plangintza bortitzagoak eskatuko ditu, geroa segurtatu ahal izateko.

rastu egin ziren. Bestelako aldakuntza sozialekin batera, euskararekikoak ere aldatzen ikusi genituen: mugimenduak aurrera egin ahala, arrakasta txiki edo handiagoek euskararen erakarmena areagotu egiten zuten.

Eta euskararen eremu irabazi batek ondokoari laguntzen zion, edo atzekoa erakartzeko zuten. Herri batetik bestera zabaltzen zen proiektu bat, eta, ongi kostata izanik ere, behar ziren diru eta ahaleginak bildu egiten ziren. Sarritan, norberak bereetik arriskatu.

Aurrera egin ahala, hizkuntza idatzia eginkizun berrietara moldatu beharra garbiki ikusi zen. Euskararen erabilera modernoagoak eta euskaldungo osoarengana batera iritsi nahiak hizkuntzaren batasun eginagoa eskatzen zuten. Ez zen falta, noski, honelakoetan, beste herrietan ere, sortu izan diren nahasmendu ideologikorik. Baina, normalizazio-bidean, premiazkoa den batasun estandarren iparra ez zen galdu.

Lan horri esker, aldizkari eta liburu-bildumek Euskal Herri osoan bilatu ahal izan zituzten beren harpidedunak. Euskarazko argitalpenek, geldiro-geldiro eta urtez urte, gora egin zuten: gehiago ziren liburuak, ugariagoak edizioak, askotarikoak gaiak.



■ UHIN BERRI (1969)

1960. eta hamarkada burutzean somatu ziren euskal Literaturan berrikuntzaren zantzuak. Luma gazteak literatur forma modernoagotan ari ziren saioak egiten. J. San Martín-en antologia honek aldakuntza haien zenbait lekuko jaso zuen.

■ ZIENTZI HIZKERA

Jakite-eremu bakoitzak bere hizkera-moldeak izan ditzake. Eta batzuk bestetatik guztiz aldatuak, behar bada. Hizkuntza eremu horietakoren batean erabili izan ez denean, eragozpen bereziak izan ohi ditu horrelakoak bertara egokitzeko. Egokitzapen hori teknikariek proposa lezakete, baina eskola eta komunikabideen bidez gizarteratzen dira esamolde eta termino berriak. Ahalegin honetan bide itzaropentsua egin da azkeneko mende-laurdenean.


1960tik 1970erainokoa gero hobekuntza azeleratuaren oinarriak ezarri ziren. Apal eta ahulak izanik ere, kultura idatzia- ren antolamendu soziala eratzen hasi zen, argitaletxeak, idaz-taldeak eta banakuntz kanaleak bildu eta eratu.

Hizkuntza mintzatuaren ospakizun bezala izenda ditzakegun hizkuntz iharduerek garapen berrituak eta ez-ohizkoak ezagutu zituzten: Kanta Berria jaio zen, Bertsolaritzak berriz ere plazara irten ahal izan zuen. Hizkuntzaren sorbide hauek aukera zabala- goak aurkitu zituzten, irekiz joan ziren Irra- tietan: Euskal kantari eta bertsolariak gure etxeetan ere sartu ziren, lehenengo aldiz. Eta norberak erosi ere egin zitzakeen haien lanak, eta, nola ez, abestu ere bai.

Eskolagintzak, haurrak euskaraz he- zitzeaz aparte, hizkuntzaren arazoak fami- liaraino eraman zituen: testugintza, ira- kurgai entretenigarriak, haurrari euska- razko eskola-liburueta ikasten lagundu na- hia, ikastetxearen arazo ekonomikoek ardu- ratu beharra, etab. Euskara batuaren katra- mila ere ate horretatik etxeratu zitzaion, ba- tipat, euskaldungoari. Eztabaidaz eta zer- bitzuz, ikasgelatan eta bileratan, euskal ira- kaslea, aintzakotzat hartzeko pertsonaia he- rritarra bilakatu zen, garai bateko Bikario/

■ EUSKALDUNGOA (1981-1986)

Euskal Autonomi Elkartearen egindako Erroldetan bildu ziren albiste soziolinguistikoek erakusten dutenez, gertatu dira azken urteetan aldakuntza batzuk, hizungoen baitan. Aski da bigarren grafiko hori begiratzea zerbait mugitu dela jakiteko. Gertatzen ari diren fenomeno hauen esanahia sakonagotik ulertzea zaila da oraindik, datuak xehekiago ikertzen ez diren bitartean.



- Euskaldun alfabetatua
- Euskaldun ez-alfabetatua
- Euskaldun partzialki alfabetatua
- Ia-euskaldun alfabetatua
- Ia-euskaldun ez-alfabetatua
- Ia-euskaldun pasiboa
- Erdalduna




123

5.9. SISTEMA EZ-INERTZIALAK, INERTZI INDARRAK

Zinematikaren arloan, eta konkretuki 4. gailan, edozein bi sistematik eginko behaketa zinematikoen arteko erlazioak lor- tzeri saiatu izan ginen.

Goazen orain Dinamikaren arlora, eta demagun, sistema big- tariko bat inertziala dela. Gauzak konkretatzeko, har dezagun aurreko gailu 4.4 puntuan ageri den kasurik generalena. Azen- tu gabeiko sistema, inertziala dela kontsideratuko dugu. Bes- tea -azelerazio desberdina neurtzen baitu- ez da inertziala, noski.

Lehen sisteman-Azentugabeokoa- zuzenki aplikatu ahal uka- nen dugu Newtonen bigarren legea, inertziala da eta. Hori egin- tzat joz, ikus dezagun orain, nola aplikatzen dituen Dinamika- ren legeak, sistema ez-inertzialean doan behatzaileak.



- Euskaldunak
- Ia-euskaldunak
- Erdaldunak



■ ELBIRA ZIPITRIA (1906-1982)

1960 inguruko argazki honetan, gerraondoko ikastolaren lehen atea ireki zituen Elbira Zipitria (Zumaia 1906-Donostia 1982) ikus dezakegu, bere ikasle eta haurren gurasoz inguratuta, ikastolaren mendi-egun batean.



■ IPARRALDEKO IKASTOLA (1969)

Hegoaldean bezain zaila, edo zailagoa, gertatzen ari da Iparraldean ikastola aurrera atera ahal izatea, abertzaletasun politikoak indar sozial mugatuagoa duelako, alde batetik, eta Estatu frantsesak Hexagonoko hizkuntzekin duen politika zipotzagoagatik, bestetik. Ikastola hauek Seaska erakundearen elkartuta daude: Lehen ikastola 1969an ireki zen (Arrangoitze) eta 1988an 20 dira, 825 haurrekin. Subentzio arruntik gabe dabilzala, Hegoaldearen laguntza ere behar izaten dute; 1984az gero, *Herri-Urrats* jaia izaten da Iparraldean ikastolaren aldeko urteoroko ekinaldi herritarra.

Botikari/Mediku taldearen paretsuan. Hori ere, euskarari *status* berria aitortzea edo zen.

Euskal munduaren nondik norakoak argitu nahiz, eta euskaldunen borondateak euskalgintza horretara erakartzeko, hitzaldiak, aste eta hamabostaldi kulturalak antolatu ziren hiri, herri eta herrisketan. Entzuleak, gehienetan, ez ziren sobera, baina ereindakoak eman zuen uztarik: eragile batzuek aspertzeke lan egin zuten; nekatuei, berriz, etortzen zitzairen ondotik ordezkaritxandarik.

Aldakuntzez gutxi-asko ohartuta, edo gabe, burutu zen bidea, euskal kulturaren erritmo soziala inoiz ez bezala bizkortzen zen bitartean.

■ Euskara, irakasmunduan

Gerraondoko eskolaren eta euskararen arteko harreman eta zerikusiak garbiki hiru epealdi nabari izan ditu: Gerra-biharamunetik lehenengo ikastoletaraino doana (1937-1960), Ikastolaren garapen-urteak (1961-1975), eta euskara ofizialki irakas-sistema osora eramane nahi den hirugarren

epealdia. Hiru une ezberdin hauek beren arazo propioak izan dituzte.

Lehenengo bi hamarkadetan euskarak eskolan ez zuen presentzia hitz egin behar harko litzateke. Frankismoaren legeriak espreski debekatu zuen horrelakorik: Erregimenaren lanabes ideologiko zainduenetakoak bilakatu ziren irakas-sistema eta beronen praxia. Han eta hemen "Maisu Beltza" bezala ezagutu izan zen "Eskola Nazionala" irakaslea sistema erdalduntzailearen irudi-eredu bizia gertatu zen gure euskal herrietan. Legeak ezezik, unean uneko ikuskatzaileek arretaz zaintzen zuten eskolen zeregina linguistikoki zapaltzailea. Garaiko eskolaren arduradun administratibo-politikoek, ez zuten sekula pentsatu erregimenaren ideologia zabaltzeko euskararen laguntza ere zein praktikoa gerta zekiekeen. Hortaz, euskara, berez zein ideologia garaileak ezin irentsia, eta, proiektu nazional gaztelauzalearentzat, sisteman ezin txertatua. Pentsaera hau Legeetan definituta zegoen (1970etik aurrera etorri ziren bestelako nabardura berriak), batez ere euskara, izan, bazenik ere isilduz eta gaztelaniaren irakaskuntza soila segurtatuz (1945, 1967: Lehen




■ IKASTOLAREN ERAIKUNTZA

Euskal gizartea setatsu saiatu zen ikastolaren asmo herritarra aurrera bultzatzen, urtez urteko ikastolen hazkundeak erakusten duenez. Ahalegin horren borondatea are nabariago ageri zaigu, legearen kontra edo albotik eta agintarien susmoekin ekin behar izaten bait zen. Ikastetxeen eraikuntza hauek euskaltzalegoaren diru-eraketa handiak eraman dituzte.

Irakaskuntzan; 1938, 1944: Bigarrenean), Hogeitamar urte juxtutan (1937-1967) euskarak ez zuen eskolara iristeko aukera legalik izan. Lege-aterperik gabe eta haren aurka jaio zen, ba, Ikastola.

Donostian, Elbira Zipitria andereñoaren inguruan eratu zen lehenengo ikastola (1954), eta hiru urte geroago Bilbon, J. Berrojalbiz-en gidaritzapean (1957). Haurren irakasle eta hezitzailea ezezki, irakaslegaiaren irakaslea ere izan zen Elbira. Ikastola haiek, legez akademia itxura hartu zuten hasieran: Etxebizitza arruntetan hamar-hamabi laguneko ikasle-taldeak ziren, legearekikoetatik ahal zen gisan salbatzeko; baina asmoaren arrakastak berak laster eskatu zituen irtenbide formalagoak. Arreta berezia jarri zen, beti ere, eskola-lanaren kalitatea eta izen ona zaintzen. Horri esker eta zeharbidezko irtenbideetatik lortu zen eskola-kartilarekiko legezko auziaren katramila gainditzea.


Hain apal hasita ere Ikastolak gora egin zuen 1960tik aurrera. Gipuzkoan lehenbizi (*Orix*e, 1958), Bizkaian berehala (*R. M. Azkue*, 1962/*Lauro*, 1972), Nafarroa (1964), Araba (*Olabide*, 1963) eta Iparraldean (1969) gero. Ikaslerik ez zen falta izan, baina horrek



■ EUSKAL TESTUGINTZA

Ikastolak ireki zirenean, irakasle eta ikasleak euskarazko eskola-libururik gabe aurkitu ziren, edo lehen mailatarako gerraurrean egindako gutxi batzuekin bakarrik. Hutsune hau ez da izan Ikastolaren zamarik txikienetakoa. Urte asko kostatu izan da atzerapen honi, neurriren batetan, gainera hartzea. Gaur egun ere, Irakaskuntza Ertainetako (BBB, UBI) zuloa nabaria da; hala ere, euskal kulturaren garapen erlatiboak funtsezko pausoak eman ahal izan ditu azken hamarkadetan: EIMAREN katalogo honetan (1986) ikus daiteke irakasmundurako jada euskaraz daukagun langaienezkerrenda. Gerraurreko liburu apain eta atsegin, baina apal, haietatik lan mardulagoetara pasa da euskarazko eskola-liburugintza.

IKASTOLA IRAKASKUNTZ SISTEMAN
1985-1986



IRAKASKUNTZ SISTEMAREN BANAKETA
(1985-1986)

Aukeratu dugun ikasturte horretan, honela banatzen ziren Euskal Autonomi Elkarteko ikasle-kopuruak, Herri-ikastetxe, Eskola Pribatu eta Ikastolaren artean: Herrialdeetako eta Autonomi Elkarteko osoko datuak ematen ditugu.

berak zekartzan arazo berriak. Aipa ditza-gun hauetako hiruzpalau nagusi: Etxe berriak eratu edo jaso-beharra; irakaslegaien prestakuntza eta tituluak; testugintza egoki baten premia, eta, une batean, hori dena gaztaka-leku bihurtu zuen eztabaida ideologiko, politiko eta pedagogikoa. 1970aren inguruko urteak biziki ozpinduak gertatu ziren; baina, era batera nahiz bestera, egon ziren etenak eta guzti, Ikastolak aurrera egin zuten: 1958an legezko ezerezetik hasitako Ikastolak 80.000tara hurbiltzen zen ikasle-kopurua bildu zuen 1986an.

Herrialdeka, Gipuzkoak lortu du, irakas-sistema osoaren barruan, ikastola-ikasleen kopuru-portzentaiarik altuena: % 24,3 (1985-1986); Bizkaia eta Araba askoz portzentaia apalagoekin ageri dira (% 5,7 eta % 7,7 hurrenez hurren, urte berean), eta Nafarroa % 9,40ra heldu da 1988-1989. ikasturtean. Portzentaia hauek erakusten digutenez, ikaslegoaren parterik nagusia, alde handiarekin gainera, Ikastola-saretik kanpo eskolatzen da: hau da, Hiru Probintzietan % 87,2 dago Pribatuan edo Estatalean eskolatua (1985-1986), eta % 90,59 Nafarroan (OHO+Eskolaurtean: 1988-1989). Beraz, euskara Irakas-sistema osoaz baliatuz indartu nahi bada, Irakaskuntza Pribatu-Esta-


taletara nahitaez eraman behar da hizkuntza. Hori da, hain zuzen, hizkuntz ofizialtasunaren ondorioz egin nahi dena.

Euskadiko Komunitate Autonomoak hiru hizkuntz eredu sortu ditu, Legeek ematen dituzten ahalbideak probetxatuz euskara eskola guztietara eramateko. Euskalduntasun osoenetik eskasenera, honela mailakatzen dira hiru ereduak: *D eredu*an, irakaskuntza euskaraz ematen da, eta espainierazko hizkuntz klaseak gehitzen zaizkio; *B eredu*an, ostera, irakaskuntza bi hizkuntzetan erdibanatzen da; eta *A eredu*an, azkenik, erdarazkoa da irakaskuntza eta euskara-klaseak ematen dira. Bestalde, desagertuz doan *X eredu*a euskararik gabeko irakaskuntza da.

Azken ikasturtean (1987-1988: matrikulurreko datuen arabera, EKA), eredu portzentaia hauek izan dira: B/D ereduak %25,99 ikasle biltzen dute, A ereduak %73,17 duen bitartean. X eredu kasik erabat desagertu da: % 0,83. Ondoko grafikoe-tan ikus litezke eskolako (publiko, pribatu eta ikastolako) hizkuntz eredu ezberdin hauen portzentaia eta berauen urtez urteko bilakaera (1979-1988): Bilakabide guzti honen balorazio pedagogiko eta soziolinguistikoa egiteke dago oraindik (1989), eta emai-

IRAKASTEREDU ELEBIDUNA (EKA. 1986-1987)

Publikoa + Pribatua + Ikastola



- X ereduak, murrizta izateaz gain, bere pisurik handiena irakaskuntza ertainetan du. Elebitasuna ezarri gero, berezkoa zen hori.
- B, D eta A-ren artean gradiente esanahitsua daukagu: haiek gora doaz; hau, behera.
- Hazkunderik handiena, B-rena da.
- Dena den, A ereduak du ikasle-pertzentaiarik handiena.


■ IKASTOLAK (1960-1986)

Ikastolaren errealitatea fenomeno sozio-historiko interesgarria da, zalantzarik gabe. Hemen bi grafiko hauetan beraren garapen-historiaren datu nagusiak bildu ditugu, Euskal Herria bere osoan eta herrialdeka hartuz, eta ikastetxeen eta ikaslegoaren estatistikak gogoan ditugula.


IKASTOLAK

IKASTETXE ETA IKASLEAK
HERRIALDEKA (1960-1986)


Beharakada honek ikastola batzuen legezko egoera aibatzea adierazten du bakarrik: Herri-eskola bihurtu dira.



IKASTETXE PUBLIKOAK (ESKOLAURREA + OHO)
HIZKUNTZ EREDUETAKO IKASLE-BANAKETA



IKASTETXE PRIBATUAK (ESKOLAURREA + OHO)
HIZKUNTZ EREDUETAKO IKASLE-BANAKETA



"A" Eredua: Irakaskuntza erdaraz + euskara-klaseak.

"B" Eredua: Irakaskuntza, bi hizkuntzetan erdibana.

"D" Eredua: Irakaskuntza euskaraz + espainierazko hizkuntz klaseak.

"X" Eredua: Euskararik gabeko irakaskuntza (desagertzera doan eredu).

■ ESKOLETAKO HIZKUNTZ EREDUAK

Hizkuntz ereduaren definizioa ondoko testu korrituan aurki dezake irakurleak. Hori jakinki, lehen grafikoan ikus daitezke Hiru Probintzietako hizkuntz eredu bakoitzaren eboluzioa eta unean uneko eta elkarren arteko balio erlatiboak, Ikastetxe Publikoetan lehenik (1979-1988). Bigarren grafikoan, berriz, irakas-sistema osoa hartzen da (Publikoa + Pribatua + Ikastola), eta une honetako datuak ematen (1986-1987).


tzen balioa ondoko urteetan ezagutu ahal izango da.

Nafarroan ere hizkuntz eredu ezberdinak sortu dira (1988-maiatza-19), Eskolaurre, OHO, BBB, UBI, eta LHtarako. Euskararen irakaskuntza obligaziozkoa da eskualde euskaldunean, eta euskarazkoa, berriz, borondatezkoa, eta ezberdinki araututa dago alde aurretik mugarrizaturik dauden hiru hizkuntz barrutietan (euskalduna/mistoa/erdalduna). Euskalduntzat emandako barrutian bi eredu daude: *B ereduak* irakaskuntza euskaraz du eta gaztelania ikasgai bezala ematen da ikasturte eta maila guztietan, eta tresna bezala erabiliko da asignatura bat edo bitan; *D eredu*an, ostera, dena euskaraz emango da, ikasturte eta ziklo guztietan, gaztelaniaren beraren ikasgaia ezik. Bi eredu hauek, eskualde mistoan ere aplikagarriak dira, guraso edo haurrek eskatuta Administrazioak hala erabakiko duen kasuetan (euskararen irakaskuntza ez da izango obligaziozkoa, borondatezkoa baizik). Herri-Eskola eta Ikastoletan hauek dira datuak (1988-89): Eskolaurrean eta OHOean

10.243 ikasle daude B/D ereduetan, eta 823 BBB eta UBIn D eredu. Eskualde erdal-dunerako, aitzitik, Legeak ez du aipatzen euskaraz eman litekeen irakaskuntzarik, eta euskara borondatezko ikasgai bezala emateaz dihardu soilik. Nafarroan, hortaz, ereduak eta hizkuntz eskualdeak gurutzatuz egituratu da irakaskuntza.


Horiek horrela, Nafarroan eta Euskal Autonomi Elkartearen, OHOetik gorako irakas-mailatan (Irakaskuntza Ertainetan eta Unibertsitatean, alegia) euskararen presentzia askoz murriztagoa da, edo baliabide eskasagoekin dabil hizkuntza (testugintza eta ikasmaterial baliagarriak urriagoak dira, adibidez, BBB eta UBIn). Unibertsiterako bideak biziki aldapa pikoa du. Hizkuntzaren egokitzapena, alde batetik, eta goimailako hizkuntz gaitasun pertsonalak, bestetik, bizpahiru frontetan ari da euskaltzalegoa on-tzen: UEUren, Elhuyar edo UZEI bezalako unibertsital talde eta mugimenduetan, Unibertsitate pribatuko mintegi eta ikasleku-

IKASKETA OSOA EUSKARAZ EGITEKO AHALBIDEAK



UNIBERTSITATEA (1987)

Unibertsitatearen munduan ere sartu da euskara; horretarako ez dute gutxi lagundu Unibertsitate-kanpoko eta aurreko lanek. Euskal Herriko Unibertsitatea da, oraingoz, euskarari lekurik zabalena eman diona; baina erakunde hori funtsean batez ere erdalduna da gaur egun. Ikasle eta irakasle euskaltzaleei esker, eta klausuroak onartu dituen erabakien arabera, zenbait euskal adarretan eta mailatan irakaskuntza euskaraz ere ematen da. Grafikoan ikus litezke portzentaiak. (Iturria: Euskaldun ikasle-talde bat, 1987).



tan, eta Estatuko Unibertsitatera bildu diren irakasle-ikasleen multzo mugatuetan. Euskal Herriko Unibertsitateak, oro har, bere osoan gaztelaniaz egiten du bizitza, baina badu euskaraz arduratzeko Erretoreordetza bat eta zenbait ikas-hegaletako behemaitan euskarazko adarrik. Ondoko grafikoan ikus liteke adar hauen zerrenda eta hedapena. EHUtik kanpoko Unibertsitateetako egoera besterik da.

HERRIA
 1944-1945
LEHEN AGURRA
Gure laguntzailer!
Résistance

ANAITASUNA
 N.º 1
 "ANAITASUNA" de Oñate
 Junio 1953
GURE ASMOAK
BRANZAZO

GOIZ-ARGI
 SUPLEMENTO AGRICOLA DE "ANAITASUNA"
 N.º 1 - Hezta la Oñate - 1953
BASERRITARRI
BRANZAZO

AGVR
 U R I
ITXAROPENAK ETA KEZKAK

ZERUKO ARGIA
TXINA TA ERRUSIA
 ALKARREN BILDUR?
DIOSALA
LAZTAI
NERE PAMA FUTBOLAKIN ITO BEAR AL DIAT?

EUSKARAZKO PRENTSA
 Berrogei urte hauetan Euskal Herriko Prentsa idatzia gehienbat erdarazkoa izan da; baina asteroako Prentsa bat ere izan dugu euskaraz. Hemen horietako batzuk gogoratzen ditugu. Beren historia eta zabalkunde handiengatik, azpimarra ditzagun Baiona-ko *Herria* (1944) Iparraldean, eta Donostiako *Zeruko Argia* (1963) Hegoaldean (*Argia* soilik, 1988tik aurrera). Frankismoaren azken hamabost urteetan euskaldungoaren ahotsa eta eskola izan ziren aldizkariok.

Euskara, komunikabideetan
 Ondotxo dakigunez, Euskal Herriko komunikabideen historia eta euskarazkoena ez da historia bat bera. Parterik handienean elkarri kontrajarrita bizi izan diren erdal eta euskal munduak izan dira (1937-1975). Hemen, noski, euskara komunikabideetara nola iritsi izan den interesatzen zaigu lehenik, baina baita gerraondoko hamarkada osotan nola eta zergatik iritsi ez zen ere: Euskal Herriko komunikabideak ofizialki erdal-dun hutsak ziren, eta txokoren bateko salbuespentxoek ere hori azpimarratzen zuten.

Frankismoaren garaipen armatuak goitik behera itzulipurdikatu zuen Euskal Herriko komunikabide informatiboen egoera: hamalau egunkari desagertu ziren Hegoaldeko lau hiriburuetan, eta hamarrek segi zuten irtetan. Bestalde, erregimen garailearen eskutik, berriak ere sortu ziren: Donostian bi, Bilbon beste bi. Euskarak ez zuen tokirik egunkari haietan. Zentsura hertsu batek lotzen zuen arazoa, edo, zentsurarik gabe ere, ongi erabakita zegoen.

Euskal ortografiarik edo pertsona-izenik ez zen onartzen; egunkariaren batean, euskarazko eskelarik jartzekotan erdarazkoa ere ordaindu beharra zegoen. 1962rarte ez zen euskarazko artikulurik ametitu egunkarie-

tan: *Diario Vasco*-k Ordiziako ferriako prezioak lehenengoz eman zituen arte (1962); hurrena, *Diario de Navarra*-k hasi zuen euskal orrialde bat (1966: "Nafar izkuntzan lankidetzari Basarri-k, *La Voz de España*-n.

1969n *Diario* donostiarrak hasitako orrialdea, egunkariak ez, baizik euskaltzaileek finantzatutakoa zen. Data horietatik aurrera, han-hemenka agertu ziren beste zenbait egunkaritan horrelako euskal txoko mugatuak. Bestalde, orri berezi hauetako idazleak ez ziren kazetariak izaten, eta ez da harritzekoa: 1976an egindako inkesta baten arabera, egunkarietako zuzendarietarik batek ere ez zekien euskararik, eta berorietako 178 kazetarietarik zazpi bakarrik ulertu eta hitz egiten zuen euskaraz.

Basamortu horren ondoan, eta euskarazko egunkaririk ezean, euskal Prentsa idatzia astekarietan egiten zen. Iparraldeko *Herria*-n (1944), Donostiako *Zeruko Argia* berriuan (1963), Bilbo-ko *Anaitasuna* hama-bosterokoan (1967) eta *Agur* astekaritan (1972), eta Donostiako *Goiz-Argi* asterokoan (1974). Hauek izan ziren euskal kazetarien eskola-lantegiak. Frankismoan agertu ziren, *Egin* eta *Deia*-n batez ere, euskarari

ERAGOZPEN ADMINISTRATIBOAK

Komunikabideetako erdararen monopolio legal eta praktikoa haustea ez da batere samurra izan. Irratien fronte berria zerbait irabazteko eragozpen administratibo zitalak gainditu behar izan dira. Hona hemen, adibidez, Loiolako Herri Irratiaren aurkako salakizunak: Euskarari ezarritako gai-eremua ez zutela gorde-eta, zenbait kanta debekatu eman zutelako zigorrak ez zen falta izan.


egunoroko espazioren bat eskainiko zioten egunkariak, eta ia hamar urte geroago datoz horien eta besteen asteroko "egunkariak" edo orri berezituak: *Hemen* (1986), *Eguna* (1986), *Zabalik* (1986). *Argia* da, bestalde, bere bideari eutsiz, zabalkunderik hedatuena duena. Pausoz pauso, euskal irakurle-goak eta kazetaritza idatziak aurrera egin ahala, lortutakotik harago dauzkagun helmugatara hurbilduz egiten ari da, eremu honetan ere, hizkuntzaren normalizazioa.

Prensa idatziaren ondoan, Irratia. Euskal Herriko Irratiak ere erdaldunak ziren guztiz gerraondoan: SERekoak, Radio Nazional-ak eta Radio Cadena Española. 1950.etan hautsiko da monopolio linguistiko hori. Lehen urratsa, Irrati zaharretan nekazarietzako emanaldiak, ospakizun erlijiosoak edo herri-kirolak izan ziren.

Laster, Elizaren babespean sortutako Irrati herritarrek aldatu zuten panorama: Segura (1956), Tolosa, Loiola, Arrasate edo Arrate-k (1959), adibidez, Gipuzkoan; Barakaldo-k, Bizkaian; Beruete edo Irurita-k Nafarroan. 1956-1958. etako urteak dira. Parroki Irratiak ziren gehienbat, eta euskarak berehala izan zuen haien emanaldietan leku erosorik. Loiola izan zen programa osoak euskaraz ematen hasi zena (1961): indartsu

zetorrenari Fragak moztu zion, behingoz bederen, bidea (1964-1966). Aldi beretsuan, Irrati txiki gehienak isildu beharra izan zuten, 1964eko Legearen harlosapean; besteak, frekuentziak aldatu eta baldintza txarretan eraman behar izan zuten beren lana. Hizkuntzarekiko mugapen administratiboak gogorrak izan ziren. Loiolako Herri Irratiari euskara erabiltzea debekatu egin zitzaion, lehenengo batean (1964-X-22), eta ondoko negoziazioen ostean, ogi-apurrak eman zitzaizkion: asteroko programa batean eta beste bi erlijiosotan erabil zitekeen bakarrik euskara. Publizitaterik ezin zitekeen euskaraz egin. Baina, erabaki administratiboan aurka, bizitzak irabazi zuen, azken buruan. Euskal Irratiaren heldutasunaren mugarri ezaguna, 1976ko martxoaren 27ko "24 Orduak Euskaraz" hura izan zen.

Hiru Probintzien Autonomia eratu ondoren (1979), Eusko Jaurilaritzak EITB sortu du (1982), eta berorren barruan Euskadi Irratia (1982) eta Euskal Telebista (1982) dauzkagu. Erakunde berrietako euskararen presentzia honela deskriba daiteke: Euskal Telebistak, bere lehen katean 3.888 ordu dauzka programatuta euskaraz 1989an (ETB-2k, 1.829: hauetatik 118 izango dira euskaraz). ETBk ustiapenerako dituen



ARGIA

EGUNA

ZABALIK

hemen

Bihar eguerdiz ehortziko dute
Balendin Enbeita bertsoalaria

■ ASTEKARI BERRIAK

Azken urte hauetan, egunen batean nahiko litzakeen euskal egunkariari bidea egiteko, astekari berriak jaio dira, osorik euskaraz argitaratuak. Egunkarien jite berarekin pentsatuak izan nahi dute hauek. Honelakoen ondoan erdal egunkarietan euskaraz atera ohi diren asteoroko orrialde berezituak daude, hezkuntzaz edo beste edozein gaiz ari direnak. *Eguna*, *Hemen* eta *Zabalik*, hirurak 1986an jaioak dira.

6.400 milioietatik, 3.900 emango ditu ETB-lean. Donostiako Euskadi Irratiak egunero 24 orduetan euskaraz zabaltzen ditu bere emanaldiak, Bilbokoa ia osorik erdaraz ari den bitartean (aurrekontuko 740 milioiak (1989) erdibana edo banatzen dituzte Donostiak eta Bilbok).

Iparraldean ere jaio dira Irratiak: Milafrankako "Gure Irratia" (1981), "Irulegiko Irratia" (1982) eta "Xuberoko Boza" (1982), osorik edo gehienik euskaraz. Azkenik ez da ahantzi behar, 1988an, tokiko 47 Irrati libre edo ari direla Euskal Herrian beren saioak ematen, eta hauetako gehienetan euskarak baduela lekuren bat.

Urtez urte euskaldungoak fronte berri hobeak ireki dizkio euskarari. Lortutakoa begi-bistan dago; baina Euskal Herriko komunikabide entzun-ikusiak batez ere gehienik erdaldunak dira, Prentsa idatzian bezala Irrati eta Telebistetan. Madril edo Parisetik daudenetan, euskarak apenas duen lekurik: apaingarri bitxi bat bezala hartu izan da gure hizkuntza. Hemen bertotik ditugunetan, oster, arazorik franko dago euskara segurtatu, eta itxuroski emateko, nahiz eta behin baino gehiagotan duintasun ederrik ere lortu den.

Oro har, Autonomiarekin aukera baliagarriak sortu dira, kazetaritza idatzian bezala mintzatu ere; baina oraindik ere ez da jardetsi etorkizunerako nahi genukeen normalizazioa ongi definitu eta egikaritzea. Berehalako urteak bidegurutzte erabakiorra izango dira komunikabideen munduan.

■ Idazlegoa eta argitalpenak

Euskaldungoaren eta euskal gizartearen egoerak baldintzatuta eta inguru politikoak estututa, euskarazko liburuek garapen oso geldia izan zuten gerraondoko lehenengo hamarkadetan. Urteren batzuetan deus ez argitaratzetik (1938-1939), 1960rarte hogeitamar argitalpenetara ez zen iritsi urteoroko kopurua. Gaiak, berriz, biziki eliztarrak izan ziren gehienetan. 1950etik aurrera izan zuen toki hoberik literatur lanak. Zarauzko Itxaropena argialetxea izan zen edizio-lana segida iraunkorrenarekin aurrera bultzatu zuena. Inoiz, argitalpen batzuk oihartzun bi-ziagoa izan zuten arrazoiren bat edo besterengatik: Orixe-ren *Euskaldunak* urte asko




■ EGAN (1948. 1954)

Gipuzkoako Aldundiaren laguntzaz eta Euskal Herriaren Adiskideen Buletinaren euskal eranskin bezala argitara emandako kultur aldizkari hau, garrantzikoa izan zen, 1954-1965. urteetan batez ere. Zuen presentaera txukunagatik eta eskaintzen zituen gai egunekoagoengatik, leku gogoangarria izan zuen. Antonio Arrue, Aingeru Irigarai eta Koldo Mitxelena izan ziren beronen gidariak. Azken honen kazetari- edo dibulgatzaile-lana *Egan*-en orrialdeetan agertu zen. 1960. haietatik hona, gorabehera ezberdineko bidea izan du; baina badirudi, oraindik ere, euskal Letra Ederren mesedetan, agian plaza ona izan litekeela idazlegoa biltzeko.


tan itxarondako obra izan zen (1950); irakurlez eta irakur-denboraz presentzia handikoak izan ziren *Meza-Bezperak* (1950) eta *Arantzazuko Egutegia* (1947); Onaindiaren *Milla Euskal Olerki Eder* (1954) euskal Literaturaren agerpen ederrena izan zen batez ere belau gaztearentzat, edo Etxaideren *Joanak Joan* "ausarta" gertatu zen (1955).

1960tik aurrera, hurrengo hamarkadaren barruan, pixkaka-pixkaka, baina indarrik galdu gabe, liburugintza honek gorantz egin zuen. Hamar urteren buruan, bikoiztu egin zen argitalpen-kopurua, urteko hirurogeitamarretik gora izateraino. Ondoko hamabost urtetan, hala ere, are ugariagoa izan da euskal liburugintza. Zalantzarik gabe, hizkuntzaren ofizialtasunak ekarri duen euskarazko liburuaren eske sozialak garapen-prozesua indarrez lagun du: 154 edizio 1975ean; 209, 1980an; 606, 1987an (88.000 orrialde); 774, 1988an. Urte honetako liburuetan irakaskuntzari, literaturari eta euskarari zegozkienak izan dira nagusi: 135, 126 eta 75 argitalpen hurrenez hurren. Argitaleen artean, *Elkar* eta *Erein* izan ziren (1987), zenbaki hutsei begiratzen badiugu, alde handiarekin lehenengoak: hura 200 obrataraz hurbilduz, eta bigarrena, 60tik gora argitalpenekin.



■ GURE IZARRA (1950-1974) JAKIN (1956-1968. 1977-1988)

Sekula kaleratu ez zen aldizkaria da *Gure Izarra* (Olite-Herriberriko ikasle frantziskotarren etxe-barnekoa); alde handiarekin, Seminarioetako aldizkarietarik emankorrena gertatu zen: hogeitabost urtetan, 306 sinadura ezberdin bildu zituen eta 6.175 orrialde idatzi eman. Luma gazteen lehen probalekuak ziren etxe-barruko aldizkari hauek. *Jakin* aldizkaria *Gure Izarra*-ren iturburu hartatik jaio




zen, ikasle euskaltzaleok beste eliz ikastetxe eta herritar euskaltzaleekin harremanetan jartzean: Euskaltzaindiaren gerraondoko lehen Batzarrekoan, hain zuzen (*Arantzazu*, 1956). 1968an debekatua izan bazen ere, elkar-lanean egindako liburuekin jarraitu zen, harik eta 1977an berriro aldizkari bezala agertu zen arte. Euskarazko kultur aldizkari zabalduena da gaur egun.



■ Patxi UNTZURRUNTZAGA (1906-1984)

Aita Santi ONAINDIA (1909)

Gerraondoko argitara-bideak malkartsuak izan ziren, oztopo administratiboengatik lehenengo eta euskal edizioen zabalkunde kaskarragatik gero. Patxi Untzurruntzagak bere Zarauzko Itzaropena inprimategi/argitaletxetik, eta Aita Santiago Onaindia karmeldarrak Larreatik (Bizkaia), adibidez, egiteko ederra burutu zuten: besteak beste, "Kuliska Sorta" edo *Milla Euskal Olerki Eder* (1954) argitalpen giltzarriak izan ziren 1960 aurreko basamortuan.



Liburuak liburu, idazlea izan ohi da, mai-zenik, liburuen lehenengo gurasoa. Beraz, ofizioko edo desofizioko gizon-emakume hauek Euskal Herrian nola sortu izan diren jakiteak ere interesik izan dezake. Hizkuntza idatziaren ofizio hori ikastea zaila izaten da hizkuntza minorizatueta, zeren horrelako gizarteetan hizkuntzari dagokion eskola ukatu egiten bait zaie herritarrei. 1950etik aurrera, Seminarioetan ikasi ahal izan zen idazten, eta gutxi-asko ikastetxe haietan eskolaturiko gazteriak eman zien luzapena 1960-1975. etako euskal liburugintza eta kazetaritzari. Uhin berri haren ondokoak, eskola-modu ezberdinaoetakoak izan dira, eta batez ere Ikastolatik irtenak.

Azken hiru hamarkadetako idazlearen erretratu estandarra eman nahi izan denean, honela deskribatu zuen (1976) Torrealdai-k euskal idazlea: Euskal idazleak, bere burua hizkuntza eta herri minorizatu baten zerbitzari bezala ikusi edo aitortu izan du, eta gizarteko parte eragile bezala; ez da aparteko elitismo batean erori, ez da "bohemia" bat izan; jakin du beti ere gutiengo txiki bat zuela bere irakurlegoa, baina gutiengo hori

ez zen batere elitista, oso herritarra baizik; proiektu literario luzetan baino presako zeregin labur funtzionaletan ibili ohi da sarriago; jatorriz, gizarte apalekoa da; ez du liburutegi handirik (1976an, 300en bat euskal liburutatik beherako biblioteka zuen, erdal liburutan hori bikoiztu edo hirukoizten bazen ere); urteak pasatu ahala, geroz eta gehiago dira, idazleetarik, goi-ikasketa unibertsitariak dituztenak (Seminarioetako emankortasun hura 1970-aren aurretik agortu zen). Azken urteotan, ba, badirudi nahikoa aldatzen ari dela erretratu eredu hura.

Idazketa-lana, 1960-1980. etan, batez ere aldizkarietan egin zen, astekari albistarietan edo kultur aldizkarietan. Idazle-profesionaltasunik ez zegoenez, arnasaldi laburreko lanak ziren eginkorrak; liburu-idazketa oso laun gutxiren helmuga izan ohi zen. Geroztik, liburugintzara hurbildu diren idazleek, ogibide profesional eta kultur eske sozialki finkatuagoetatik datozenez (kazetari, irakasle, argitaldari, etab.), iraupen handiagoko lanetan sartzerik izan dute. Euskal idazleek, orain, lehen baino ere, liburu

ALDIZKARIAK, IDAZLE-ESKOLA

| ALDIZKARIAK | Ikasleak | Idazleak | % Idazle |
|----------------------------|--------------|------------|--------------|
| <i>Gure Izarra</i> (Olite) | 1.235 | 306 | 24,77 |
| <i>Laiaketan</i> (Urretxu) | 340 | 54 | 15,88 |
| <i>Arnas</i> (Areatza) | 260 | 53 | 20,38 |
| <i>Gogoz</i> (Begoña) | 224 | 41 | 18,30 |
| GUZTIRA | 2.059 | 454 | 22,04 |

ITURRIA: [Iztueta, P.] (1981): "Eliz ikastetxeetako aldizkariak", in: *Jakin* 21: 59. or.


SEMINARIOETAKO IDAZLEGOA (1950-1976)

Elizaren barne-ikastetxeetako aldizkarietan gazte ainitzek izan zuen lehen idatz-saioak egiteko aukerarik. Gerora guztiz garrantzizkoa gertatu zen hori, etxe haietatik ikasleok herri-euskalgintzara barreiatu zirenean. Laukian zenbait datu jakingarri.

funtzionalagoak eta "praktikoak" idazten ditu, eta bikoiztasun, itxuraz kontrajarria, baina elkar-osagarria soma dezakegu: Letra ederretako liburuak inoiz baino ugariagoak dira (esan bezala, 126 argitalpen 1988an), baina portzentaietan % 16a bakarrik betetzen zuen urte berean (1976an, ostera, % 23,15, eta 1960-1975.etan % 41,50). Hala ere, esan beharra dago, portzentaia baxuago horiek normalagoak direla, gure kultura haziz doan heinean. Horrela, ba, Literaturaz kanpoko beharizan sozialetara irauliago ageri da, azken buruan, euskal liburugintza.

LIBURUGINTZAREN GORALDIA (1937-1988)

Gizarteko aldarte sozio-kultural-politikoek guztiz baldintzatu ohi dute liburugintza, eta herri minorizatueta errazkiago nabaritu ohi dira inguruaren baldintzamendu horiek. Gurea ere halaxe da: hamar-hamahiru urtetako lehortearen ondoren, 1950etik aurrera mugitu zen zerbait euskal liburugintza, eta 1970az geroko goraldia nabarmena da. Ez dakigu, oraindik, prozesu horrek goia jo samarturik duen ala ez.






LITERATUR ALDIZKARIAK

Iparraldean bezala Hegoaldean, joera ideologiko edo formal ezberdinekin, idazleen sormen literarioak aldizkarietan bilatu izan du gizarterako irtenbiderik erosoena. Argitalpen hauen alderik ahulenetako bat beren merkatu hertsiaarena izan ohi da, eta, horregatik nahiz bestegiatik, beren iraupenarena. Inguruko talde eragilearen segida aldakorrek ere badu, sarritan, zerikusirik aldizkariaren bizitza laburrarekin.

OLERTI (1959)

Aita S. Onaindiak gidaturiko literatur aldizkaria. Gerraurreko olertiaren arrastoan zetorren tradizioa jaso zuen batez ere, baina baita autore berrien lanak ere. Beronen inguruan, Olerki-Sariketak ere eratu ziren Larrean (Bizkaian), eta, horrela, urteoroko euskaltzale-talde baten topalekua izan da Onaindiaren inguruko hau.



Euskarazko aldizkariak


Hogeigarren mendean, osorik edo partez euskaraz kaleratu diren aldizkariak 1.500etik gora izan dira, UZEIk bildu duen katalogoaren arabera. Aldizkari hauetan, edukinez eta hizkuntza trataeraz oso ezberdinak direnak ditugu. Hemen gutxi batzuk gogora litezke, batez ere gaien erabilpen-normalizazioan eta idazlegaiaren trebakuntzan izan duten lekua munta nabarikoak izan bait da.

Aldizkotasunak bereizten ditu lehenik, gure artean ere, argitalpen hauek, eta horrekin batera bakoitzak hautatu duen edukin-eremuak. Astekariak dira presentzia eta oihartzun sozialik nabarietak dituztenak; honelakoen testu-masaren ekarria oparoa izan ohi da. Aipatuak ditugu, holakoetarik nagusienak. Hilerokoak datoz gero, eta zeregin nabarrak izan ditzakete hauek, hiruhilabete-kariak batez ere jite kulturala duten bitartean.

Hain zuzen, edukinaren aldetik begiratzaren baditugu, gisa guztietakoak izan litezke argitalpenok: haurrei zuzendutakoak, eliz erakunderen batenak eta kristau fededunei eskainiak, testuzkoak edo irudibidez-

koak, zientzia nahiz literaturara emanak, al-biste-emaileak edo kultur lan orokor jasoa-goa dutenak, kultur-gaiak edo, batez ere, hizkuntza zabaldu nahi dituztenak, Euskal Herri osora edo herri nahiz eskualde jakin batera zuzenduak, zernahi gai erabil dezaketanak, edota esparru berezitu batera mugatuak. *Argia*-ren *Urtekaria*-n, 53 aldizkariaren heldideak ikus litezke (1988).


Badago, urteak zehar, ugaritasunik aldizkarietan, baina ez da somatzen iraupen berdinek: inguruko aldarte politiko eta sozialek, ezin ekonomikoek, edo gizartereko aldakuntza sakonagoek ito egin dute hainbat aldizkako argitalpen. Aldizkari baten baliorik handiena, beste gabe eta derrigorrez irautearena ez izan arren, badirudi honelako argitalpen serioak batek bere baitandik atera nahiko lukeen proiektu kulturalak iraupena ere eskatuko lukeela, asmo hori heldutasunera eraman ahal izateko bederen. Iraupena eta zabalkunde on bat izan dituztenak ez ditugu asko, zoritxarrez: *Euskera*, *Egan*, *Jakin*, *Argia*, *Herria*, *Elhuyar*, *Karmel*, *Jaunaren Deia*, *Otoizlari*, eta gero aipatuko diren aldizkari euskalari batzuk.



Azpimarratzekoa da, hemen, azken urteotan jaio diren literatur aldizkari gazteen agerpena. Horietako batzuen irudia ondoan ematen denez, beste gabe horretan utziko dugu berri-emate hau.

■ **LARRUN (1985)**

Lapuri-Nafarroen arteko mendiaren izenarekin agertu ohi den aldizkari kultural politiko honek euskara bakarrik darabil alor berezitu hori lantzeko, euskarak eztabaidaren eta eritzi politikoaren espresabidean ere lortu duen gaitasuna frogatuz. Garai bateko aldizkari elebidunetatik aldizkari politiko elebakar honetaraino ibilaldi ona bete da.



■ **PLAZARA (Irun, 1985)**

Euskararen ofizialtasunak aukera berriak sortu dizkio hizkuntzari Erakunde Publikoetan. Aldundi eta Udaletxeetan, euskaltzaleek bultzatzen dituzten, aldizkariak ere sortu dira. Hona dakargun *Plazara*, Irungo Udaleko Euskara-Kontseiluaren aldizkaria da, dena euskaraz eman izan dena eta benetan presentaera egokikoa. Euskal Herrian apenas ezagutu den tokiko euskal kazetaritza baten lekukoa izan liteke hemen, berrikitan, beste gisa batean, indarrez datorren *Arrasate Press-en* antzera.




■ **ALDIZKARI BEREZITUAK**

Elhuyar edo *Senez* bezalako aldizkariak, euskaldungoaren artean piztu diren jakin-min eta beharizan berriei erantzun nahi izan diete. Zientzia eta Tekniken albisteak zabaltzeko nahi dituzten hark, eta itzulpen-munduko jakinarriak bildu bigarrenak. Bizitza laburragoko beste antzeko argitalpenik ere bada, irakaskuntzaz edo eliz gaiez diharduenik, adibidez (*Kimu, Zutabe, Eskola*, etab.).

■ **ALBISTARIA (1985)**

UNESCOren *Albistaria* da hau. Nazioartean, hainbat hizkuntzatan, argitara eman ohi den argitalpen honek, euskal itzulpen-munduaren heldutasun erlatiboa erakusten digu, gutxienez, kanpotik izendatzen den zernahi gai eman behar izaten bait du gisa dibulgatiboan: Historia, Arkeologia, Genetika, Astronautika, etab.



Sobre un proyecto de unificación de la grafía euzkérica

A los miembros del «Cercle d'Études euzkariennes» de Bayona

SEÑORES:

Comienzo por daros reidas gracias por el honor, verdaderamente inmerecido, que me habéis hecho al llamarme, en calidad de miembro correspondiente, al seno de vuestra muy culta Sociedad. Si con ello habéis querido premiar el entusiasmo y la buena voluntad, acepto con gratitud la distinción, y no me lleva la falsa modestia hasta el punto de creerla del todo desprovista de fundamento; pero de ninguna manera la tengo por galardón de otra clase de méritos, poés, en verdad, no los poseo. Soy un entusiasta de mi país, de mi raza y de la lengua de ella, y nada más. Habéis querido premiar el entusiasmo y yo recibo con gran reconocimiento la distinción.

Habéis tenido la bondad de enviarme un ejemplar de las actas de la Sociedad, y veo en ellas que os habéis reunido en sesiones hasta ahora de la unificación.

III URTEA-1 ZENBARRIA

1922 IIBELTZA-EPAILA

EUSKERA

EUSKALTZAINDIA REN LAN ETA AGIRIAK
TRABAJOY Y ACTAS DE LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
TRAVAILX ET ACTES DE L'ACADEMIE DE LA LANGUE BASQUE

INFORME

DE LOS SEÑORES ACADÉMICOS

A. CAMPION Y P. BROUSSAIN
A LA ACADEMIA DE LA LENGUA VASCA
SOBRE UNIFICACIÓN DEL EUSKERA

Los abajo firmados, Presidentes de la Sección Tutorial de la Academia de la Lengua Vasca, cumpliendo el encargo a ellos conferido por ésta en su última sesión...

EUSKERA IDATZIAREN BATASUNA

Zenbait iritzi batasunari buruz. — Euskararen batasuna. — Euskal-jeskera. — Literatur-euskara batasun baten aldera. — Batasunaren bideak. — Batasun honen beharra eta egokitasuna. — Ermua'ko euskal-idazleen jardunaldien erabakiak. SALBADOR GARMENDIA, AINGERU IRIGARAY, PIABRES LAFITTE, IMANOL LASPIUR, JUAN ANTONIO LETAMENDIA, TXILLARDEGI.

BATUAREN ASMOA (1913-1922)

Hizkuntzen modernizazioak hizkuntza estandar bat eratzea eskatzen du. Helburu hori nola lortu, hizkuntza bakoitzaren historiak eta hiztungoaren gizarateak baldintzatzen dute. Euskaltzaindiak jaiotortutik bertatik nahi izan zuen euskara idatzi batua definitu (1921), baina giroa ez zegoen, nonbait, aski heldua, eta eztabaida eta aurreproiektutan joan ziren urteak. Argazkietan: Euskaltzaindiaren lehen txostenak (Euskera, 1922) eta K. Eleizalde lehenagotik Baionan emandako hitzaldia (Euzkadi, 1913).

Euskara Batua (1918-1988)

Euskara Batua bezala izendatu ohi duguna, hizkuntza estandar legez defini litekeena da. Hau da, euskaldun guztiek egunen batean uler lezaketen hizkuntza amankomuna alegia. Helmuga horretara iristeko, guztiontzat berdinki arautu behar da hizkuntza estandarra izango den hori (Akademiar dagokion lana da hori), eta hizkuntza arautuago hau gizartera pasatu behar da (Escola, Komunikabide eta abarren bidez), hiztungoaren onarpen ahalik orokorra lortuz.

Hizkuntza estandarra, eta gurean *Euskara Batua*, hizkuntza baten modernizatorako guztiz beharrezkoa da, eta berarizko prozesu bateratzaile baten azken emaitza izan liteke, edota Hizkuntz Erakunderen baten plangintza gidatuaren fruitua. Euskararen kasuan, bietako elementuak baldin baditugu ere, azken bi hamarkadetan gidaritzak akademikoa izan da, gehienbat, aldeko eta kontrakoaren begira-puntu aipatuena.

Euskararen batasunaren premia gure lehenengo idazleek ere ikusi zuten. Axular-en hitzaurrean (1643) garbiki adierazia dago, eta, Hendaia-Hondarribietako porrotaren ondoren (1901-1902), Euskaltzaindia eratu

zen unetik (1919), batasunaren hau Akademia berriaren eginkizun larrietako bat izan zen. Kezka horren fruitua dugu Kanpion-ek eta Broussain-ek Euskaltzaindiari aurkeztu zioten txostena (1921). Orduan hasitako eztabaidan eta agertutako ideia berrietan molde guztietako asmoak bildu ziren; hala ere, gipuzkera ardaztat harturiko proiektua azaltzen zen indartsuena. Azkuek, adibidez, *gipuzkera osotuaren* proposamena orduan egin zuen, proposatutako eredu horretan obra literario bat eskainiz (*Ardi galdua*, 1919).

Gerraosteko Akademian, hasieratik bertatik ikusi zen, berriro ere, batasunaren egitekoari heldu beharra. Oraingoan, batez ere gure Literatur Historia onenari begiak itzuliz, lapurtera klasikoa hartu nahi izan zen hizkuntz estandarren eredutzat (Krutwig, Villasante: 1952). Urte batzuk geroago, indar berriak azaldu ziren batasuna bultzatzeko prest (1956-1964): Aresti, Txillardegi eta eliz ikastetxeetako idazle-multzoa, beren aldizkari eta guzti zetoze. Argitalpen hauetan, eta guztien edo zenbaitzuen idazketa-lanetarako, arau ortografiko batzuk eztabaidatu eta amankomunean

BAIONAKO BILERA (1964). ERMUA (1968)

Hegoaldean euskara modernotu nahirik zebiltzanen eta Iparraldean zenbait errefuxiatuarekin batera lanean ari zirenen artean egin zen Baionako Bilera 1964eko abuztuaren 29-30etan. Aresti, Txillardegi, Altuna, Monzon, *Jakin*-ekoak, etab. han izan ziren. Han onartutakoa onartuta geratu zen, biharamunean, Hegoaldeko aldizkari gazteetan. Eta 1968an Ermuan bildutako idazleek urrats berria eman zuten. Horri esker, eginagoa egongo zen bilera akademikoetarako ibilbidea. Argazkietan: Baiona eta Ermuko lanak.



ARANTZAZU (1968)

Oñatiko Santutegi honetan bildu zen Euskararen Batasunerako Euskaltzaindiaren Batzarrea (1968ko urriaren 3-5etan). Bileran haietan esandakoek eta erabaki edo iradokitakoek gidatu dute ondoko hogeituro batasunerako lana, holakoetan beste tokitan gertatu izan den bezala, eztabaidarik gabe izan ez bada ere.


EUSKALKIETATIK BATURANTZ

Euskalkietan banatutako hizkuntza bakarra guztiotzako ulergarriago eta erabilgarriago nola egin izan da Euskara Batuaren erronka: Euskalkietako euskara mintzatutik eta euskalki literarioetatik Batasunerako zer hauta, alegia. Hemen ikusten ditugun bi kasuetan, *dugu* eta *nahiz*, gipuzkera-lapurtera-nafarreraren arabera doa hautapena, bizkaiera-zubereretatik aldentuz.

onartu ohi ziren (*Jakin*-eko urteoroko bilera: 1957-1963).

Zeuden batasun-arauen duda-mudak argitzeko eta irtenbide praktikoak bilatzeko, Baionan egin zen idazle-talde baten batasun-bilera (1964). Erabakiak aldizkari gazteetara pasatu ziren, eta Baionakoa erreferentzi puntu arauemailea bilakatu zen hainbat luma-langilerentzat, 1968an Ermuan berriz ere idazle-taldea bildu zen arte. Hurrengo pausoa ofizialagoa izan zen: Euskaltzaindiaren Arantzazuko Batzarrea (1968-Urria-3/5). Han moldatu zen batasunaren lehenengo arau-multzo akademikoa, beti ere bileran aurkeztu eta eztabaidatu txostenen arabera oratua.

Batasun-proiektu akademiko hark batez ere ortografiaz, hitzen formaz, deklinabideaz eta hitz berriez jardun zuen. Batasun proposatuak hizkuntza idatziari begiratzen zion, eta funtsean gipuzkera-nafarrerak nagusitu ziren, ertzetako beste euskaldien gainetik. Ondoko urteetan, gutxi-asko, Euskaltzaindia orduko programa osatuz joan da; bereziki garrantzizkoa gertatu zen Aditz-Batzordeak prestatuta onarturiko aditz batzordeak proposamena (1973).



Batasunaren *corpus-a*, Euskaltzaindiaren proposamenetan, ez da handia lexikoan, eta hiztegi arauemaile osorik burutu arte badago oraindik lanik franko. Euskaltzaindiak eskainitako zerrendekin Kintanak nahiz Sarasolak dituzten proposamenekin, alor mu-



ADITZ BATUA (1973)

Euskaltzaindiaren Aditz-Batzordeak bere azken lanak Arantzazun egin zituen (1972ko uztailearen 27-28etan). Argazkian ageri dira, hizkuntza batzeko funtsezko lan horren arduradun izan ziren Batzorde-lagunak.

Alfabetatze-Euskalduntzeak (1966-1988)

Hizkuntzaren etorkizun sozio-kulturala bi egiteko handi hauei lotu-loturik dago: 1) Herritarrak euskal hiztun izan behar du, bizi, hizkuntzarik bizi dadin, eta hortan, euskal herritar erdaldun elebakarrak euskaldundu premia dago. 2) Eta bigarren: hiztunak, edozein hiztun eskolatuk, euskarazko irakur-idazmenak irabazi behar ditu, alfabetatze horren bidez bere hizkuntzari, dago-kion tamaina moderno eta kulturala emateko. Helburu horietara zuzendu dira —azken hogeitau urteetan batipat— gizartetik nahiz Erakunde publikoetatik sortutako talde-antolameduak: Alfabetatze-mugimendua, AEK, HABE, Udal-Euskaltegiak, Udako Ikastaroak (Derion, adibidez), eta beste hainbat erakunde langile.

“1960ko hamarkadan, *herrigintza* eta *euskalgintza* xede zituztela hezur-mamitzen hasi ziren han-hemenka euskaldunak alfabetatzeko saio eta kanpainak, beraien sortzaile eta eragilerik nagusiaen Rikardo Arregi zela. Ekintzok hasiera batean Euskaltzaindiaren babesean egituratu ziren (1968).

HEZKUNTZA, UNIBERTSITATE ETA IKERKETA SAILA
DPTO. DE EDUCACION, UNIVERSIDADES E INVESTIGACION

EUSKARAREN ERABILERA BIZKAIKO IRAKASKUNTZAN HEZKUNTZA SAILAREN ADIERAZPENA

EUSKALKIAK ETA BATUA

Euskal Herrian erdialdean biltzen diren euskalkien gain (gipuzkera-nafarrerak-lapurtera) mamitu da, batez ere, Euskara Batuaren eredua, eta nahitaez bizkaiera eta zuberera eredu horretatik urrunago geratu dira, beste erdiko euskalki haiek baino. Hori dela eta, premiazkoa izan da, adibidez, bizkaieratik hizkuntza batuago horretarako ikasbidea pedagogikoki samurtzea. Hemen ageri den liburuxka honetan bildu dira horretarako landutako arauak.

gatuagoetan UZEIk dituenekin eta Euskaltzaindiak Lexikografian lantzen dituen erizpideekin, gizartean ohitura lexikal ohargarriak ari dira ikusten. Urte batzuren buruan onduko da euskal hiztegi estandarra. Deklinabideari, aditz laguntzaileari eta trinkoei buruzko irtenbide morfologikoak aski finkaturik daude. Hala ere, modernizazioak dakartzan arazo berrietan lan itzela burutu beharko da oraindik.

Beste herri askotan bezala, hizkuntza estandar horretara hurbiltzeko bidea ez da Euskal Herrian ere samurra gertatu, eta batez ere 1969-1975. urteetan une larriak bizi izan dira. Eztabaidako harremanetan ez da borrokarik falta izan, batzuetan jendeak elkar itxuragabeki minduz ere bai. Hizkuntzaren moldakuntza honetan alboratuegi geratu den hizkuntz baliorik ere izan dugu: zuberera urrun geratu da, baina bizkaieraren ekarri posiblea oraindik ere, formulatzeko ez badago, behar hainbat zabaldu gabe geratu da bederen beste euskalkietatik dakozkigun idazleen artean. Bizkaitarrek batzuetan egin duten eta egiten ari diren ahalegina, gainerako idazleei euskalki horren harrobira hurbiltzeko deia da, noski.


| BATUA | BIZKAIERA | GIPUZKERA | LAPURTERA | ZUBERERA |
|-----------|-----------|-----------|-----------|------------|
| Gizonekin | Gizonekaz | Gizonakin | Gizonekin | Gizonekila |
| Emazteak | Emazteak | Emazteak | Emazteak | Emazteak |
| Emazteek | | | Emazteek | Emazteek |
| Mendiei | Mendiai | Mediai | Mendiei | Mendier |

| BATUA | BIZKAIERA | GIPUZKERA | LAPURTERA | ZUBERERA |
|------------|-----------|-----------|------------|-----------|
| gara | gara | gera | gare | gira |
| zitzaion | jakon | zitzaion | zitzaion | zitzeion |
| litzateke | litzateke | litzateke | litzateke | litzateke |
| duzue | dozue | dezute | duzue | duzie |
| dizu | deutsu | darotzu | dizu | deizu |
| nuen | neban | nuan | nuen | nian |
| dezaket | daiket | dezaket | dezaket | dezaket |
| diezaiodan | deiodan | dezaiodan | diezaiodan | dizodan |
| lizuke | leuskizu | lizuke | larozuke | likezu |
| luke | leuke | luke | luke | luke |

* ITURRIAK. Euskalkietarako: Inchauspe (1858): *Le Verbe Basque*. Paris (B, G, L). Geze, L. (1873): *Élément de Grammaire Basque. Dialecte Souletin*. Bayonne. (S). Intxausti, J. (1961): *Euskal aditza*. Arantzazu (B, G). Euskaltzaindia (1973): "Aditz laguntzaile batua", in: *Euskera*, XVIII (1973), 5-74.

Gerora, Alfabetatze saio hauek aldatu egin ziren, euskalduntze-saioak alfabetatze-koei nagusituz, Euskal Herri osora hedatuz, herrietatik hirietara eta industri inguru giroetara iritsiz, gaueko saioak egitetik arratsalde eta egun osoan zeharrekoak egitera pasatuz, Gau-eskola, lehenik, Euskal Eskola eta gero Euskaltegi bilakatu, negu-parteko ikastaroak Uda-Ikastaroekin, Ikastaro trinkoekin eta Barnetegiekin osatuz, eta irakasleak, programak eta, azken finean, euskararen irakaskuntza bera profesionalizazio bideetan jarriz, Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundearen (AEK) eta beste hainbat Euskal Eskola eta Euskaltegiren (Labayru, Euskaltegi pribatuak, etab.) lanari esker behar berriei erantzun egokirik emateko egituratuz eta moldatuz.

Honela, Eusko Legebiltzarrak ekintza eta lan guzti hauek jaso, arautu, bideratu eta egituratzeko —eta ondorioz diruz hornitzeko



■ EUSKALTZAINDIAREN BABESEAN (1968)

Alfabetatze-mugimenduari aterpe instituzional bat aurkitzeko, Euskaltzaindia jo zuten horretaz arduratuta zebiltzanek. Rikardo Arregi izan zen gidaria; eske hau egin zitzaion Euskaltzaindiari, eta honek bere itzalpean hartu zuen lehen urteetan egiteko kultural hau.

■ DEKLINABIDE BATUA

Gramatikaren eremu honetan batasuna lortzeko, euskalki mintzatu guztiak eta idatziak ere gogoan harturik, Euskara Baturako eman diren arauak hauek dira:

■ ADITZAREN JOKABIDEA*

Euskararen aditz batua hautatzeak eragozpen larriagoak izan ditu, deklinabideak baino. Izan ere, batez ere bizkaiera gainerako euskalkietako sistema-egituretatik bakarrik geratzen bait zuen, nahiz eta behin baino gehiagotan huraxe gertatu, hautagarrietan, harrobi osagarri eta araubidezkoena. Laukian bildu ditugu, Baturako aditza aukeratzeko gainditu behar izan diren euskalkietako aldakin batzuk.

ALFABETATZE-EUSKALDUNTZE KOORDINAKUNDEA

Lurraldeetako Erakundeetatik egon gabe, bere gisara darama AEKK lana, herri-mugimendu euskaltzalearen hainbat indar bilduz eta tokian tokiko laguntza instituzionalak eskatuz. Hemen, Koordinakundeak urteoro antolatu ohi duen ekintza herritarrik handiena: *Korrika*. Zazpi herrialdeetan ehundaka kilometro egin ohi ditu, herriz herri euskal kontzientzia linguistikoa zuzperten lagunduz.



R. ARREGI (1942-1969)

1960.etao gazteriak bide-berritze lana egin zuen hizkuntzaren defentsan. Urte haietan jaiotako alfabetatze-mugimendua izan zen horietako bat, eta Rikardo Arregi, gazterik hila, beraren gidari ezagunena.



ere bai— Helduen Alfabetatze eta Berreuskalduntzerako Erakundea (HABE) sortarazteko eta Euskaltegiak Arauzpetzeko 29/1983 Legea (EHAA 1983-12-12) jarri zuen indarrean 1983ko Azaroaren 25ean, etorkizunerako joku-arau berriak finkatuz” (X. Aizpurua).

Nafarroan, bestalde, Gobernuak Hiru Probintzietako legeon kideko deliberamenduak hartu ditu. Bienbitartean, Iparraldeko Euskalduntze-Alfabetatzeak ez du inolako aterperik, ez instituzionalik, ez sozialik. Euskal Herriko alfabetatze-mugimenduak eta

Erakunde Publikoek, oro har, arazo larriak dituzte euskaldungoak eta erdaldungoak premiazkoak dituzten indar sozio-instituzionalak benetan elkarrekin eta elkarren ondoan jarri, baliabideak bildu eta, beren alorrean, euskararen zerbitzurik onenean emateko.



EUSKALTEGIAK

Batez ere euskalduntzeko ikastetxe bereziak sortu dira Euskal Herrian azken hamarkadan, alfabetatzeko baino gehiago: Euskaltegiak deitu zaie honelakoei. Batzuk ekimen pribatuari zor zaizkio, besteak, EKA, Udaletxe edo HABEren ardurapean daude. Honelako ikastegietan ahalbide orainarte gure artean ezezagunak sortu dira euskarari laguntzeko, ikastaro trinkoak eta ikas-barnetegiak ere eratzean. Argazkian: Hondarribiko Euskaltegia.



BALIABIDE IDATZIAK

Euskalduntze-Alfabetatzeek, ikas-lanerako baliabide idatziak ere behar izaten dituzte, liburuak ezezik, aldizkariak eta langai arinagoak ere. Behar horien zerbitzuan aldizkako argitalpen hauek agertu dira: Euskalduntzeko *Habe* (1981) eta *Aizu* (1982) aldizkariak, eta askoz lehenagotik haurren alfabetatzea laguntzeko *Kili-Kili* (1966).

HABE: 1985-1986 IKASTURTEA

| EUSKALTEGI-MOTA | Euskaltegiak | Ikasleak | | ORDUAK | SUBENTZIOA |
|-------------------------|--------------|---------------|--------------|-------------------|--------------------|
| | | Euskal. | Alfab. | | |
| Haberen euskaltegiak | 4 | 1.561 | 42 | 573.986 | — |
| Udalren euskaltegiak | 28 | 5.863 | 1.131 | 2.126.256 | 427.682.951 |
| Hitzarmenekoak | 12 | 5.818 | 1.675 | 1.136.476 | 136.347.741 |
| Euskaltegi homologatuak | 15 | 14.492 | 343 | 2.336.784 | 178.020.609 |
| Euskaltegi libreak | 173 | 50.993 | 3.632 | 5.777.996 | 233.349.225 |
| GUZTIRA | 232 | 78.727 | 6.823 | 11.951.498 | 975.400.526 |

HABE (1981)

Euskadiko Autonomi Elkartearen Jaurlaritzak sortutako Erakundea da *Helduen Alfabetatze-Berreuskduntzerako Erakundea* (= HABE). Beronen bidez gidatzen du Gobernuak alfabetatze-euskalduntzeen politika. Nortasun juridiko ezberdineko ikastegi eta erakundeak babesten edo zuzentzen ditu HABEek: Euskaltegi propioak, Udal Euskaltegiak, hitzarmenduak, homologatuak nahiz libreak. Erakunde honen baliabideak honela joan dira urtez urte: 1.017.679.322 (1984), 1.430.000.000 (1985), 1.690.100.000 (1986), 1.802.000.000 (1987), 2.125.000.000 pta. (1988).



■ EUSKAL POESIA

Hizkuntza normalizazioan, edo hizkuntza euskal gizartearen indarberitzean, Literatura ederrak izan zezakeen betekizun soziolinguistikoa azpimarratu zen gerraurrean (Ibar-ek, adibidez, 1936an). Ildo horretatik etorri ziren Mitxelena-ren *Arantzazu* (1949) eta Orixe-ren *Euskaldunak* (1950). 1960ra arteko literatur lana, izpiritu beretsuarekin, 1960-1975etan herrigintza bilakatu zen, Literatura soila baino. Hemengo irudiek izan bitez berrogeitamar urte hauetako olertiaren oroiagarri.



■ EUSKAL ELERTI (1969)

Euskal literatur berrikuntzaz ohartuta zeuden kritikariak. Sorketa berriak irakurle goaren eskutuan jartzeko edizio antologiko erosoago hau prestatu zen, adibidez.

■ Euskal literatura (1937-1987)

Gerraurreko literatur lanen ondoren, hamar urteko parentesia izan zuen euskal liburu-gintzak, eta areago oraindik euskal literaturak, Hegoaldean. Obra mardulak eman ziren argitara hurrengo hamarkadan, poesia bezala narratibian, lehendik landutakoak inoiz, eta gehienetan, berriak. 1956aren inguruan, aurreko mende eta belaunaldietako tradizio literarioa berreskuratuz, oinarritzko berredizio batzuk ere egin ziren: *Gero* (1954), *Peru Abarka* (1956), *Biotz-begietan* (1956). Eta ez zen Orixe-ren itzulpen maisuren bat falta izan: *Aitorkizunak* (1956).

Otegi laburtu duenez, kronologia hau eman genezake urte hauetako Literatura deskribatzean: Literatura, aberriaren iraupenerako ahalegin bezala bizi izan zuena (1939-1957), gizonaren eta herriaren aldeko ekintza bezala landu zuen garaia (1957-1975), eta adierazpide literario autonomo gisa egin den azken hamarkada (1975-1984). Epealdi horietan literatur genero bakoitzak izan du bere garapen-erritmoa, eta bere arrakastak edo historia apalagoa. Hemen ezinezkoa dugu, obra edo izen baliozko de-

nok jasotzea. Gogoangarrienak eta altuera jasoena izan dutenak baizik ez ditugu aipatuko.

Lehenengo poesialdian, Zaitegi eta Monzon ditugu erbesteko argitalpenetan, S. Mitxelena eta Orixe barnekoetan, Iratze-der Iparraldean, Mirande Parisetik, Hegoaldeko Etxaniz eta Aurrantz ahantzi gabe. Urte haietakoa izan zen aipatuta dugun Onaindiaren antologia handia: *Milla Euskal Olerki Eder* (1954), belaun berriarentzat euskal Literaturaren goi-agerpena gertatu zena, izan ere, artean, Literaturaren beste historiari ez bait genuen eskuartean. Hurrengo emanaldian (1957-1975), Goikoetxea, Gandiaga eta Aresti gogoratuko ditugu, gai-berritze baten barnean, edo Aresti bera gizartearekiko protestaren bidetik. Orduan beste antologia batean bildu ziren korrante berriak (*Uhin berri*, 1969). Gandiagak, bigarren ekinaldi batean (1974), Zabaletak, Letek, Urretabizkaiak, Lekuonak, Artzek eta herrenka luze batek osatu zuten garaia. Azken epealdian, Atxaga, Izagirre, Sarrionaindia, A. Lasa, Zarate eta abar are luzeago batek ondu du gure olertiaren historia hau.

IDAZLAN GUZTIAK
AZTERLANAK
Nikolas Ormaetxea
"ORIXE"



«Quito'n arrebarekin»

irakurritz

Paulo Iztueta Armendariz

ETOR

IKERLAN KRITIKOAK

Ikuspegi eta alde ezberdinetatik aztertzen dira gaur egun gure euskal idazleen lanak: analisi kritiko formalen ondoan, inguru sozialetik begiratu ere bai. Tesi doktoralen ondoan, beste honelako ikerlanek erakutsiko digute gure lanen balio literario eta historiko-soziala. Oinarritzko lan hauek argi dezakete, gainera, gure hizkuntzaren historia kulturalaren esanahia.

EUSKAL NARRATIBA

Ameriketan argitara eman ziren gerraondoko lehenengo elaberrien ondoren (1946-1948), 1950.etan eman ziren euskal nobelaren berrikuntzarako lehen pausoak (*Joanak joan*, 1955; *Leturiaren egunkari ezkutua*, 1957; *Peru Leartzako*, 1960), eta 1960tik hona maila modernoagoak lortu dira oraindik (*Egunero hasten delako*, 1969; *100 metro*, 1976; *Abuztuaren 15eko bazkalondoa*, 1979; *Obabakoak*, 1988).

Narratibak ere eman du berea, gerratetik gure egunetara datorren mende-erdi honetan. Ameriketan Irazusta (1946) eta Eizagirrek (1948) hasitako lana Etxaide (1950, 1955) eta Loidirekin (1955) jarraiki zen banean. Ondoren molde berriak agertu ziren, bigarren aldian: Txillardegi (1957, 1960, 1969), Erkiaga modu tradizionalagoan, eta Saizarbitoria (1969, 1976), Urkizu, Peillen, Zarate edo Lertxundi (1971, 1973) izan dira nobela landu dutenak. Azken ordukoetan sartu behar dira J.A. Arrieta (1979, 1987), Irigoien (1976, 1982) eta Onaindia-renak (1977) eta lehendik lanean ziharduten Krutwig, Izagirre, Txillardegi (1979), Atxaga (1988) eta abarren nobelak, batzuek bederen egitura formalak berritu-asmoz emanak. Gogoan hartzekoak dira, gainera, irakurlego zabalago baten mesedetan eskainitako Garate eta Gereñoren elaberri herrikoia-goak, eta ipuin laburretan bildutako hainbat autoreren uzta. Oro har, euskal narratiba, bide berrien bilaketan urduri dabilen alorra da gaur egun. Egindako bide baten fruitu heldu bezala, gogora dezagun Atxaga-ren *Obabakoak*, Madrilen Sari Nazionalarekin sarizatua (1989).





SAIO-PROSA

Prosa kultural-literario hau, hizkera tekniko-zientifikoaren aurretik joan bada ere, partez eta berandu iritsi da bere heldutasunera. Gerraurreko Lizardi edo Etxepare medikuaren hitz-lauzko idazlanak ahantzi gabe, gerraondoan S. Mitxelena-ren *Unamuno eta abendats*-ekin (1958) hasi zen saiakeraren estilo jatorrena. Ondoko hogeitertan, argitaletxeek saiakera-bilduma osoak jarri zituzten irakurleen eskuetan. Txillardegiren *Huntaz ete hartaz* (1965) bere balio literarioarengatik, Joxe Azurmendiren *Hizkuntza, etnia eta marxismoa* (1971) bere iker-balio sozialengatik, edo K. Mitxelena-ren *Idazlan hautatuak* (1972) adibide onak izan litezke euskal saiakerak burutu duen lana balioztatzeko.



Antzertiak ez du oraindik ugaritasun bera erakutsi; hala ere, eginean badoanez, aipagarrienak ekar ditzagun hona: Lehen hamarkadetan, Labaien (1955, 1965, 1967), Zubikarai (1950, 1969, 1970, 1983), Etxaide (1952, 1958, 1962), Lartzabal (1961, 1962, 1968), Monzon, Etxaniz, Mitxelena, Aresti (1971) edo Garmendia (1969) gogoan jasotzekoak dira. Azken garaian, Begiristain, Landart ipartarra (1970, 1972, 1973, 1981), Haranburu-Altuna, Atxaga eta abarren ekarria zuzpergarri izan da han-hemen bildu diren antzerti-taldeentzat. Aldizkari berritu bat ere badu euskal teatroak: *Antzerti* (1982), izen bereko Erakundearen babesean argitaratu ematen dena. Ohizko antzerti herritarra ere indarberritu egin da Zuberoako pastoraletan (Casenave).

Saiakerara gatzela, lehen orduko hutsune luzeegiaren ondoren eta aldizkarietan buruturiko saiakera-lanen arrastoan, berrogeitamargarren hamarkadan urratu zuen bere bidezidorra euskarazko saiakerak, Miranderekin eta batez ere S. Mitxelena (1958) eta Zaitegirekin, K. Mitxelenaren lan sakabanatuarekin (1972an bildua), Txillardegiren lan berrigarriarekin (1965), R. Arregi (1972), X. Mendiguren eta Joxe Azurmendiren (1977, 1978) lan gaitzarekin.

ANTZERTIA

Hegoalde-Iparraldeetan, bietan, antzertiak berriz ere bere betekizun kulturala indarberritu nahi izan du azken hamarkadetan. Ez beti, hala ere, nahiko zitatekeen bizkortasun eta hedadurarekin. Itzulpenik egin da klasikoetatik (Shakespeare, klasiko grekoak, etab.), baina baita obra originalen sorkuntzarik ere. Iparraldeko ohizko teatro herritarren oihartzunak topa litezke bertako idazleen antzerkietan (Lartzabal, Landart, Casenave). Hegoaldeko berrikuntzan Arestiren lanak azpimarratzen ditugu hemen, eta gogoratzeko da *Antzerti*-ren inguruan (Eskola eta aldizkaria) sustatu nahi izan den teatro-mundua. Dena den, antez-taldeek badute oraindik nahikoa lan aurrera atera ahal izateko.

Generoa, modu bizi batean, ispilatu izan da aldizkarietan, literatur aldizkarietan bezala (*Euzko-Gogoa, Egan, Olerti, Igela, Ustela saila, Idatz eta Mintz, Maiatz, Xagu-xarra, Susa, Pamiela, Literatur Gazeta*, etab.), kultur aldizkarietan (*Jakin, Zabal, Zehatz, Hitz*, etab.).

Izenak gogoratu ditugu, autoreak; izanak falta dira aipu biluz hauetan, obrak alegia. Bego dena laburbilpen horretantxe, interesatuak iturri zabalagoetara jo dezakeelakoan, eta itxarokizun hoberen zain.

Azken hamabost urteetan, eske sozialaren eraginez, idazketa-lana eskola, komunikabide eta barruti sozial ez hain literariotara joan da. Inoiz baino irakurlego handiagoa du, inondik ere, gaurko literatur lanak, irakurle/ordutan neurtuz; baina hizkuntza idatzi funtzional ezliterarioak protagonismo sozial bakar hura kendu egin dio, edo murriztu bederen. Dena den, egoera berriak euskal letretako luma-gizon/emakume gutxi batzuri bederen ogibideren bat ere sor diezaiekete agian.



POETAREN PROTESTA

*Hemen
euskaraz ez dakienak
berak jakingo du
zergatik ez dakien.*

*Baina hemen
euskaraz ez dakienak
ez digu uzten
euskaraz egiten.*

*Baina eta hemen
euskaraz jakin arren
euskaraz mintzatzen
ez denak ere
ez digu uzten
euskaraz egiten.*

B. GANDIAGA

EUSKERIA

*Zer, ai, gure aldietako
mendi ederren illarria (...),
zer gure lur zorioneko
guk maite dogun guztia,
euskeraz ez izatera
ango alkarren aitzia?
(...) Aralar da Larrunarria,
zer biotz-ikara izen onek
juanda balitz euskeria?
(...) Loixola, Azittaiñ, Aixa
eta Kiñarra ballia,
zeren itxura alde onek
an balitza erderia,
eta ordez, aintzakotzat b'ez
gurasuen euskeria?*


Toribio ETXEBARRIA
Ibiltarixanak, 1967

■ IDAZLEGO ELKARTUA

Gerraurrean behin eta berriz gertatu zen bezala, gerraostean ere antolatu zen Euskal Idazleen Elkarte, Ermuan idazleek egindako (1968) bileraren erabaki bat betez, horretarako Batzorde baten gidaritzapean. Lehen biltzarrea 1969an egin zuen. 1970etako parentesi luze samar baten ondoren, Euskaltzainditik bultzatu zen Elkarte berrindartzeko asmoa (1978-1979), eta legezkoak bete ondoren, 1983an lortu zuen nortasun juridiko osoa. Bestalde, nazioarteko harremanetarako euskal idazlegoak euskal PENa ere sortu nahi du. Idazle elkarte hauek hizkuntzaren nortasun literarioa sozialki indartzen lagundu ohi dute, idazlegoaren nortasun profesionala zainduz, eta une larriagorik sortzen denetarako mintzabide baliosak gerta litezke gizartean edo nazioartean.

■ HIZKUNTZAREN POEMAK

Euskarazko obra literarioetan eurrez agertu ohi den gaia da hizkuntzaren defentsa, olerkietan bezala bertsoetan. Liburu honen lehen atalburuan esan da honetaz zerbait, eta guztiok entzun ditugu bertsolarien ezpainetatik edo irakurri olerkarien poematan gure hizkuntz etorkizunaren kezka darien hitzak. Kontzientzia hau bizia izan da hizkuntzaren zapalkuntza ofizialaren urteetan, eta normalizatu gabeko euskararen gaur eguneko egoera honetan.



Hizkuntza, ikus-entzunkizun

ANTZERTI-IKUSKIZUNAK

Urte batzutatik hona, Antzertiak hobe-nahi garbiko ikuskizun berriak eskaini ditu, batzuetan *Antzerti* Erakundeak bultzata, eta bestetan ekimen zaletu pribatuak antzeturik. Euskal Herri osoko Antzerti-Taldeek nahi adinako babesik ez badute ere, badirudi gure antzerki-jokalariek profesionaltasun helduago bat jaretsi dutela, askotan Antzerti-zereginetan, Zinema-telebista eta antzeko beste eremuetan ere lan eginez. Antzerti-edukinetara gatzela, gainera: Hizkuntzaren arazoa, *Agur, Eire* (1987-1988) bezalako obraren bat edo bestetan ipilatua izan da.

DISKOGRAFIA

Euskal diskategia, bere apalean ere, ordu asko bete ditzakeen altxor estimagarria da euskaldunentzat, Irrati-tako programak euskaraz eskaini ahal izateko, adibidez, eta edonori hainbat mezu euskaltzale ere pasatzeko. Zazpi disketek aurkezten zituzten beren diskak Durangoko azken Azokan (1988, abendua). Hizkuntzaren gaia hainbat abestitan entzun da: Oskarbiaren *Euskara eta Txakolina* edo Oskorriren *Alemanian euskaraz* adibide esanahiak dira.

Hizkuntza mintzatu arruntaren eta hizkuntza idatzi formalaren artean hizkuntza kantatu edo ikuskizundua daukagu. Hau da, bertsolarien ahotan edo kantarien ahotsetan entzunkizun estetiko dena, eta ikus-entzunezkoetan ikuskizunaren parte mintzatua dena.

Euskal Herria, herri kantaria izan da betidanik, eta euskarak bere toki naturala izan du gure musika herritarrean. Ez dago euskal kantategi klasikoak begiratu besterik (Sallaberry, Azkue edo A. Donostia). Bestalde, musika eskolatu handian ere sartu izan da euskararik, baita azken hamarkadetan ere. Batzuetan, euskal Literaturan aurkitu dute musikariek musikatzeko gaia (Lizardigan Eskudero, adibidez), edo euskarazko libretoak musikariarekin batera ondu dituzte idazleek (Eskudero-ren *Zigor*-erako M. Lekuonak landu zuen bezala). Baina, esate baterako, euskarazko operak edo antzerki abestuek, 1960.etatik hona zabaldu den Euskal Kanta Berriak hainbat eraginik ez zuten izan hizkuntzaren bizitza sozialean.

Euskal Kanta Berriaren jaioturtea —non-bait jarri behar eta — 1961ean jar dezakegu, Mixel Labegerie-ren diskarekin. Euskaraz

abestuz ere kanta-diskak argitara ematea posible zen, beraz. Laster, beste herri abertzaletuetan gertatzen ari zena eredugarri gertatu zen gure musikazale gazteentzat; batez ere, Kataluniako *Nova Cançó* deitua hurbila gertatu zen. Dena den, kanta modernoago baten premia somatu eta hartarako bideak urratzen hasi zena idazle bat izan zen: N. Etxaniz bere *Kanta kantari* liburua-ekin (1951). Hamar urteko aurrerapena zekarren asmoak, beraz, eta Etxaniz-engan, zalantzarik gabe, hizkuntzarekiko zerbitzu-molde bat zen kanta berri hau ere. Kanta Berria, euskararen aldeko hautapen batekin definitu zen hasieratik bertatik, eta hizkuntz leialtasun horrekin gauzatu zen geroko urteetan.

Taldeak eta kantariak ugarixko agertu ziren 1963tik aurrera: L. Iriondo, M. Laboa, M. Idirin, J. Lekuona, J.A. Irigarai, Estitxu, B. Lertxundi, A. Valverde, X. Lete, Pantxoa eta Peio, Etxamendi eta Larralde, etab. Taldetan bildu ziren batzuk: Ez Dok Amairu, Oskarbi, Oskorri taldeek eman zioten segida lehentxeagoko Argoitiatarrei, “Contrapuntos”i eta besteri. Bigarren olatualdi bateko izenak, denboraz hurbilagoak ditugu:






■ B. LERTXUNDI

Euskal kantarietatik batzuek, kanta-lanean lortu dute beren ogibide osoa, hau da, erabateko profesionaltasuna. Jendarteko onarpen iraunkor bati esker, Euskal Kanta Berriari horrelako gutxi horiek, dagoeneko urte-multzoo ederra daramate alor kultural honetan, euskarazko kantategitik irten gabe ere, eta hizkuntz leialtasun horri eutsiz. Argazkian: B. Lertxundi: 1965ean hasi zen kantatzen, eta geroztik sei diska txiki eta hamar handi grabatu ditu, beti euskaraz.

G. Knörr, Tx. Artola, I. Rekondo, G. Mendibil, Urko, Imanol, etab. Talde berriak agertu ziren, gainera: Errobi, Irukaitz, Hai-zea, etab.

Musikari kantariak ez ziren Literaturatik umezurtz ibili, eta izan zituzten idazleengandik iradokizun literarioak, kantariak berak idazle ere ez zirenean (Lete-ren kasua, adibidez): J.M. Lekuona, J.A. Artze edo B. Gandiagak, esate baterako, ekarri oparoa eskaini zioten Kanta Berriari. Abesturiko gaien artean, hizkuntzarena errepikatuenetakoa izan zen 1965-1980. haietan: sinbolikoa gertatu da Etxepare-ren *Euskara, euskara*, Kanta Berriaren bidez, nola plazaratu den, gaurkotasan osoa bereganatuz.

1980.enetan, lurrikara berri batek astindu du euskal Kanta Berri hau, Euskal Rock bortitzaren talde gazteekin. Hemen ere beti esan liteke: katea ez da eten. Lehen eta bigarren olatualdiko haietarik bizirik eta lanean dihardutenen ondoan, gazteago iritsi berriok, euskal gazteriaren aisia, erdaltasunaren arriskuetatik euskaldunago zaintzen ari dira, gizarteko kezka eta protesta bortitzenak ere euskaraz jasoz.



■ MARRAZKI EUSKALDUNAK

Euskal marrazkilariek egin dituzte ahaleginak, batez ere 1980.eko hamarkada honetan, beren lanean hizkuntzari laguntzeko. Alde batetik, euskara irakasteko edo haurrak alfabetatzeko komikiak sortuz, eta bestetik, komiki-munduan euskarari leku eginez. Komiki geldiaren ondoan, zinemako marrazki bizidunak itzuli dira, lehenengo, ETBrako. Lan erraldoia da hori, telebista- eta filme-bikoizketaren parte bat izan arren. Barruti honetako lorpen berrien artean jarri behar da, adibidez, Jaizkibel-en *Kalabaza tripontzia* (1985), marrazki biziduneko filmea.



■ ZINEMA EUSKALDUNA

Euskaldungoak ez du behin-betirako erdaldun utzi nahi zinemaren mundua. ETBren eskeari jarraiki, etxe bikoiztaileak burutzen ari diren lan handiaren ondoan, hemengo zinemaren industriak euskarari ere leku eman nahi izan dio. Euskadiko Automi Elkartean gertatu da hori bereziki, Eusko Jaurlaritzatik eskainitako subentzioak ere lagungarri zirela. Euskarazko zinema-industriak eta marketing-ak, hizkuntzaren baldintzapen soziolinguistiko zailak jasaten dituzte oraindik, eta etorkizuna aldartetsua ikusten da.

Euskal Kanta Berriaren historiak ez du, noski, beti kalitate on desiragarri hura lortu; baina egin duenetik badago zer gorde, eta ondokoen ondarerako ere zer bil, eta tradizio berri(tu) bati egin dio leku. Hori benetan estimagarria da, hizkuntzaren etorkizunari laguntzeko.

Eta gatozen beste alor batera. Tradizioz genuen hizkuntza kantatuaren eremua, bertsolari eta bertso zaleena da. Euskaldungoak bere bertsolariak izan ditu aspaldidantik, euskal hiztun batzuren abildadeaz eta herriaren hizkuntz gozamenaz baliaturik. Hizkuntzaren jaia eta jokia da bertsolaritza, haren baitan ditu honek bere izatearen erroak. Bertsolaritzaren indarra —ageri den inguruetakoa, bederen— euskararen osasunaren termometroa da, zeren, Lazkao-Txikik zioen bezala, “bertsolariak puntan egoteko, hizkuntzak egon behar dik korrituan. Bestela alper-alperrik ari haiz brotxarekin airea pintatzen”.

Bertso-paperetatik hasi, herri-jaietako nahiz lagunarteko saioaldi, maila guztietako txapelketa, argitalpen, ikerlan eta nolanahiko agerpenetara igaroz, denetan —ber-


tsolarien eta bertsozaleen artean— gora egin du bertsolaritzak. Orain hogeitamar urte hiltzeaz edo ageri zitzaigun hizkuntzaren agerpen kultural honek, hobekuntza nabariak izan ditu bere kalitatean eta oihartzun sozialean. Bertsolarigaien mintegiak ere eratu dira Bertsolari-Eskoletan, eta hizkuntzaren jolas-harrobi hau berrituz joango da, itxura guztiz, urtez urte, jende berriari ofizioa emanez eta norberaren berarizko gaitasunak hobeki trebatuz.

Eskuartearen ditugun bertso-liburuen bildumetan (*Auspoa* bilduma lekuko) eta bertsozale eta komunikabideek bilduz doazen fonoteka aberatsetan bila liteke gure herriak bere hizkuntzaz hamarkada hauetan izan duen kontzientziaren eta eskearen ahotsik ozenenetako bat. Hizkuntza horren zerbitzari, eskale eta borrokari erneenak izan dira bertsolariak.

Kantari eta bertsolariek dakarkiguten hizkuntza abestuaren ondoan, hizkuntza antzeztuarena dago, hau da, jendaurreko ikuskizunetan eskaintzen den euskara: antzertian, zineman, bideoetan, telebistañ, jendarteko nahiz norberak banaka goza

TELEBISTA EUSKALDUNA

Euskal Telebista etxe eta lagunarte euskaldunetara iritsi denean (1983) eduki du lehenengo aldiz euskaldungoak ordu luzetan eguna euskaraz beteko dion lehen telebista. Hasieratik bertatik Euskal Herriaren "hizkuntza propioa" osorik normalizatzeko helburuarekin definitu zen komunikabide hau (ETB-1). Helmuga hori lortzeko programazio egokienaz eta bertako euskararen kalitateaz ez da eztabaidarik falta izan; baina euskaldungoak, kritika eta guzti, euskararen indarberrikuntzarako ezinbesteko tresna bezala ikusi izan du telebista. Nafarroan eta Iparraldean bidea urratzeko dago gehienbat.



ditzakeen aisiazko ikuskizunetan. Mundu zabal eta garestia da hau, lehenago erdal hizkuntzen eskutik eskaini ohi zitzaiguna. Nahitaez, euskaratuta kanpotik hartzekoa; baina, tamaina arrazoizko batean behintzak, guk geuk ere egin gehar duguna. Irudiak halako pisua duen gizartean, euskaldungo ezin da ahantzi lanabes horretaz. Eta bi moldeetan baliatu ere egin da: Hizkuntzaren beraren didaktika hobetzeko, eta medioan bertan bidezko den lekua emateko. Bego hemen, beste daturik gabe ere, espreski azpimarratuta arazo itzel hau.



PUBLIZITATEA EUSKARAZ

Publizitate-eremua, nahikoa edo guztiz arrotza izan zaio orain arte euskarari. Inoiz, ezaguna denez, kanpainaren bat edo beste egin izan da hizkuntzaren alde ere euskaraz (Euskaltzaindiaren "Bai Euskarari" edo Gipuzkoako Aldundiarena, esate baterako), baina euskararen publizitate-erabilpen arrunta oso mugatua ageri da, Erakunde Publikoek, ofizialtasunak behartuta, egin ohi dutenetik aparte.



■ EUSKALTZAINDIA

1956an berriro ere euskaltzalegoaren gidaritza berreskuratu zuenetik, benetako lidergo sozio-akademikoa eraman du Euskaltzaindiak gure herrian. Euskal Herriko Unibertsitatearen garapenak eta Gobernu Autonomoen hizkuntz politiken mugarritzatzeak, Akademiaren betekizuna birlekutu egingo dute, noski, Hegoaldeko gizarte honetan; baina orduan ere haren zeregin arauemaileak berean dirauke. Euskaltzaindia da, gainera, hizkuntzaren barruti geografiko osoa hartzen duen Hizkuntz Erakunde ofizial bakarra. Azkenik, nahitaez, munduko euskalarien berarizko topalekua da Euskaltzaindia.



■ AITA L. VILLASANTE KORTABITARTE

1920 jaio zen Gernikan. 1970-1989. urteetan Euskaltzaindiaren Lehendakaria izan da, euskararen normalizaziorako batasun-arazoaren unerik erabakiorrenean. Beronen lehendakaritzapean birrantolatu da Euskaltzaindia, Arautegiz (1972) eta lan-egituraz.


■ Euskalaritza (1937-1987)

Hizkuntzarekiko zientziak ikuspegi ezberdinetatik eta metodo desberdinekin landu ohi dira: Hizkuntzaren beraren baitandik, Antropologiatik, Historiatik, Soziologiatik, Geografiatik, Psikologiatik, etab. Euskalaritzan ere berdintsu jazoten da: jakite-molde bakoitzak du euskararen errealtatea begiratzeko modu berezia. Zientzia horiek, ordea, ez dute denek tamaina bereko lana burutu gure hizkuntzari buruz, eta batzuek bide luzeagoa ibili dute. Hemen, labur-beharrez, ezin ditugu bildu denak, eta gutxiago xehetasunez; horregatik, Hizkuntzalaritza eta Soziolinguistikara mugatuko gara batez ere.

Aipa ditzagun, lehenik, hizkuntzaz arduratu izan diren ikertegiak, Euskal Herriko zenbait erakundek hizkuntzaren ikerkizunak bait ditu hautatutako iker-esparruan. Guztietan lehena Euskaltzaindia da, noski; hau da, gure hizkuntzaren Erret Akademia. Frankismoan ere, 1956tik hona hainbat Batzarre eta lan egin zuen. Aurreko orrietan aipatu da zerbait, eta esan gabeko batzuk bederen aipatu behar dira hemen: *Euskera* aldizkaria kaleratuz doa urtez urte, egiten di-

ren kongresu, omenaldi eta bilera txikiagoe-tako lanekin. Hizkuntz Erakunde ofizial honek duen biritza arrunta gertutik ezagutzeko balio du argitalpen horrek. Bestalde, Euskaltzaindiarenetan, bilduma batzuek ekarri oparoagoa dute: "Iker Saila" deituan funtsezko ikerlanak biltzen dira. *Euskalarien Nazioarteko jardunaldiak* (1980) izan zen liburua-sorta honen ataria. Honen ondoan, *Onomasticon Vasconiae Sails*-k Euskal Herriko izendegiaz dihardu. Horien ondoan, euskararen inguruko historian bizi izaniko hainbat xehetasun ezagutzeko oso baliagarria den liburua dauka Euskaltzaindiak argitaratuta: *Euskararen liburu zuria* (1977). Hizkuntza barnetik ezagutzeko, Akademia bere *Euskal Gramatika* kaleratzen ari da, 1985etik hona. Gaur egun Euskaltzaindiak Batzorde eta talde berezietan egiten du lan, eta Mitxelena/Sarasolaren *Orotariko Euskal Hiztegia* ere horrela bideratu ahal izan da (1987).

Gerraostean, RIEV hil eta Eusko Ikaskuntza negulozorroto zutenean, Gipuzkoako Aldundian Julio Urkixo Mintegia eratu zen, haien hutsunea betetzeko asmoz. Garrantzizko aldizkari bat zor diogu



■ KOLDO MITXELENA (1915-1987)

Gipuzkoako Errenterian jaioa, Salamanca eta Gasteiz-en izan zen irakasle katedraduna. Euskaltzaindiko Iker Saileko burua izan da. Euskalaritzaren historian, Euskal Herriak eman duen bururik argien eta jantzienetako bat. Beroni zor zaizkio, beste lan askoren artean, *Fonética Histórica Vasca* (1961) eta *Orotariko Euskal Hiztegia*-ren proiektua eta lehen argitalpena (1987).

■ UNIBERTSITATEA

Unibertsitate estatalek oso berandurarte ez dute euskal katedrarik sortu Euskal Herrian (Gasteiz, 1977). Hori dela eta, Euskalaritza hemengo Unibertsitateetatik kanpo egin behar izan zen, erbesteko Unibertsitateetan edo barneko aldizkari euskalarietan, euskaltzaleen taldeetan edo bigarren maila bateko ikastetxeetan. Gasteizko Filologi eta Geografi eta Histori Fakultateak du hemengo Unibertsitate estataleko euskal katedra bakarra. Argazkian: Gasteizko Fakultate honetako Liburutegia.


Mintegiari: *Anuario de Filología Vasca Julio Urquijo* (= ASJU), 1953-1954.etan jaioa eta, eten luze baten ondoren, 1967az geroztik urteoro kaleratzen dena. Mintegi honek argitara zuen, besteak beste, K. Mitxelena-ren *Fonética histórica vasca* ere (1961).

Nafarroan, "Príncipe de Viana" Erakundearen bidez gizarteratu du Aldundiak euskal lana. Lehenik izen bereko aldizkariaren bidez, eta 1969tik aurrera batez ere *Fontes Linguae Vasconum* erreibistarekin. 1970-1980.etan Euskalaritzaren aldizkaririk interesgarriena izan zen berau. Iparraldean, Euskal Erakustokiaren ingurumarian egin izan dira euskal lanak, eta *Gure Herria* (1921) eta *Bulletin du Musée Basque* (1924) argitalpenetan ematen dira argitara. Araba eta Bizkaiko Aldundien ekarria mugatuagoa izan da oraingoz.

Euskal Herriko Unibertsitatean Gasteizko Euskal Filologia Fakultatea aipatu behar da lehendabizi, Euskalaritzari eskola berri bat eman diezaiokeen erakundea. Horrekin batera, EHU berak dituen besteak: Donostiko Zorroagan jakintza-alor ezberdinetatik ari den euskal lana (Psikolinguistika,




Soziolinguistika, etab.) eta Leioan alfabetatze teknikoaren alorrean jaiotzen ari diren ikerkizunak. Irakaslego-Eskoletan ere sartua da euskara, eta hizkuntzaren arazo pedagogiko-didaktikoei iker-eremu zabala bete dezakete. EHUarekin batera, Bordale-III gogora dezakegu, euskarak katedra bat bait du han, lehenago Lafon-ek eramana eta az-



■ FONTES LINGVÆ VASCONVM (1969)

Nafarroako Foru-Diputazioak sortutako aldizkari hau, urtetan errebista euskalaririk saiatuena izan da, eta, jaino zenetik, hizkuntzaz ziharduen lagunarte zientifikoaren komunikazio-tresnarik erosoena.



ken hogei eta gehiago urtetan Haritxelhar-en ardurapean egon dena. Unibertsitate ez-estatalen artean, aintzakotzat hartzekoak dira, Deustukoan Euskal Saila, eta Nafarroakoan euskal Antropologia eta Hizkuntzarena. Beste molde batean, Bergarako UNEDeren lanak, edo UEUren ikastaro eta argitalpenak garrantzizko zeregin soziala betetzen ari dira, gainerako tokitan ezin gaindituak gertatu ohi direnei gaina hartuz. Azkenik, Euskal Herritik urrun dagoen Reno/Nevadako (USA) Unibertsitatean “Basque Studies Program” deitua munta handikoa izan da euskal bibliografia eza-gutzeko, bere bibliotekagatik eta han burutu diren ikerlanengatik.

Erakunde pribatuen artean, batzuek hutsune nabariak bete izan dituzte, ikerlanak burutuz edota argitalpenak eskainiz. Soziolinguistikan garai batean aitzindari izan zen Gaur taldea, eta Siadeco-ren lanek, jada, bilduma osoa egiten dute. UZEIrenak, berriz, euskararen terminologi bankurako oinarrizko langaiak bildu ditu 1977tik hona.

■ GEROA PRESTATZEN

Hizkuntzaren iragana edo gaur eguneko egoera aztertzearekin batera, etorkizunerako hizkuntzaren beraren baliabideak (*corpus*-a esan ohi dena) prestatu behar dira, normalizazioa ongi gauzatu ahal izateko. Helburu horrekin egin ohi du Euskaltzaindiak zenbait Batzarre eta ikerkuntza. Bide beretik doa, adibidez, UZEIren lana ere. Argazkian: M. Zalbide-k prestatutako *Maileguzko hitzak* (1982).

Horien ondoan, lau Diputazioek sortutako Eusko Ikaskuntzaren euskal lana bizkortu egin da berriro azken urte hauetan. Etnografiatik begira egindako hizkuntz azterlanen ondoan, *Hizkuntza eta Literatura (Cuadernos de Sección)* eta RIEV berriak (1983) aldizkariak biltzen dituzte euskalarien ikerlanak.

Argialetxeen ekarpena ere gogoan hartu beharko litzateke hemen, ikergaiak eskuratu edo ikerlanak zabaltzeko duten betekizunagatik. Durangoko Azokaren katalogoetan begira daitezke argitalpen horiek, edota berauetarik euskaraz idatziak *Jakin*-en urteoroko zerrenda bibliografikoan. Hain zuzen, aldizkari honen orrialdeetan aurki litezke, gainera, hainbat ikerlan egin-berriren laburpenak. Bestalde, benetako ikerlana dago inoiz, eskoletarako prestatu ohi diren ikasmaterialen atzetik, hizkuntz trasmisioaren arazo teoriko eta praktikoak aztertuz.


Izan bedi ohar labur hau, aipatu ez ditugun guztientzat ere eskerronez eskaintzen diegu gure omena.

■ IKASTOLEN ALDE (1977-1988)

Lehen orduko euskaltzaleek eta berriagoek, Ikastola eraikiz joan ahala, premiazkoa ikusi dute herritar guztien borondate linguistikoarekin kontatuz, ikastolari oinarriak eta segida segurtatzea. Horrela, herrialde bakoitzeko Ikastolen Federazioek beren barrutiko ikastetxeentzako laguntza urteoroko jai berezietan bildu izan dute: Gipuzkoako Kilometroak (1977), Bizkaiko Ibilaldia (1980), Araba Euskaraz (1981), Nafarroa Oinez (1981), Iparraldeko Herri Urrats (1984).

■ Euskal Herria, euskaldungoa eta erakundeak

Eusko Pizkundetik hasita, ugariak izan dira hizkuntza ospatzeko eta edertzeko bilerak herritarrek: Lore-Jokoak, Euskararen Egunak, Olerti-Egunak, Bertsolariaren Egunak, etab. Hizkuntz defentsaren ikuspegi politikoez kontzientzia argitu edo indartu den heinean, taldekako azalpen herritar horiek ere ugaritu egin dira Euskal Herrian.





■ HERRI URRATS (1984)

Iparraldeko Ikastolak —*Seaska* deituriko erakundearen bilduta— eragozpen sozio-politiko latzekin topo egiten du, eta, inolako babesik ezean, Hegoaldeko euskaltzaleen beharrez ere aurkitzen da, aurrera egin ahal izateko. Urteoroko *Herri Urrats* jaialdian Euskal Herri osoko euskaldun asko biltzen da, euskaldungoaren barneko hizkuntz leialtasuna sendoagotuz.

■ Euskaldungoa, hizkuntzaren alde

Gizarte-komunikabideen albiste-zabalkunde biziagoekin eta garraio-sistema modernoagoen erraztasunarekin, hizkuntzaren kontzientzia herritarrek sekula baino jendetza handiagoak bildu izan ditu. Agerpen sozial guztion kronologia eta historia egiteko dago, baina badago bera bakarrik ere mugarri sinbolikoa izan zena: Euskaltzaindiak eraturiko “Bai Euskarari”ko kanpaina hura (1978). Hainbat herritan bilera eta manifestaldiak egin ondoren, Bilboko Santimamiñe zelaian egin zen ekinaldi osoaren amaiera-ospakizuna: 40.000 lagun bildu ziren futbol-zelaian. Honelakorik ez da errepikatu, baina euskaldungoak baditu urteoro berritzen diren azalpen sozial handiak, Ikastolaren edo Alfabetatze-mugimenduaren inguruan eratuak.

Hiru Probintzietan abertzaleek Erakunde Autonomikoak beren eskuetan hartuta gero ere, jaialdi hauek bizirik dira hizkuntzarekiko borondate sozial berezi hori azalduz eta beste euskal herrialdeetan hizkuntzak dituen biziera atzeratuagoen ez-tenkagarri bezala.

Hain zuzen, lurralde bakoitzaren autonomia euskaltzalea eta egoera-bereizgarriak gogoratu edo arintzeko antolatu ohi dira Gipuzkoako *Kilometroak* (1977), Bizkaiko *Ibilaldia* (1980), *Araba Euskaraz* (1981), *Nafarroa Oinez* (1981) eta Iparraldeko *Herri Urrats* (1984). Bestalde, AEK-k antolatuta, urteoro ospatzen da (1980) erakunde honek darman alfabetatze-lana laguntzeko *Korrika* deitua, euskal lurraldeak zeharkatuz herriz herri, hiriz hiri, joan ohi den ibilaldi luzea.

Hizkuntz borondate sozialaren neurgarri bezala begira litezke ondoko datu hauek, beti ere hurbilpen orokor gisa hartuz: herrialdeko Ikastolen 43 jaialdi handi ospatu dira 1977tik hona (1988a barne), eta orain urteoro bost izaten dira horrelakoak: 1988an 370.000 lagun izan litezke orotara horietan bildu direnak. Gipuzkoako *Kilometroak* jaialdiak 1980tik aurrera 45.000.000 inguruko diru-kopuru gordina jasotzen du urteoro ikustari eta ibiltariengandik. *Herri Urrats*-ek, Iparraldean, gorakada ederrra izan du: 1984ean, Senpere-n 15.000 laguneko jendetzarekin eta 400.000 libera berri

EUSKALTZAINDIAK EUSKAL KULTURA ETA EUSKARAREN ALDE



Zuk ere **BAI** euskarari


bilduz [=8.000.000 pta.] hasi zenak, 1988an 50.000 lagun batu ditu eta 1.100.000 libera jaso. Badago, gainera, euskaldungoaren batasuna oso modu praktikoan erakusten digun zerbait: Gipuzkoa eta Bizkaitik ezezik, Arabatik ere ehuneko portzentaia bat Iparraldeko Ikastolari eta Nafarroako besteren bati eman izan zaio. Bizkaiko Ibilaldian hala izan da betidanik eta 1986az gero irabazietako % 90 da Iparraldera edo Nafarroara doana, baina Arabako Laudion ere % 25ak hartzaile berak izan zituen (1983). Gisa batean nahiz bestean, euskaldungoaren baitan sumatzen den borondate linguistikoa kapital metatu erabilgarria izango da, noski, hizkuntzaren berreskurapen-plangintza datorkeenean.

■ BAI EUSKARARI (1978)

Euskaltzaindiak antolatutako kanpaina hark sekulako erantzun ona jaso zuen Euskal Herriko euskaltzaleengandik, euskaldun izan nahiz erdaldun.

■ KORRIKA (1980)

Alfabetatze-Euskalduntzeek gora egin ahala, behar handiagoak izan dituzte. Gizartean bide berriak urratu eta asmo berrietan gastuei aurre egiteko, urteoroko *Korrika* antolatu ohi du AEK-k, Euskal Herriko herrialdeak korrikaldi berean besarkatuz.





■ KONSTITUZIO ESPAINOLA (1978)

Gaztelania ez diren hizkuntzen ofizialtasunak arautzeko (euskara, katalana eta galegoarena batez ere) oinarrizko Legea 1978ko Konstituzioa da Estatu Espainolean. Diputatuen Kongresuak eztabaidatu eta eman zituen arau horiek: Konstituzioaren Sarrerakoan, 3, 20 eta 148. artikuluetan, eta azken erabakian. Konstituzioarekiko bateragarritasuna Auzitegi Konstituzionalak zaintzen du, denbora berean Gutun Nagusi horrek aitortzen dituen hiritarren hizkuntz eskubideak juridikoki babestuz. Argazkia: Madrileko Diputatuen Kongresua.

■ Hizkuntzaren ofizialtasuna (1979-1988)

Gerrateko hilabete laburrak aparte (1936-1937), euskarak ez du ezagutu Era-kunde Publiko zibilek aitortzen zioten ofizialtasunik, nahiz eta, adibidez, euskara mintzatu eta etengabe erabili izan euskaldunak ziren herrietako Erakundeetan. Espainiako Konstituzioak (1978) aukera eman du, berorrek mugatuta utzi zuen barruti juridikoaren barnean noski, hizkuntzaren bestelako egoera bat ofizialtzeko.

Euskararen lurraldea bi Estatutan (Frantzia, Espainia) eta hiru administrazio-lurraldetan banatuta dago (Euskadiko Komunitate Autonomoa, Nafarroa, Pirinio Atlantikoetako Departamentua). Euskaldungoaren gizartea ere, eskualdez eskualde, gisa ezberdinetan hedatzen da Euskal Herrian.

Oinarrizko datu horiek gogoan izanik, pentsa litekeenez, Administrazioen arabera erritmo, erizpide eta politika-molde ezberdin eta kontrajarriz landu dira hizkuntzarekiko legeak. Eusko Legebiltzarrak eta Jaur-laritzak eskaini dute oraingoz legeria aberatsena, baina Nafarroak ere badu bere oinarrizko legea. Honela, legezko *status* berriak definitzen zaizkio hizkuntzari, edota inolako ofizialtasunik gabe gera daiteke berau, Iparraldean gertatzen denaren gisara.

Badu interesik guretzat ofizialtasunaren funtsezko legeek zer dioten jakiteak. Hegoaldeko hizkuntz bizitza ofiziala gidatu eta baldintzatzen duen Legerik oinarrizkoena 1978ko Konstituzio Espainola dugu. Honek dioenez (3. art.), *gaztelania da Espainiako Estatuaren hizkuntza ofiziala. Espainol guztiek jakin behar dute berau, eta erabili ere erabiltzeko eskubidea dute*. Berez, gaztelania jakiteko *obligazioa* baieztatzen du Konstituzioak, eta berori, Estatuan, *nonnahi* eta *noiznahi* erabiltzeko hiritarren eskubide osoa.

Artikulu bereko bigarren puntuak definitzen du Estatuko beste hizkuntzen eskubide-moldea: *Espainiako beste hizkuntzak ere ofizialak izango dira haiei dagozkien Erkidego Autonomoetan, berauen Estatututei dagokien eran*. Horren arabera, hizkuntza hauen aplikagarritasuna geografikoki mugatuta uzten da bere eskubideetan; hiritar soilei, jakiteko obligaziozkotasunik ez zaie ezartzen, eta konstituziondoko xehetasunak Estatutuetan mugarrizatzeko geratu dira. Horiek horrela, ofizialtasunaren bideak irekita ematen zaizkie gaztelania ez diren beste hizkuntza



■ EUSKO LEGEBILTZARRA (1982)

Euskadiko Autonomi Elkartean, Legebiltzarrari zegokion Komunitaterako konstituziondoko Hizkuntz Legea lantzea. Eginkizun hori burutuz, 1982an onartu zuen Parlamentu honek *Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legea*. Beronek definitzen ditu Hiru Probintzietako hiritarren hizkuntz eskubideak, eta geroztik, *herri-agintesailek berorien erabilpena bermatuko dute*, dio Lege horrek berak. Argazkia: Gasteizko Eusko Legebiltzarra.

■ NAFARROAKO PARLAMENTUA (1986)

Konstituzioari jarraiki eta 1982ko Foru-Hobekuntzaren ondorioz, Nafarroako Parlamentuak ere landu du bere *Euskararen Legea* (1986). Normalizazioaren maila legala definituta dago, beraz, eta ondoko arau-garapenak eta administrazio-praxiak erakutsiko dute legezko baliabide hauen hizkuntz berreskurapen-indarra. Argazkia: Nafarroako Parlamentua.

horietako hitzungo horiei, eta gizartean dituzten indar eta laguntzen araberako garapen legal eta praktikoa interesgarria izan lezakete, Konstituzioak mugaturiko esparruetan.

Zutabe horien gainean jaso da Eskadiko Autonomi Elkarteko Estatutuan hizkuntzaz esaten dena (1979): *Euskarak, Euskal Herriaren berezko hizkuntza denez, hizkuntza ofizialen maila izango du Euskal Herrian, gaztelaniarekin batera, eta guztiek dute bi hizkuntzok ezagutzeko eta erabiltzeko eskubidea* (6. art.). Konstituzionalki deskribaturik dagoen eremuaren barruan ari da, noski, eta hiritarren obligaziorik ageri ez bada ere, agintariak hizkuntza zabaltzeko dutena, hiritar guztien eskubidearen argitan geldituko litzateke definituta. Hizkuntzaren eskakizun juridikoa, hiritar soilarentzat, hemen baino Lege honen on-

doko arauetan eta praxi politiko-sozialean gauzatu eta egikaritzeko litzateke, hain zuzen guztien eskubide bezala aitortzen den hori sozialki ahalbideratzeko uanean.

Erizpide orokor horien gizarteratze-prozesua samurragotzeko, Estatutuak artikulatu bereko bigarren puntuan honela dio: *Komunitate Autonomoko Erakunde Amankomunek, Euskal Herriko egoera soziolinguistikoaren ñabardurak kontutan izanik, bi hizkuntzen erabilpena bermatuko dute, beroien ofizialtasuna erregulatuz, eta beroien ezagutza segurtatzeko behar diren neurriak eta baliabideak erabaki eta baliaraziko dituzte*. Lege honek, beraz, *ñabardura* horiek aintzakotzat hartzean, Euskal Herriko datu demolinguistiko konplexuak go-goan eduki nahi ditu, edozein erabaki edo plangintza egiteko. Bestalde, Hegoalderako euskararen eta gaztelaniaren arteko elebita-





Hiritarraren hizkuntz eskubideak

EUSKADIKO AUTONOMI ELKARTEA

Euskal Herritar guztiek dute hizkuntza ofizialak hitzez nahiz idatziz ezagutzeko eta erabiltzeko eskubide.

Euskal Herritarrei honako funtsezko hizkuntza-eskubide hauek aitortzen zaizkie:

- Arduralaritzarekin eta Autonomia-Elkartean kokatutako edozein Ihardutze-Sail edo Erakunderekin harremanak hitzez eta/edo idatziz euskaraz edo gaztelaniaz izateko eskubidea.
- Ikasketak bi hizkuntza ofizialetan egiteko eskubidea.
- Aldizkariak, irrati eta telebista eta beste adierazpideetako emankizunak euskaraz jasotzeko eskubidea.
- Lanbidezko, lanezko, politikazko eta sindikaritzazko ekintzetan euskaraz aritzeko eskubidea.
- Edozein bilkuratan euskaraz egiteko eskubidea.

Eskubide hauek eraginkorrak eta benetakoak izan daitezten, herri-agintesailak berorien erabilpena bermatuko dute.

(EUSKARAREN ERABILPENA ARAUZKOTZEKO LEGEA, 1982: 1. Idazpuntua, 5. atala).

NAFARROA

Gaztelania eta euskara Nafarroako hizkuntza propioak dira, eta, ondorioz, hiritar guztiek izango dute eskubiderik beroriek ezagutu eta erabiltzeko.

Hizkuntza tarteko dela hiritarren artean bereizkeriarik gerta ez dadin botere publikoek beharrezko neurri guztiak hartuko dituzte.

Lege honetan erabakitakotik erator litezkeen ihardunbide guztietan eta haien legeondoko garapen-xedapenetan botere publikoek hizkuntz araua errespetatu egin beharko dute.

Lege-Foru honetan ematen diren hizkuntz eskubideak babesteko, hiritarrek Epaileengana eta Auzitegietara jo dezakete.

(EUSKARAREN LEGEA, 1986: 2, 3 eta 4. artikuluetatik)

LEGERIA

Parlamentuetatik ezezik, Gobernutik eta Gobernu-Sailetatik hainbat Dekretu, Agindu, Erabaki eta Arau sortzen ari da hizkuntzaren ofizialtasunaz. Askotan ez da erraza hori guztia ezagutzea; horregatik, hizkuntzarekiko legezkoak honelako bilduma berezietan metatzen dira, urte bakoitzekoak emanez.

suna segurtatu egin nahi da, eta bi hizkuntzen hiritarren ezagutza baliabide politikoaren lorkizuntzat hartzen da, baina egitekoa hirugarren puntuak gehitzen duen oharrarekin begiraturaz: *Hizkuntza dela eta, ez da inor gutxietsiko.*

Ondoko bi puntuetan (4. eta 5.a) bizpahiru arazo handi ukitzen dira: Hizkuntz Erakunde ofizialarena, Akademiarena alegia, eta gainerako euskal lurraldeekin eta berorietako erakunde kultural edo akademikoekin izan beharko liratekeen harremanen ardua. Euskararen herrialdearteko eta estatuarteko lurralde-presentzia baieztatzen da, eta hizkuntza salbatu eta garatzeko berorien arteko hitzarmenen premia. Beharrian honi erantzuteko, nazioarteko harremanetan Gobernu espainola jartzen da bitartekaritzat, edota Gorte Jeneralen baimenarekin Eusko Gobernua bera izango litzateke berorien arduradun zuzena.



Konstituzio-Estatutuetakoz zimentarri hauen gain jaso da Komunitate Autonomoko beste hizkuntz legeria, baina puntu batzuetan Auzitegi Konstituzionalaren epaiak tarteko direla. Hasteko, Estatutuaren garapenerako legerik oinarritzkoena *Euskararen Erabilpena Arauzkotzeko Legea* da (1982). Ondoren, hainbat Dekretu eta Agindutan xehatu da goragoko beste Lege horietan esandakoa, Administrazio-sail ezberdinetarako edo ezberdinenetatik hizkuntzarekin zerikusi zuzena edo urrunagoa duten eremutan arauak emanez. Hemen labur ezina da hori dena, eta jakin beza irakurleak, Hiru Probintzietan guztiaren berri zehatzak izateko *Euskarari buruzko Araubidea/Normativa sobre el Euskera* deritzan urteoroko lege-bilduma azter dezakeela (HAEE/IVAPEk argitaratzen emana. Gasteiz: 1985, 1986, 1987).


Hori gorabehera, punturik praktikoenara bilduz, azpimarratzekoa da, hainbeste lege-testu idatziren artean, aipatutako 1982ko Normalizazio-Legeak hiritarren hizkuntz eskubideaz esaten duena (bere 1. Idazpuruaren 5. atalean): Hiritarrek eskubidea dute euskara jakiteko, eta, beraz, Admi-

nistrazioak, eskubide hori gauza dadin, baliabideak jarri behar ditu; Administrazioarekin harremanak, hitzez edo idatziz, euskaraz izateko eskubidea du herritarrek; eta ikasketak, komunikabide-argibideak, lanbidezko, politikazko eta sindikatuetakoz ihardukizunak euskaraz jaso eta bizi izateko eskubidea, eta, oro har, *edozein bilkuran euskaraz egiteko eskubidea*. Legezko aitortzen horien gain euskaldungoak eta herritar guztiak egin diezaiokete indar Administrazioari, agindutako baliabideak jarri eta premiazko erraztasunak eman ditzan.

Nafarroan ere egin du hizkuntzarekin legeriak bere bidea. Lege-mailan, Nafarroako Foru-Hobekuntza (1982) Estatutuaren parekoa da; beronen 9. artikuluan ematen dira hizkuntzen ofizialtasun-arauak. Testuak dioenez, *Gazteleraz da Nafarroako hizkuntza ofiziala*, baina *Euskarak ere hizkuntza ofizial-maila izango du Nafarroako eskualde euskaldunetan*. Eta bi baieztapen horien osagarri Hobekuntzak ondoko lege-garapena eta eremu sozial zehatzen bat edo beste ditu gogoan: *Foru-lege eskualde horiek zehaztu, euskararen erabilpen ofiziala arautu eta, Estatuko*

HIZKUNTZA POLITIKARAKO ZUZENDARITZA NAGUSIA (1983)

Eusko Jaurilaritzak, Gobernutik gidatu behar den politika egiteko Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia sortu zuen (1983an idazkaritza bezala sortua). Erakunde hau organikoki zuzenean Lehendakari Idazkaritzatik dago, bere lan-egoitza Lakuako Gobernu-Etxean badu ere. Nafarroako Gobernuan ere pareko zuzendaritza bat dago. Argazkia: Ajuria Enea, Gobernu-Lehendakariaren Etxea.



OFIZIALTASUNAREN LEGEZTAPENAK

Euskararen ofizialtasuna onartu ondoren (Hiru Probintzietan 1979an, eta Nafarroan 1982an), erabaki politiko horren legezko garapena etorri da bi Komunitate Autonomo hauetan. Oraingoz, Iparraldean ez dago antzeko ezer.

**Eskolaurrea eta OHO
HERRI-IKASTETXEETAKO IRAKASLE EUSKALDUNAK**

| HERRIALDEA | .1976-1977 | | 1983 | | 1985-1986 | | 1988* | |
|----------------|------------|--------------|--------------|---------------|--------------|---------------|--------------|---------------|
| ARABA | 20 | % 2,2 | 150 | % 12 | 375 | % 22,2 | 500 | % 34,9 |
| BIZKAIA | 140 | % 3,7 | 840 | % 19,9 | 1.381 | % 26,3 | 1.751 | % 33,5 |
| GIPUZKOA | 154 | % 8,0 | 676 | % 34,4 | 868 | % 36,7 | 1.043 | % 45 |
| NAFARROA | 70 | % 4,2 | — | — | — | — | — | — |
| GUZTIRA | 384 | % 4,6 | 1.666 | % 21,6 | 2.624 | % 28,2 | 3.294 | % 36,6 |

*OHOekoak bakarrik.

ITURRIAK: 1976-77rako, SIADECO (1978): *Bases para un futuro Plan de Actuación en favor de la normalización del uso del euskera*.-1983, 1985-86 eta 1988etako datuak Hezkuntz Sailarenak dira, eta 1988koak M. Zalbideren lan batez eraturikoak dira, gainera. Datu hauek fidagarritasun mugatua dute, nahiz eta berak izan, oraingoz, fidagarrienak.-1976-77 eta 1983etakoak irakasle euskaldunen kopuruak dira; 1985-86 eta 1988etakoak EGA titulua dutenena. -Iparraldekoaz ez dakigu deus, eta Nafarroako daturik ez dugu bildu ahal izan, 1976-77koa ezik.

FUNTZIONARIEN EUSKALDUNTASUNA (EKA, 1989)

| | Jaurlaritza | Ente Autonom. | Aldundiak | Hirib. Udalak |
|----------------------------|-------------|---------------|-----------|---------------|
| Erdaldunak | 29,57 | 46,27 | 44,22 | 54,13 |
| la-euskaldunak | 50,22 | 36,86 | 36,35 | 35,73 |
| Euskald. alfabetatu gabeak | 10,30 | 11,35 | 10,26 | 5,89 |
| Euskald. alfabetatuak | 9,90 | 5,50 | 9,10 | 4,24 |

Iturria: Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia. Eusko Jaurlaritza.

■ **FUNTZIONARIEN HIZKUNTZ PRESTAKUNTZA**

Administrazioaren eta hiritarren arteko harremanak euskaraz izateko eskubidea, eta praktikan eskubide horren arabera bizi ahal izateko erraztasunak esan nahi ditu hizkuntz ofizialtasunak. Horregatik, Administrazio erdaldun huts batetik elebidun batera iristeko beharrezkoa da maila eta mota guztietako funtzionariak euskaldundu eta alfabetatzea. Funtzionario zahar eta berriagoen eskubideak errespetatuz, hizkuntz plangintza bat prestatu du, lanpostu bakoitzaren eskakizun linguistikoak deskribatuz, ondoko urteetako elebiduntze-prozesua arautu eta horretarako baliabideak eskainiz. Laukian EKako funtzionarien hizkuntz egoera (1989).

■ **IRAKASLEGOA EUSKALDUNTZEN (1981-1988)**

Hizkuntzaren normalizaziorako tresnarik baliozkoenetakoa izan ohi da irakasmunduaren hizkuntz lankidetzak; baina, horretarako, irakaslegoa bera da lehenik prestatu behar dena. Hiru Probintzietan IRALE (= Irakaslegoaren Alfabetatze-Euskalduntzeak) programa izan da irakasleen euskalduntze-alfabetatzeaz zuzenean arduratu dena. Irakaslegoaren euskalduntasunaren aldakuntzak ikus daitezke ondoko estatistika honetan, herrialdez herrialde eta urtez urte.

legeria orokorraren xedearen barruan, hizkuntza horren irakaskuntza ordenatuko du. Badirudi argi daudela bi puntu, Nafarroako Hobe-kuntzaren kasuan: a) Gaztelaniari aitortzen zaion lehentasun ofizial orokorra, b) Euskarari ematen zaizkion bigarrentasun ofizial eskualdez mugatua. Oro har, hizkuntza propio horrela aitortuaren ofizialtasun hau, Espainiako beste Estatutuen azpitik geratu da (ikus Baleareak, Euskadi, Galizia, Katalunia edo València-ko Estatutuak).

Baldintza juridiko eskasago hauetatik hasita, landu zuen Nafarroako Parlamentuak Euskararen Legea (1986). Legean aipatzen diren helburuak hauek dira: Euskararen ezagutza eta erabilpenaren hiritarren eskubidea babestea, eta horretarako tresneria definitzea; euskararen berreskurapen eta garapenerako baliabideak zaintzea, eta erabilpena eta borondatezko irakaskuntza mailakotua bermatzea. Guzti honek —areago oraindik Lege honek dituen hutsuneengatik— legeondoko arautegi zabala beharko du, eta eskubide-obligazioen aginduzkotatun legala zehazkiago mugarritu premia somatzen da Legean.



Hizkuntzaren erakunde sozialak

Hizkuntzaren etorkizuna segurtatzen esku-har dezakeen eta egiteko horretan parte-hartu beharko duen erakunde euskaltzale asko dago euskal gizartean; batzutan, Erakunde Publikoekin harreman gutxi-asko hertsiekin, edo, bestetan, haietatik urrun edo haiekiko mesfidantzaz. Biztanlerian euskaldungoak duen portzentaia baxua eza-gutuz, badirudi ezinbestekoa dela alde ditugun edo ditzakegun indar sozial guztiak lan planifikatu batera deitzea, erdaldun euskaltzaleak ere barne direla.

Aurreko orrialdeetan euskararen ofizialtasunarekiko zenbait oharkizun aurkeztu ditugu, eta komeni da orain —izendatuki inbentario osoa egin gabe ere— euskararen indar sozialei buruz azpimarraketa batzuk egitea. Ariketa praktiko eta argigarria izan liteke, irakurlearentzat, *Argia*-ren azken *Urte-karia* (1988) hartu eta “Euskal Kulturaren Agenda”ri begiratu bat ematea. Agian, izan, ez dira hor dauden denak, eta, beharbada, izan, badiren batzuk ez daude hor, baina bururakizunik franko jaso daiteke bertatik. Euskararen aldeko euskal gizartearen gaur eguneko indar eta kapitalak aipatu behar di-

tugu kapitulu honetan, nolakoak diren deskribatzeko ez bada ere, badirela baieztatzeko bederen.

Hizkuntzaren transmisio- eta hedapen-sistema handi erabilienak ikusita dauzkagu: sistema mintzatu edo irudiztatuz dihardutenak (Eskola, Irratia, Zinema, etab.), sistema idatziz ari direnak (Prensa, Liburugintza, etab.). Mundu horiek beren legezko erakunde ez-ofizialak dituzte, edo lantalde ez-formalagoak dira. Batzutan, ekintzaleen mugimenduak dira; bestetan, irabaz-asmorik gabeko erakunde profesionalak, edo baita irabazi-bila eraturako enpresak ere. Edozein motatakoak direla ere, hizkuntzaren presentzia soziala indartu eta bermatuko dutenak baldin badira, euskararen gizarteko kultur sarea korapila eta trinko lezakete. Aipa ditzagun batzuk.

Erakunde eta talde batzuk, euskararen aldeko ekintzaleak dira zuzenean: Beren euskaltzale-lanerako, Euskal Herri osoa hartuz dabilta ihardunean (*Euskal Herrian Euskaraz* edo *Euskarazko Kulturaren Batzarrea*, adibidez), eskualde edo bailararen baten ba-

ARGITALPEN-BANATZAILEAK

Euskarazko kultur produkzio idatzi eta abestuari hamaika eta bost ahalegin kostatu zaito merkatal sarean sartzea. Gaur egun, lortu samarturik dago hori, hainbat etxe pribaturen lanari esker. Normaltasunerako pauso bat gehiago dugu. Argazkian: *Zabaltzen*-en biltegiak (Donostia, Ibaeta). *Zabaltzen* dugu enpresa banatzailerik handiena (1988).



INFORMAZIOA ETA KOORDINAKUNDEA

Euskarazko Kulturaren Batzarrea deituak argitaratu ohi duen asteoroko Prensa-Dokumentazioak, euskal kulturaren arazo larri pare bat gogoratzeko balio digu: Informazioarena eta koordinakundearena. Kultura eta hizkuntza minorizatuak zaila izaten dute, berak bizi diren gizartearen beraren kontzientzian presente egotea, eta nekeza berek beren buruaz oharatuki bizitzea, informaziorik ezak dituen arrisku guztiekin. Era berean, bestalde, Euskal Herria administrazioz sakabanatuta dago: Nola batu indarrak, denok elkarrekin batera indar egiteko? Estatutuan aipatzen diren (6. art., 5. puntuan) komunitarteko eta estatuarteko *itunak* eta *hitzaizumenak* premiazkoak gertatzen dira Erakundearen artean ezezik gizarteko mugimenduetan ere. Informabide haiek eta koordinakunde haiek ezin aiantziak ditu euskaldungoak.



■ DURANGOKO AZOKA (1965)

Durangoko *Euskal Liburu eta Disko Azoka* hogeitabost argitaletxe eta lau Diputazioen argitalpenekin ireki zen lehenengo aldiz, Gerediaga Elkartearen deia erantzunez (1965). Harez gero urteoro ospatu da, eta 1986-1987 urteetan bi ekinalditan egiten da (maiatzean euskarazko liburuak bakarrik, eta abenduan Euskal Herriaz nahiz euskaraz dihardutenak). 1988ko abenduan 62 liburu-etxe eta 7 disketxe eduki du bere *stand*-a. Kultura idatziaren, idazle, irakurle eta erosleen topaleku orokorra da Azoka hau.

rruan lan eginez (Durangaldeko *Gerediaga Elkartea*, esate baterako), herri nahiz auzo jakin batean jardunez (*Arrasate Euskaldun Dezagun* elkartea bezalakoak, nahi bada), edo tokian tokiko iharduera bereziak eratuz (Donostiako *Arrano Beltza*, Bilboko *Euskal Afariak* dira kasu ezagunak).

Euskarari begira, baina sektoreka, Euskal Herri osoan lanean ari den Elkargo edo Koordinazio-erakunde pribaturik ez da falta: gisa eta erantzukizun oso ezberdinekin era litezke honelakoak. Alfabetatzean AEK daukagu; Euskal Editoreen Elkartea (EEE) eta Euskal Idazleen Elkartea dira, adibidez, euskarazko mundu idatzian topa ditzakegunak, edo, eginkizun teknikoago batean, terminologian, UZEI; eginkizun orokor sektorial hauetakoa izan liteke Ikastoletako Federazioen Elkartearena ere, Udako Euskal Unibertsitatearena irakasmunduan, edo liburu zabalkunderako Durangoko Azokarena nahiz, praktikan, Zabaltzen etxearena; Antzerti-Taldearen Elkargoa teatro-produkzioaren barrutian, etab.

Bestalde, badago hizkuntzarena baino betekizun askotarikoagoak dituen aintzatzat hartzeko Erakunde sozial aipagarriarik. Alderdiek, Sindikatuek nahiz Elizek, beren programa edo organigrametan izan ohi dute kulturaz eta/edo euskaraz arduratutako sail edo batzorderik. Erakunde-atal hauek jada eman dute batzutan fruiturik (Elizbarrutiarteko Liturgi-itzultzaile taldearen lanak edo Aurrezki-Kutxetako Euskara-Batzordeen Koordinakundeak, esate baterako), eta etorkizuneko hizkuntz plangintzetan indar eragile biziak izan litezke honelakoak. Erakunde zuzenki ez-hizkuntzazkoetan txertaturik eta onartuta dauden euskal erakunde-adar berezitu hauek arretaz begiratzekoak dira beren efektu sozial biderkatzaileratik. Euskaltzalegoari dagokio gizarteko erakunde nahiz talde-sarean hizkuntzaren grina landatzea.

Eta euskaltzalegoak zaindu behar ditu, eta indarberritu ere, hizkuntzaren alde sortuta dituen antolamenduak eta hizkuntz produktiorako entpresak. Itzultzaile-



-Eskola edo taldeak funtsezkoak dira, adibidez, normalizatorako kapitulu batean, edo bikoiztaileak dira munduko irudi-produkzioari euskararen iragazkia jartzen diotenak, horrek ekarri dakarren oldar guztiarekin. Horien ondoan, premiazkoa da geure tradizioan erroturiko eta etengabe berritutako ekoizpen originalak bideratzea: *Ikusager* edo *Jaizkibel*-en antzeko entepresek kolonialismo kulturaletatik jarein gaitzakete. Testugileak, filmegileak, marrazkilariak, bideogileak, disketxeak..., hemen izengabeki aipatzen ari garen hizkuntz erabile eta zabaltzaileak izan daitezke laster hizkuntzaren plangintza politikoaren sostengurik iraunkorrenak eta seguruena. Hizkuntzaren geruza sozio-kulturala *humus* emankorra da.

Banakako eta bakarkako baliozko lan es-timagarri guztien ondoan taldekatze-prozesuak ezagutu ditugu euskal kulturaren. Batzutan, bide horretatik, antolamendu iraunkor-rrak jaio ziren (*Elhuyar*, esate baterako, testugintzan eta alfabetatze teknikoan); ugariagoak izan dira bizitza laburragoko elkarteak. Taldean bilduta dihardutenen ekarpena erabakiorra izan ohi da, gure Unibertsitateetako Mintegiek, *Labayru* bezalako erakundeek edo Antzerti-taldeek erakutsi dute-

nez. Norbanakoaren interes mugatuak defendatuz beroriek gaitutako dituzten elkargo sortzaile aurrerakoiek euskarari alor irabazi berriak eskura diezazkiokete. Adibide bat, esan nahi dena argi dezan: Bertsolarien Elkarte, esate baterako, bertsolari bakoitzaren babespe pertsonala izan daiteke, edota, bertsolariaren lan orokorra segurtatuz, funtsezko hobekuntza tekniko eta sozialak plangintza epekatu batean pentsatu eta eraman ditzake.

Euskaldungoa, Historia luze batetik etorki, datorren mende-erdian euskararen hil-ala-bizitzko lanera doa. Plangintza bat beharko du lanerako, baina indarrak gizartean daude, edo ez, eta Erakunde Publiko plangileek harrobi horretan asmatu beharko dute eraikuntza berrirako baliabideak ateratzen.

■ ERAKUNDE SOZIAL PRIBATUAK

Gizartean hizkuntz arduratu diren erakunde pribatuek garrantzizko betekizunak izan dituzte batzutan. Derioko Seminarioak, adibidez, Irakasle-Eskolan edo udako euskal ikastaroetan,

Azken Gogoeta

Nahikoa luzea gertatu zaigu orrialde hauetan zehar honainoko bidea. Eta, hala ere, beti izan da motza eta eskasa edozein punturi eskaini dioguna. Hauetako bakoitzari leihatila txiki bat ireki zaio, begiratu bat eman diogu, eta aurrera pasa gara. Agian, lehen argibide orokorrenak jasotzeko lain izan da. Ez besterik.

Dena den, burutzeraz goazen ibilaldi honek gisa askotako azterkizunak jarri dizkigu aurrean, batzutan gozagarri, bestetan samingarri. Gure herriaren historiarekin doa, noski, hizkuntzarena ere, eta haren argilunak honekin batera doaz ia beti. Euskal Herriak iraun egin du bere nortasunean, eguneroko Historia nahi bada apal baina harrigarriro nekaezin batekin. Eta nortasun iraunkor honetan hizkuntzak lekurik behinena izan du.

Euskal hiztunak molde ezberdinetako gorabeherak ezagutu ditu inguruko hizkuntzetako hiztunen artean. Antzinako auzokide haiek ez zuten patu onik izan, eta Erromaren eraso kulturalari aurre ezin eginik hil ziren. Geroko historian, garai berriak segidan zetozela, testigurik zaharrena euskara gertatu da beti. Iraganaren zentzu bizia duenak miretsi baizik ez ditzake egin honelako iraupen zaharra eta etengabe gaztetua izan den hizkuntza.

Iraun eta bizi. Baina bizitza ez da samurra izan: oraingo hitzekin esateko euskaldungoak erakutsi duen "eutsi-endarra" ez da makala agertu; baina ongi kostaturikoa gertatu da. "Ibilaldi Luze" honetan,

eroritako asko izan dugu. Ipar-haize zorrotzik, izozte beltzik eta eraso makurrik ez zaio falta izan euskaldungoari: ondorioz, beso elbarririk edo bihotz izozturik ere ez. Ikusi ditugu jada hondamendi hauek. Ez da eroso gertatu hizkuntz zapalkuntzetako bidegabekeriei gaina irabaztea. Are gutxiago zapaltzaile protagonistak geure herrikoak, eta agian euskaldunak gainera, genituenean.

Asmatu, ez dugu beti asmatu. Jasan dugu alferrikako bidegaltze historikorik: Geurearen kaltetan zetozen joera edo jarrera batzuren ondorioak, mendetan pairatu behar izan ditu hizkuntzak. Herri xume eta penatuaren irabazia izan da, hala ere, lortutako superbizipena. Zapalkuntzek, zabarkeriek edo desbiderazio kaltegarriek ez dute aski indar izan herri horren iraun-gogoa itotzeko. Euskarak gure gizartean izan duen protagonistarik fin eta leialena berori izan dela ezin uka. Eta ez dago zergatik pentsa, hori dena beti ohartugabeki jazo denik. Historia etnolinguistikoa ezagutzen duen merezimendurik handieneko hizkuntz jarraitutasun herritar baten aurrean gaudeke gure kasuan.

Hizkuntzaren segidatasun etengabe honetan, egon da une eta aurrerrapen ederrik. Ikusi ditugu horrelakoak ere; batzuetan talde sozial zabalak izan dira aldakuntza soziolinguistikoko horien protagonista; bestetan, norbanako saiatu batzuren ahalegin pertsonalek burutu dituzte hizkuntzaren aldeko

ekintza berriak. Taldean edo bakarka, aterpe instituzionalik gabe, edo kontra, lan estimagarririk egin izan dute euskaltzaleek.

Eta aurrera-pauso horiek ez dira eman ausaz, arrazoirik nahiz borondaterik gabe, bitartean euskararekiko jarrera pertsonal edo sozialak, eta geure herriaz genuen irudi, estimu eta asmoak berritu ditugulako baizik. Norbanakoa zerbait ahula da, gizarte osoaren eta herri-historiaren barnean; baina berorren kontzientzi argiak eta adoreak taldearen barrunbe ezkutu eta isilari ahotsa eta aurrera-gogoa eman diezazkiekete. Hortik, norbanako bakoitzaren erantzukizun sozial eta historikoa.

Erakunde, klase nahiz talde sozial gidariek ez dute, oro har, tamaina berean, zegokien betebeharra beren bizkar hartu. Honelako baieztapen larri batek beharko lituzkeen frogatan sartu gabe ere, aurreko orrialdeetan ikusitakoaren ondoren ezagutzen dugu jada diogunaren frogagarririk.

Itxura guztiz, XX. mendearen amaieran piztuko zaio euskaldungoari azken arriskuaren argi gorria; baina baita egokiera historiko irekienaren itzaropena ere. Agian muga-mugan gaude: *behera-beharrari gaina hartu eta gorabideari ekiteko unean*, esan nahi da. Gizarte erne baten borondateak eta indarrek, eta agintarien zinezko nahiak, abileziak eta baliabideek emango dute laster euskararen geroaren neurria.

Hartuko duzu herri baten ahotsa,
eta zure herriaren ahotsa izango zara,
eta zu zeu herria izango zara, betirako

V. ANDRÉS i ESTELLÉS

GUK GUZTIOK:

Milaka urtetatik hona,
hizkuntzaren katean belaunaldiz belaunaldi
etenik gabe gatozen euskaldunok:
arbaso guztien euskara ez dugula salduko;

GUK GUZTIOK:

Erbesteko nahiz bertoko
hizkuntza eta herri guztietatik
Euskal Herria egiteko bildu garen euskaldungaiok:
ukatu baina zor zaigun euskararen ondarea
irabazteko borrokatuko garela;

GUK DENOK ELKARREKIN:

Euskal Herri
batua, anaikorra eta osorik euskalduna
egin nahi dugunok:
lagunartean eta familian
lanean eta maitasunean
gure buru-bihotzak
euskararen alde emango ditugula,

ZIN EGITEN DUGU
geure kontzientziaren gain, zutik.



I.

- 13 **HIZKUNTZARI OMEN eta KANTA**
- 14 **Etxepereren asmo euskaltzaleak: “Kontrapasa” (1545)**
- 16 **Ernazimentuko idazleak**
- 16 Lorentzo Valla (1444)
- 16 Antonio E. de Nebrija (1492)
- 16 Fernão de Oliveira (1536)
- 17 Joachim Du Bellay (1549)
- 17 Cristóbal de Villalón (1558)
- 17 Fray Luis de León (1583)
- 18 **Aro Garaikideko zenbait adibide**
- 20 F. Schiller (1759-1805): “Musa alemana”
- 21 Olavo Bilac (1865-1918): “Hizkuntza Portuguesa”
- 22 Irakli Abaxidze (1960): “Katamon ondoko boza”

II.

- 25 **ATARIKO LEHEN AURKEZPENAK**
- 26 **Euskara**
- 26 Lelo-ren kanta
- 26 Euskalarien Nazioarteko Jardunaldiak (Leioa, 1980)
- 27 **Euskara, Europako hizkuntzen artean**
- 27 Europako hizkuntzak (mapa)
- 28 **Euskal hiztunagoa**
- 28 Euskaldungoaren estatistikak
- 29 **Euskararen lurraldea**
- 29 Euskararen hizkuntz area
- 30 **Euskararen mapa berriak**
- 30 Nafarroako hizkuntz areak (1986)
- 31 EKAKo hizkuntz eskualdeak (1988)
- 32 **Euskararen lurralde historikoak**
- 32 Euskara, historian zehar (mapa)
- 33 Basconillos de Muñó (Burgos)
- 33 Atlas linguistikoak eta hizkuntzen geografia
- 34 **Jatorria eta ahaidekoak**
- 35 Euskararen hizkuntz ahaidetasunak
- 36 Munduko lehen hizkuntza handiak
- 37 Munduko biztanleria, hizkuntz familien eta hizkuntzen arabera
- 38 **Sistema fonologikoa**
- 38 Euskararen baliabide fonologiko berezienak
- 39 Euskara/Gaztelania/Frantsesa (lauki konparatiboa)

III.

- 41 **HISTORIAURRETIK ERROMAREN ERORIKOA ARTE**
- 42 **Lehenengo mila eta bostehun urteak**
- 42 Euskara noiztandik?
- 43 Euskaldunak noiztandik?
- 43 Euskara, orain 2.500 urte (mapa)
- 44 **Euskal Herri inguruko hizkuntzak**
- 44 Botorritako Brontzea
- 44 Lergako idazkuna
- 45 Iberiera eta euskara
- 45 **Pirinioetan eta Akitanian**
- 45 Euskal Herriko etniak eta hizkuntzak
- 45 “Andere”
- 46 Pirinioetako euskara, Antzinatean
- 46 **Idazle klasikoak: Herriak eta hizkuntza(k)**
- 47 Ούάσκωνες. Βαρδύλλοι. Ἀκυϊτάνοι.
- 48 Euskal tribuak
- 48 **Euskal Herria erromatartzen**
- 49 Teseo eta Minotauro (Iruñea)
- 49 Ama Xantalen (Irun)
- 50 **Euskara eta latina elkarren auzoko**
- 50 “Lapur dum” (Baiona)
- 51 Latinetik, zer har?
- 51 Baina euskarak iraun egin zuen

IV.

- 53 **EUSKARA, ERDI AROAN**
- 54 **Euskara, Erdi Aroan zehar**
- 54 Euskal Herria, beregaina
- 55 Euskal Herriko Santiago-Bideak
- 55 Euskaldunak, birpopulatazaila
- 56 **Kristautzea eta euskara**
- 56 Euskal Herriaren mugak
- 58 **Euskara eta hizkuntza erromanikoak**
- 58 Inguru erromanikoa (mapa)
- 59 **Errioxako Euskal Herria**
- 59 Glosa Donemiliagarrak
- 59 Euskararen aldeko epaia
- 60 Oja-Tirón ibaiaren arroak
- 60 Lekuizen euskaldunak (Oja ibaiaren arroa)
- 61 Euskal toponimia Errioxan eta Burgos-en (mapa)
- 62 **Erdi Aroko "hizkuntza Nafarra"**
- 62 "Lingua navarrorum" (1167)
- 62 Nafarroako Monastegiak: Leire
- 62 Nafarroako Forua (XIII. mend.)
- 63 Nafarroa etnolinguistikoa¹
(Berant Erdi Aroko mapa)
- 63 Nafarroako bizilagunak (1366)
- 64 Arabieratik euskal hitzak
- 64 Latinetiko hiztegi kristaua
- 64 Gorteko gutuna (1415)
- 64 **Literaturaurreko azken pausoak**
- 65 Milia Lasturkoren eresia (c. 1450)
- 65 Joan Zumarragaren gutuna (1537)

V.

- 67 **EUSKARA, ARO MODERNOAN (1545-1789)**
- 68 **Bi mende t'erdi moderno**
- 68 Espainieraren defendatzaileak
- 69 Hizkuntzen lehen gramatikak
- 69 **XVI. mendeko aukera berriak**
- 70 Etxepare-ren "Sautrela" (1545)
- 70 Nafarroa Beherean Garazi
- 71 **Hizkuntzen alde Erregeak**
- 71 Frantzisko I.a: Ordenantzak (1539)
- 72 Joana Albretekoa (1555-1572)
- 73 **Hizkuntzaren aukera galdu bat**
- 73 Hitzaurre militantea
- 73 "Kontrapasa"
- 73 Bibliaren itzulpena
- 74 *Testamentu Berria* (1571)
- 75 Itzulpenaren testuingurua
- 74 **Apologistak: Garibai eta Mariana**
- 75 E. de Garibai: *Compendio Historial* (1571)
- 75 A. Poza Lizentziatua (1587)
- 74 Aita Mariana (1536-1624)
- 76 Baltasar Etxabe (1607)
- 76 Klaberia: Bertsoak (1636)
- 77 **XVII.a. mende emankorra**
- 78 **Euskara, Ternuan eta Kanadan**
- 77 Arrantzale euskaldunak
- 78 Ternua
- 78 Québec-en euskaldunekiko toponimia
- 79 **Erakundeetako hizkuntza**
- 79 Nafarroa Behereko Foruak (1611)
- 80 Bizkaiko Batzarreak (1613-1633)
- 81 Eliz Sinodalak (1621, 1700)
- 82 Dotrinak eta predikua
- 83 Ordena erlijiosoa
- 84 **Donibane-Sara eta Iparraldea**
- 84 Donibane-Lohizune
- 84 Etxeberri Dokorea
- 85 Lagun-baimenak elkarri?
- 85 "Egun batez, konpainia on batean..."
- 85 Pedro Agerre: "Axular"
- 86 *Gero* (1643)
- 86 Hizkuntzaren batasun-arazoak
- 86 *Gero*: Etxeko liburua
- 87 Gure erbesteko berriak eta euskaldunberri idazleak
- 87 **Bi erraldoi: Oihenart eta Etxeberri**
- 87 A. Oihenart (1638)
- 89 **J. Etxeberri Sarakoa: Hizkuntzaren kontzientzia**
- 88 Euskara idatziaren premiak
- 89 *Latina ikasteko hatsapenak* (1712)
- 90 Hizkuntzaren defentsa-gogoeta
- 90 **XVIII. mendea: Berrikuntzak, krisiaren atarian**
- 91 **Hegoaldeko Literaturaren jaiotza**
- 91 Aita Manuel Larramendi (1690-1766)
- 93 Larramendiren obra batzuk
- 92 *El Imposible vencido. Diccionario Trilingüe*
- 93 **Hizkuntzari, zor zaion Literatura**
- 93 Euskara, gizarte-ospakizunetan
- 94 Elizgizonak euskalgintzan
- 94 **Kardaberaz eta euskara**
- 95 Hizkuntz ideologia erlijiosoa
- 95 Kulturgoneak
- 96 **Euskara, eskolara**
- 96 Euskal eskolaren alde (1761)
- 97 **Peñaflorida eta "Zalduntxoak"**
- 97 Zientzia positiboak. Zalduntxoan lanak
- 97 **Modernotasunaren premia berriak**
- 98 Jakitunen hizkuntza
- 98 Terminologiaren premia sentitua
- 99 **Politikaren hizkuntz eragozpenak.**
- 99 Isilpeko eta ageriko zapalkuntzak
- 100 Aranda-ren debeku politikoa (1766)
- 100 Zentsura eta ekonomia (1805-1858)
- 100 **Euskal idazleak eta liburuak**
- 101 Euskal liburuen edizioak (1545-1789)
- 101 *Euskara, Araban*
- 102 **Euskara mintzatua, idatziaren eta batasunaren arazoak.**

VI.

- 105 **EUSKARA, ARO GARAIKIDEAN (1789-1936)**
- 106 **Euskara, Aroan zehar**
- 106 Gerrako irakurleak
- 106 Romanones-en zalantzak
- 107 *Argia*-ren irakurleak
- 108 **Krisi modernoan olatualdian**
- 108 **Hizkuntzen trataera politikoak (1789-1876)**
- 108 Napoleon III.a (1870)
- 108 Bizkaiko Diputazio berria (1897)
- 109 Frantzia, frantsesa ote?
- 110 Esaldiak: Iztueta, Grégoire, Barrère
- 111 **Erakundeetan eta erakundeetatik (1789-1876)**
- 110 Iraultzaren elebitasuna
- 111 Ahetze (Lapurdi)
- 111 Euskararen aldeko Batzordea (1830)
- 113 **Krisi sozio-politikoan (1789-1936)**
- 112 Agintearen bila
- 112 Langileria etorkina
- 113 Euskal burgesia handia
- 113 Parlamentariak (1931)
- 115 **Pizkundeurreko euskaltzetasuna (1853-1876)**
- 114 J.M. Iparragirre (1820-1881)
- 114 Euskara kantatzen (Iparragirre)
- 115 Abadia jauregia (Hendaia)
- 116 Euskalkien mapa (Bonaparte)
- 118 **Eusko Pizkundearen gizartea (1876-1936)**
- 118 **Eusko Pizkundera**
- 118 Arturo Kanpion (1854-1937)
- 118 J. Iturralde eta Suit (1840-1909)
- 119 Manterola (1849-1884), Broussain (1859-1921)
- 119 Sabin Arana Goiri (1865-1903)
- 120 **Hizkuntz abertzetasuna**
- 120 *Gramática* (1884) eta literatura (1897)
- 121 *Euskal-Esnalea* (1907-1908)
- 121 Euskara, hizkuntza nazionala
- 122 **Iraultza demografikoa**
- 122 Biztanleriaren sektORIZAZIOA
- 123 Erbestearen erakarmena
- 124 **Euskal hiztunen estatistikak (1866-1868)**
- 124 Victor Hugo, euskaldunen artean (1843)
- 124 Euskaldungoa (1866-1868)
- 125 Hegoaldeko euskaldungoaren bilakaera (1863-1936)
- 125 **Pizkundeko lehen ekinaldian**
- 125 *Revista Euskara* (1877). *Euskal-Erria* (1880)
- 126 *Eskualduna* (1887)
- 126 *Euskalzale* (1897)
- 126 Euskarari kantari (Arrese Beitia, 1879)
- 126 **Hizkuntza zabaldu eta ikertzen**
- 127 Elizondoko Jaiak
- 127 J. Hiriart-Urruty (1859-1915)
- 127 Durangoko Lore-Jokoak (1886)
- 128 *Euskara* (1886-1896)
- 128 Julio Urkixo (1871-1950)
- 128 **Jakitunak eta hizkuntzaren etorkizuna**
- 129 W.J. Van Eys (1825-1914)
- 129 H. Schuchardt (1842-1927)
- 129 R.M. Azkue (1864-1951)
- 130 Hondarribia (1902)
- 130 **Hizkuntz politikaren inguruan (1876-1936)**
- 130 **Erakundeen barruan**
- 131 Bizkaiko Batzarreetan
- 131 Nafarroa euskararen alde (1896)
- 132 Euskara, Udaletan
- 132 **Hizkuntz erakundeen bila: Euskaltzaindia**
- 133 Akademia baten eskea
- 133 Akademia, Diputazioek sortua (1918-1919)
- 134 Akademiaren Arautegia
- 134 **Eliza eta eliztarrak**
- 135 Elizetarako Estatu-debekuak (1902)
- 136 José Cadena y Eleta
- 136 Eliza eta euskara
- 137 Gasteizko Seminarioa (1935)
- 137 Aita Damaso Intzakoa (1886-1986)
- 137 **Euskara, eskoletara?**
- 138 Euskara eskoletan: testuak
- 138 Donostiako ikastolak (1914)
- 139 Nafarroako lehen ikastola (1933)
- 139 Eduardo Landeta (1862-1957)
- 140 Ikasliburuak
- 140 **Soldadutza eta euskara**
- 140 Soldadutzakoak, bertsotan
- 141 Gaztelara beharko
- 141 Marokora ez zuen nahi jendeak (1920)
- 142 Soldadutzatik ihesi
- 142 *Kuba-ra!*
- 142 **Literatura, hizkuntza edertzen**
- 142 Txomin Agirre (1864-1920)
- 143 Poetak
- 144 Literatur maisugoa
- 143 *Genio y Lengua*
- 144 **Hizkuntzaren eske politikoak**
- 144 Hizkuntza nazionala
- 144 Euskaltzaleen elkartzea
- 145 Hizkuntzen eztabaida politikoa

VII.

- 147 **BERROGÉITAMAR URTE (1937-1987)**
- 148 **Urte latz eta emankorrak**
- 148 Gerraurreko euskaltzaleak
- 149 Euskaltzaindiaren Batzarrea (1956)
- 149 "Bai Euskarari"
- 150 **Gerraondoko urte luzeak (1937-1960)**
- 150 **Barneko zapalkuntza**
- 150 Euskaltzaleak preso eta hil
- 150 Burgos-en preso
- 151 O.P.E. (1947)
- 151 Kristau-ikasbidea/Cristau-Dotriña
- 152 **Erbestealdia**
- 152 Aldizkari politikoak
- 152 *Gernika* (1945)
- 154 Buenos Aires-tik (1950)
- 153 Gernika/New York (1949-1950)
- 154 Itzulpenak
- 154 **Euzko-gogoa (1950-1960)**
- 154 *Euzko-Gogoa* (Guatemala, 1950-1955)
- 155 Publizitatea
- 155 *Aintzina*
- 155 *Ekin* (Buenos Aires, 1940)
- 155 Saiakera
- 156 **Hizkuntz erresistentzia politikoa**
- 156 Eusko Kontseilu Nazionala (1941)
- 156 Egoeraren salakizunak (1952)
- 157 Itsasu (1963)
- 157 Jaurilaritza (1937-1960)
- 157 Testu politikoak
- 158 **Euskaldungoaren sormena (1937-1987)**
- 158 Gaztelania etxean denean
- 158 Ez da hautsi katea
- 159 *Uhin Berri* (1969)
- 159 Zientzi hizkera
- 159 Euskaldungoa (1981-1986)
- 160 **Euskara irakasmunduan**
- 160 Elbira Zipitria (1906-1982)
- 160 Iparraldeko Ikastola
- 161 Ikastolaren eraikuntza
- 161 Euskal testugintza
- 162 Irakaskuntz sistemaren banaketa (1985-1986)
- 163 Ikastolak (1960-1986)
- 164 Eskoletako hizkuntz ereduak
- 165 Unibertsitatea (1987)
- 166 **Euskara komunikabideetan**
- 166 Euskarazko Prentsa
- 167 Eragozpen administratiboak
- 168 Astekari berriak
- 168 **Idazlegoa eta argitalpenak**
- 169 *Egan* (1948. 1954)
- 169 *Gure Izarra* (1950). *Jakin* (1956)
- 170 P. Untzurruntzaga. S. Onaindia
- 171 Seminarioetako idazlegoa (1950-1976)
- 171 Liburugintzaren goraldia (1937-1987)
- 172 **Euskarazko aldizkariak**
- 172 Literatur aldizkariak
- 172 *Oleri* (1959)
- 173 Aldizkari berezituak
- 173 *Larrun* (1985)
- 173 *Albistaria* (1985)
- 173 *Plazara* (1985)
- 174 **Euskara Batua (1918-1988)**
- 174 Batuaren asmoa (1913-1922)
- 174 Baionako Bilera (1964). Ermua (1968)
- 175 Arantzazu (1968)
- 175 Euskalkietatik baturantz
- 176 Aditz batua (1973)
- 176 Euskalkiak eta Batua
- 177 Deklinabide batua
- 177 Aditzaren jokabidea
- 176 **Alfabetatze-Euskalduntzeak (1966-1988)**
- 177 Euskaltzaindiaren babesean (1968)
- 178 R. Arregi (1942-1969)
- 178 Alfabetatze-Euskalduntze Koordinakundea
- 179 Euskaltegiak
- 179 Baliabide idatziak
- 179 HABE (1981)
- 180 **Euskal Literatura (1937-1987)**
- 180 Euskal poesia
- 180 *Euskal Oleri* (1969)
- 181 Euskal narratiba
- 181 Ikerlan kritikoak
- 182 Antzertia
- 182 Saio-prosa
- 183 Idazlego elkartua
- 183 Hizkuntzaren poemak
- 184 **Hizkuntza, ikus-entzukizun**
- 184 Antzerti-ikusizunak
- 184 Diskografia
- 185 B. Lertxundi
- 185 Marrazki euskaldunak
- 186 Zinema euskalduna
- 186 Telebista euskalduna
- 187 Publizitatea euskaraz
- 188 **Euskalaritza (1937-1987)**
- 188 Euskaltzaindia
- 188 Villasante Kortabitarte
- 189 Koldo Mitxelena
- 189 Unibertsitatea
- 190 *Fontes Linguae Vasconum* (1969)
- 190 Geroa prestatzen
- 191 **Euskal Herria, euskaldungoa eta Erakundeak**
- 192 **Euskaldungoa, hizkuntzaren alde**
- 191 Ikastolen alde
- 192 *Herri Urrats*
- 193 *Bai Euskarari* (1978)
- 193 *Korrika* (1980)
- 194 **Hizkuntzaren ofizialtasuna**
- 194 Konstituzio Espainola (1978)
- 195 Legebiltzarra (1982)
- 195 Nafarroako Parlamentua (1986)
- 196 Legeria
- 196 Hiritarren hizkuntz eskubideak. (Testuak)
- 197 Hizkuntza Politikarako Idazkaritza Nagusia (1983)
- 197 Ofizialtasunaren legeztapenak
- 198 Irakaslegoa euskalduntzen (1976-1988)
- 198 Funtzionarien hizkuntz prestakuntza
- 199 **Hizkuntzaren erakunde sozialak**
- 199 Informazioa eta koordinakundea
- 199 Argitalpen-banatazaileak
- 200 Durangoko Azoka
- 201 Erakunde sozial pribatuak

Liburu honetan bildu diren albiste historiko-sozialak iturri eta liburu-mota oso ezberdin eta sakabana-tuetatik datoz. Ezin dira hemen denak aipa, eta aipu guzti horiek ere lekuz kanpo egongo lirakeke honelako liburu batean. Hala ere, obra honen irakurle eta erabiltzailearentzat ongi etorriko da ohar bibliografikoren bat edo beste eskaintzea.

Hasteko, ekar dezagun hona, itxura guztiz gutxitxo erabili izan den obra bat, Euskaltzaindiak sustatu eta babestua eta Siadeco-ren ardurapean autore askok burutua (denen izenak M. Ugalde-ren sarreran daude): **Euskararen Liburu Zuria**. Bilbo: Euskaltzaindia, 1977. Liburu hau harrobi aberatsa da normahirentzat ere.

Hizkuntzari buruz obra bakar batean aurki litezkeen lan ezberdin eta laburtuenak ondoko liburu honetan ditu irakurleak: INTXAUSTI, J. (ed.) (1985): **Euskal Herria: I. Historia eta gizartea. II. Errealitate eta Egi-tasmo**. Donostia/Arrasate: Jakin/Lan Kide Aurrezkia. Ikus bertan lan hauek:

- X. Kintana-ren "Euskararen historia" (I, 452-456).
- M. eta J.M. Lekuona-ren "Ahozko Literatura" (I, 457-468).
- X. Amuriza-ren "Bertsolaritza" (I, 469).
- J. Haritxelhar eta Torrealdai/Azurmendiren "Euskal Literatura" (I, 473-489).
- J.M. Lasagabaster eta K. Otegi-ren gerraondoko euskal literaturari buruzko lanak (II, 427-433; II, 434-448).
- J. Intxausti-ren "Hizkuntzaren kontzientzia eta es-kea" (II, 361-386).
- P. Villar-en "Historia, Nación y Nacionalismo" (II, 528-540).
- M.J. Azurmendi-ren "Proceso de normalización del euskara" eta X. Mengiguren-en "Hizkuntz, normalizazioa eta euskara" (II, 387-391; II, 413-426).
- P. Iztueta-ren "Euskararen adierazpen soziala ge-rraondoan (1937-1984).

Azpimarratzekoa da eskola-lanetarako eskemak ere badituela liburu honek aurkibide analitikoetan: ikus "Euskera" (II, 577), "Lengua vasca" (II, 583) eta "Literatura" (II, 584) izenburuen pean.

Eta berean, frantsesez dagoen beste obra honek ere laburbilpen erosoak ditu: HARITSCHELHAR, J. (ed.) (1983): **Etre Basque**. Toulouse: Privat. Ikus lan hauek: – L. Michelena-ren "La langue basque" (225-265). – J. Haritschelhar-en "La création littéraire orale et écrite" (267-309).

Euskararen aurkezpen orokorrak gogoan hartze-koak dira, atariko lehen argibideak eskura ematen bait dizkigute. Honela, K. Mitxelena-ren **La lengua vasca** (San Sebastián: Amigos del País, 1950), R. Lafon-en **La langue basque** (Bayonne: Bull. du Musée Basque 1973). Ikuspegi mugatuago batetik eginga izan arren, sintesirik eguneratuena eta puntuz puntu bibliografiaz hornituena beste hau da: ECHENIQUE ELIZONDO, M.T. (1987): **Historia lingüística vasco-románica** (Madrid, Paraninfo). Liburu honi eman nahi izan diogun arrasto beretik hainbat albiste idoroko du irakurleak Etxenike-renean. Ere mu honetakoa osatuz, eman ditzagun, he-mentxe, K. MITXELENA-ren lanen bilduma argitara-berriak: **Lengua e historia** (Madrid: Paraninfo, 1985), **Palabras y textos** (Bilbo: EHU, 1987) eta **Sobre historia de la lengua vasca** (Donostia: ASJU/Anejos, 1988. 2 lib.). Hiruretan maisu-lanak biltzen dira, jakite jasoa-goetara igo nahi duenarentzat.

Hizkuntzaren Historiaurreaz eta Antzinateaz, K. Mitxelena-ren **Sobre el pasado de la lengua vasca** (Donostia: Auñamendi, 1964) da oraindik lanik erabilgarriena, eta aintzakotzat hartzekoa A. Tovar-en **El eus-kerá y sus parientes** ere (Madrid: Minotauro, 1959). Iragan horren alde mugatuago bat. J. Gorrotxategi-k egu-neratu du: **Onomástica indígena de Aquitania** (Bilbo: EHU, 1984). Txertoak argitara emandako J. Caro Baro-jaren liburuak osagarri erosoak izan litezke, edizio za-harragoen bila joan nahi ez bada behintzat.

Herrialdez herrialde zerbait nahi duenak, J. Bta. Merino Urrutia ezin du ahantzi Errioxa eta Burgos-erako: **La lengua vasca en la Rioja y Burgos** (Logroño: Diputación Provincial, 1978), ezta A. Irigarai (=A. Apat-Echebarne) ere Nafarroarako: **Una geografía diacrónica del Euskara en Navarra** (Pamplona: Ed. y Libros, 1974).

Euskal Literaturari buruzko sintesietan lau obra az-pimarratuko ditugu hemen, aipatu gabe utziko ditugu-nak batere gutxietsi gabe: L. Mitxelena-ren **Historia de la Literatura Vasca** (Donostia: Erein, 1988, 2. edizioa), bere laburrean, historia kritikorik onena dugulako; L. Vi-llasante-ren **Historia de la Literatura Vasca** (Arantzazu: Ed. Franciscana Arantzazu), xehetasunetan Historiarik trinko-bilduena delako; S. Onaindia-ren **Euskal Litera-tura**, euskaraz egonik, sakabanatuta zeuden kritikarien lanak modu eroso batean jaso dituelako; eta Auñamendi-ren **Historia handia**, dituen ekarri antologikoengatik. Egungo Literaturaren alde sozialari begira, inte-resgarria da beti ere J.M. Torrealdai-ren **Euskal Idaz-leak, gaur** (Donostia: Jakin, 1976). Bertsolaritzari bu-ruz, besteak beste J. Dorronsoro-ren obra ezagutu be-har da, dituen balio didaktiko eta antologikoengatik: **Bertsotan** (Donostia: GIE, 1981-1987). Historia nahiz bertso-teknikak areago ezagutu nahi dituenak M. Le-kuona, A. Zabala, S. Onaindia, X. Amuriza eta abarren lanak bilatu beharko ditu.

Geure egunetara etorri, euskararen gaur egu-neko egoera ezagutzeko bibliografia ugaria du intere-satuak, hainbat alde ezberdin aztertzeke baldin ba-dago ere. Eusko Jauriaritzaren, Nafarroako Gobernu-aren, Siadeco nahiz Jakin aldizkariarenak edo talde eus-kaltzaleek egindako ikaslanak eta eskainetako estatis-tikak gure jakintza soziolinguistikoa elkar-osatuz eta eguneratuz doaz.

Etorkizunean ezingo dira baztertu, gainera, Hiz-kuntza Politikarako Idazkaritza Nagusitik, Euskararen Aholku Batzordetik, Euskaltzainditik (bere argitalpen-sail ezberdinetan), Elkarte euskaltzaleetatik edo aldiz-kari euskalarietatik zabal litezkeen informazioak. Lan teoriko eta aplikatuek hobetzen ari dira gure artean, Erakundeetan bezala talde sozial eta banakako iker-tzaileetan ere (Unibertsitatean, kultur taldeetan). Hori dena ezin da hemen laburtu, baina euskal liburudenda on batean asko ikus eta topa liteke, orrialde hauetan irakurritakoa osatzeko.

BANAKAKO LANKIDETZA BEREZIAK

Liburua amaitzean, irudi-bilaketan lagundu diguten guztiei, eskerrak. Beren laguntza bereziengatik, ondorengo laguntzaile hauek aipatzeari bidezkoa deritzagu:

Agirre, Juan Jose (A. Beneditarrak, Lazkao). Arana Martija, J.A. (Euskaltzaindia). Ariztondo, Salvador (Bizkaiko Foru Aldundia). Bökenförde, Maite (Köln). Bilbao, Karmen (Liburutegi Probintziala. Donostia). Doménech, Begoña (Bizkaiko Foru Aldundia). Foronda, Enrique (Lan Kide Aurrezkiea). Handalian, Hélène (Parise). Thierry, Nicole (Parise) Zabala, Aingeru (Bizkaiko Foru Aldundia). Zubizarreta, Kandido (Frantziskotarrak, Arantzazu).

ERAKUNDE ETA TALDEEN LANKIDETZAK

Euskal Herriko eta erbesteko zenbait erakunderen lankidetzarik gabe ezinezkoa gertatuko zitzaigun argitalpen hau burutzea.

Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila. Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Turismo Saila. Nafarroako Gobernuak Hezkuntza eta Kultura Saila. Bizkaiko Foru Aldundiko Kultura Saila. Gipuzkoako Foru Aldundiko Kultura, Hezkuntza, Kirol eta Turismo Saila. Baionako Euskal Museoa. A. Beneditarren Liburutegia (Lazkao). Euskaltzaindiaren Azkue Biblioteka (Bilbo). Frantziskotarren Liburutegi eta Artxiboak (Arantzazu, Arrasate, Zarautz). Jakin aldizkaria.

IRUDI-HORNITZAILEAK

Ondoko erakunde eta lankide hauengandik jaso ditugu irudi apaingarriak.

Ahetze (Lapurdi): Herriko Etxea. Anuario del Seminario Julio Urquijo (ASJU). Arabako Foru Aldundia. Arrazola, Mikel (Eusko Jaurlaritzak). Arrien, Gregorio. Auñamendi Argitaletxea. Azurmendi, Joxe. Baionako Museoa. Barandiaran Irizar, L.; Basurto, R.; Beltran, Miguel. A. Beneditarrak (Lazkao). Biblioteca Nacional (Madril). Bibliothèque Nationale (Parise). Bilbao, J. Bizkaiko Foru Aldundia. Camba, Kike. Congreso de los Diputados (Madril). Donostiako Aurrezki Kutxa Munizipala. Egin. ETB. Euskal Idazleen Elkarte. Euskaltzaindia. Eusko Ikaskuntza. FOAT, S.A. Frantziskotarrak: Arantzazuko Liburutegia, Artxibo Probintziala, Zarauzko Liburutegia. Gasteizko Gotzaindegia. Gerediaga Elkarte. Gipuzkoako Foru Aldundia. HABE. Herri Irratia (Donostia). Ibaifoto (Baiona). Intxausti, Joseba. Irazabalbeitia, Miguel Angel. Iruñeko Katedraleko Artxiboa. Jaizkibel. Jakin. J.J.K. (Arrasate). Kamino, Juan Mari. Labayru Ikastetxea. Lafitte, P.; Lan Kide Aurrezkiea. Landeta, Sendia. Larraza, Juan Luis. Lertxundi, Benito. Lizardiren Sendia. Lizaso, Felipe. Nafarroako Gobernuak: Príncipe de Viana, Nafarroako Artxibo Nagusia, Nafarroako Museoa. Nafarroako Unibertsitatea. Sabino Arana Kultur Elkargoa. SEIE. Tolosako Museoa. Ttanttaka. Urionabarrenetxea, Joseba. Xalbador Ikastegia.

IRUDIEN ITURRI ARGITARATUAK ETA HAIEN TRATAERA GRAFIKO BEREZIAK

I. HIZKUNTZARI OMEN ETA KANTA
15. or. *Linguae Vasconum Primitiae*: azal koloreztatua./ 23. or. Rustaveli-ren obraren lehen edizio inprimatua (1712): G. Charachidze Irakasleak utzita.
II. ATARIKO LEHEN AURKEZPENAK
26. or. "Leloren kanta": agiri-argazki koloreztatua./ 27. or. Europako hizkuntzak: *Encyclopaedia Britannica* eta Ciemen-en maparen (Barcelona) arabera berregina./ 29. or. Euskararen hizkuntz areak: Siadeco (Donostia)./ 30. or. Nafarroako hizkuntz areak (1986): Nafarroako Gobernuarenetik berregina./ 32. or. "Euskara, historian zehar (mapa)" Auñamendi-ren entziklopediatik (B. Estornes Lasa) berregina./ 37. or. Munduko biztanleria, hizkuntz familien eta hizkuntzen arabera (1975): R. Breton-en arabera berregina./ 38. or. Berrezitasun fonologikoak: UZEI (1982) *Hizkuntzalaritza Hiztegia*. Donostia: UZEI. S.V. "Fonetika/Fonologia". (J.R. Zubiaur/Malmberg). Eta TXILLARDEGI (1980): *Euskal fonologia*. Donostia EV Argitaletxea. 137. or./ 39. or. Euskara/Gaztelania/ Frantsesaren baliabide fonologikoak: J.A. Aduriz.

III. HISTORIAURRETIK ERROMAREN ERORIKOA ARTE
45. or. Euskal Herriko etniak eta hizkuntzak: AGIRREAZKUENAGA eta abarren *Historia de Euskal Herriatik* berregina./ 46. or. Pirinioetako euskara, Antzinatean: *Historia de Euskal Herria* beretik egokitua eta berregina./ 50. or. Lapurdum (Baiona): LAUBURUren (1979) *Histoire et Civilisation Basques* liburutik egokitua eta berregina. (I, 54. or.)/ 51. or. LAUBURUren liburutik berregina (I, 58. or.).

IV. EUSKARA, ERDI AROAN
54. or. Euskal Herria, beregaina. *The Times Atlas of World History*-ren arabera berregina./ 55. or. Euskal Herriko Santiago-Bideak: *Euskal Herriko Atlas*-ren arabera (Donostia: Erein) berregina./ 59. or. Glosa Donemiliagarrak: testu berridatzaia./ 59. or. Euskararen aldeko epaia (c. 1239): testu berridatzaia./ 61. or. Euskal toponimia Errioxa-n eta Burgos-en (mapa): MERINO URRUTIA-renetik zuzendua eta berregina: (1978) *La lengua vasca en la Rioja y Burgos*. Logroño: Diputación Provincial. 6/7. or./ 65. or. Milia Lasturkoren eresia: GUERRA, J.C. (1924): *Los cantares antiguos del euskera*. Donostia.

V. EUSKARA, ARO MODERNOAN
70. or. Etxepare-ren "Sautrela": argazki koloreztatua./ 71. or. Frantzisko Iaren Ordenentzak: Testu itzuli eta berridatzaia./ 73. or. Etxepare-ren "Kontrapasa": argazki koloreztatua./ 74. or. Leizarraga-ren *Testamentu Berria*: argazki koloreztatua./ 78. or. Ternua (mapa): BELANGER, R. (1971): *Les Basques dans l'estuaire du Saint-Laurent* (Presses Univ. de Québec) liburuen arabera berregina (42-43. or.)/ 84. or. Donibane-Lohizune: ALTUBE, F. (1984): *De Biarritz a San Sebastián*-etik jasoa (Donostia: GAK)./ 99. or. Isilpeko eta ageriko zapalkuntzak: FERRER i GIRONES, F. (1985): *La persecució política de la llengua catalana* (Barcelona: Ediciones 62) liburutik jasoa./ 101. or. "Euskara, Araban" Odon Apraiz-en arabera berregina (1976).

VI. EUSKARA, ARO GARAIKIDEAN
106. or. Gerrako irakurlegoa: SOLDEVILA, F. (1973): *Historia de España*-tik (Barcelona: Ed. Ariel) jasoa (VIII, 167. or.)/ 106. or. Romanones-en zalantzak: Testu berridatzaia./ 109. or. Frantzia, frantsesa ote? Iturria: CERTEAU, M. de, et alii (1975): *Une politique de la langue*-tik (Paris: Gallimard) berregina (271. or.)/ 110. or. Testu itzuli berridatzaia./ 118. or. Arturo Kanpion: argazki egokitua./ 119. or. Sabin Arana Goiri: argazki egokitua./ 128. or. *Euskara*: argazki koloreztatua./ 141. or. "Gaztelara beharko": testu berridatzaia.